Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

2027ko AURREKONTU OROKORREN TXOSTENAK

PRESUPUESTOS GENERALES 2027 INFORMES

Aurkibidea
Indice

Or. / Pág.

Generoaren Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa
Evaluación Previa de Impacto de Género 3

Aurrekontua Gazteriaren Ikuspegitik
El Presupuesto desde la perspectiva de Juventud 278

Aurrekontuen Egonkortasuna eta Iraunkortasun Finantzarioaren txostena
Informe de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera 304

2027eko zerga gastuen aurrekontua
Presupuesto de Gastos Fiscales 2027 351

2027eko Erakundeen konpromisoak
Compromisos Institucionales 2027 414

Ekonomi txostena
Informe Económico 448

GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
INFORME EVALUACIÓN PREVIA IMPACTO DE GÉNERO

GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO

A) BIZKAIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA. 2026.

I. AURKEZPENA

Txosten honen xedea da Bizkaiko emakumeen eta gizonen 2026ko egoeraren eta posizioaren[1] berri ematea. 2027ko aurrekontuen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioaren txostenarekin batera doa, eta aurrekontu-plangintzarako informazio garrantzitsua ematen du.

Jarraian, txosten honen funtsezko elementuak laburbiltzen dira, Bizkaiko Lurralde Historikoko (BLH) aurrekontu orokorren genero-eraginaren aldez aurreko ebaluazio-prozesuaren testuinguruan kokatuta.

Testuingurua

Txostenak funtsezko lekua du BLHren aurrekontu orokorren genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko prozesuan. Izan ere, prozesu honen hasierako fasearen emaitza da, aurrekontu-programak aplikatzeko testuinguruan emakumeen eta gizonen egoera aztertzera bideratua, desberdintasunak identifikatuz gero, aurrekontu publikoetan egoera haiei aurre egiteko jarduerak (eta baliabideak) aurreikusten direla bermatzeko abiapuntua.

A) INFORME SOBRE LA SITUACIÓN DE MUJERES Y HOMBRES DE BIZKAIA. 2026.

I. PRESENTACIÓN

Este Informe tiene por objeto dar cuenta de la situación y posición[1] de mujeres y hombres de Bizkaia en el año 2026. Acompaña al Informe de evaluación previa de impacto de género de los presupuestos 2027, aportando la información relevante para la planificación presupuestaria.

A continuación, se sintetizan los elementos clave de este Informe, contextualizándolo en el proceso de evaluación previa de impacto de género de los presupuestos generales del Territorio Histórico de Bizkaia (THB).

Contexto

El Informe ocupa un lugar clave en el proceso de evaluación previa del impacto de género de los presupuestos generales del THB. De hecho, es el producto de la fase inicial de este proceso, orientada al análisis de la situación de mujeres y hombres en el contexto de aplicación de los programas presupuestarios, punto de partida para asegurar que, en caso de que se identifiquen desigualdades, los presupuestos públicos prevean actuaciones (y recursos) para hacerles frente.

1 Genero-analisiak funtsezko bi kontzeptu erabiltzen ditu gizartean emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen berri emateko: egoera, azterketaren lehen urrats bati dagokiona, iturri ofizialetatik ateratako adierazle kuantitatiboen multzo batetik abiatuta, emakumeen eta gizonen bizitzaren alderdi desberdinak deskribatzera bideratua (osasuna, enplegua, parte-hartzea, etab.); posizio terminoak harago joateko aukera ematen du, arakatuz gizarte-hierarkiaren zein lekutan (botereari, aginteari edo aitorpenari dagokionez) kokatzen dituen egoera horrek emakumeak gizonekiko. Errealitatean kontzeptu bat eta bestea elkarri lotuta badaude ere, bereizketa analitikoak aukera ematen du maila enpiriko-deskriptiboenetik erlazionalera pasatzeko, eta horrela ikusarazi egiten da gizarte-egiturek eta -dinamikek emakumeen eta gizonen egoerak modu desberdinean hierarkizatzen dituztela.

El análisis de género utiliza dos conceptos clave para dar cuenta de las desigualdades entre mujeres y hombres en la sociedad: la situación, que se refiere a un primer paso del análisis, orientado a describir, generalmente a partir de un conjunto de indicadores cuantitativos extraídos de fuentes oficiales, diferentes aspectos de la vida de las mujeres y los hombres (salud, empleo, participación, etc.); el término posición permite ir más allá, indagando en el lugar de la jerarquía social (respecto al poder, autoridad o reconocimiento) en la que esa situación coloca a las mujeres con respecto a los hombres. Aunque en la realidad un concepto y otro se dan entrelazados, la distinción analítica permite pasar del nivel más empírico-descriptivo, al relacional, visibilizando cómo las estructuras y dinámicas sociales jerarquizan la situación de mujeres y hombres de manera desigual.

Gainera, txosten honetan Foru Aldundian abian jarritako genero-zeharkakotasunaren estrategiaren bi prozesu nagusi biltzen dira:

- Alde batetik, funtsezko elementua da Foru Aldundiaren aurrekontuetan genero-berdintasuna txertatzeari buruzko arau-aginduak betetzeko (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 26. artikulua). Horrela, Bizkaian emakumeen eta gizonen artean desberdintasunik dagoen, non eta zergatik dagoen erakusten duen argazki orokor bat ematen duen heinean, abiapuntu bat ere eskaintzen du aurrekontu-programetan genero-berdintasuna txertatu behar den, non eta zergatik txertatu behar den erabakitzeko.

- Bestalde, Foru Aldundian hasitako prozesu orokor batean sartzen da, informazioa kudeatzeko sistemetan genero-ikuspegia modu homogeneoan txertatzera bideratua, aipatutako 4/2018 Foru Arauaren 5.d eta 24. artikuluak betez eta Aldundiak horri buruz hartutako prozedurarekin bat etorriz[2].

Además, en este Informe confluyen dos procesos centrales de la estrategia de transversalidad de género puesta en marcha en la Diputación Foral:

- Por un lado, es un elemento clave para dar cumplimiento a los mandatos normativos (art.26 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres) respecto a la integración de la igualdad de género en los presupuestos de la Diputación. Así, en la medida en que aporta una fotografía general de dónde y por qué hay desigualdades entre mujeres y hombres en Bizkaia, ofrece también un punto de partida para decidir dónde y por qué hay que incorporar la igualdad de género en los programas presupuestarios.

- Por otro lado, se inscribe además en un proceso general emprendido en la Diputación Foral destinado a integrar el enfoque de género en sus sistemas de gestión de la información de manera homogénea, dando cumplimiento al (artículos 5.d. y 24 de la mencionada Norma Foral 4/2018) y de acuerdo con el procedimiento adoptado por la Diputación al respecto[2].

Lantzeko metodologia

Txostena egiteko, informazioa bildu, aukeratu, tratatu eta aztertzeko prozedura bat jarraitu da, aurreko ekitaldian ezarritako ereduari jarraituz, eta honako hauek izan dira horren oinarriak:

- ESTATISTIKA-ITURRI OFIZIALEN (INE eta EUSTAT, batez ere) lehentasunezko erabilera. Horiek osatzeko, eta hori txosten honetako balio erantsietako bat da, Aldundiko hainbat Sailek emandako datuak erabili dira, eta horiei beste iturri batzuetan eskuragarri ez dagoen

Metodología de elaboración

Para su elaboración, se ha seguido un procedimiento de recogida, selección, tratamiento y análisis de la información, siguiendo el modelo establecido en el pasado ejercicio, que ha tenido como fundamentos:

- El uso preferente de FUENTES ESTADÍSTICAS OFICIALES (INE y EUSTAT, sobre todo). Esta se ha complementado, y es uno de los valores añadidos de este Informe, con datos aportados por diferentes Departamentos de la Diputación, a los que se ha solicitado la

2 Gida metodologikoan jasota dagoen bezala, nola kudeatu informazioa emakumeen eta gizonen berdintasunean laguntzeko.

Tal como queda recogido en la Guía metodológica cómo gestionar la información para contribuir a la igualdad de mujeres y hombres.

informazioa eskatu zaie[3]. Horregatik, esan daiteke txosten hau, neurri batean, genero-berdintasunerako informazio erabilgarria sortzeko erantzukidetasunaren emaitza izan dela. Bi kasuetan, eskura dagoen azken datua hartu da, betiere sexuaren arabera bereizita pertsonei dagokienez, eta Bizkaiko lurralde-eremu honi dagokionez.

- TRATAMENDUAri dagokionez, datu horiekin genero-adierazleak eraiki dira, Bizkaiko Foru Aldundiak hartutako prozeduraren jarraibideak errespetatuz. Lehenik eta behin, datu absolutuen gainetik adierazle erlatiboak erabiltzea hobesteari dagokionez. Horrela, oro har, eta kalkulatu ahal izan diren guztietan, kasuaren arabera, kontzentrazio- eta banaketa-indizeak (gehien erabiltzen direnak), genero-arrakala eta sexuaren araberako estaldura-tasa (zerbitzuak eta baliabideak eskuratzeari eta erabiltzeari buruzko informaziorako, oro har) ematen dira, emakumeen eta gizonen egoera eta posizioa alderatu ahal izateko. Era berean, desberdintasun-dimentsio guztiak estaltzen saiatu gara (presentzia, sarbidea eta erabilera, baliabideen ordezkaritza eta kontrola eta aintzatespena), kontuan hartutako eremu bakoitzerako. Bestalde, txosten hau genero-berdintasuna aurrekontu publikoetan txertatzeko etengabeko hobekuntzaren ereduan kokatzen da. Txosten honen ikuspuntutik, erabilitako adierazleen irismena eta garrantzia sendotzea dakar horrek, baina baita urtez urte zabaltzea ere. Eredu horrekin bat etorriz, adierazle berriak gehitu dira, genero-ikuspegitik aztertutako errealitaterako hurbilketa hobetzeko edo zabaltzeko aukera ematen dutenak.

información no disponible en otras fuentes [3]. Por ello, puede decirse que este Informe ha sido, en cierta medida, producto de la corresponsabilidad en la generación de información útil para la igualdad de género. En ambos casos, se ha tomado el último dato disponible, siempre desagregado por sexo cuando está referido a personas y relativo a este ámbito territorial de Bizkaia.

- Con respecto a su TRATAMIENTO, con estos datos se han construido los indicadores de género respetando las indicaciones del procedimiento adoptado por la Diputación Foral de Bizkaia. En primer lugar, con respecto a la preferencia en el uso de indicadores relativos sobre los datos absolutos. Así, generalmente y siempre que se han podido calcular, se aportan, según el caso, índices de concentración y distribución (los más utilizados), brecha de género y tasa de cobertura por sexo (para información sobre acceso y uso de servicios y recursos, generalmente), para posibilitar la comparación en la situación y posición de mujeres y hombres. Asimismo, se han tratado de cubrir todas las dimensiones de desigualdad (presencia, acceso y uso, representación y control de los recursos y reconocimiento) para cada uno de los ámbitos contemplados. Por otro lado, este Informe se inscribe en un modelo de mejora continua de la integración de la igualdad de género en los presupuestos públicos. Desde el punto de vista de este Informe, ello supone consolidar, pero también ampliar año a año, el alcance y la relevancia de los indicadores utilizados. En coherencia con este modelo, se incluyen nuevos indicadores que se ha considerado permiten mejorar o

3
Txosten honen helburuetako bat da, esku-hartzearen testuinguruaren argazki orokorra egiteaz gain, "informazio-hutsune" horiek erakustea eta estatistika-eragiketen hobekuntza eta foru-aurrekontuen genero-azterketarako eskuragarri dauden datuen kalitatea eta kantitatea sustatzea.

Uno de los propósitos de este Informe es, además de hacer la fotografía general de su contexto de intervención, mostrar estas “lagunas de información” e impulsar la mejora de las operaciones estadísticas y la calidad y cantidad de datos disponibles para el análisis de género de los presupuestos forales.

- ANALISIARI dagokionez, eta agian hori da txosten honen eta aurreko urtean egindako serie honetako lehenengo elementu garrantzitsuenetako eta bereizgarrienetako bat, genero-ikuspegia bildutako informazioa aztertzeko eredu gisa erabiltzea. Azterketa horren emaitzak islatzeak dokumentu honi hedadura handiagoa ematea eskatzen badu ere, ezinbestekotzat jo da, baliagarritasun handiagoa ematen dion neurrian. Horrenbestez, kontua ez da soilik emakumeen eta gizonen egoeran dauden desberdintasunak identifikatzea, baizik eta, batez ere, desberdintasun horiek gizarte-rol, balio eta estereotipo desberdinen arabera azaltzea, eta baliabideetarako sarbidean eta kontrolean, gizarte-posizioan eta emakumeen behar eta interesen aitorpenean dituzten ondorioei erreparatzea. Aztertutako datuak azaltzen dituzten desberdintasun-faktoreetara hurbilketa hori egitea da, halaber, identifikatutako genero-desberdintasunen arazoaren errora iristeko aurrekontu-programetatik landu behar diren gaiak adieraztea.

- Azkenik, txosten honen ERABILGARRITASUNA indartu egiten da, beste urrats bat emateaz gain –datuetatik azalpenera–, aplikatutako ikuspegiarengatik. Hortik, konparazioan eta korrespondentzian jartzen da arreta. Lehenengoa, Bizkaia testuinguruan kokatzeko aukerari buruzkoa da, denboran -aldi honetako eta aurreko aldiko (edo lehenagoko) datuen artean —nahiz lurralde ikuspegitik— Euskadirekin, Espainiako estatuarekin edo, kasua balitz, Europarekin alderatuta. Horrek ahalbidetzen du egungo panoramaren “argazki” estatikoa emateaz gain, joerak identifikatu eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean egindako aurrerapenak edo izan daitezkeen atzerapausoak hobeto ikustaraztea. Azken hori bereziki garrantzitsua da politika publikoa erreaktiboa izateaz gain, prospekzio-gaitasuna ere izan dezan. Ikuspuntu honetatik,

ampliar la aproximación desde el enfoque de género a la realidad analizada.

- En cuanto al ANÁLISIS, y este es quizá uno de los elementos más importantes y diferenciador de este Informe y del primero de esta serie, realizado en la pasada anualidad, el uso de la perspectiva de género como modelo de análisis de la información recabada. Si bien plasmar los resultados de este análisis implica dar mayor extensión a este documento, se ha creído imprescindible en la medida en que le aporta también mayor utilidad. Así, se trata no sólo de identificar diferencias en la situación de mujeres y hombres sino sobre todo explicarlas con base a los diferentes roles, valores y estereotipos sociales sobre unas y otros, y atender a las consecuencias que tienen sobre el acceso y control de los recursos, la posición social y el reconocimiento de las necesidades e intereses de las mujeres. Realizar esta aproximación a los factores de desigualdad que explican los datos analizados es también señalar los temas que se tienen que abordar desde los programas presupuestarios para llegar a la raíz del problema de las desigualdades de género identificadas.

- Finalmente, la UTILIDAD de este Informe se potencia, además de por dar un paso más -de los datos a su explicación- por su enfoque aplicado. Desde este, se pone el énfasis en la comparación y la correspondencia. El primero, remite a la posibilidad de situar a Bizkaia en contexto, tanto temporal —entre datos de este periodo y el anterior (o anteriores)— como territorial, con el País Vasco, el Estado español o Europa, en su caso-. Ello permite no sólo aportar una “fotografía” estática del panorama actual, sino también identificar tendencias y visibilizar mejor avances o posibles retrocesos en la igualdad entre mujeres y hombres. Esto último es especialmente relevante para que la política pública no sea solo reactiva, sino que tenga capacidad prospectiva. Desde este punto de vista, los datos incluidos en el Informe y su explicación pretenden anticipar tendencias y

txostenean eta haren azalpenean jasotako datuek joerak aurreikusi eta politika publikoko erabakietan lagundu nahi dute, aurkeztutako ebidentzietan oinarrituta. Daukan erabilgarritasun hori berresten da, halaber, identifikatutako desberdintasunen eta foru-politika publikoaren ardatz nagusien arteko korrespondentziaren printzipioan, erabilitako adierazleen matrizean islatzen den bezala[4]. Azkenik, eta informazio hori hurbiltze aldera, eta aurrekontu-programen genero-eragina ebaluatzeko aplikagarriagoa izan dadin, datuak grafikoekin eta, garrantzitsua denean, aurrekontu-plangintzarako antzemandako genero-desberdintasunek dituzten inplikazioen azalpen batekin eskainiko dira.


orientar decisiones de política pública con base en las evidencias que se aportan. Su utilidad se confirma también en el principio de correspondencia entre las desigualdades identificadas, y los principales ejes de la política pública foral, tal como se refleja en la matriz de indicadores utilizados [4]. Finalmente, y con objeto de acercar esta información y que sea más aplicable para la evaluación del impacto de género de los programas presupuestarios, se ilustra la exposición de los datos con gráficos y una explicación, cuando sea pertinente, de las implicaciones que tienen las desigualdades de género detectadas para la planificación presupuestaria.

Aurreko lerroetan ikus daitekeenez, iazko ekitaldian ezarritako kudeaketa eta informazioa aztertzeko eredu honek esan nahi du guztiz bat datozela txostenaren egitura-proposamena eta edukiak “Nola kudeatu datuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko” gidan definitutako prozesu metodologikoarekin. Ondorengo grafiko honetan, gida horretan proposatutako prozeduraren eta hemen jarraitutakoaren arteko paralelismoa erakusten da:

Como puede verse en las líneas precedentes este modelo de gestión y análisis de la información que, como se decía, quedó establecido en el pasado ejercicio, supone un total alineamiento de la propuesta de estructura y contenidos del Informe con el proceso metodológico definido en la Guía “Cómo gestionar los datos para contribuir a la igualdad de mujeres y hombres”. El gráfico siguiente ilustra el paralelismo entre el procedimiento propuesto en dicha Guía y el seguido aquí:

4 Matrize horrek erabilitako adierazleak erakusten ditu, kontuan hartutako eremuen arabera sailkatuta, bai eta BFAko Sailekiko parekotasuna ere, adierazleek neurtutako errealitateak inplikatu baitiezaieke.

Dicha matriz muestra los indicadores utilizados, clasificados según los ámbitos considerados, así como su correspondencia con los Departamentos de DFB a quienes pueden implicar la realidad medidas por ellos.



Oro har, irismen handiko informazioa biltzeko eta aztertzeko ahalegina da, eta, horren bidez, Foru Aldundiaren aurrekontu publikoak egiteko prozesuan txosten honen lekua sendotu eta bere erabilgarritasuna hobetu nahi da.

Txostenaren egitura

Aurkezpen honetaz gain, hamar kapituluk osatzen dute, eta aurreko urtean ezarritako egitura bera jarraitzen dute, esan bezala, alderatu eta joerak aurreikusi ahal izateko. Horietako bakoitza Bizkaiko emakumeen eta gizonen egoeraren ikuspegi sintetiko baina zehatza emateko giltzarritzat jo diren eremuetako bati buruzkoa da:

I. EGOERA SOZIODEMOGRAFIKOA: argazki orokor gisa, Bizkaiko emakumeen eta gizonen oinarrizko ezaugarri soziodemografikoen berri ematen du: adina eta bizi-itxaropena, jatorria, hezkuntza-mailak eta osasun-egoera.

En conjunto, se trata de un esfuerzo de recopilación y análisis de la información de amplio alcance, con el que se pretende consolidar el lugar y mejorar la utilidad de este Informe en el proceso de elaboración de los presupuestos públicos forales.

Estructura del Informe

Se compone de diez capítulos, además de esta presentación, siguiendo —a efectos, como se decía, de posibilitar comparaciones e identificar tendencias— la misma estructura que se estableció en la pasada anualidad. Cada uno de ellos se dedica a uno de los ámbitos que se han considerado claves para ofrecer un panorama sintético pero exhaustivo de la situación de mujeres y hombres en Bizkaia:

I. PANORAMA SOCIODEMOGRÁFICO: a modo de fotografía general, da cuenta de las características sociodemográficas básicas de la población, mujeres y hombres, de Bizkaia: edad y esperanza de vida, origen, niveles educativos y estado de salud.

II. EKOIZPEN LANA: jardueran eta enpleguan dauden genero-arrakala nagusiak aztertzen ditu.

III. AUTONOMIA EKONOMIKOA ETA BIZI-BALDINTZA MATERIALAK: baliabide ekonomikoen sexuaren araberako banaketan eta oinarrizko baldintza materialetan jartzen du arreta.

IV. GIZARTE ANTOLAKETA ERANTZUKIDEA: Bizkaiko egoerari heltzen dio, lan erreproduktiboaren banaketari eta gizarte-erantzukidetasunari dagokienez.

V. TEKNOLOGIA eta I+G+b: genero-arrakala digitalaren maila desberdinak identifikatzen ditu, sarbidetik eta erabileratik hasi eta I+G+b-ko jardueretan emakumeek eta gizonek duten kokapeneraino.

VI. AISIA, KULTURA ETA KIROLAK: kirol-jardueran eta kirol profesionalean, aisialdiko jardueretan eta jarduera artistiko eta kulturaletan dauden desberdintasunen berri ematen du.

VII. AZPIEGITURAK, TURISMOA ETA MUGIKORTASUNA: eremu horietako genero-ikuspegitik eskuragarri dauden adierazlerik garrantzitsuenak aztertzen ditu, emakumeek eremu horietan duten presentzia, posizioa eta aintzatespena kontuan hartuta.

VIII. NEKAZARITZA ETA INGURUNE NATURALA: genero-arrakalak identifikatzen ditu lehen sektorean.

IX. PARTAIDETZA ETA ORDEZKARITZA SOZIOPOLITIKOA: emakumeek gizartean eta foru eta toki politikan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren administrazio publikoan duten partaidetza eta ordezkaritza jorratzen ditu.

II. TRABAJO PRODUCTIVO: analiza las principales brechas de género en la actividad y el empleo.

III. AUTONOMÍA ECONÓMICA y CONDICIONES MATERIALES DE VIDA: pone el foco en la distribución por sexo de recursos económicos y las condiciones materiales básicas.

IV. ORGANIZACIÓN SOCIAL CORRESPONSABLE: aborda la situación de Bizkaia respecto al reparto del trabajo reproductivo y corresponsabilidad social

V. TECNOLOGÍA e I+D+i: identifica los diferentes niveles de la brecha digital de género, desde el acceso, uso, hasta posición de mujeres y hombres en las actividades de I+D+i.

VI. OCIO, CULTURA Y DEPORTES: da cuenta de las desigualdades en la práctica deportiva y deporte profesional, en actividades de ocio, artísticas y culturales.

VII. INFRAESTRUCTURAS, TURISMO Y MOVILIDAD: realiza un análisis de los indicadores disponibles más relevantes desde el enfoque de género de estos ámbitos, atendiendo a la presencia, posición y reconocimiento de las mujeres en estos ámbitos.

VIII. AGRICULTURA Y MEDIO NATURAL: identifica las brechas de género en el sector primario.

IX. PARTICIPACIÓN Y REPRESENTACIÓN SOCIOPOLÍTICA: aborda la participación y representación de las mujeres en la sociedad y política foral y local, así como en la administración pública de la Diputación Foral de Bizkaia.

X. INDARKERIA MATXISTA: txostena amaitzeko, genero-desberdintasunen adierazpen muturrekoena errepasatu da, eremu judizialean emakumeen aurkako indarkeriak duen eragina, baliabideak eta tratamendua kontuan hartuta.

Jarraian, genero-analisiaren emaitza nagusiak jasotzen dira eremu horietako bakoitzean, estrategikoak baitira genero-berdintasuna Aldundiaren aurrekontu-politikan integratzeko.

II. EGOERA SOZIODEMOGRAFIKOA

Kapitulu honetan aurrekontu-programak garatzen diren testuinguruaren ikuspegi orokorra aurkezten da, finantzatutako ekintzen hartzaileen oinarrizko ezaugarrietan arreta jarriz. Horretarako, adierazle demografiko nagusiak berrikusten dira, eta hezkuntzaren eta osasunaren eremuetan genero-desberdintasunak deskribatzea ahalbidetzen duten funtsezko aldagaien erreferentziak sartzen dira. Hezkuntzaren eremua estrategikoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko; izan ere, esparru horretan aurrerapen handiak izan dira, eta, aldi berean, haiek emakumeen bizitzako beste espazio batzuetan eraldaketak bultzatu dituzte. Osasunaren eremuak berriz, argi eta garbi islatzen ditu genero-desberdintasunen ondorioak, adierazle gehienetan emakumeek osasun-egoera okerragoa baitute.

Eskuragarri dauden azken errolda-datuen arabera (2025), Bizkaian 1.155.733 pertsona bizi dira, aurreko urtean baino ia 6 mila gehiago, eta emakumeak gehiengo txiki bat dira (% 51,8). Sexuaren araberako oreka orokorra aldatu egiten da adin-taldearen araberako banaketari erreparatuta: 0-19 urte bitarteko taldean gizonen gehiengo txiki bat dago (% 51,4, emakumeen %48,6arekin alderatuta), tarteko taldean (20-64 urte) emakumeen mesedetan aldatzen hasten da orekarantz, eta banaketa nahiko parekoa da (% 50,2 gizonak eta %49,8 emakumeak). 65 urtetik aurrera ordea, emakumeen proportzioa nabarmen handitu egiten da % 56,4 emakumeak eta %43,6 gizonak izanda, hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala.

X. VIOLENCIA MACHISTA: el Informe se cierra con un repaso a la expresión más extrema de las desigualdades de género, atendiendo a la incidencia, recursos y tratamiento de la violencia contra las mujeres en el ámbito judicial.


A continuación, se recogen los principales resultados del análisis de género en cada uno de estos ámbitos, estratégicos para la integración de la igualdad de género en la política presupuestaria de la Diputación.

II. PANORAMA SOCIODEMOGRÁFICO

En este capítulo se presenta una visión general del contexto en el que se desarrollan los programas presupuestarios, poniendo el foco en las características básicas de la población destinataria de las acciones financiadas. Para ello, se revisan los principales indicadores demográficos y se incluyen referencias a variables clave que permiten describir las diferencias de género en los ámbitos educativo y de la salud. El ámbito educativo resulta estratégico para avanzar en la igualdad entre mujeres y hombres, ya que en él se han registrado importantes progresos que, a su vez, han impulsado transformaciones en otros espacios de la vida de las mujeres. El de la salud, por su parte, refleja con claridad las consecuencias de las desigualdades de género, pues en la mayoría de los indicadores las mujeres presentan un estado de salud más desfavorable.

Según los últimos datos padronales disponibles (2025) viven en Bizkaia 1.155.733 personas, casi 6.000 más que el año precedente, y las mujeres representan una ligera mayoría (el 51,8%). El equilibrio general por sexo varía atendiendo a la distribución por grupo de edad. En el tramo de 0 a 19 años se observa una mayor presencia de hombres (51,4% frente a 48,6% de mujeres), pauta que tiende al equilibrio en las edades centrales (20 a 64 años), donde la distribución por sexo es prácticamente paritaria (50,2% hombres y 49,8% mujeres). Es a partir de los 65 años cuando se produce un claro predominio femenino, alcanzando las mujeres el 56,4% frente al 43,6% de los hombres tal como se muestra en el siguiente gráfico.

1. grafikoa. Biztanleria sexuaren eta adin-taldearen arabera (%, sexuaren arabera). Bizkaia, 2025.
Gráfico 1. Población por sexo y grupo de edad (% por sexo). Bizkaia, 2025.




Iturria/Fuente:EUSTAT

Emakumeen bizitza luzeagoa izateak azaltzen du emakumeen gehiengoa adin-eskalan aurrera egin ahala. Hurrengo grafikoak jaiotzean bizi-itxaropenak azken hamar urteetan izan duen bilakaera erakusten du.

La mayor longevidad de las mujeres es lo que explica su mayoría a medida que se avanza en la escala de edades. El siguiente gráfico representa la evolución de la esperanza de vida al nacer de unos y otras en los últimos diez años.

2. grafikoa. Jaiotzean bizi-itxaropenaren bilakaera sexuaren arabera. Bizkaia, 2014-2024.
Gráfico 2. Evolución de la esperanza de vida al nacimiento por sexo. Bizkaia, 2014-2024.



Iturria/Fuente:EUSTAT

Horrela, eta inguruko gizarteetan bezala, emakumeen bizi-itxaropena altuagoa da —ia 87 urtekoa emakumeentzat eta 81,7 urtekoa gizonentzat 2023/2024an. Datu horrek, 65 urtetik gorako emakume-kopurua gizonena baino handiagoa izateaz gain (lehen aipatua), adineko biztanleria oso feminizatuta egotea eragiten du. Honek baditu ondorio nabarmenak emakumeen zaintza-premian, bakardade arriskuan eta mendekotasun handiagoetan; ia politika publiko guztietan eragina duten gaiak.

Así, y al igual que en las sociedades del entorno, la esperanza de vida de las mujeres es más alta —de casi 87 años para mujeres y 81,7años para hombres en 2023/2024— dato que, unido al mayor número de mujeres que hombres a partir de la edad de 65 años (comentado anteriormente), determina una población mayor altamente feminizada. Este fenómeno tiene implicaciones relevantes en términos de mayores necesidades de cuidados, riesgos de soledad y dependencia de las mujeres, cuestiones que afectan a la práctica totalidad de las políticas públicas.

Bilakaerari erreparatzen badiogu, nahiz eta serie osoan zehar emakumeek gizonek baino bizi-itxaropen handiagoa izan sistematikoki eta bi kasuetan azken hamarkadan areagotu egin den, badirudi bien arteko arrakala apur bat murriztu dela beste urtebetez. Hala, 2013/2014ko 6 urteetatik 2023/2024ko 5,2 urte izatera igaro da, aurreko txostenean 2022/2023ko datuekin ikusten zen berbera, eta horrek esan nahi du gizonen eta emakumeen bizi-itxaropena pixkanaka bateratzeko joera dagoela, nahiz eta aldeak nabarmena izaten jarraitzen duen. Fenomeno horrek zerikusia izan dezake gizonen osasuna hobetzearekin eta lan- edo gizarte-arriskuekiko esposizio txikiagoarekin. Bestalde, emakumeen bizi-itxaropenaren egonkortasunak iradokitzen du dagoeneko sabaitik gertu dagoela, eta gizonak, berriz, oraindik ari direla lekua berreskuratzen.

Si atendemos a la evolución, aunque a lo largo de toda la serie las mujeres tienen una esperanza de vida sistemáticamente más alta que los hombres y en los dos casos se ha incrementado en la última década, parece observarse una ligera reducción de la brecha entre ambas, que se confirma un año más. Así, ha pasado de ser de 6 años en 2013/2014, a 5,2 años de diferencia en 2023/2024, la misma que se observaba en el Informe anterior con datos de 2022/2023-, lo que puede indicar una tendencia hacia la convergencia paulatina en la esperanza de vida entre hombres y mujeres, aunque la diferencia sigue siendo significativa. Este fenómeno puede estar relacionado con mejoras en la salud masculina y menor exposición a riesgos laborales o sociales. Por otro lado, la estabilidad de la esperanza de vida femenina sugiere que ya se encuentra cerca de su techo, mientras que los hombres todavía están recuperando terreno.


Emakumeen bizi-itxaropen handiagoaren datua oker interpretatua izan ohi da emakumeen balizko bizi-baldintza hobeekin erlazionatzen denean. Aitzitik, oraintsuko azterketek —eta aurrerago aurkezten diren oinarrizko osasun-adierazleek— erakusten dute horri buruzko ondorioak atera behar direla bizitzako azken urte horiek gertatzen diren baldintzen azterketa sakonago batetik; izan ere, oro har, osasun-egoera okerragoarekin, ase gabeko zaintza-premia handiagoekin, baliabide materialak eskuratzeko eta eskuragarri izateko aukera okerragoarekin eta abarrekin lotzen dira, batez ere adin aurreratuetara iristen direnean. Izan ere, Bizkaikoaren antzeko beste testuinguru batzuetako datuek agerian uzten dute, hainbat adierazle kontuan hartuta, 75 urtetik gorako emakumeak direla gaur egun biztanleria-talde zaurgarrienetako bat.

El dato de la mayor esperanza de vida de las mujeres tiende a ser frecuentemente malinterpretado cuando se relaciona con posibles mejores condiciones de la vida de ellas. Por el contrario, los estudios recientes —y los indicadores básicos de salud que se presentan más adelante— muestran que las conclusiones al respecto deben ser extraídas a partir de un análisis más profundo de las condiciones en que tienen lugar esos últimos años de vida, que generalmente van aunados a un peor estado de salud, mayores necesidades de cuidado no satisfechas, peor acceso y disponibilidad de recursos materiales, etc., especialmente cuando llegan a edades avanzadas. De hecho, datos de otros contextos similares al de Bizkaia evidencian que, considerando diferentes indicadores, las mujeres mayores de 75 años constituyen actualmente uno de los grupos poblacionales más vulnerables.

Populazio horren beste ezaugarri soziodemografiko batzuk kontuan hartuta, gaur egun adierazgarrienetako bat migrazio-fenomenoek populazioan duten eragina da. Ondorengo grafikoak atzerriko biztanleria guztiarekiko emakumeen ehunekoa adierazten du Bizkaiko talde bakoitzean, azken bi urteetan.

Atendiendo a otras características sociodemográficas de esta población, una de las más significativas actualmente es la incidencia en ella de los fenómenos migratorios. El siguiente gráfico representa el porcentaje de mujeres sobre el total de población extranjera de cada grupo en Bizkaia en los dos últimos años.

3. grafikoa. Biztanleriaren emakumeen ehunekoa jaiolekuaren arabera. Bizkaia, 2024-2025.
Gráfico 3. Porcentaje de mujeres en la población según lugar de nacimiento. Bizkaia, 2024-2025.



Iturria / Fuente: Eustat

Biztanleria horretako emakumeen ehunekoa egonkor dago guztizkoan (% 51,8) 2024tik 2025era bitartean, baina alde nabarmenak daude jaiolekuaren arabera, argi eta garbi feminizatutako edo maskulinizatutako migrazio-ereduak islatzen baitituzte. Nabarmentzekoa da emakumeen presentzia handia Amerikan jaiotako biztanleen artean, batez ere Amerikako gainerako herrialdeetan (% 66 2025ean, baina behera egin du % 66,8tik) eta Hego Amerikan jaiotakoen artean (% 55,7, igoera txikiarekin). Horrek esan nahi du migrazio-prozesuak oso feminizatuta daudela, kasu askotan zaintza sektorean laneratzearekin lotuta. Aldiz, Afrikatik etorritako biztanleriak maskulinizazio nabarmena du, emakumeen % 31,9 bakarrik Magreben eta % 33,1 Afrikako gainerako herrialdeetan, 2024arekin alderatuta beheranzko joera ere sendotuz. Europaren kasuan, portaera desberdinak ikusten dira: Ekialdeko Europak gehiengo femeninoa du (% 53,8) eta Europako gainerako herrialdeek egitura maskulinizatuagoa dute (% 43,2).

El porcentaje de mujeres en esta población se mantiene estable en el total (51,8%) entre 2024 y 2025, si bien presenta diferencias significativas según el lugar de nacimiento que reflejan patrones migratorios claramente feminizados o masculinizados. Destaca la elevada presencia de mujeres entre la población nacida en América, especialmente en el resto de América (66% en 2025, aunque desciende desde el 66,8%) y en América del Sur (55,7%, con ligero incremento), lo que apunta a procesos migratorios fuertemente feminizados, en muchos casos vinculados a la inserción en el sector de los cuidados. En contraste, la población procedente de África presenta una marcada masculinización, con solo un 31,9% de mujeres en el Magreb y un 33,1% en el resto de África, consolidando una tendencia incluso ligeramente descendente respecto a 2024. En el caso de Europa, se observan comportamientos diferenciados: mientras Europa del Este mantiene una mayoría femenina (53,8%), el resto de Europa presenta una estructura más masculinizada (43,2%).

Hori sexuaren araberako migrazio-eredu diferentzialen ondorioa baino ez da. Eredu horiek ere oso markatuak dira, batez ere EBtik kanpoko atzerritarren kasuan, lan-merkatuaren sexuaren araberako segregazioagatik. Horrela, gizon gehiagok immigratzeaz gain, oso maskulinizatutako lanpostuak betetzeko immigratzen dute (oinarrizko zerbitzuetan, industrian, eraikuntzan, etab.), eta emakumeak oso lanpostu feminizatuetan (etxeko garbiketa, mendekotasuna dutenak zaintzea, etab.), eta gainera are zurrunagoak dira merkatuak dituen mugak biztanleria horren kasuan "genero-oztopoak" gainditzeko.

Hezkuntza-maila da aurrekontu-programen hartzaile den biztanleriaren aurretiazko argazkia egiteko beste adierazle garrantzitsuetako bat. Biztanleriaren eta etxebizitzen zentsuaren azken datuen arabera (Eustat, 2024), Bizkaiko 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren hezkuntza-mailaren araberako banaketak erakusten du emakumeen gehiegizko ordezkaritza dagoela hezkuntza-eskalaren bi muturretan. Horrela, gehiengoa dira hezkuntza-maila baxuenetan, non emakumeak % 62,8ra iristen diren lehen hezkuntza baino gutxiago dutenen artean, eta % 62,0ra lehen hezkuntzan. Emakumeen presentzia handiago hori, proportzio txikiagoan bada ere, tarteko mailetan ere mantentzen da, hala nola bigarren hezkuntza baxuan (% 53,4) eta bigarren hezkuntzaren ondokoan (% 58,6).

Hala ere, patroi-joera maila espezifiko batzuetan alderantziz da: gizonak gehiengoa dira goi mailako bigarren hezkuntzan (% 52,1) eta, nabarmenago, ziklo laburreko hirugarren hezkuntzan (% 57,9). Horrek esan nahi du gizonezkoek gehiago jotzen dutela prestakuntza-ibilbide tekniko edo laburretara. Aldiz, emakumeak Unibertsitateko gradu-ikasketetan nabarmentzen dira (% 60,6), baita master-mailetan ere (% 54,3); doktoretzan, berriz, ia parekotasuna lortzen da (% 49,2 emakumeak eta % 50,8 gizonak). Hori guztia hurrengo grafikoan jasota dago.


Ello no es sino consecuencia de patrones migratorios diferenciales por sexo muy marcados también, especialmente en el caso de población extranjera extracomunitaria, por la segregación por sexo del mercado laboral. Así, además de que inmigran más hombres, lo hacen para cubrir puestos de trabajo muy masculinizados (en servicios básicos, industria, construcción, etc.), y ellas en empleos muy feminizados (limpieza doméstica, cuidado de dependientes, etc.), siendo incluso más rígidos los límites que el mercado ofrece para traspasar las “barreras de género” en el caso de esta población.

El nivel educativo es otro de los indicadores relevantes para hacer una fotografía previa de la población finalmente destinataria de los programas presupuestarios. Según los últimos datos del Censo de población y viviendas (Eustat, 2024), la distribución de la población de 16 y más años por nivel educativo en Bizkaia muestra una dinámica de sobrerrepresentación femenina en los dos extremos de la escala educativa. Así, son amplia mayoría en los niveles educativos más bajos, donde las mujeres alcanzan el 62,8% entre quienes tienen menos que educación primaria y el 62,0% en educación primaria. Esta mayor presencia femenina también se mantiene, aunque en menor proporción, en niveles intermedios como la secundaria baja (53,4%) y la educación postsecundaria no terciaria (58,6%).

Sin embargo, el patrón se invierte en algunos niveles específicos: los hombres son mayoría en la educación secundaria alta (52,1%) y, de forma más marcada, en la educación terciaria de ciclo corto (57,9%), lo que apunta a una mayor orientación masculina hacia itinerarios formativos técnicos o de corta duración. Por el contrario, las mujeres destacan en los estudios universitarios de grado, donde representan el 60,6%, así como en niveles de máster (54,3%), mientras que en el doctorado se alcanza prácticamente la paridad (49,2% mujeres y 50,8% hombres). Todo ello queda recogido en el siguiente gráfico.

4. grafikoa. 16 urteko eta gehiagoko biztanleak titulazio-mailaren eta sexuaren arabera (%). Bizkaia, 2024 (*)

Gráfico 4. Población de 16 y más años por el nivel de titulación y sexo. (% por sexo). Bizkaia, 2024(*)



Iturria / Fuente: Eustat

Oro har, datu horiek genero-desberdintasunaren dinamika bikoitza islatzen dute: alde batetik, hezkuntza-maila baxuenetan — ziurrenik, adin handieneko kohorteei lotuta — emakume gehiago daude oraindik, eta, bestetik, goi-mailako hezkuntzan emakumeen presentzia handia dago, nahiz eta ikasketak aukeratzean genero-rolak errepikatzen dituzten prestakuntza-ibilbideetan barne-segregazioa egon.

En conjunto, estos datos reflejan una doble dinámica de desigualdad de género: por un lado, la persistencia de una mayor concentración de mujeres en los niveles educativos más bajos — probablemente asociada a cohortes de mayor edad— y, por otro, una fuerte presencia femenina en la educación superior, aunque con una segregación interna de itinerarios formativos que reproduce roles de género en la elección de estudios.


Hezkuntzaren esparruko sexuaren araberako analisiaren beste aldeari erreparatzen badiogu, Bizkaiko egoerari buruz eskura ditugun datuek agerian uzten dute irakaskuntzaren lan-merkatuaren sexu-segregazioak bere horretan dirauela. Horrela, nabarmena da irakasle-lanbidearen feminizazioa, handiagoa dena, gainera,

Si atendemos a la otra cara del análisis por sexo del ámbito educativo, los datos disponibles sobre la situación en Bizkaia evidencian la persistencia de la segregación sexual del mercado laboral de la enseñanza. Así, es patente la feminización de la profesión docente que es, además, mayor a medida que descendemos en el nivel educativo.

hezkuntza-mailan behera egin ahala. Emakumeen presentzia proportzional handiago hori maila guztietan gertatzen da, salbu eta Lanbide Heziketan (% 48) eta Unibertsitatean (% 49), eta % 90etik gorako zifretara iristen da Haur Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian (% 81) eta Lehen Hezkuntzan (% 78).

Esta mayor presencia proporcional de las mujeres se da en todos los niveles excepto en Formación Profesional (48%) y Universitaria (49%), y alcanza cifras de más del 90% en el de Educación Infantil, seguida de Educación Especial (81%), y Primaria (78%).

5. grafikoa. Irakasleak sexuaren eta mailaren arabera. Bizkaia, 2023-24
Gráfico 5. Personal docente por sexo y nivel. Bizkaia, 2023-24



OHARRA: Langileen lurralde-banaketa ez da bizilekuaren arabera egiten, lan egiten duten ikastetxearen kokapenaren arabera baizik. Irakasle bakoitza ematen duen maila bakoitzean zenbatzen da (adibidez, 1 Helduen Hezkuntzan eta 1 LH 1eko hezkuntzan), baina behin bakarrik dagozkion guztizkoetan (Lurraldeko irakasleen guztizkoa, grafiko honetan ematen ez dena).

NOTA: La distribución territorial del personal no se realiza en base a su domicilio de residencia sino en función de la ubicación del centro educativo donde trabaja. Cada docente se contabiliza en cada uno de los niveles en los que imparte (por ejemplo, 1 en educación de personas Adultas y 1 en educación de FP 1), pero sólo una vez en los totales correspondientes (el total de docentes del Territorio, cifra que no se da en este gráfico)

(1) Hezkuntza bereziko ikasgela espezifikoetan irakasten duten irakasleak / Docentes que imparten en aulas específicas de educación especial

(2) Batxilergo presentziala eta/edo urrunekoa ematen duten irakasleak / Docentes que imparten Bachillerato presencial y/o a distancia

(3) Barne hartzen ditu Diseinuko, Arte Dramatikoko, Arte Plastiko eta Diseinuko, Hizkuntzetako, Musikako, Dantzako eta Kiroleko goi-mailako arte-irakaskuntzak ematen dituzten irakasleak. / Incluye al personal docente que imparte Enseñanzas Artísticas Superiores de Diseño; de Arte Dramático; de Artes Plásticas y Diseño; Idiomas; Música; Danza; Deporte.

Iturria / Fuente: EUSTAT

Berriz ere genero-analisiak laguntzen digu ulertzen emakumeek irakaskuntzan duten presentzia handiagoa ez dela esparru horretan duten posizio hobearen isla soila. Aitzitik, beste fenomeno batzuen artean, lan ordainduaren merkatuan sartzea nagusiki genero-rol tradizionalarekin oso lotuta dauden lanbideetan egin izanaren adierazlea da. Hala, hezkuntzaren feminizazioa, eta, bereziki, hezkuntzaren feminizazioa haurtzaroko lehen urteetan edo hezkuntza berezian, oso lotuta dago zaintza-rolarekin, eta zerikusi handiagoa du sexuaren araberako bereizketaren iraunkortasunarekin enplegura iristeko berdintasunarekin baino.


Ikuspegi soziodemografiko hori osatzeko, Bizkaiko biztanleriaren osasun-egoeraren errepaso labur bat egiten da, eskuragarri ditugun azken datuekin[5]. Osasun onaren prebalentzia-adierazlea sexuaren eta adinaren araberako azterketa, seguruenik, sexuaren araberako desberdintasunak hoberen erakusten dituenetako bat da.

De nuevo, el análisis de género nos ayuda a entender que esta mayor presencia de las mujeres en la profesión docente no es un simple reflejo de su mejor posición en este ámbito. Al contrario, es indicador, entre otros fenómenos, de cómo su incorporación al mercado de trabajo remunerado se ha hecho mayoritariamente en profesiones muy ligadas al rol tradicional de género. Así, la feminización de la educación, y muy específicamente la de la educación en los primeros años de la infancia o la de la educación especial, está muy vinculada al rol de cuidados y tiene más que ver con la persistencia de la segregación por sexo del empleo que con la igualdad en el acceso a él.

Para completar este panorama sociodemográfico se hace un breve repaso a la situación de salud de la población de Bizkaia, con los últimos datos disponibles[5]. El análisis del indicador de prevalencia de buena salud por sexo y edad es quizá uno de los que mejor reflejan las diferencias por sexo.

5 Erabilitako datuak bost urtean behin egindako Osasun Inkestatik datozenak direnez, eta aurreko ekitalditik eguneratu ez denez, jarraian aurkeztutako informazioa aurreko txostenean jasotakoaren berdina da.
Dado que los datos utilizados proceden de la Encuesta de Salud, realizada con una periodicidad quinquenal y para la que no ha habido actualización desde el pasado ejercicio, la información presentada a continuación es la misma que la reflejada en el anterior Informe.

6. grafikoa. Osasun onaren prebalentzia (*), sexuaren eta adin-taldearen arabera (%). Bizkaia, 2023.
Gráfico 6. Prevalencia de buena salud (*), por sexo y grupo de edad (%). Bizkaia, 2023.



(*) Adierazlea inkestaren unean osasun-egoera ona edo oso ona dutela adierazten duten pertsonen ehunekoari dagokio.
El indicador se refiere al porcentaje de personas que declaran tener un estado de salud bueno o muy bueno en el momento de la encuesta.

Iturria / Fuente: EUSTAT

Datuek agerian uzten dute emakumeen osasun-pertzepzioa okerragoa dela adin-talde guztietan, gazteenean izan ezik (15-24 urte). Osasun onaren pertzepzioak behera egiten badu ere —2023an, 15-24 urte bitarteko pertsonen % 93k dio osasun ona duela; 75 urtetik gorakoetan, berriz, % 61,8ra jaisten da gizonen artean eta emakumeen artean erdira, hori espero izatekoa da—, sexuaren araberako aldeak ia etengabe handitzen dira adin-taldeetan aurrera egin ahala. Hala, genero-arrakala garrantzitsuena, talde horretako emakumeen gizarte-kalteberatasun handiagoari buruz gorago adierazitakoa beste modu batean agerian uzten duena, 75 urteko eta gehiagoko pertsonen artean dago.

Jokabide hori sendoa da adierazlearen azken bi hamarkadetako bilakaerari erreparatzen badiogu. Adin-talde guztietan, oro har, osasun-egoeraren pertzepzioak hobera egin duela ikus daiteke, nahiz eta genero-arrakalak bere horretan jarraitzen duen, eta bereziki erresistentea den adin-tarte

Los datos evidencian una peor percepción de salud por parte de las mujeres en todos los grupos de edad salvo en el más joven, de 15 a 24 años. Aunque la percepción de buena salud disminuye con la edad —en 2023, el 93% de las personas del grupo de 15-24 años afirma tener buena salud, mientras que en mayores de 75 se reduce al 61,8% en los hombres y a la mitad de las mujeres, lo cual es esperable—, las diferencias por sexo se incrementan casi de manera constante a medida que se avanza en los grupos de edad. Así, la brecha de género más importante, que evidencia de otra manera lo afirmado más arriba respecto a la mayor vulnerabilidad social de las mujeres de este grupo, se da entre las personas de 75 y más años.

Esta pauta es consistente si atendemos a la evolución del indicador en las últimas dos décadas. En ellas, se observa una mejora general de la percepción del estado de salud en todos los grupos de edad, aunque la brecha de género persiste, y es especialmente resistente en los


altuenetan. Hala, arrakala hori handiena den tartea ere, 75 urte eta gehiagokoa, hazkunde nabarmenena duena da, portzentajezko aldea 2002an 4 puntu baino gutxiagokoa izatetik 2023an ia 12 puntu izatera igaro baita. Hurrengo adin-tartean, 65-74 urte, generoen arteko aldeak ere hazkunde handia izan du, izan ere 2002an ia ez zegoen halakorik, eta 2023an 7,6 puntu portzentualetara iritsi zen. Aitzitik, genero-desberdintasunek behera egin dute adin-tarte gazteenean (15-24 urte), 2023an emakumeak gizonak baino gehiago izan baitira osasun onaren pertzepzioan (% 93,7 eta % 93,3, hurrenez hurren), baita tartekoan ere (45-64 urte), proportzio txikiagoan bada ere.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, oro har, generoaren eta adinaren aldeak hazi egin dira oro har —talde gazteenean izan ezik—, eta kezkagarria da adin-tarte aurreratuenetan.

tramos de edad más altos. Así, el tramo en que esta brecha es más alta, el de 75 años y más, es también el que presenta un crecimiento más acusado, pasando la diferencia porcentual de ser de menos 4 puntos en 2002 a casi 12 puntos en 2023. En el siguiente, 65-74 años, la brecha de género también registra un crecimiento muy acusado, desde casi ser inexistente en 2002, hasta alcanzar 7,6 puntos porcentuales en 2023. Por el contrario, las desigualdades de género han descendido en el tramo más joven (15-24 años), en el que en 2023 las mujeres superan a los hombres en percepción de buena salud en 2023 (93,7% vs. 93,3%), y también en el intermedio (45 a 64 años), aunque en menor proporción.

El siguiente gráfico evidencia cómo, en términos generales, las diferencias de género y edad crecen —salvo en el grupo más joven— y llega a ser preocupante en los tramos de edad más avanzados.

7. grafikoa. Genero-arrakalaren bilakaera osasun onaren prebalentzian (*), sexuaren eta adin-taldearen arabera (%). Bizkaia -2002-2023.
Gráfico 7. Evolución de la brecha de género en prevalencia en buena salud (*) por sexo y grupo de edad (%). Bizkaia -2002-2023.



Iturria / Fuente. EUSTAT

Oinarrizko biztanleria-adierazleetan genero-desberdintasunek jarraitzen dutela erakusten duen panorama soziodemografiko horrekin, jarraian, Bizkaiko errealitateko eremu garrantzitsuenetan emakumeek eta gizonek duten egoera azalduko dugu, aurrekontu publikoen genero-eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko abiapuntu gisa.

Con este panorama sociodemográfico que muestra la persistencia de desigualdades de género en los indicadores poblacionales básicos, se pasa a continuación a desgranar la situación de mujeres y hombres en los ámbitos de la realidad de Bizkaia más relevantes como punto de partida para realizar una evaluación previa del impacto de género de sus presupuestos públicos.

III. EKOIZPEN LANA

Azken batean, hobekuntza ukaezina bada ere, datuek eskatzen dute tinko jarduten jarraitzea benetako ordainsari-berdintasuna lortzeko, eta horrek esan nahi du ez bakarrik oinarrizko soldatetan eragitea, baizik eta baita soldata-gardentasunean (plusak, osagarriak, etab.), sektore eta jarduera guztietarako sarbidea mugatzen duten egiturazko baldintzetan eta emakumeek baldintza berdinetan lortu beharreko lanbide-sustapenean ere.

De hecho, el salario bruto por hora muestra una tendencia mucho más acusada al acercamiento entre los ingresos horarios de mujeres y hombres que el que se observaba con el salario mensual. La evolución de este indicador en ese mismo periodo evidencia la mejora sustancial de la brecha de género, que pasa de ser del 10,3 % en 2008 al 0,9 % en 2020, lo que representa una práctica igualdad en el salario por hora trabajada.

En definitiva, aunque la mejora es innegable, los datos invitan a seguir actuando de forma decidida para lograr la igualdad retributiva real y efectiva, lo cual implica actuar no solo sobre los salarios base, sino también sobre la transparencia salarial (pluses, complementos, etc.), sobre las condiciones estructurales que limitan el acceso a todos los sectores y actividades, y sobre la promoción profesional en igualdad de condiciones para las mujeres.


Txostenaren kapitulu hau osatzeko, eta bertan jasotako informazioa etengabe hobetzeko prozesuaren esparruan, aurten adierazle berri bat txertatu da azterketan, enpresek erregistratutako berdintasun-planena.

Para completar este capítulo del Informe, y en el marco del proceso de mejora continua de la información contenida en él, este año se ha incorporado un nuevo indicador al análisis, el de los planes de igualdad registrados por las empresas.

2025ean 274 berdintasun-plan erregistratu dira Bizkaiko lan-agintaritzapean. Hurrengo grafikoak erakusten duen bezala, plan hauek 35.832 langileri eragiten diete, eta horietatik 20.780 gizonak dira eta 15.052 emakumeak.

En 2025, se han registrado 274 planes de igualdad bajo la autoridad laboral de Bizkaia. Tal como muestra el gráfico siguiente, estos planes afectan a un total de 35.832 personas trabajadoras, de las cuales 20.780 son hombres y 15.052 mujeres.

20. grafikoa. Bizkaiko lan-agintaritzan erregistratutako berdintasun planek eragindako langileak. 2025
Gráfico20. Personal afectado por los planes de igualdad registrados bajo la autoridad laboral de Bizkaia. 2025



Iturria / Fuente: EUSTAT

Berdintasun-planen helburua bereziki emakumeei eragiten dieten desberdintasunak zuzentzea bada ere, eraginpeko langileen artean gizonen presentzia handiagoa izateak (% 58,0 eta emakumeen % 42,0) tresna horiek ezartzera behartuta dauden enpresa askoren sektore- eta okupazio-osaera islatzen du, bereziki tradizionalki maskulinizatutako eta enpresa-tamaina handiagoko eremuetan. Aldi berean, datu horiek agerian uzten dute berdintasun-planek antolamendu-eraldaketarako tresna gisa izan dezaketen irismena. Tresna horrek, emakumeak ez ezik, genero-desberdintasunak errepikatzen diren langile guztiak eta lan-egiturak ere hartzen ditu eraginpean.

Aunque los planes de igualdad tienen como finalidad corregir desigualdades que afectan especialmente a las mujeres, la mayor presencia masculina entre el personal afectado (58,0% frente a 42,0% de mujeres) refleja la composición sectorial y ocupacional de muchas de las empresas obligadas a implantar estos instrumentos, particularmente en ámbitos tradicionalmente masculinizados y de mayor tamaño empresarial. Al mismo tiempo, estos datos evidencian el alcance potencial de los planes de igualdad como herramienta de transformación organizativa que no solo interpela a las mujeres, sino al conjunto de las plantillas y a las estructuras laborales donde se reproducen las desigualdades de género.

IV. AUTONOMIA EKONOMIKOA ETA BIZI-BALDINTZA MATERIALAK

Emakumeen eta gizonen diru-sarreren banaketan dauden aldeak identifikatzea eta pobrezia-arriskuan dauden biztanleria-taldeetan duten presentzia genero-analisiaren funtsezko beste dimentsioetako bat da. Ikuspuntu horretatik, pobreziaren feminizazioaren fenomeno ezaguna genero-desberdintasunen kate baten azken maila da, emakumeak haren aurrean kalteberago bihurtzen dituena, batez ere, genero-desberdintasunek beste desberdintasun-ardatz batzuekin (adina, gizarte-klasea, migrazio-egoera, etab.) bat egiten duten gizarte-taldeetako emakumeak. Testuinguru hori aztertzeko, kapituluan baliabide ekonomikoen banaketan dagoen genero-arrakala nagusiak eta pobrezia-egoeren eragina aztertzen dira, baita beste baliabide material batzuetarako sarbidea ere, hala nola etxebizitza eta oinarrizko hornidurak.

Aurreko kapituluan ikusi den bezala, lan-merkatuko genero-desberdintasunek, batez ere soldata-arrakalak sortzen dituztenean, mugatu egiten dute emakumeen autonomia, aurrezteko gaitasuna, eta gizonekiko berdintasunean bizi-baldintza materialez gozatzeko aukera. Gainera, zainketa-lanaren banaketa desorekatuak ia zuzenean eragiten du emakumeen egoera ekonomikoan, ezegonkortasun eta zaurgarritasun ekonomiko handiagoko egoerak azalduz eta iraunaraziz.

4.1. Desberdintasunak errentaren banaketan

Lehen hurbilketa batean hurrengo grafikoak adierazten du portzentajezko zein alde dagoen ordezkatutako errenta-tarte bakoitzean dauden gizonen eta emakumeen kopuruen artean. Banaketa horrek argi eta garbi erakusten du emakumeen presentziak behera egiten duela errenta pertsonalaren kopurua handitu ahala. Hala, emakumeak gainordezkatuta daude errenta-tarterik txikienetan: 2. dezilean dauden pertsonen % 65,2 dira (4.438 euro arte urtean) eta % 65,1 3. dezilean (4.439-11.456 euro). Emakumeen

IV. AUTONOMÍA ECONÓMICA Y CONDICIONES MATERIALES DE VIDA.

La identificación de brechas en la distribución de ingresos de mujeres y hombres y su presencia en los grupos poblacionales en riesgo de pobreza, es otra de las dimensiones fundamentales del análisis de género. Desde este punto de vista, el ya conocido fenómeno de la feminización de la pobreza constituye el último eslabón de una cadena de desigualdades de género que hacen de las mujeres, especialmente aquellas de grupos sociales en las que las desigualdades de género interseccionan con otros ejes de desigualdad (edad, clase social, situación migratoria, etc.), más vulnerables frente a ella. Para explorar este contexto, en el capítulo se analizan las principales brechas de género en la distribución de los recursos económicos y la incidencia de situaciones de pobreza, así como el acceso a otros recursos materiales como la vivienda y los suministros básicos.

Como se ha visto en el capítulo anterior, las desigualdades de género en el mercado laboral, especialmente cuando desembocan en brechas salariales, limitan la autonomía de las mujeres, su capacidad de ahorro, y su posibilidad de disfrutar de condiciones materiales de vida en igualdad con los hombres. Además, la desigual distribución del trabajo de cuidados impacta de manera casi directa en la situación económica de las mujeres, explicando y perpetuando situaciones de mayor inestabilidad y vulnerabilidad económica.

4.1. Desigualdades en la distribución de la renta

En una primera aproximación, el siguiente gráfico muestra la diferencia porcentual entre el número de hombres y mujeres que se sitúan en cada uno de los tramos de renta representados. Su distribución refleja claramente cómo la presencia de las mujeres desciende a medida que va aumentando la cantidad de renta personal. Así, las mujeres están sobrerrepresentadas en los tramos de renta más bajos: constituyen el 65,2% de las personas situadas en el decil 2 (hasta 4.438 euros anuales) y el 65,1% en el decil 3 (4.439-11.456

presentzia nagusi hori 5. dezilerarte mantentzen da, non emakumeak oraindik ere tarte horretako pertsona guztien % 56,1 diren.


6. deziletik aurrera joera alderantziz da, eta gizonak gehiengoa izatera pasatzen dira errenta-mailek gora egin ahala. Horrela, 6. dezilean % 53,0 dira eta 10. dezilean % 62,5era iristen dira, errenta handienei dagokiena (urteko 50.813 euro baino gehiago); emakumeak, berriz, % 37,5era jaisten dira. Errenta-tarte altuenean 25 puntu portzentualeko aldeak erakusten du desberdintasun handia dagoela ordainsari eta erosteko ahalmen handiagoko posizio ekonomikoetarako sarbidean.

euros). Esta presencia mayoritaria femenina se mantiene hasta el decil 5, donde ellas todavía representan el 56,1% del total de personas en ese tramo.

A partir del decil 6 se invierte la tendencia y los hombres pasan a ser mayoría creciente conforme aumentan los niveles de renta. Así, representan el 53,0% en el decil 6 y alcanzan el 62,5% en el decil 10, correspondiente a las rentas más elevadas (más de 50.813 euros anuales), mientras que las mujeres descienden hasta el 37,5%. La diferencia de 25 puntos porcentuales en el tramo de renta más alto refleja una fuerte desigualdad en el acceso a posiciones económicas de mayor remuneración y capacidad adquisitiva.

21. grafikoa. 18 urteko eta gehiagoko biztanleen errenta pertsonalaren dezilaren eta sexuaren arabera (%). Bizkaia, 2023

Gráfico21. Población de 18 y más años por decil de renta personal, por sexo (%). Bizkaia, 2023




Iturria / Fuente: EUSTAT

Bestalde, Bizkaiko errenta osoa sexuaren arabera banatuz gero, ikusten da egiturazko desberdintasun nabarmena dagoela emakumeen eta gizonen artean baliabide ekonomikoak eskuratzeari eta metatzeari dagokionez.

Por otro lado, la distribución de la renta total en Bizkaia según sexo evidencia una desigualdad estructural significativa en el acceso y acumulación de recursos económicos entre mujeres y hombres.

22. grafikoa. 18 urteko eta gehiagoko biztanleen batez besteko errenta pertsonala errenta motaren eta sexuaren arabera (eurotan). Bizkaia, 2022-2023
Gráfico 22. Renta total personal de la población de 18 y más años por sexo (euros). Bizkaia, 2022-2023



Iturria / Fuente: EUSTAT

Bizkaiko 18 urteko eta gehiagoko biztanleen guztizko errenta pertsonalak desberdintasun ekonomiko handia erakusten jarraitzen du emakumeen eta gizonen artean. 2023an, gizonezkoen batez besteko errenta 31.217 eurokoa izan zen, eta emakumeena, berriz, 21.012 eurokoa. Horrek esan nahi du genero-arrakala 49 puntu portzentualekoa dela. Nahiz eta alde hori apur bat murriztu 2022tik —orduan 51 zen arrakala—, bi sexuen arteko alde ekonomikoak oso handia izaten jarraitzen du: gizonek 10.000 euro gehiago jasotzen dituzte urtean, batez beste, emakumeen aldean.

2022tik 2023ra bitartean ikusitako hobekuntza batez besteko errenta bi sexuetan handitzearen ondorio da, nahiz eta proportzioan handixeagoa izan emakumeen artean. Hala ere, datuek erakusten dute oraindik ere desberdintasunak daudela diru-sarreren eskuragarritasunean eta metaketan, lotura estua baitute genero-faktoreekin, hala nola emakumeek lan-merkatuan duten presentzia txikiagoarekin eta baldintza okerragoekin, beste errenta-mota batzuen eskuragarritasun txikiagoarekin, eta pisu txikia posizio ekonomiko altuenetan.


La renta total personal de la población de 18 y más años en Bizkaia continúa mostrando una importante desigualdad económica entre mujeres y hombres. En 2023, la renta media masculina alcanzó los 31.217 euros, frente a los 21.012 euros de las mujeres, lo que supone una brecha de género de 49 puntos porcentuales. Aunque esta diferencia se reduce ligeramente respecto a 2022 —cuando la brecha era de 51—, la distancia económica entre ambos sexos sigue siendo muy elevada: los hombres perciben, de media, más de 10.000 euros anuales adicionales respecto a las mujeres.

La mejora observada entre 2022 y 2023 responde a un incremento de la renta media en ambos sexos, aunque proporcionalmente algo más intenso entre las mujeres. No obstante, los datos reflejan la persistencia de desigualdades estructurales en el acceso y acumulación de ingresos, estrechamente relacionadas con factores de género como la menor presencia y peores condiciones de las mujeres en el mercado laboral, menor disponibilidad de otros tipos de renta, y escaso peso en las posiciones económicas más altas.

Egoera horretan sakontzeko, grafikoak datu horiek banakatzen ditu errenta motaren arabera.

Para profundizar en esta situación, el gráfico a continuación desglosa estos datos según tipo de renta.

23. grafikoa. Familiak familia-errentaren geruzaren arabera, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera (sexu bakoitzaren errenta osoaren gaineko %) (*). Bizkaia, 2023
Gráfico 23. Renta personal media de la población de 18 y más años por tipo de renta y sexo (euros). Bizkaia, 2023



Iturria Fuente: EUSTAT

2023an Bizkaiko errentaren sexuaren eta diru-sarrera motaren araberako banaketak beste era batera islatzen du emakumeei eragiten dien egiturazko desberdintasun ekonomikoa, eta baliabideak lortzeko ia iturri guztiak zeharkatzen ditu. Desberdintasun handiena lan-errentan dago, hori baita diru-sarreren iturri nagusia biztanle gehienentzat, eta, horren ondorioz, emakumeek 12.193 € jasotzen dituzte batez beste, gizonek, aldiz, 18.479 €. 52 puntu portzentualeko arrakala horrek genero-desberdintasunek enpleguan dituzten ondorioak berresten ditu. Kapital higigarriaren errentak (dibidenduak edo interesak, esaterako) are arrakala handiagoa erakusten du, % 54koa, finantza- eta ondare-aktiboen metaketan dauden desberdintasunen erakuslea, historikoki gizonek abantaila-posizioak izan baitituzte abiapuntutik.

La distribución de la renta por sexo y tipo de ingresos en 2023 en Bizkaia refleja de otra manera la desigualdad económica que afecta a las mujeres y atraviesa prácticamente todas las fuentes de obtención de recursos. La mayor disparidad se da en la renta del trabajo, que constituye la principal fuente de ingresos para la mayoría de la población, y por la que perciben una media de 12.193 €, frente a los 18.479 € de los hombres. Esta brecha de 52 puntos porcentuales viene a confirmar los efectos de las desigualdades de género en el empleo. La renta del capital mobiliario (como dividendos o intereses) muestra una brecha aún mayor, del 54 %, indicio de las desigualdades en la acumulación de activos financieros y patrimoniales, en la que los hombres históricamente han partido de posiciones de ventaja.

Aldiz, kapital higiezinaren errenta da emakumeak gizonak baino zertxobait gehiago diren kategoria bakarra, % 10eko arrakala positiboarekin. Nolanahi ere, oro har pisu txikiena duen errenta mota da, eta oso urrun dago beste iturri batzuetako aldeak konpentsatzetik. Jarduera ekonomikoen errenta, hau da, norberaren konturako diru-sarrerei dagokiena, genero-arrakala handiena duena da, % 103koa hain zuzen. Kopuru horrek, emakume autonomoen diru-sarrera txikiagoa dela adierazteaz gain, inbertsio ahalmenean edo negozioen iraunkortasunean inplikazio garrantzitsuak dituela adierazten du. Transferentziei dagokienez (gizarte-prestazioak, kotizazio gabeko pentsioak, laguntza publikoak), emakumeek 6.295 € jasotzen dituzte, eta gizonek, berriz, 8.848 €, % 41eko arrakala sortuz. Alde hori garrantzitsua da prestazio eta laguntza horiek finantzatzen dituzten aurrekontu-programei begira, eta badirudi oinarrizko desberdintasunak konpentsatzetik urrun jarraitzen dutela.

Desberdintasun partzial horien guztien ondorioz, errenta erabilgarri osoa (diru-sarrera garbi guztien batura) 17.708 €-koa da emakumeentzat eta 25.696 €-koa gizonentzat, eta azkenik arrakala % 45ekoa da (aurreko neurketan baino 2 puntu portzentual gutxiago). Hau da, Bizkaiko emakumeek, batez beste, gizonek duten errentaren % 60 baino gutxiago dute.


Familia-errentari buruzko datuek berretsi egiten dituzte baliabide ekonomikoen sexuaren araberako banaketa desorekatuari buruz adierazitako joerak.

En contraste, la renta del capital inmobiliario es la única categoría donde las mujeres superan, aunque muy ligeramente, a los hombres, con una brecha positiva del 10 %. De cualquier forma, es el tipo de renta que menor peso tiene en el conjunto y está muy lejos de compensar las diferencias en otras fuentes. La renta de actividades económicas, correspondiente a ingresos por cuenta propia, es la que presenta la mayor brecha de género, del 103 %. Esta cifra no solo indica el menor ingreso de las mujeres autónomas, sino que tiene importantes implicaciones en su capacidad de inversión o la sostenibilidad de sus negocios. En cuanto a las transferencias (prestaciones sociales, pensiones no contributivas, ayudas públicas), las mujeres perciben 6.295 €, mientras los hombres reciben 8.848 €, generando una brecha del 41 %. Esta diferencia es importante de cara a aquellos programas presupuestarios que financian estas prestaciones y ayudas, que parece que siguen lejos de compensar las desigualdades de base.

Como resultado de todas estas desigualdades parciales, la renta disponible total (la suma de todos los ingresos netos) alcanza los 17.708 € para las mujeres y 25.696 € para los hombres, con una brecha final del 45 (2 puntos porcentuales menos que en la pasada medición). Es decir, las mujeres en Bizkaia disponen, en promedio, de menos del 60% de la renta con la que cuentan los hombres.

Los datos sobre renta familiar vienen a confirmar las tendencias señaladas respecto al desigual reparto por sexo de los recursos económicos.

24. grafikoa. Familiak familia-errentaren geruzaren arabera, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera (sexu bakoitzaren errenta osoaren gaineko %) (*). Bizkaia, 2023
Gráfico 24 Familias por estrato de renta familiar, según sexo de la persona perceptora principal (% sobre el total de renta de cada sexo) (*). Bizkaia, 2023



(*) % bertikala da, hau da, emakumeen errenta-talde bakoitzeko emakumeen ehunekoen batura % 100 da, baita gizonen kasuan ere.
Representa el % vertical, es decir la suma de los porcentajes de las mujeres en cada grupo de renta de las mujeres es el 100%; así también en el caso de los hombres.

Fuente: EUSTAT

Grafikoak sexuaren araberako kontzentrazio-indizeak adierazten ditu errenta-talde bakoitzean. Bertan, beste era batera ikusten da emakumeak buru dituzten familiak errentaren tarterik baxuenetan kontzentratzen direla, eta gizonak buru dituztenak nagusi direla maila ertain-altu eta altuetan. Halaber, bereziki ahulak diren taldeak identifikatzeko aukera ematen du, hala nola, diru-sarrerarik ez dutenak ("errentarik gabekoak"), emakumeen % 3,2 eta gizonen % 1,8 biltzen dituztenak, edo oso errenta txikikoak (9.000 €-ra arte urtean), zeinetan emakumeen proportzioa gizonena baino bi aldiz handiagoa den (% 5,6 vs % 2,8), errenta baxuen feminizazio argia erakutsiz.

El gráfico representa los índices de concentración por sexo en cada grupo de renta. En él, se observa de otra manera la concentración de las familias encabezadas por mujeres en los tramos más bajos de renta, mientras que las encabezadas por hombres dominan en los niveles medios-altos y altos. También permite identificar grupos especialmente vulnerables, como el constituido por aquellas que no tienen ingresos (“sin rentas”) que agrupa al 3,2% de las mujeres frente al 1,8% de los hombres, o el de rentas muy bajas (hasta 9.000 € anuales), en las que la proporción de mujeres duplica a la de hombres (5,6% vs 2,8%), mostrando una clara feminización de las rentas bajas.


Errenta-tarte ertainetatik aurrera (24.001 - 39.000 €), joera irauli egiten da: emakumeen % 18,9 eta gizonen % 22,9; eta handitu egiten da errenta ertain-altuak (39.001 - 54.000 €), altuak (54.001 - 93.000 €) eta oso altuak (93.001 - 102.000 €) dituzten familietan, non emakumeen ordezkaritza baxuak jarraitzen duen. Gehieneko errenten taldean (≥ 102.001 €), gizonek nabarmen gainditzen dituzte emakumeak (% 8,7 vs % 6,6, -2,1 p.p.), eta generoko sabai ekonomikoa finkatzen dute.

Errenta baxuen feminizazioaren beste alderdia da funtsezko bi gizarte-prestazioen onuradunen artean emakumeek duten gehiegizko ordezkaritza: laneko diru-sarrerak osatzeko errenta (% 63 emakumeak, aurreko 2022ko neurketan baino 3 puntu portzentual gutxiago) eta oinarrizko errenta (% 55,4 baino gehiago). Nahiz eta adierazlerik egokiena estaldura-tasa den, batez ere kontuan hartuta gabezia materialeko egoera desberdinek eragin handiagoa dutela emakumeengan. Jarraian aipatuko ditugu, eta horiekin lehen hurbilketa bat egin daiteke.

A partir de los tramos de renta media (24.001 - 39.000 €), la tendencia se revierte: 18,9% de mujeres y 22,9% de hombres; y pasa a ampliarse en las familias de rentas medias-altas (39.001 - 54.000 €), altas (54.001 - 93.000 €) y muy altas (93.001 - 102.000 €), donde persiste la infrarrepresentación femenina. En el grupo de rentas máximas (≥102.001 €), los hombres superan claramente a las mujeres (8,7% vs 6,6%, -2,1 p.p.), consolidando el techo económico de género.

La otra cara de la feminización de las rentas bajas es la sobrerrepresentación de las mujeres entre las personas beneficiarias de dos prestaciones sociales clave: la renta complementaria de ingresos de trabajo (63% de mujeres, 3 puntos porcentuales por debajo de la anterior medición, de 2022) y la renta básica (más del 55,4%). Aunque el indicador más adecuado, sobre todo teniendo en cuenta la mayor incidencia de distintas situaciones de carencia material en las mujeres, de las que se hablará a continuación, es la tasa de cobertura.

25. grafikoa. Gizarte-prestazioen onuradunak prestazio motaren eta sexuaren arabera (% sexuaren arabera) Bizkaia, 2024
Gráfico 25. Personas beneficiarias de prestaciones sociales por tipo de prestación y sexo (% por sexo) Bizkaia, 2024



Iturria: Lanbidea. Diru-sarrerak bermatzeko prestazioen jasotzaileen estatistika Euskadin 2024
Fuente: Lanbide. Estadística de personas beneficiarias de prestaciones de garantía de ingresos en Euskadi 2024

Hala, lehenengoak, beste era batera, enplegua lortzeari eta lan-baldintzei dagokienez dauden egiturazko desberdintasunak islatzen ditu, eta agerian uzten du emakumeak direla, enplegatuta egon arren, oinarrizko premiak betetzeko diru-sarrera nahikorik lortzen ez dutenak. Bestalde, oinarrizko errentan 10 puntu baino gehiagoko aldea dago, nahiz eta aurrekoa baino txikiagoa izan —horretan, ziur asko, zerikusia du bizikidetza-unitate osoaren diru-sarrerekin eta ondarearekin lotutako prestazio mota bat dela, ez bakarrik eskatzen duenarena[11]—, eta horrek adierazten jarraitzen du emakumeek pobrezia- eta gizarte-bazterkeriako arrisku handiagoa dutela, eta gizarte-babeseko sistemekiko mendekotasun handiagoa dutela premia horiei erantzuteko.

Ikuspegi hori osatuz, hurrengo grafikoak 2025eko uneren batean Gizarte Ekintza Sailak kudeatutako prestazioak jaso zituzten pertsonen kopurua jasotzen du, mendetasunari, zaintzari eta gizarte-babesari lotutako laguntza ekonomiko eta prestazio nagusien sexuaren araberako banaketa zehatzago aztertzeko aukera emanez.


Así, el primero refleja, de otra manera, las desigualdades estructurales en el acceso al empleo y las condiciones laborales, evidenciando que son mayoritariamente las mujeres quienes, aun estando empleadas, no alcanzan niveles de ingresos suficientes para cubrir necesidades básicas. Por otro lado, la brecha de más 10 puntos en la renta básica, aun siendo menor que la anterior —en lo que probablemente influya que sea un tipo de prestación ligada a los ingresos y patrimonio de toda la unidad de convivencia, no solo de quien lo solicita[11] —, sigue indicando el mayor riesgo de pobreza y exclusión social de las mujeres, que las sitúa en una posición más dependiente de los sistemas de protección social para cubrir estas necesidades.

Completando este panorama, el siguiente gráfico recoge el número de personas que, en algún momento de 2025, fueron perceptoras de distintas prestaciones gestionadas por el Departamento de Acción Social, permitiendo analizar con mayor rigor la distribución por sexo de las principales ayudas económicas y prestaciones vinculadas a la dependencia, los cuidados y la protección social.

11 Gogoratu behar da oinarrizko errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera bizikidetza-unitate osoaren diru-sarreretan eta ondarean oinarritzen dela, ez bakarrik eskatzen duenarenean; alde horretatik, kontuan hartu beharko litzateke gizonak onuradun gisa agertzen diren familietan jarduerarik gabeko egoeran eta bizi-baldintza are prekarioagoetan dauden emakumeak egon litezkeela.

Cabe recordar que la renta básica o el Ingreso Mínimo Vital se basa en los ingresos y patrimonio de toda la unidad de convivencia, no solo de quien lo solicita; en este sentido, cabría valorar la posibilidad de que en hogares donde los hombres aparecen como beneficiarios haya mujeres en situación de inactividad y condiciones de vida aún más precarias.

25b. grafikoa. Gizarte Ekintza Sailaren prestazioen onuradunak, prestazio motaren eta sexuaren arabera. Bizkaia, 2025
Gráfico 25b. Personas beneficiarias de prestaciones del Departamento de Acción Social por tipo de prestación y sexo. Bizkaia, 2025



OHARRA / NOTA: Grafikoan erabilitako laburdurak / Abreviaturas utilizadas en el gráfico:
KGP Kotizazio gabeko pentsioa / *PNC-Pensión no contributiva*
PE-Prestazio Ekonomikoa / *PE-Prestación Económica*
ZLP-Zerbitzuari lotutako prestazioa / *PVS-Prestación Vinculada Servicio*
LISMI (*) - 13/1982 Lege zaharraren esparruko prestazioei buruzko datu ez-ofizialak.
LISMI (*) - Datos no oficiales sobre prestaciones en el marco de la antigua Ley 13/1982.
Iturria: Egileak eginda Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailak emandako datuetan oinarrituta
Fuente: elaboración propia a partir de datos aportados por el Dpto. de Acción Social de la DFB.

Datu horietan bereziki nabarmentzen da familia-zaintzarako prestazio ekonomikoa, onuradunen bolumen handiena biltzen baitu (30.245), eta horietatik % 59,0 emakumeak dira. Egoitza-zerbitzuekin lotutako prestazioek ere feminizazio handia dute; izan ere, emakumeak dira egoitza iraunkorraren onuradunen % 70,3 eta aldi baterako egonaldien % 77,8. Era berean, emakumeak gehiengoa dira kotizazio gabeko erretiro-pentsioak (% 65,1) eta prestazio horiei lotutako alokairu-osagarriak (% 56,9) jasotzen dituztenen artean.

En estos datos destaca especialmente la prestación económica para cuidados familiares, que concentra el mayor volumen de personas beneficiarias (30.245), de las cuales el 59,0% son mujeres. También presentan una elevada feminización las prestaciones vinculadas a servicios residenciales, donde las mujeres representan el 70,3% de las personas beneficiarias de residencia permanente y el 77,8% de las estancias temporales. Asimismo, las mujeres son mayoría entre las personas perceptoras de pensiones no contributivas de jubilación (65,1%) y del complemento de alquiler asociado a estas prestaciones (56,9%).

Feminizazioa are handiagoa da zainketei zuzenean lotutako prestazioetan. Zaintzaileentzako atsedenaren % 68,2 emakume onuradunak dira, eta laguntza pertsonalaren prestazioaren % 62,5. LISMIren kasuan, hartzaileen % 75,8 emakumeak dira. Banaketa orekatuagoa duen prestazio bakarra baliaezintasuneko kotizazio gabeko pentsioa da, non emakumeak guztizkoaren % 45,2 diren.

La feminización es aún más intensa en aquellas prestaciones directamente vinculadas a los cuidados. El descanso para personas cuidadoras registra un 68,2% de mujeres beneficiarias y la prestación de asistencia personal un 62,5%. En el caso de la LISMI, las mujeres representan el 75,8% de las personas perceptoras. La única prestación en la que la distribución resulta más equilibrada es la pensión no contributiva de invalidez, donde las mujeres suponen el 45,2% del total.


Oro har, datuek berriz ere agerian uzten dute bizi-zikloan metatutako desberdintasunek —enpleguan, diru-sarreretan eta zaintza-arduretan— emakumeen presentzia handiagoa dakartela laguntza ekonomikoko eta gizarte-arretako prestazioen onuradunen artean.

En conjunto, los datos vuelven a poner de manifiesto cómo las desigualdades acumuladas a lo largo del ciclo vital —en empleo, ingresos y responsabilidades de cuidados— se traducen en una mayor presencia de mujeres entre las personas beneficiarias de las prestaciones de apoyo económico y atención social.

Azkenik, errenta-mailen arteko desberdintasun horiek dituzten ondorioetara hurbilduz, hurrengo grafikoan oinarrizko ondasun bat (etxebizitza) eskuratzeko prozesuan eragina dutenak adierazten dira.

Finalmente, en una aproximación a las consecuencias que tienen estas desigualdades en niveles de renta, el siguiente gráfico representa las que impactan en el acceso a un bien básico como es la vivienda.

26. grafikoa. Etxebizitza eskuratzeko premian dauden pertsonak sexuaren eta diru-sarreren edo eskuragarri dauden errenta propioen arabera (% sexuaren arabera) Bizkaia, 2023
Gráfico 26. Personas en la necesidad de acceso a una vivienda por sexo e ingresos o rentas propias disponibles (% por sexo) Bizkaia, 2023



Iturria: Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila, Etxebizitzen Beharren eta Eskariaren Inkesta.
Fuente: Dpto de Vivienda y Agenda Urbana- Encuesta sobre Necesidades y Demanda de Vivienda

Nahiz eta guztizkoan emakumeak diren etxebizitza behar duten pertsonen % 46,0, gizonen % 54,0ren aldean, azterketa bereiziak erakusten du emakumeak gainordezkatuta daudela kalteberatasun handieneko tarteetan. Hala, gizonak gehiengoa dira diru-sarrera nahikoak dituztenen artean, 5.345, ia 9 puntu portzentualeko arrakala baitute emakumeekiko (4.472), eta horrek adierazten du gizonek gaitasun ekonomiko handiagoa dutela baliabide propioen bidez etxebizitza-premiak estaltzeko. Gehiengo hori diru-sarrera gutxiegi edo irregularrak dituzten pertsonen taldean ere ematen da, non emakumeak % 44,2 diren (15.929) eta gizonak % 55,8 (20.138 gizon egoera honetan). Hala ere, inolako diru-sarrerarik ez duten pertsonen artean, emakumeak dira gehiengoa (% 51,2, guztira 7.158), gizonak baino 2,5 puntu portzentual gehiago (% 48,8, 6.814 gizon kategoria honetan). Puntu hori bereziki garrantzitsua da genero-ikuspegitik; izan ere, agerian uzten du ahultasun ekonomiko handieneko egoeretan emakumeek ordezkaritza handiagoa dutela, eta horrek agerian uzten du muturreko pobreziarekiko eta mendekotasun ekonomikoarekiko esposizio handiagoa dutela. Horretaz arituko gara hurrengo epigrafean.

4.2. Pobreziaren feminizazioa


Desberdintasun-kate horren azken mailan pobrezia- eta prekarietate-egoerak daude; eskuragarri dauden adierazle guztiek erakusten dute egoera horiek eragin handiagoa dutela emakumeengan. Lehenik eta behin, benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerei sexuaren arabera erreparatzen badiegu, datuek erakusten dute genero-desberdintasunek bere horretan dirautela baliabideak, egonkortasun ekonomikoa eta ongizate-baldintzak eskuratzeari dagokionez.

Aunque en el total las mujeres representan un 46,0% de las personas que necesitan acceder a una vivienda, frente al 54,0% de hombres, el análisis desagregado muestra que las mujeres están sobrerrepresentadas en los tramos de mayor vulnerabilidad. Así, los hombres son mayoría entre quienes cuentan con ingresos suficientes, 5.345, con una brecha de casi 9 puntos porcentuales respecto a las mujeres (4.472), que refleja la mayor capacidad económica de los hombres para cubrir necesidades habitacionales por medios propios. Esta mayoría también se da en el grupo de personas con ingresos insuficientes o irregulares, donde las mujeres suponen el 44,2% (15.929) y los hombres el 55,8% (20.138 hombres en esta situación). Sin embargo, entre las personas sin ningún tipo de ingreso, las mujeres constituyen la mayoría (51,2%, un total de 7.158), superando en 2,5 puntos porcentuales a los hombres (48,8%, 6.814 hombres en esta categoría). Este punto es especialmente relevante desde el enfoque de género, ya que evidencia que, en las situaciones de máxima vulnerabilidad económica, las mujeres tienen una mayor representación, lo que pone de manifiesto su mayor exposición a la pobreza extrema y la dependencia económica. De ello nos ocupamos en el siguiente epígrafe.

4.2. Feminización de la pobreza

En el último eslabón de esta cadena de desigualdades están las situaciones de pobreza y precariedad; todos los indicadores disponibles muestran la mayor incidencia de estas situaciones en las mujeres. Si atendemos, en primer lugar, a las situaciones de pobreza y precariedad real según sexo, los datos ilustran cómo las desigualdades de género persisten en el acceso a recursos, estabilidad económica y condiciones de bienestar.

27. grafikoa. Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoerak sexuaren arabera (% emakume/gizonen guztiarekiko) Bizkaia, 2022
Gráfico 27. Situaciones de pobreza y precariedad real según sexo (% respecto al total de mujeres/hombres) Bizkaia, 2022



Iturria / Fuente: EUSTAT

Hala, 2022an (eskuragarri dagoen azken datua), mantenuko pobreziak —epe laburrean oinarrizko premiei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez izateari erreferentzia egiten diona, batez ere elikadurako, etxebizitzako, jantzien eta oinetakoen gastuei dagokienez— emakumeen % 8ri eragiten dio, eta gizonen % 6,6ri; metatze-pobreziak —beharrezko kontsumo-ondasun iraunkorrak eskuratzeko ezintasuna islatzen duena, hala nola diru-sarrerak, etxebizitza, oinarrizko zerbitzuak, epe luzean bizi-baldintza batzuei eusteko, eta baita epe luzeagoan— biztanleria-proportzio oso baxu bati eragiten dio, non gizonek ehuneko handiagoa duten (% 0,3) emakumeen aldean (% 0,1), ziur asko bakarrik dauden edo familia-sareetatik edo erakunde-sareetatik deskonektatuta dauden gizonen muturreko bazterkeriari lotuta.

Así, en 2022 (último dato disponible), la pobreza de mantenimiento —que hace referencia a una situación de insuficiencia de recursos económicos para hacer frente, en el corto plazo, a la cobertura de las necesidades básicas, particularmente las relacionadas con los gastos de alimentación, vivienda, vestido y calzado— afecta al 8% de las mujeres, frente al 6,6% de los hombres; la pobreza de acumulación —que refleja la incapacidad para acceder a los bienes de consumo duradero necesarios como ingresos, vivienda, servicios básicos, para mantener, en el largo plazo, unas condiciones de vida, y más en el largo plazo— concita a una proporción muy baja de población en la que los hombres presentan un mayor porcentaje (0,3%) frente a las mujeres (0,1%), muy probablemente vinculada a exclusión más extrema de hombres solos o desconectados de redes familiares o institucionales.

Azkenik, pobrezia errealaren tasak[12], gabeziaren baldintza objektiboak eta pobreziaren pertzepzio subjektiboa konbinatzen dituenak, balio handiagoa erakusten du berriro emakumeen artean (% 4,2, gizonen % 3,8ren aldean), eta agerian uzten du prekarietatearen bizipena handiagoa dela emakumeen artean, eta hori genero-rolarekin lotzen da berriz ere —prekarietate horrek beste pertsona batzuen zaintza bere gain hartzean dituen inplikazioengatik—, baita adierazle materialak antzekoak izan daitezkeen testuinguruetan ere. Hori ikusten da, halaber, benetako ongizate-gabezian, hau da, bizimoduan, ohituretan eta gizarte-jarduera arruntetan gutxieneko parte-hartzea izateko baldintzekiko gogobetetze-gabezian. Horrek emakumeen % 8,1i eragiten dio, eta gizonen % 7,6ri, eta agerian uzten du emakumeek, prekarietatearen eraginpean egoteaz gain, hura argitasun eta pisu emozional handiagoarekin bizi dutela.

Orain, adierazle horien denboraren bilakaerari erreparatzen badiogu, hurrengo grafikoak 2008-2022 aldian mantenu-pobrezian dauden emakumeen eta gizonen ehunekoak izan duen aldakuntza adierazten du.


Finalmente, la tasa de pobreza real[12], que combina condiciones objetivas de carencia y percepción subjetiva de la pobreza, vuelve a mostrar un valor más alto entre las mujeres (4,2% frente al 3,8% de los hombres), y evidencia cómo la vivencia de precariedad es más intensa entre las mujeres, lo que vuelve a relacionarse con el rol de género —por las implicaciones que esta precariedad tiene en la asunción del cuidado de otras personas incluso en contextos donde los indicadores materiales puedan parecer similares. Ello se observa también en la ausencia de bienestar real, entendida como la falta de satisfacción con las condiciones para participar mínimamente en el modo de vida, las costumbres y las actividades sociales normales, que afecta al 8,1% de las mujeres, frente al 7,6% de los hombres, evidenciando que las mujeres no solo sufren mayor exposición a la precariedad, sino que la perciben con mayor claridad y peso emocional.

Centrándonos ahora en la evolución en el tiempo de estos indicadores, el siguiente gráfico representa la variación, entre 2008-2022, de los porcentajes de mujeres y hombres en la pobreza de mantenimiento.

12 Edo benetako ongizaterik ezak esan nahi du gizarte jakin batean gizarte horren bizimoduan, ohituretan eta jarduera normaletan maila gutxieneko batean parte hartzeko beharrezkotzat jotzen diren gastuei –epe laburrean– aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez dagoela. Ongizaterik eza izateko arriskuan daude, erreferentzia-aldi jakin batean, gizarte jakin batean gutxieneko ongizate-maila horiek lortzeko espero diren adierazitako atalaseak baino diru-sarrera txikiagoak dituzten familia-unitateak.

O ausencia de bienestar real hace referencia a una situación de insuficiencia de recursos económicos para hacer frente - en el corto plazo - a los gastos que son considerados, en una determinada sociedad, como necesarios para participar mínimamente en el modo de vida, las costumbres y las actividades normales de dicha sociedad. Se encuentran en riesgo de ausencia de bienestar los hogares que disponen en, un periodo de referencia dado, de ingresos inferiores a los umbrales señalados para acceder a estos niveles mínimos de bienestar esperados en una sociedad concreta.

28. grafikoa. Sexuaren arabera portzentajearen bilakaera mantenu-pobrezian. Bizkaia, 2008-2022
Gráfico 28. Evolución del porcentaje por sexo en la pobreza de mantenimiento. Bizkaia, 2008-2022




2008 eta 2022 bitartean, mantenu-pobreziak etengabe eta gero eta gehiago eragin die emakumeei. 2008an, genero-arrakala –% 0,8koa zen; izan ere, emakumeen presentzia handiagoa zen oinarrizko premiak modu iraunkorrean bete ezin zituztenen artean. 2012an alde hori % 0,1era murriztu bazen ere —gogora dezagun erlazio-adierazlea dela, eta jaitsiera hori gehiago gertatu zen gizonen tasak gora egin zuelako (ziur asko krisi ekonomikoak enplegu maskulinizatuetan izan zuen eraginaren ondorioz), emakumeen tasak behera egin zuelako baino—, gainerako serieetan desberdintasuna handitzeko joera argia dago. Gainera, 2014tik aurrera, arrakala berriro handitu da (–% 1), eta egonkor mantendu da hurrengo urteetan: –% 1,1 2018an eta –% 1,2 2020an. Azken hori pandemiaren inpaktuarekin bat dator, bereziki gogor eragin baitzien emakumeei sektore prekarizatuetan edo feminizatuetan. 2022an, arrakala punturik altuenera iritsi zen, -% 1,4rekin. Datu kezkagarria da, emakumeen artean pobrezia iraunkorragoa dagoela baieztatzeaz gain, arrakala areagotu ere egin daitekeela ohartarazten baitu.

Entre 2008 y 2022, la pobreza de mantenimiento ha afectado de forma persistente y creciente a las mujeres. En 2008, la brecha de género era de –0,8%, ya señalando una mayor presencia femenina entre quienes no podían cubrir de forma sostenida sus necesidades básicas. Aunque en 2012 esta diferencia se redujo a –0,1% —recordemos que es un indicador relacional, y este descenso se produjo más por incremento de la tasa masculina (como efecto probablemente del impacto de la crisis económica en los empleos masculinizados) que por decremento de la femenina—, el resto de la serie muestra una tendencia clara al aumento de la desigualdad. Además, a partir de 2014, la brecha se amplía nuevamente (–1 %) y se mantiene estable en los años siguientes: –1,1% en 2018 y –1,2% en 2020, coincidiendo este último con el impacto de la pandemia, que afectó de forma especialmente dura a las mujeres en sectores precarizados o feminizados. En 2022, la brecha alcanza su punto más alto, con un –1,4%, un dato preocupante que no solo confirma la consolidación de una pobreza más persistente entre las mujeres, sino que alerta de que puede incluso incrementarse la brecha.

Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeran dauden biztanleen profiletan sakonduz, genero-ikuspegitik garrantzitsuak izan daitekeen beste datu erabilgarri bat egoera horien banaketa da, familia-motaren edo erreferentziako pertsonaren arabera, eta horrek aukera ematen du generoaren eta okupazio-egonkortasunaren araberako inpaktu diferentziala garbiago ikusteko. Horrela, 2022an (eskura dagoen azken datua) pobrezia-egoeren % 17,2 bakarrik dauden eta okupazio egonkorra duten edo ez duten emakumeen artean erregistratzen da; horrek esan nahi du talde horretan ahultasun handia dagoela, ziurrenik diru-sarrera txikien, laguntza ekonomikorik ezaren eta zaintza-erantzukizunen arteko konbinazioaren ondorioz. Bakarrik dauden gizonen kasuan zertxobait txikiagoa da, % 14,6; horrek iradokitzen du, prekarietate-egoeretan aurkitzen diren arren, egoera berean dauden emakumeen artean baino gutxiagotan gertatzen direla gizonezkoen kasuak.

Profundizando en los perfiles poblacionales en situación de pobreza y precariedad real, otro de los datos disponibles que pueden ser relevantes desde el enfoque de género es la distribución de estas situaciones según el tipo de hogar o persona de referencia, lo que permite observar con mayor nitidez el impacto diferencial según el género y la estabilidad ocupacional. Así, en 2022 (último dato disponible) el 17,2% de las situaciones de pobreza se registra en mujeres solas con o sin ocupación estable, lo que indica una fuerte vulnerabilidad en este grupo, posiblemente derivada de la combinación entre ingresos bajos, falta de apoyo económico y responsabilidades de cuidado. En el caso de hombres solos es algo menor, 14,6%, lo cual sugiere que, aunque también enfrentan situaciones de precariedad, son menos frecuentes que entre las mujeres en igual condición.

29. grafikoa. Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, etxeko mota soziodemografikoaren edo erreferentziazko pertsonaren motaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleak. Egoera horretan dauden etxebizitzen guztizkoaren gaineko %. Bizkaia, 2022
Gráfico 29. Distribución de las situaciones de pobreza y precariedad real por tipo sociodemográfico del hogar o de su persona de referencia. Población en viviendas familiares. % sobre el total de viviendas en esta situación. Bizkaia, 2022



Iturria /Fuente: EUSTAT

Emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiek pobrezia-egoeren % 32,6 biltzen dute, "lan egonkorra duten edo ez duten familia-taldeen" kategoria zabalenaren eta heterogeneoenaren atzetik garrantzi handiena duen bigarren egoera. Datu horrek kontraste nabarmena egiten du pobrezia- eta prekarietate-egoeran dauden familia unitate guztietan gizonak buru dituzten guraso bakarreko familien unitateen proportzioarekin (% 0,3). Emakume bat buru duten guraso bakarreko familietan pobreziak duen garrantzi handiagoak agerian uzten du pobreziaren feminizazioa areagotu egiten dela emakumeek bakarrik hartzen dituztenean beren gain familia-erantzukizunak.

Oro har, datuek agerian uzten dute korrelazio handia dagoela familia-ereduaren, generoaren eta pobreziaren artean. Egoera horiek azken 15 urteetan izan duten bilakaerak erakusten du pobreziak eta benetako prekarietateak etengabe eragiten dietela emakumeen profil desberdinei, eta genero-desberdintasunak beste desberdintasun-ardatz batzuekin gurutzatzen direla, hala nola adinarekin eta lan-egoerarekin.

Horrela, familia-etxebizitzetan pobrezia- eta prekarietate-egoeran dagoen biztanleria osoa 2008an 89.706 izatetik 2018an 130.965 izatera igo zen, eta 2022an 87.387ra jaitsi. Hala ere, emakumeen profil ahulenek errealitate horren zati handi bat biltzen jarraitzen dute.

Lan egonkorrik gabe bakarrik zeuden emakume gazteak 240 ziren 2008an eta 2.294 2014an. 2022an 974ra jaitsi ziren arren, aldiaren hasieran baino lau aldiz gehiago dira oraindik, eta horrek egiturazko prekarietate finkatua erakusten du. Enplegu egonkorra duten eta bakarrik dauden emakumeek bilakaera aldakorragoa erakusten dute: 2008an 765 izatetik 2012an 167 izatera jaitsi dira, 2020an nabarmen igo dira (1.662) eta 2022an 356ra jaitsi dira. Berriro ere COVID-19aren pandemiak eragindako enplegu-krisiaren ondorio desberdinek erakusten dute emakumeen hauskortasun ekonomiko handiagoa, baita enplegua lortzen dutenena ere.

Las familias monoparentales encabezadas por mujeres concentran el 32,6% de las situaciones de pobreza, la segunda de las situaciones con más peso detrás de la categoría más amplia y heterogénea de “grupos familiares con o sin ocupación estable”. El dato contrasta significativamente con la casi testimonial proporción que representan los hogares monoparentales encabezados por hombres (0,3%) en el conjunto de los hogares en situación de pobreza y precariedad. El peso mayor de la pobreza en familias monoparentales encabezadas por una mujer revela cómo la feminización de la pobreza se intensifica cuando las mujeres asumen solas las responsabilidades familiares.

En conjunto, los datos ponen de manifiesto la fuerte correlación entre modelo de hogar, género y pobreza. La evolución de estas situaciones en los últimos 15 años muestra cómo la pobreza y la precariedad real afectan de forma persistente a distintos perfiles de mujeres, entrecruzando las desigualdades de género con otros ejes de desigualdad como la edad y la situación laboral.

Así, la población total en situación de pobreza y precariedad en viviendas familiares creció de 89.706 en 2008 a 130.965 en 2018, para descender en 2022 a 87.387. Sin embargo, los perfiles femeninos más vulnerables siguen concentrando una parte sustancial de esta realidad.


Las mujeres jóvenes solas sin ocupación estable pasaron de ser 240 en 2008 a 2.294 en 2014. Aunque en 2022 bajan a 974, siguen siendo cuatro veces más que al inicio del periodo, lo que evidencia una precariedad estructural consolidada. Las mujeres solas con empleo estable muestran una evolución más volátil: de 765 en 2008 caen a 167 en 2012, repuntan con fuerza en 2020 (1.662) y descienden a 356 en 2022, señalando de nuevo los diferentes efectos de la crisis del empleo por la pandemia de COVID-19, la mayor fragilidad económica de las mujeres, incluso de aquellas que acceden al empleo.

Bestalde, enplegu egonkorrik ez duten 45 urte edo gehiagoko emakumeak bigarren talde ugariena dira: 2014an eta 2016an 5.400 baino gehiago izan ziren, eta 2022an 3.999 dira oraindik, eta horien pobreziak lan-bazterketa iraunkorraren eragina islatzen du.

Por su parte, las mujeres solas de 45 años o más sin empleo estable son el segundo grupo más numeroso: superan las 5.400 en 2014 y 2016, y en 2022 aún suman 3.999, cuya pobreza refleja el impacto de una exclusión laboral sostenida.

30. grafikoa. Benetako pobrezia- eta prekarietate-egoeren banaketa, etxeko mota soziodemografikoaren edo erreferentziazko pertsonaren arabera. Familia-etxebizitzetako biztanleak. Datu absolutuak. Bizkaia, 2008-2022

Gráfico 30. Distribución de las situaciones de pobreza y precariedad real por tipo sociodemográfico del hogar o de su persona de referencia. Población en viviendas familiares. Datos absolutos. Bizkaia, 2008-2022



Iturria / Fuente: EUSTAT

Azkenik, 65 urtetik gorako emakumeak dira, batez beste, pobrezia-egoeretako biztanleria-talde ugariena. Gainera, bere bilakaerak gorabehera handiak izan baditu ere, 2018an lortu zuen maximoa (6.525), eta 2022an ere hala izaten jarraitzen du. Emakumeek beren bizi-ibilbideetan metatutako genero-desberdintasunen ondorioz zahartzaroan pentsio eta laguntza-sare nahikorik

Finalmente, las mujeres mayores de 65 años son en promedio el grupo poblacional más numeroso en situaciones de pobreza. Además, aunque su evolución experimenta altibajos importantes, alcanzado su máximo en 2018 (6.525), sigue siéndolo en 2022. La insuficiencia de pensiones y redes de apoyo en la vejez, producto de desigualdades de género acumuladas por las

ez izateak populazio-talde kalteberenetako bat dela berresten du.

Faktore askok eragiten dute desberdintasun horietan, eta desberdintasunen gurpil zoro bat sortzen dute. Hala, lan-bizitzan dauden desberdintasunen intzidentzia metatuak (behin-behinekotasun handiagoa, partzialtasun handiagoa, zainketengatiko etena, segregazioa, zuzendaritza-postuetarako sarbide txikiagoa), emakumeen lanaren gutxiespenak —bai ordaindua, bai ordaindu gabea—, beste diru-iturri batzuetarako sarbide txikiagoa izateak eta abarrek desberdintasunak azaltzen dituzte errentan, eta horrek zuzeneko inplikazioak ditu emakumeen autonomia ekonomikoan, aurrezteko eta inbertitzeko gaitasunean eta gizarte-babesean; eta zeharkakoak, beren bizitzako ia eremu guztietan: berdintasunezko harreman pertsonalak ezartzeko aukerak, indarkeria-egoeretatik irtetea, sorkuntza artistiko edo kulturalera irismena lortzea, enpresak sortzea, gizartean eta politikan parte hartzea, eta abar.

Emakumeei eragiten dieten desberdintasun ekonomikoen erradiografia horrek erakusten du arrakalak ez direla fenomeno isolatu edo koiunturala, baizik eta egiturazko gertaera bat, aurrekontu publikoetatik erantzun politiko integrala ematea eskatzen duena, eta konbinatuko dituena enpleguko berdintasuna, aktiboen birbanaketa, gizarte-babesa eta justizia fiskala genero-ikuspegiarekin.

V. GIZARTE ANTOLAKETA ERANTZUKIDEA

Emakumeen eta gizonen arteko ia edozein desberdintasunen azpian dauden kausak aztertzen direnean —enpleguaren prekarietatea, erabakiak hartzen diren espazioetarako sarbide txikiagoa, hezkuntza-hautuen bereizketa eta osasun arloko desberdintasunak—, lanaren sexu-banaketa eta zainketen banaketa desorekatua azalpen faktore gisa agertzen dira beti. Gai hori gero eta nabarmenagoa da mugimendu feministen eta emakumeen mugimenduen eskariei esker, eta oraindik ez da iritsi politika publikoen erdigunera, hor egon beharko

mujeres a lo largo de sus trayectorias vitales confirma a este como uno de los grupos poblacionales más vulnerables.

Hala, Bizkaian gizonak gehiengoa dira aztertutako sektore gehienetan, liburuaren industrian izan ezik, non emakumeak enpleguaren % 61,5 baitira, eta gizonak, berriz, % 38,5. Presentzia hori, ziurrenik, emakumeek argitalpen-eginkizunetan, kudeaketaren funtzioan eta irakurketaren sustapenean duten pisu historikoari lotuta dago. Beste gauza bat izango litzateke, seguruenik, argitalpenen egiletzari buruzko datuak edukitzea. Hemen, genero-azterketek erakusten dute argitaletxeen sektorea feminizatuta dagoela ekoizpenean (editoreak, zuzentzaileak,

Así, en Bizkaia, los hombres son mayoría en la mayor parte de los sectores considerados, salvo en la industria del libro donde las mujeres representan el 61,5% del empleo frente al 38,5% de los hombres, una mayor presencia probablemente vinculada al peso histórico de las mujeres en funciones editoriales, de gestión y promoción de la lectura. Otra cosa sería, probablemente, si pudieran tenerse datos sobre autoría de las publicaciones. Aquí, los estudios de género demuestran que el sector editorial es feminizado en producción (editoras, correctoras,

itzultzaileak) eta kontsumoan (emakumeak gehiengoa dira irakurleen artean), baina generoen arteko arrakalak jarraitzen du zuzendaritzan, sorkuntzan eta aintzatespenean. Hori irudikatzeko, eskuragarri dauden datuek, Espainiako estatuari buruzkoak (Liburuaren Espainiako Edizioaren Estatistika, 2022), erakusten dute liburuen % 26 inguru bakarrik idatzi zituztela emakumezkoek.

Beste muturrean daude musika- eta ikus-entzunezko produkzioarekin lotura handiena duten eremuak, eta hor gizonezkoen enplegua nagusi da. Bizkaiko musika-industriako enpleguan gizonak % 63,2ra iristen dira, eta emakumeak, berriz, % 36,8ra, eta diskoaren programatzaileen eremuan alde hori are handiagoa da (% 68,7 eta % 31,3, hurrenez hurren).

Ikus-entzunezkoen industrian gizonen gehiengoa ikusten da, baina ez hain nabarmena: % 56,6 gizon, emakumeak % 43,4 izanik. Arte eszenikoen eremua ere orekatuagoa da, programatzaileak enpleguaren % 51,7 baitira. Bestalde, interesgarria litzateke beste gai batzuk ere ikertu ahal izatea, hala nola enpleguaren kalitatea, industria horien rol teknikoak eta zuzendaritza-rolak eskuratzea, etab. Euskadin egindako azterketek[14] erakusten dute oraindik ere desberdintasun handiak daudela eremu horietan.

Egoera hau zertxobait gehiago osatze aldera adierazle bat gehitu da ekitaldi honetan. Adierazle horrek, berriz ere sektore horri buruzko hurbilketa tangentziala eskaintzen badu ere, ikuspegi orokor osatuagoa emateko aukera ematen du, gutxienez. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueretan lan egiten duten emakumeen eta gizonen kopuruaren bilakaera da Bizkaian, 2018 eta 2025 artean.

traductoras) y en consumo (las mujeres son mayoría entre la población lectora), pero persiste una brecha de género en la dirección, la creación y el reconocimiento. Para ilustrarlo, los datos disponibles, referidos al estado español (Estadística de la Edición Española de Libro, 2022), muestran que solo aproximadamente un 26 % de los libros fueron escritos por autoras.

En el extremo opuesto se sitúan los ámbitos más ligados a la producción musical y audiovisual, donde se concentra el empleo masculino. En el empleo en la industria musical de Bizkaia, los hombres alcanzan el 63,2% frente al 36,8% de mujeres, y en el ámbito de las programadoras del disco esta diferencia es aún mayor (68,7% frente a 31,3%).


En la industria audiovisual se observa una mayoría de hombres, aunque no tan pronunciada, con un 56,6% frente al 43,4% de mujeres; también es más equilibrado el ámbito de las artes escénicas, en el que las programadoras suponen el 51,7% del empleo. Por otro lado, sería interesante poder indagar algo más en cuestiones como la calidad del empleo, el acceso a los roles técnicos y directivos de estas industrias, etc. Estudios realizados en Euskadi[14] muestran que existen todavía desigualdades importantes en estos ámbitos.

Con el fin de completar algo más este panorama, se ha incluido en este ejercicio un indicador que, si bien vuelve a ofrecer una aproximación tangencial a este sector, sí permite al menos dar un panorama general más completo. Se trata de la evolución del número de mujeres y hombres empleados en las actividades artísticas, recreativas y de entretenimiento en Bizkaia entre 2018 y 2025.

14 Lurralde maila honetarako eta adierazpen artistiko eta kulturalaren eremu zehatz baterako erreferentzia bat EAEko 2023ko antzerki programazioan eta sorkuntzan emakumeen eta gizonen presentziaren eta parte-hartzearen azterketa da (Kulturaren Euskal Behatokia, 2024).

Una referencia para este nivel territorial y de un ámbito concreto de la expresión artística y cultural es el estudio Análisis de la presencia y participación de mujeres y hombres en programación y creación teatral en la CAE 2023 (Observatorio Vasco de la Cultura, 2024).

52. grafikoa. Pertsona enplegatuak arte, aisialdi eta entretenitzeko jardueretan Bizkaian, 2018-2025
Gráfico 52. Personas empleadas en actividades artísticas, recreativas y de entretenimiento en Bizkaia, 2018-2025



Iturria / Fuente: EUSTAT

Datuek erakusten dute emakumeen eta gizonen enpleguak hazkunde jarraitua izan duela aldi horretan, emakumeen enplegua 3.395 langilekoa izan baitzen 2018an eta 4.441 langilekoa 2025ean, eta gizonena 4.477koa izatetik 5.715ekoa izatera igaro baita. Emakumeen enplegua kopuru absolutuetan gehiago hazi den arren (mila emakume baino gehiago ari dira lanean), gizonezkoen presentzia handiagoa da oraindik serie osoan zehar. 2025ean, emakumeak sektoreko enplegu osoaren % 43,7 dira gutxi gorabehera, eta gizonak, berriz, % 56,3. Hala, genero-arrakala iraunkorra da.

Ikusitako bilakaerak erakusten du emakumeak kultura- eta jolas-sektorean sartzeko nolabaiteko gaitasuna dutela, baina parekotasunera iritsi gabe. Desberdintasun hori hainbat faktorerekin lotuta egon daiteke, hala nola kultura- eta jolas-jardueren barruko okupazio-segregazioarekin, eremu tekniko

Los datos muestran un crecimiento sostenido del empleo tanto femenino como masculino a lo largo del periodo, pasando las mujeres de 3.395 empleadas en 2018 a 4.441 en 2025, y los hombres de 4.447 a 5.715. Aunque el empleo femenino aumenta más en términos absolutos —con un incremento de más de mil mujeres ocupadas en el periodo—, la presencia masculina continúa siendo claramente superior durante toda la serie. En 2025, las mujeres representan aproximadamente el 43,7% del empleo total del sector, frente al 56,3% de hombres, manteniéndose una brecha de género persistente.

La evolución observada refleja una cierta capacidad de incorporación de las mujeres al sector cultural y recreativo, aunque sin alcanzar la paridad. Esta desigualdad puede estar vinculada a factores como la segregación ocupacional dentro de las propias actividades culturales y recreativas,


edo zuzendaritzako eremu jakin batzuetan gizonen presentzia handiagoarekin, eta sektorearen bereizgarri diren eta emakumeei modu bereizian eragin ohi dieten lan-ezegonkortasuneko baldintzekin.

Aurten ere, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak aitorpenaren alorrean emandako datuen eskuragarritasuna ospatzen da, kasu honetan, ikusizko artista emergenteen Ertibil Sarien deialdi publikoari buruzkoak. 2025. urtean, hautatutako pertsona gehienak emakumeak izan ziren, 13 zehazki (% 72,2) eta 5 gizon. Interesgarria litzateke kopuru hori deialdira aurkeztu diren emakume eta gizon guztiekin lotzea, batzuen eta besteen emate-tasak ezagutzeko, aintzatespen hori lortzerakoan. Hurrengo grafikoak deialdi horietan batzuek eta besteek lortutako emaitzak erakusten ditu.

la mayor presencia masculina en determinados ámbitos técnicos o de dirección, así como a las condiciones de inestabilidad laboral que caracterizan al sector y que suelen afectar de manera diferenciada a las mujeres.

También este año se celebra la disponibilidad de datos aportados por el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte en la dimensión de reconocimiento, en este caso relativos a la convocatoria pública de Premios Ertibil a artistas visuales emergentes. En el año 2025, la gran mayoría de las personas seleccionadas fueron mujeres 13 (72,2%) frente a 5 hombres, Sería interesante poner en relación esta cifra con el total de mujeres y hombres que se han presentado a la convocatoria, con objeto de conocer las tasas de concesión de unos y otras a la hora de obtener este reconocimiento. El siguiente gráfico muestra los resultados obtenidos por unas y otros en estas convocatorias.

53. grafikoa. Beka artistikoak emateari buruzko adierazleak, diziplinen arabera. Bizkaia, 2025
Gráfico 53. Indicadores sobre la concesión de becas artísticas según disciplinas. Bizkaia, 2025



Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak emandako datuetan oinarrituta
Fuente: Elaboración propia a partir de los datos aportados por el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la DFB.

Emaitzek alde nabarmenak erakusten dituzte diziplina artistikoaren arabera. Musikan emakumeen pisuaren (% 46,4) eta onuradunen (% 46,7) arteko korrespondentzia ia erabatekoa dago; Dantzan eta Arte Dramatikoan, aldiz, emakumeen ordezkaritza galdu egin da bekak ematean: emakumeak % 73,3tik % 50ra igaro dira Dantzan eta Arte Dramatikoan % 55,6tik % 42,9ra, eta, gainera, kontzesio-tasak gizonezkoenak baino txikiagoak dira. Ikusizko arteetan, aldiz, emakumeek posizio erlatiboa hobetu dute, eskatzaileen % 64,3tik onuradunen % 88,9ra igaro baitira, eta emakida-tasa gizonena baino nabarmen handiagoa da (% 44,4 eta % 10, hurrenez hurren). Oro har, datuek ez dute desberdintasun-eredu bakar bat islatzen, diziplinaren arabera bereizitako portaerak baizik, eta bereziki garrantzitsua da Dantzan eta Arte Dramatikoan emakumeentzat hain mesedegarriak ez diren emaitzak azaltzen dituzten faktoreetan sakontzea.

Laburbilduz, atal honetan eskuragarri dauden datuek erakusten dute arte-eremuan genero-desberdintasuneko eta -bereizketako patroiak erreproduzitzen direla, eta emakumeen presentzia txikiagoa eta haren barnean bereizketa izateaz gain, azterketa hori Bizkaiko Lurralde Historikorako egitea ahalbidetuko duen informazioa zabaltzeko beharra ere adierazten dute.

7.2. Generoa eta kirola Bizkaian.

Kirol arloan genero-ikuspegitik eskuragarri dauden eta garrantzitsuak diren datuak ere, Bizkaiari buruzkoak zehazki, oso mugatuak dira. Izan ere, jarraian aurkezten diren gehienak Euskadi osoari buruzkoak dira. Muga horrekin, komenigarritzat jo da horietara hurbilpen bat egitea, litekeena baita Bizkaiko biztanleriaren oso antzeko patroiak izatea.

Los resultados muestran diferencias relevantes según la disciplina artística. Mientras que en Música existe una correspondencia prácticamente plena entre el peso de las mujeres entre las solicitantes (46,4%) y entre las beneficiarias (46,7%), en Danza y Arte Dramático se observa una pérdida de representación femenina en la concesión de becas: las mujeres pasan del 73,3% al 50% de las beneficiarias en Danza y del 55,6% al 42,9% en Arte Dramático, registrando además tasas de concesión inferiores a las masculinas. Por el contrario, en Artes Visuales las mujeres mejoran su posición relativa, al pasar del 64,3% de las solicitantes al 88,9% de las beneficiarias, con una tasa de concesión notablemente superior a la de los hombres (44,4% frente a 10%). En conjunto, los datos no reflejan un patrón único de desigualdad, sino comportamientos diferenciados por disciplina, siendo especialmente relevante profundizar en los factores que explican los resultados menos favorables para las mujeres en Danza y Arte Dramático.

Recapitulando, los datos disponibles en este apartado muestran la reproducción de patrones de desigualdad y segregación de género en el ámbito artístico, apuntando no solo a una menor presencia de las mujeres y una segregación interna de la misma, sino también a la necesidad de ir ampliando la información que permita realizar este análisis para el Territorio Histórico de Bizkaia.


7.2. Género y deporte en Bizkaia.

Los datos disponibles y relevantes desde el enfoque de género en el ámbito deportivo referidos específicamente a Bizkaia son, también, muy limitados. De hecho, la mayor parte de los que se presentan a continuación están referidos al conjunto de Euskadi. Con esta limitación, se ha creído conveniente realizar una aproximación a estos, porque es probable que muestren patrones muy similares a los que caracterizan a la población vizcaína.

Horrela, oinarritik hasita, hau da, emakumeen eta gizonen kirol-jardueratik hasita, kasu honetan bai Bizkaiari dagokionez, eskuragarri dauden azken datuek (2019koak) kirola gizonen eguneroko bizitzan gehiago integratzen dela erakusten dute. Hurrengo grafikoak praktika honen maiztasuna adierazten du.

Así, empezando por la base, es decir, la práctica deportiva de mujeres y hombres, en este caso sí referidos a Bizkaia, los últimos datos disponibles (de 2019) muestran una mayor integración del deporte en la vida cotidiana de los hombres. El siguiente gráfico representa la frecuencia en esta práctica.

54. grafikoa. Kirola egiteko maiztasuna (% sexuaren arabera). Bizkaia, 2019 (*).
Gráfico 54. Frecuencia de práctica deportiva (% por sexo). Bizkaia, 2019 (*).



(*) Eskuragarri dagoen azken datua, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera bereizita
Último dato disponible desagregado por sexo y Territorio Histórico
Iturria / Fuente: EUSTAT

Bertan ikus daitekeenez, gizonen % 47,6k adierazi du kirola egin ohi duela, eta emakumeen kasuan, aldiz, % 44,3k. Horrek, nahiz eta alde handia ez izan, gizonen erregulartasun handiagoa berresten du. Joera hori indartu egiten da asteburuetan praktikatzeari erreparatzen badiogu; izan ere, asteburuetan gizonen % 13,7k eta emakumeen % 9,1ek egiten dute jarduera fisikoa. Edo, urtean zehar noizean behin egiten dutenen kasuan ere ohikoagoa da gizonen artean, emakumeen artean baino (% 9,8k eta % 7,4k, hurrenez hurren). Oporretan soilik egiten dutenen kasuan, ehunekoak txikiak eta nahiko antzekoak dira, % 2 emakumeetan eta % 1,5 gizonetan.

En él, puede observarse que el 47,6% de los hombres declara practicar deporte habitualmente frente al 44,3% de las mujeres, lo que, aun siendo una diferencia moderada, confirma la mayor regularidad masculina. Esta tendencia se refuerza si observamos la práctica en fines de semana, donde el 13,7% de los hombres frente al 9,1% de las mujeres realiza actividad física, o la práctica esporádica alguna vez al año, que es también más frecuente en ellos (9,8% frente al 7,4%). En el caso de la práctica restringida a las vacaciones, los porcentajes son bajos y bastante similares, con un 2% en mujeres y un 1,5% en hombres.

Alderik nabarmenena inoiz kirolik egiten ez duen taldean agertzen da: emakumeen % 37,1ek adierazten du ez duela kirol-jarduerarik egiten, eta gizonen artean, aldiz, % 27,4k. Horrek genero-arrakala nabarmena erakusten du kirola egiteko edo integratzeko orduan emakumeen egunerokoan.

Oro har, aldeak muturrekoak ez badira ere, konstantzia eta ohitura handiagoko patroiek jarraitzen dute gizonen artean; emakumeen artean, berriz, kirol-jardueren tasa txikiagoak daude.


Adierazle horren beste hurbilketa bat denboraren erabileren inkestek ematen digute, jarduera horietan emandako denborari buruzko datuak lortzeko aukera ematen baitute. Hurrengo grafikoak Bizkaiko biztanleentzako dedikazio hori jasotzen du, asteko egunaren arabera, 2023an (eskuragarri dagoen azken datua).

La diferencia más relevante aparece en el grupo que nunca practica deporte: el 37,1% de las mujeres declara no realizar actividad deportiva frente al 27,4% de los hombres, lo que refleja una brecha de género significativa en el acceso o la integración del deporte en el día a día de las mujeres.

En conjunto, aunque las diferencias no son extremas, persisten patrones de mayor constancia y hábito en los hombres, mientras que las mujeres presentan menores tasas de actividad deportiva.

Otra aproximación a este mismo indicador nos la dan las encuestas de usos del tiempo, que permiten obtener datos sobre el tiempo dedicado a estas actividades. El siguiente gráfico recoge esta dedicación en 2023 (último dato disponible) para la población de Bizkaia, según día de la semana.

55. grafikoa. Kirol-jardueretan emandako denbora, asteko egunaren arabera. Bizkaia, 2023
Gráfico 55. Tiempo dedicado a actividades deportivas, según día de la semana. Bizkaia, 2023



Iturria / Fuente: EUSTAT

2023an kirol jardueretan emandako batez besteko denborak erakusten du gizonezkoen presentzia handiagoa dela arlo horretan asteko egun guztietan. Asteko denbora, guztira: 1:40 ordukoa da gizonentzat, eta 1:12 ordukoa emakumeentzat; horrek esan nahi du gizonek denbora gehiago ematen dutela ariketa fisikoa egiten. Alde hori mantendu egiten da lanegunetan (gizonen artean 1:35 ordu eta emakumeen artean 1:09 ordu), baita ostiraletan ere (1:46 ordu eta 1:17 ordu, hurrenez hurren). Alderik handiena larunbatetan ikusten da. Egun horretan, gizonek 2:02 ordu ematen dituzte kirol-jardueretan, eta emakumeek, berriz, 1:14 ordu. Horrek esan nahi du asteburuko lan-aisialdiaren erabilera gehiago baldintzatzen dutela beste erantzukizun batzuek edo kirol-jarduerekiko aukera edo interes txikiagoek.

En 2023 el tiempo medio dedicado a actividades deportivas muestra una mayor presencia masculina en este ámbito en todos los días de la semana. El tiempo total semanal es de 1:40 horas para los hombres frente a 1:12 horas para las mujeres, lo que indica una mayor dedicación de ellos al ejercicio físico. Esta diferencia se mantiene en los días laborables (1:35 horas de dedicación en los hombres frente a las 1:09 horas de las mujeres) y también en los viernes (1:46 frente a 1:17 horas). La mayor diferencia se observa los sábados, día en el que los hombres dedican 2:02 horas a actividades deportivas mientras que las mujeres se quedan en 1:14, lo que refleja un uso del tiempo de ocio laboral del fin de semana en el que las mujeres podrían estar más condicionadas por otras responsabilidades o por menores oportunidades o interés por las actividades deportivas.

Hausnarketa hori beste eremu batzuetan ere egin daiteke, emakumeen “interesari” edo motibazioari buruz, genero-aginduek edo -estereotipoek gizartean oso “markatutako” jardueretan, hala nola kirol-jardueretan. Hala, genero-azterketek erakusten dutenez, aukera-berdintasunaren arloan aurrerapen nabarmenak lortzen diren inguruneetan, emakumeen autobazterketa faktore garrantzitsuagoa da. Funtsezko kontua bazterkeria horren arrazoietan sakontzea da, argitzeko ea aukera askea mugatzen duten genero-aginduen iraupenari benetan zein neurritan ezin zaion erantzun. Izan ere, espazio horietatik (kirolak, teknologiak, etab.) baztertzeak emakumeengan dituen ondorio negatiboak dira, bizitza-hobekuntzen eta aukera sozial eta ekonomikoen iturri baitira —gizarte-harremanak, norberaren denbora, lan-aukera posibleak, komunitatearen parte-hartzea, osasun fisikoaren eta mentalaren egoera orokorra hobetzea, etab.

Cabe hacer aquí una reflexión que puede ser generalizable a otros ámbitos sobre la cuestión del “interés” o motivación por parte de las mujeres en actividades muy “marcadas” socialmente por los mandatos o estereotipos de género, como las deportivas. Así, los estudios de género demuestran que, en entornos en los que se logran avances significativos en materia de igualdad de oportunidades, la autoexclusión de las mujeres pasa a ser un factor más relevante. La cuestión fundamental es profundizar en las razones de esta exclusión para dilucidar en qué medida no puede ser en realidad una respuesta a la persistencia de mandatos de género que limitan la libre elección, con las consecuencias negativas que tiene para las mujeres la exclusión de estos espacios (deportes, tecnologías, etc.) que son fuente de mejoras vitales y oportunidades sociales y económicas — relaciones sociales, tiempo propio, posibles oportunidades laborales, participación comunitaria, mejora del estado general de salud física y mental, etc.

Nolanahi ere, kirola egiteari buruzko datuetara itzuliz, agerian geratzen da generoen arteko arrakala dagoela kirolari emandako denboran, aste osoan zehar mantentzen dena eta bereziki nabarmena dena prestasun handieneko egunetan, hala nola larunbatetan. Horrek adierazten du

En cualquier caso, volviendo a los datos de práctica deportiva, se evidencia una brecha de género en el tiempo destinado al deporte, que se mantiene a lo largo de toda la semana y que es especialmente acusada en los días de mayor disponibilidad como los sábados, e indica que hay

badirela beste faktore batzuk, hala nola denbora librea izatea, praktika hori modulatzen ari direnak. Izan ere, ikerketek erakusten dutenez, sexua beste aldagai batzuekin elkartzeak oso baldintzatzen du kirol-jarduera, esate baterako adina, maila sozioekonomikoa, enpleguarekiko harremana, etab. Hala ere, ez dago egiaztapen hori egitea ahalbidetzen duen daturik, adinetik harago eta Euskadirako datuekin.


Zehazki, interesgarria da aztertzea ea genero-eredu horiek aldatzen ari diren, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen kirol-jardunaren banaketari erreparatuta. Euskal Autonomia Erkidego osoko 2023ko datuek (eskuragarri dauden azkenak) erakusten dute aldaketa hori ez dela gertatzen ari, ez behintzat espero zen erritmoan eta intentsitatearekin. Hurrengo grafikoak datu horiek erakusten ditu.

otros factores, como la disponibilidad de tiempo libre, que pueden estar modulando esta práctica. De hecho, los estudios muestran que la práctica deportiva suele estar muy condicionada por la intersección del sexo con otras variables como la edad, el nivel socioeconómico, la relación con el empleo, etc.; no obstante, no se dispone de datos que permitan realizar esta comprobación, más allá de la edad y con datos para Euskadi.

En concreto, es interesante indagar en si estos patrones de género se están modificando, atendiendo a la distribución de la práctica deportiva entre jóvenes de 15 a 29 años. Los datos de todo el País Vasco para 2023 (últimos disponibles), muestran que esta transformación no se está produciendo, al menos no al ritmo y con la intensidad esperada. El siguiente gráfico muestra estos datos.

56. grafikoa. Kirola egiteko maiztasuna gazteen artean, adinaren arabera (adin- eta sexu-talde osoaren gaineko %-a). Euskadi (*). 2023.

Gráfico 56. Frecuencia de práctica deportiva entre la población joven, por grupo edad (%sobre el total del grupo de edad y sexo). Euskadi (*). 2023.



(*) Ez dago sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera bereizitako daturik
No se dispone de datos desagregados por sexo y Territorio Histórico

Iturria / Fuente: EUSTAT

Bertan, oraindik alde nabarmenak ikusten dira emakumeek eta gizonek kirola egiten duten maiztasunean, eta alde horiek adin-tarte guztietan ematen dira. Hala, gizonek erregulartasun handiagoa dute adin-talde guztietan. Joera hori ikusten da, halaber, astean 5-6 eguneko ohiko praktikan, talde gazteeneko gizonen ia % 27k eta adinekoen % 18,8k egina; emakumeen kasuan, berriz, % 9,8 eta % 14,9 artean daude. Astean 3-4 egun praktikatzea da patroi ohikoena bi sexuetan, eta horrek ere maiztasun handiagoa lortzen du gizonen kasuan.

Aldiz, emakumeek maiztasun baxu edo irregularretan kontzentratzeko joera dute: kirola maiztasun txikiagoarekin edo inoiz egiten ez dutenen ehunekoak nabarmen handiagoak dira emakumeetan adin-talde guztietan. Adibidez, 15-19 urteko nesken % 20,2k dio ez duela inoiz edo ia inoiz kirolik egiten, baina soilik mutilen % 7,7k. Alde horiek mantentzen dira 20-24 urteko tarteetan (emakumeen % 19,9 eta gizonen % 11,9) eta 25-29 urtekoetan (% 13,3 eta % 8,9, hurrenez hurren).

Azken batean, datu horiek adierazten dute genero-patroiek bere horretan dirautela kirola egitean, baita belaunaldi gazteenetan ere. Gizonek ariketa erregularrago eta gogorrago egiten dute eta emakumeek neurri txikiagoan eta noizbehinka parte hartzen dute. Kirolak egiteko orduan arrakala are nabarmenagoa da belaunaldi gazteenen artean, eta, horregatik, adin horietan genero-patroiek eta -estereotipoek pisu handiagoa izateak zer eragin duen azal dezaketen faktoreak aztertu behar dira. Desberdintasun horiek azaltzeko, kontuan hartu beharreko elementuak izan daitezke honako hauek: eraikitzeko adinak dira eta nortasuna berresteko beharra dago —gizonak kirolera eta indar fisikoa erakusteko beste jarduera batzuetara hurbiltzen ditu, maskulinotasun tradizionalaren patroiaren arabera, eta emakumeak horiengandik aldentzen ditu—, norberaren gorputzarekiko segurtasunik eza eta nerabezaroko aldaketa fisikoei lotutako estandar estetikoen presioa (bularren hazkundea, koipeen

En él, se observan aún diferencias notables en la frecuencia de práctica deportiva de mujeres y hombres, que se mantienen de forma consistente en las distintas franjas de edad. Así, los hombres presentan una mayor regularidad en todos los grupos de edad. Esta tendencia también se observa en la práctica frecuente de 5-6 días semanales, realizada por casi el 27% de los hombres del grupo más joven y el 18,8% de los mayores; mientras, en las mujeres se sitúan entre el 9,8% y el 14,9%. La práctica de 3-4 días a la semana es el patrón más común en ambos sexos, y también alcanza mayores frecuencias en los hombres.

En cambio, las mujeres tienden a concentrarse más en las frecuencias bajas o irregulares: los porcentajes de quienes practican deporte con menos frecuencia o nunca son significativamente mayores en las mujeres en todos los grupos de edad. Por ejemplo, el 20,2% de las chicas de 15-19 años declara no practicar deporte nunca o casi nunca frente al 7,7% de los chicos, y estas diferencias se mantienen en las franjas de 20-24 años (19,9% de ellas frente al 11,9% de ellos) y 25-29 años (13,3% frente al 8,9%).

En definitiva, estos datos apuntan a la persistencia de patrones de género en la práctica deportiva incluso entre las generaciones más jóvenes, con los hombres realizando ejercicio de forma más regular e intensa y las mujeres participando en menor medida y de manera más esporádica. El hecho de que a la hora de realizar deportes la brecha sea aún más acusada entre las generaciones más jóvenes, lleva a indagar en los factores que pueden explicar qué hace que en esas edades justo los patrones y estereotipos de género tengan mayor peso. El hecho de que se trata de edades de construcción y necesidad de reafirmar la identidad —que acerca a los hombres al deporte y a otras actividades de demostración de fuerza física de acuerdo al patrón de masculinidad tradicional, y aleja a las mujeres de estas—, la inseguridad respecto al propio cuerpo y la presión de los estándares estéticos asociados a los cambios físicos en la adolescencia (crecimiento de los senos, acumulación de grasa, etc…) frente a

pilaketa, etab.) eta estandar horiek kirol-jarduerak dakarren esposizioaren aldean (kontrolatu gabeko testuinguruetan, genero-mikroindarkerien eragin handia dago: isekak, kalifikatzaile negatiboak, etab.), emakumeen erreferenterik eza kirolak praktikatzen, eta abar.

Kirol-eremuko genero-azterketa egiteko orduan dagoen beste desberdintasun nabarmenetako bat batzuek eta besteek egiten dituzten kirol-jardueren sexuaren araberako bereizketarekin lotuta dago. Berriz ere, talde gazteenei buruzko datuak daude —genero-rolaren eraldaketa-ereduak agerian uzteko funtsezkoak—, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoari buruzkoak ere.


Hurrengo grafikoak, 2023koa ere, 15-29 urteko biztanleen kirol-jarduerari buruz eskuragarri dauden azken datuak erakusten ditu, egindako kirol-motaren edo jarduera fisikoaren arabera.

la exposición que supone la práctica deportiva (en contextos no controlados hay mucha incidencia de microviolencias de género: burlas, calificativos negativos, et.), la falta de referentes de mujeres practicándolos, etc. pueden ser elementos a considerar para explicar estas diferencias.

Otra de las desigualdades más evidentes a la hora de realizar un análisis de género del ámbito deportivo tiene que ver con la segregación por sexo de las actividades deportivas que realizan unas y otros. De nuevo, se dispone de datos referidos a los grupos más jóvenes —fundamentales para evidenciar patrones de transformación del rol de género— y relativos al País Vasco.

El siguiente gráfico, también de 2023, muestra los últimos datos disponibles sobre práctica deportiva entre la población de 15 a 29 años según el tipo de deporte o actividad física realizado.

57. grafikoa. Kirol-jarduera gazteen artean, adin-taldearen eta praktika motaren arabera (sexu eta adin-talde bakoitzeko biztanleria osoarekiko %). Euskadi (*). 2023.
Gráfico 57. Práctica deportiva entre la población joven, por grupo de edad y tipo de práctica (% sobre el total de población de cada sexo y grupo de edad). Euskadi (*). 2023.



(*) Ez dago sexuaren eta lurralde historikoaren arabera bereizitako daturik
No se dispone de datos desagregados por sexo y Territorio Histórico
Iturria / Fuente: EUSTAT

Bertan ikusten denez, gimnasiora joatea da praktikarik zabalduena bi sexuetan eta adin-talde guztietan, baina gizonen parte-hartzea zertxobait handiagoa da: 25-29 urteko gizonen % 45,3 joaten da gimnasiora, eta emakumeen % 41,2. Alde horiek mantendu egiten dira adin-tarte gazteenetan, batez ere 20-24 urtekoetan (gizonen % 39,3 eta emakumeen % 30,9). Korrika ere praktika partekatua da, baina zertxobait ohikoagoa da gizonen artean tarte guztietan: % 9,7, % 16,1 eta % 20, eta % 6,5, % 9,9 eta % 15,6, hurrenez hurren.

Jarduera horiez gain, gainerakoak sexuaren arabera oso bereizita daude, baita, esan bezala, belaunaldi gazteenetan ere. Hala, dantza edo zumba bezalako jarduera batzuetan emakumeen parte-hartzea argia da: 15-19 urtean % 13,3, 20-24an % 11,5 eta 25-29an % 7,7; aldiz, modalitate horretan ez da gizonen daturik erregistratzen. Ibiltzeari dagokionez, ikusten da emakumeen artean praktika arian-arian hazten dela adinean aurrera egin ahala (% 6 15-19 urtean, % 11,8 20-24an eta % 12 25-29an), eta gizonen artean, berriz, % 5,5 baino ez da biltzen adin-tarte handienean.

Beste muturrean, futboleko edo areto-futboleko modalitateak mutilen artean kontzentratzen dira argi eta garbi: % 19,1 15-19 taldean, % 13,2 20-24 taldean eta % 11,2 25-29 taldean. Aldiz, ez dago emakumeen praktika-erregistrorik kirol horietan. Taldeko beste kirol batzuetan parte-hartzea antzekoa da nerabezaroan (15-19 urteko nesken % 8,8 eta mutilen % 8,1), baina gizonetan nabarmen jaitsi da goiko tarteetan. Baita ere, nahiz eta txikiagoa izan, gizonen gehiengoa dago mendian eta eskaladan, adinean aurrera egin ahala bi sexuetan gora egiten badu ere, bereziki emakumeen kasuan, % 5,7tik % 14,1era igo da 25-29 tartean, eta gizonen kasuan, berriz, % 15,9ra iritsi da azken taldean. Azkenik, arte martzialetan, boxeoan eta kickboxingean, zifrak baxuak dira, eta, kasu horretan ere, zertxobait handiagoak dira gizonen kasuan.

En él, se evidencia que ir al gimnasio es la práctica más extendida en ambos sexos y en todos los grupos de edad, aunque con una participación masculina algo superior: el 45,3% de los hombres de 25 a 29 años asisten al gimnasio frente al 41,2% de las mujeres, y estas diferencias se mantienen en las franjas más jóvenes, especialmente en la de 20 a 24 años (39,3% de hombres frente al 30,9% de las mujeres). También el correr es una práctica compartida, aunque algo más frecuente entre los hombres en todos los tramos: 9,7%, 16,1% y 20% frente a 6,5%, 9,9% y 15,6% en las mujeres respectivamente.

Mas allá de estas actividades, el resto está fuertemente segregada por sexo, incluso, como se decía, en las generaciones más jóvenes. Así, hay actividades como el baile o zumba donde la participación femenina es clara, con un 13,3% en 15-19 años, 11,5% en 20-24 y 7,7% en 25-29, mientras no se registran datos de hombres en esta modalidad. En cuanto a andar se observa un crecimiento progresivo de la práctica en las mujeres con la edad (6% en 15-19 años, 11,8% en 20-24 y 12% en 25-29), mientras en los hombres solo se recoge un 5,5% en el grupo de mayor edad.

En el otro extremo, las modalidades de fútbol o fútbol sala se concentran claramente entre los chicos con un 19,1% en 15-19, 13,2% en 20-24 y 11,2% en 25-29, mientras no hay registros de práctica femenina. En otros deportes de equipo la participación es similar en la adolescencia (8,8% de chicas y 8,1% de chicos de 15-19), pero cae notablemente en los hombres en las franjas superiores. También, aunque menor, en el caso de monte y escalada en el que hay mayoría masculina, aunque aumenta con la edad en ambos sexos, especialmente entre las mujeres pasa de un 5,7% en 15-19 a un 14,1% en 25-29, mientras en los hombres alcanza un 15,9% en el último grupo. Finalmente, en artes marciales, boxeo y kickboxing las cifras son bajas y también, aunque en este caso muy ligeramente, superiores en los hombres.


Oro har, datu horiek erakusten dute genero-patroiek jarraitzen dutela gazteen kirol-jardueran: taldeko eta lehiaketako kiroletan gizonak agertzen dira gehiago, eta emakumeak ongizatearekin, erritmoarekin edo forma fisikoarekin lotutako jardueretan.

Aldeak nabarmenagoak dira kirola jarduera profesional gisa hartzen bada, eta hurbilketa bat egin daiteke, etorkizunean arlo horretako profesionalak izango direnak kontuan hartuta: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien graduko ikasleak. Euskadi (*). 2015-2024.

En conjunto, estos datos muestran cómo persisten patrones de género en la práctica deportiva juvenil, con los hombres más presentes en deportes de equipo y de competición y las mujeres en actividades asociadas al bienestar, el ritmo o la forma física individual.

Las diferencias son más acusadas si se atiende al deporte como actividad profesional, al que es posible realizar una aproximación atendiendo a quienes serán, en el futuro, profesionales en este ámbito: las y los estudiantes del grado de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte. Euskadi (*). 2015-2024.

58. grafikoa. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien graduko matrikula berrien bilakaera. Euskadi (*). 2015-2024.
Gráfico 58. Evolución de las matrículas de nuevo ingreso del grado de Ciencias de la Actividad Física y el Deporte. Euskadi (*). 2015-2024.



(*) Ez dago sexuaren eta lurralde historikoaren arabera bereizitako daturik
No se dispone de datos desagregados por sexo y Territorio Histórico
Iturria: Euskal Unibertsitate Sistemaren Jardueraren Behatokia
Fuente: Observatorio de la Actividad del Sistema Universitario Vasco

Aurreko grafikoan ikus daiteke gizonen eta emakumeen matrikulek hazkunde oso esanguratsua izan dutela aldi horretan, nahiz eta gizonen gehiengoa iraunkorra izan. Gizonen matrikulazioa 2014-2015ean 111tik 2023-2024an 436ra igo da. Emakumeen matrikulazioa berriz, 35 izatetik 111 izatera igaro da aldi horretan. Seriaren hasierarekin alderatuta, emakumeen presentzia 3 aldiz baino gehiago biderkatu arren, emakumeek ikasleen proportzio txikia izaten jarraitzen du zalantza barik: 2023/2024 ikasturtean matrikula guztien % 20,3 dira gutxi gorabehera, gizonen % 79,7ren aldean.

El gráfico precedente muestra un crecimiento muy significativo de las matrículas tanto de hombres como de mujeres a lo largo del periodo, aunque con una clara mayoría masculina sostenida en el tiempo. Los hombres pasan de 111 matrículas en 2014/2015 a 436 en 2023/2024, mientras que las mujeres evolucionan de 35 a 111 matrículas en el mismo periodo. Aunque la presencia femenina se multiplica por más de tres respecto al inicio de la serie, las mujeres continúan representando una proporción claramente minoritaria del alumnado: en el curso 2023/2024 suponen aproximadamente el 20,3% del total de matrículas, frente al 79,7% de hombres.

Bilakaerak erakusten du emakumeak pixkanaka sartzen ari direla ikasketa horietan, bereziki 2014/2015 eta 2019/2020 artean. Une horretatik aurrera, emakumezkoen matrikulak pixka bat jaisten hasi dira, eta gizonezkoenak, berriz, hazten. Oraingo beherakada hori kezkagarriagoa da genero-desberdintasunak handiak direla kontuan hartuta; izan ere, genero-desberdintasunak egonkor mantendu dira aztertutako aldian. Logikoa denez, ikasketa horien maskulinizazio iraunkorrak ondorioak izango ditu kirolarekin eta jarduera fisikoarekin lotutako lanbideetan etorkizunean identifikatzen diren genero-arrakaletan.

La evolución refleja una incorporación progresiva de las mujeres a estos estudios, especialmente entre 2014/2015 y 2019/2020, momento a partir del cual las matrículas femeninas comienzan a descender ligeramente, mientras las masculinas continúan creciendo. Este descenso reciente es si cabe más preocupante considerando las grandes diferencias de género existentes, y que se mantienen a lo largo del periodo considerado. Lógicamente, la persistente masculinización de estos estudios tendrá consecuencias en las brechas de género que se identifiquen en el futuro en las profesiones relacionadas con el deporte y la actividad física.

Desberdintasunak are nabarmenagoak dira kirol federatuaren kasuan. Euskal Autonomia Erkidegoan sexuaren arabera bereizita dauden datuek erakusten dutenez (EAEko Kirol Ohiturei buruzko Txostena, 2022), 15 urtetik gorako biztanleen % 13,1ek baino ez du federazio-lizentzia. Zifra orokor horiek genero desberdintasun sakonak ezkutatzen dituzte: hala, gizonen % 20,5ek baino gehiagok dituzte lizentzia horiek, eta emakumeen kasuan, berriz, % 6,3k baino ez, ia hiru aldiz gutxiago.

Las desigualdades son aún más acusadas en el caso del deporte federado. Los datos desagregados por sexo disponibles para el País Vasco (Informe de Hábitos deportivos en la CAPV, 2022), muestran que solo el 13,1 % de la población mayor de 15 años cuenta con licencia federativa; estas cifras generales esconden profundas desigualdades de género: así, más del 20,5% de los hombres tienen dichas licencias, frente a apenas el 6,3% de las mujeres, casi tres veces menos.

Oso txikia izateaz gain, ikerketek erakusten dute emakumeek kirol federatuan duten parte-hartzea oso segregatuta dagoela. Tamalez, Bizkaian ez dago sexuaren arabera bereizitako daturik kirol

Además de ser muy residual, los estudios demuestran que la participación de las mujeres en el deporte federado está muy segregada. Lamentablemente, se carece de datos


lizentzia federatuei buruz. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, kirolean generoak duen eraginaren Ebaluazio Txostena dago (Emakunde, 2021eko maiatza). Txosten horretan agerian geratzen da 5 federaziotan bakarrik dituztela emakumeek lizentzia gehienak; gainerako 42 federazioetan, gizonak gehiengoa dira. Daturik osoenak Espainiako estatuari buruzkoak dira (Kirol Kontseilu Gorena, 2023), eta erakusten dute bereizketa hori oraindik oso sakona dela, kirol feminizatuekin (eta lizentzien bolumen orokor txikiagoarekin), hala nola gimnasia (emakumeen % 92), kirol dantza (% 82) eta boleibola (% 70). Eta argi eta garbi maskulinizatuta dauden beste batzuk, hala nola ehiza eta arrantza (emakumeen % 1, eta % 7, hurrenez hurren), billarra (% 3), motoziklismoa edo txirrindularitza (% 5 eta % 8) eta nagusia dena, futbola, lizentzia guztien % 8,6 besterik ez zuena 2023an.

Ekitaldi honetan antolatutako kirolean emakumeek eta gizonek duten posizioa aztertzeko eraikitzen ari den garrantzi handiko adierazle berri baten inguruko informazioa eskuragarri dagoela eskertu behar da: haien ordezkaritza Kirol-Federazioen edo -elkarteetan. Datuek agerian uzten dute kirol federatuan segregazio bertikala dagoela, eta emakumeek zailtasunak dituztela kirol-erakundeetan erantzukizun-postuak lortzeko. Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak txosten honetarako emandako informazioaren arabera, genero-desberdintasunak nabarmenak dira arlo horretan. Ondorengo grafikoan ikus daitekeenez, erakunde horietako zuzendaritzen % 34 baino ez dira emakumeak; presidentzietan arrakala ikaragarria da: % 4,4 emakume baino ez daude erakunde horietako presidentzian.

desagregados por sexo sobre las licencias federadas deportivas según sexo para Bizkaia. En el caso del País Vasco, se cuenta con el Informe Evaluación del impacto de género en el deporte (Emakunde, mayo 2021) En el que se evidencia que solo en 5 federaciones las mujeres representan mayoría de licencias, en las restantes 42 federaciones, los hombres son mayoría. Los datos más completos son los relativos al estado español (Consejo Superior de Deportes, 2023), y muestran que esta segregación es todavía muy profunda, con deportes feminizados (y con menor volumen general de licencias) como gimnasia (92 % de mujeres), baile deportivo (82%) y voleibol (70 %); y otros claramente masculinizados como la caza y pesca (1 % y 7% de mujeres, respectivamente), el billar: (3 %), el motociclismo o el ciclismo (5 % y 8%) y el mayoritario, el fútbol, con apenas el 8,6 % de las licencias totales en 2023.

Este ejercicio hay que celebrar la disponibilidad de información para la construcción de un nuevo indicador de gran relevancia para analizar la posición de mujeres y hombres en el deporte organizado: su representación al frente de las Federaciones o asociaciones deportivas. Los datos evidencian la existencia de segregación vertical en el deporte federado, y las dificultades de las mujeres para acceder a puestos de responsabilidad en las organizaciones deportivas. Según información aportada por el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación para este Informe, las desigualdades de género en este ámbito son evidentes. El gráfico a continuación ilustra como las mujeres apenas representan el 34% de las direcciones de estas organizaciones; en la presidencia la brecha es abismal: solo el 4,4% de quienes ostentan la presidencia de estas organizaciones son mujeres.

59. grafikoa. Kirol federazio edo elkarteen koordinazioa edo zuzendaritza, koordinatzailearen edo zuzendariaren sexuaren arabera. Bizkaia, 2026.
Gráfico 59. Coordinación o dirección de Federaciones o asociaciones deportivas, según sexo de la persona coordinadora o directora. Bizkaia, 2026.



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saila
Fuente: Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia

Halaber, ez dago Lurralde Historikorako datu bereizirik kirol federatuaren bereizketa bertikalari buruz, baina espainiar estatuari buruz eskuragarri dauden azkenek (Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioa, 2025) agerian uzten dute kirolaren ordezkaritza- eta kudeaketa-organo gorenetan dagoen genero-arrakala iraunkorra. Horien arabera, oro har, emakumeek federazioetako edo kirol elkarteetako koordinazio edo zuzendaritza karguen % 1,5 eskas bat baino ez dute suposatzen. Gainera, eta berriz ere segregazio horizontalak eta bertikalak elkar elikatzen dute, aztertutako federazio guztien artean bakarra, saskibaloiarena, zuzentzen du emakume batek, eta gainerako federazioetan, berriz, —kirol mota edozein dela ere— gizonak dira buru.

El panorama foral, siendo muy desigual, es algo mejor que el que arrojan los últimos datos disponibles relativos al estado español (Ministerio de Educación, Formación Profesional y Deportes, 2025). Según estos, en conjunto las mujeres representan un residual 1,5% de los cargos de coordinación o dirección de Federaciones o asociaciones deportivas; además, y de nuevo la segregación horizontal y vertical se retroalimentan: de entre todas las federaciones analizadas solo una, la de baloncesto, está dirigida por una mujer, mientras que el resto —sea cual sea el tipo de deporte— están presididas por hombres.

Aurten Txostenean sartutako beste adierazleetako batek kirolean emakumeen eta gizonen aintzatespenaren dimentsioa jorratzen du. Kasu honetan, Aldundiak emandako "Bizkaia Kirolak" sarietatik abiatuta, Bizkaiko pertsona fisiko eta

Otro de los indicadores incorporados este año al Informe aborda la dimensión de reconocimiento de mujeres y hombres en el deporte. En este caso, a partir de los premios “Bizkaia Kirolak” otorgados por la Diputación para reconocer públicamente la

juridikoek kirolaren arloan egindako lana publikoki aitortzeko. 2025eko azken deialdian, 5 gizonek eta 2 emakumek jaso zuten aintzatespen hori, bai eta emakumezkoen talde batek ere, sexuaren araberako banaketan nolabaiteko desoreka erakutsiz.

Kapitulu honetako informazioak agerian uzten du aztertutako edozein dimentsiotatik identifika daitezkeela genero-desberdintasunak artearen eta kirolaren eremuetan, bai eremu horietan duten presentziari dagokionez, bai jarduera motaren araberako bereizketari dagokionez, eta, berezi-bereziki, emakumeek espazio horietan erabakiak hartzeko duten sarbideari dagokionez (ordezkapena).

Desberdintasun horiek atal honetan zehar aipatu diren faktoreek azaltzen dituzte. Faktore horiek txikitatik eragiten duen genero-sozializazio desberdinarekin lotuta daude, mutilak lehiakorrak eta aktiboak izatera eta talde-kiroletan parte hartzera animatzen dituztenak, indarra, lidergoa eta egoerak gainditzeko espiritua erakuts dezaketenak. Neskei, aldiz, lankidetza, gorputzaren zaintza eta estetika indartzen zaizkie, eta horrek ongizate pertsonalarekin, forma fisikoarekin edo erritmoarekin lotura handiagoa duten praktika fisikoetara bideratzen ditu. Gainera, oraindik ere estereotipo sozial eta kulturalak daude, kirol lehiakorra eta kolektiboa maskulinitatearekin lotzen dutenak (futbola, saskibaloia, errugbia), eta praktikatzeko espazioak eta baliabideak ere desberdinak direla erakusten dutenak. Izan ere, kirola sustatzeko espazioak eta programak gizonen eskari hegemonikoaren arabera diseinatuta egon ohi dira oraindik, eskaintza, aitorpen sozial eta inbertsio handiagoarekin haientzat taldeko kiroletan. Horri beste kontu sotilago batzuk gehitu behar zaizkio, hala nola "maskulinoa" eta "femeninoa" zer den arauen pisuari dagokionez, identitatea eraikitzen ari den une batean, nerabezaroan eta lehen gaztaroan —une erabakigarria amateurretik profesionalizaziora igarotzeko—. Horrek emakumeak urrutiratu egiten ditu "gizonenak" modura markatutako kiroletatik eta, oro har, kirol-praktika profesionaletik. Azkenik, emakumeek kiroletan duten ikusgaitasun mediatiko eta sozial eskasak, batez ere

labor desempeñada en el ámbito del deporte por las personas físicas y jurídicas de Bizkaia. En la última convocatoria de 2025, 5 hombres y 2 mujeres, así como un equipo femenino recibieron este reconocimiento, mostrando un cierto desequilibrio en su distribución por sexo.

La información de este capítulo evidencia que, desde cualquiera de las dimensiones analizadas, es posible identificar desigualdades de género en los ámbitos artístico y deportivo, tanto en la presencia en ellos, como en cuanto a la segregación por tipo de actividad y, muy especialmente, en el acceso de las mujeres a la toma de decisiones en estos espacios (representación).

Estas desigualdades se explican por factores que se han ido mencionando a lo largo del apartado, relacionados con la diferente socialización de género que opera desde edades tempranas, y anima a los chicos a ser competitivos, activos y a participar en deportes de equipo, donde pueden demostrar fuerza, liderazgo y espíritu de superación. A las chicas, en cambio, se les refuerza la cooperación, el cuidado del cuerpo y la estética, lo que las orienta hacia prácticas físicas más vinculadas al bienestar personal, la forma física o el ritmo. Además, persisten estereotipos sociales y culturales que asocian el deporte competitivo y colectivo con la masculinidad (fútbol, baloncesto, rugby), y que cristalizan también una desigual disponibilidad de espacios y recursos para su práctica. De hecho, todavía los espacios y programas de promoción deportiva suelen estar diseñados en función de una demanda masculina hegemónica, con mayor oferta, reconocimiento social e inversión en deportes de equipo para ellos. A eso se suman otras cuestiones más sutiles como las mencionadas respecto al peso de las normas de lo que es "masculino" y "femenino" en un momento de construcción de la identidad como es la adolescencia y primera juventud —un momento crucial para en el paso de la práctica amateur a la profesionalizada—, que aleja a las mujeres de deportes muy marcados como "de hombres" y, en general, de la práctica deportiva profesional. Finalmente, la escasa visibilidad mediática y social de mujeres en los deportes,

kolektiboetan eta lehiaketakoetan, baliabide eta arreta gehien erakartzen dituztenak hain zuzen, mugatu egiten ditu nesken kirol-nahiak, eta indartu egiten du arrakasta mota hori gizonezkoen eremukoa dela dioen ideia. Oro har, genero-faktore horiek banakako lehentasunak moldatzeaz gain, sexuaren arabera gazteen kirolaren banaketa sinboliko eta praktikoaren jarraipena errazten duen ingurunea egituratzen dute.

Aurreko guztiak erakusten du zerikusia duten aurrekontu-programek genero-berdintasuna sustatuko duten neurri irmoak bultzatu behar dituztela.

VIII. AZPIEGITURAK, TURISMOA ETA MUGIKORTASUNA

Azpiegituren eta mugikortasunaren eremuek eragin zuzena eta estrukturala dute pertsonen eguneroko bizitzan, eta, beraz, funtsezkoak dira genero berdintasunean aurrera egiteko. Horrela, printzipioz "neutroak" diruditen arren, modu aktiboan lagun dezakete emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gainditzen, edo, gutxienez, berdintasun horretan oztopo berririk ez sortzen.

Bestalde, turismoa funtsezko jarduera da Bizkaiko ekonomian eta gizartean, eta emakumeen enplegu-iturri garrantzitsua da, askotan baldintza eskasetan. Baina emakumeen ekintzailetzarako aukera ere izan daiteke, bereziki turismo jasangarrian, komunitarioan edo landa-turismoan. Ikuspegi sozialetik, halaber, inpaktu bereizgarriak ditu; adibidez, masifikazio turistikoaren ondoriozko gentrifikazioak neurri handiagoan eragiten die emakumeei, oro har, errenta-maila txikiagoak dituztenez, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiagoak izaten dituztelako eta irisgarritasun-baldintza okerragoetan lortzen dituztelako.

Eremu hau bigarren urtez jarraian sartu da txosten honetan, gero eta garrantzi handiagoa baitu azpiegiturekin, mugikortasunarekin eta turismoarekin lotutako politikak kudeatzen dituzten aurrekontu-programek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak kontuan

especialmente en los colectivos y de competición, que son los que atraen más recursos y atención, limita las aspiraciones deportivas de las chicas y refuerza la idea de que ese tipo de éxito pertenece al ámbito masculino. En conjunto, estos factores de género no solo moldean las preferencias individuales, sino que estructuran un entorno que favorece la continuidad de una división simbólica y práctica del deporte juvenil según el sexo.

Todo lo anterior demuestra la necesidad de que los programas presupuestarios relacionados, impulsen medidas decididas que promuevan la igualdad de género en ellos.

VIII. INFRAESTRUCTURAS, TURISMO Y MOVILIDAD

Los ámbitos de infraestructuras y movilidad tienen un impacto directo y estructural en la vida cotidiana de las personas y, por tanto, son clave para avanzar en la igualdad de género. Así, aunque a priori parezcan "neutros", pueden contribuir de manera activa a superar las desigualdades de mujeres y hombres, o, al menos, a no generar nuevos obstáculos en esa igualdad.

Por su parte, el turismo es una actividad clave en la economía y sociedad de Bizkaia y una importante fuente de empleo femenino, muchas veces en condiciones precarias, pero también puede ser una oportunidad de emprendimiento de mujeres, especialmente en turismo sostenible, comunitario o rural. Desde el punto de vista social, tiene igualmente impactos diferenciales; por ejemplo, la gentrificación producto de la masificación turística afecta en mayor medida a las mujeres que, por sus generalmente menores niveles de renta, encuentran mayores dificultades de acceso a vivienda y en peores condiciones de accesibilidad.

Se incluye este ámbito por segundo año consecutivo en este Informe, dada la creciente importancia de que los programas presupuestarios que gestionan políticas relacionadas con las infraestructuras, movilidad y turismo consideren las desigualdades entre mujeres y hombres que se

hartzeak. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioari dagokionez, oraindik gutxi aztertu diren eremuak direla kontuan hartuta, abiapuntuko testuinguruaren diagnostiko hau are garrantzitsuagoa da, analisi-eremuak irekitzea ahalbidetzen baitu, bai eta batzuen eta besteen eremu horietako egoera eta posizio desberdinen hurbilketa argia aurkeztea ere.

8.1. Azpiegiturak eta mugikortasuna

Atal honen hasieran esaten zen bezala, garraioa funtsezko eremua da pertsonen bizitzarako, baita genero-berdintasunerako ere. Horregatik, emakumeen eta gizonen errepideko garraiobideen erabilerari buruz Lurralde Historikorako eskuragarri dauden datuak aztertzen hasi gara.

2020ko hurrengo grafikoan ikus daitekeenez (eskuragarri dauden azken datuak), errepideko garraiobideen erabilerak argi eta garbi islatzen ditu emakumeen eta gizonen mugikortasun-patroi bereiziak Bizkaian: gizonek garraio pribatuaren erabilera handiagoa dute, eta emakumeek, aldiz, mugikortasun-patroi lotuagoa dute garraiobide publikoekin eta oinez edo bizikletaz egindako joan-etorriekin. Eredu horiek argi eta garbi lotuta daude rol sozialekin, eguneroko erantzukizunekin eta egiturazko desberdintasunekin.

Alderik handiena garraio pribatuaren erabileran dago: emakumeen % 31k erabiltzen du, eta gizonen % 48,5ek. Datu horrek agerian utz dezake emakumeek sarbide txikiagoa dutela garraio mota horretara (gidabaimen-tasa txikiagoak emakumeen artean, ibilgailu propioaren eskuragarritasun txikiagoa), edo, zainketa-rolarekin lotuta, neurri txikiagoan jotzen dutela auto partikularrera. Aitzitik, emakumeen % 27,3k garraio publikoa erabiltzen du, eta gizonen % 18,2k, berriz, mugikortasun-azterlanetan ondo dokumentatutako patroia islatzen duena: emakumeak gehiago daude garraio kolektiboaren mende, neurri batean autoa eskuratzeko mugengatik eta, beste zati batean, ibilbide laburrak eta askotarikoak konbinatzeagatik, enplegua eta

identifican a continuación. Considerando que se trata de ámbitos todavía poco explorados en cuanto a evaluación del impacto de género, este diagnóstico del contexto de partida es si cabe más relevante en la medida en que permiten ir abriendo campos de análisis y presentar una aproximación clara de las diferentes situaciones y posiciones de unas y otros en estos ámbitos.

8.1. Infraestructuras y movilidad

Como se decía al inicio de este apartado, el transporte es un ámbito central para la vida de las personas y también para la igualdad de género. Por ello, se comienza analizando los datos disponibles para el Territorio Histórico sobre uso de distintos medios de transporte por carretera de mujeres y hombres.


Tal como se evidencia en el gráfico a continuación, correspondiente a 2020 (últimos datos disponibles) el uso de los medios de transporte por carretera en Bizkaia refleja claramente los patrones de movilidad diferenciados entre mujeres y hombres: ellos con un mayor uso del transporte privado y ellas, por el contrario, con patrón de movilidad más vinculado a los medios públicos de transporte, y a los desplazamientos a pie o en bicicleta. Estos patrones están claramente vinculados a los roles sociales, las responsabilidades cotidianas y las desigualdades estructurales.

La diferencia más importante se da en el uso del transporte privado: el 31 % de las mujeres lo utiliza frente al 48,5 % de los hombres. El dato puede evidenciar un menor acceso de las mujeres a este tipo de transporte (menores tasas de permiso de conducción entre mujeres, menor disponibilidad de vehículo propio) o, vinculado al desempeño del rol de cuidados, que recurren en menor medida al coche particular. En contraste, el 27,3 % de las mujeres usa el transporte público, frente al 18,2 % de los hombres, reflejando un patrón ya bien documentado en estudios de movilidad: ellas dependen más del transporte colectivo, en parte por las limitaciones de acceso al coche y en parte por la combinación de trayectos cortos y diversos para compatibilizar

zaintza bateragarri egiteko. Azkenik, emakumeen % 41,7 oinez edo bizikletaz desplazatzen da, eta, aldiz, gizonen % 33,3. Datu horrek baieztatzen du emakumeek desplazamendu aktibo gehiago egiten dituztela, ziurrenik beren ibilbideak laburragoak direlako edo oinezkoen ibilbideak integratzen dituztelako joan-etorri konbinatuetan (adibidez, garraio publikorako bidea).

empleo y cuidados. Finalmente, el 41,7 % de las mujeres se desplaza a pie o en bicicleta, frente al 33,3 % de los hombres, dato que viene a confirmar que ellas realizan más desplazamientos activos, probablemente porque sus trayectos suelen ser más cortos o porque integran recorridos peatonales en desplazamientos combinados (por ejemplo, camino al transporte público).

60. grafikoa. Errepide bidezko garraiobide desberdinen erabilera sexuaren arabera (% garraiobidearen eta sexuaren arabera-%bertikalak) Bizkaia, 2020.
Gráfico 60. Uso de distintos medios de transporte por carretera por sexo (% por medio de transporte y sexo-% verticales) Bizkaia, 2020.




Iturria / Fuente: EUSTAT

Bizkairako datu espezifikorik ez dagoen arren, Euskal Autonomia Erkidegorako eskuragarri daudenek emakumeek garraiobide pribatuetarako sarbide txikiagoa dutela baieztatzen laguntzen dute. Hurrengo grafikoak, 2020ko datuekin hori ere, Euskadiko etxebizitzetako ibilgailuen eskuragarritasuna adierazten du, sexuaren arabera.

Si bien no se cuenta con datos específicos para Bizkaia, los disponibles para el País Vasco contribuyen a confirmar la hipótesis del menor acceso de las mujeres a modos privados de transporte. El siguiente gráfico, también con datos de 2020, representa la disponibilidad de vehículo en las viviendas de Euskadi según sexo.

61. grafikoa. Ibilgailuren bat duten Euskadiko etxebizitzak sexuaren arabera, 2020
Gráfico 61. Viviendas de Euskadi con algún vehículo por sexo, 2020



(*) Ez dago sexuaren eta Lurralde Historikoaren arabera bereizitako daturik
No se dispone de datos desagregados por sexo y Territorio Histórico
Iturria / Fuente: EUSTAT

Bertan, genero-arrakala nabarmena ikusten da; izan ere, gizonen % 82,1 gutxienez ibilgailu bat duen etxe batean bizi da, eta emakumeen kasuan, berriz, % 55,5. Datu horrek mugikortasunerako baliabide pribatuen eskuragarritasun desberdina erakusten du, ziur asko emakumeen diru-sarrera txikiagoekin lotuta, batez ere emakume bat buru duten guraso bakarreko etxeetan edo bakarrik dauden adinekoetan, beste behar ekonomiko batzuk lehenesten baitituzte ibilgailu bat erosi edo mantentzearen aldean. Gainera, datu hori zuzenean lotzen da lehen aipatutako garraioaren erabilera-ereduarekin: emakumeek gehiago erabiltzen dituzte garraio publikoa edo modu aktiboak (oinez ibiltzea, bizikleta), eta horrek zuzeneko ondorioak ditu beren autonomian eta joan-etorrien denboraren handitzean; horrek, azkenik, eragina du enplegua lortzeko eta denbora pertsonala izateko dituzten aukeretan, besteak beste.

En él, se muestra una brecha de género marcada, ya que el 82,1 % de los hombres vive en un hogar con al menos un vehículo, frente al 55,5 % de las mujeres. Este dato muestra la desigual disponibilidad de recursos privados de movilidad, probablemente relacionada con los menores ingresos de las mujeres, especialmente en hogares monoparentales encabezados por una mujer o de mayores solas, que priorizan otras necesidades económicas frente a la adquisición o mantenimiento de un vehículo. Además, este dato se conecta directamente con el patrón de uso del transporte ya señalado: las mujeres usan más el transporte público o los modos activos (caminar, bicicleta), con consecuencias directas en su autonomía y en el aumento de los tiempos de desplazamiento, lo que, en último término, impacta en sus oportunidades de acceso al empleo y disponibilidad de tiempo personal, entre otras.

Emakumeek ibilgailu pribatura irismen txikiagoa izateari gehitzen zaio gizon bat bizi den etxeetan ibilgailuen kontzentrazioa. Hala, Euskadirako azken datuak (Euskadiko etxebizitzak, sexuaren araberako ibilgailu kopuruaren arabera, EUSTAT, 2020) emakumeak ibilgailu bakarreko etxeetan bizi dira batez ere (% 73, gizonen % 63ren aldean), eta gizonek presentzia handiagoa dute bi ibilgailu edo gehiagoko etxebizitzetan (% 37, emakumeen % 27ren aldean). Horrek ibilgailuen eta garraio-baliabideen banaketa desorekatuaren eredua indartzen du, generoari lotutako desberdintasun ekonomikoen isla.

Mugikortasun-ereduetan dauden genero-desberdintasunak aztertzeko, beharrezkoa da sexuarekin batera elkarreragiten duten aldagaietan sakontzea, emakumeak desabantaila-egoeran egotea eragiten dutenak garraio-baliabide eta -azpiegituren aurrean. Halaber, erabilera-motei buruzko datuak (lana, zaintza, aisialdia, mistoak, etab.) eta garraio publikoaren irisgarritasunari eta segurtasunari buruzkoak. Oraingoz, azterketa hori behar den desagregazio mailarekin ezin da egin, baina hurrengo aurrekontu-ekitaldietan informazio gehiago izatea espero da.

Bestalde, azpiegituren azterketa (garraioa, energia, ura, telekomunikazioak, espazio publikoak, ekipamendu komunitarioak, etab.), funtsezko genero-inpaktua izan arren, are konplexuagoa da. Agian, toki-politika horietan genero-ikuspegia integratzeko proposamen eta tresna teknikoek ibilbide laburragoa dutelako beste politika finkatuagoek baino, oso zaila da oraindik datuak izatea jakiteko ea haien plangintzak, diseinuak, eraikuntzak eta kudeaketak emakumeen eta gizonen berdintasuna aktiboki sustatzen duten edo, alderantziz, beste testuinguru batzuetako azterlanek erakusten duten bezala, eredu tradizionalei zeharka erantzuten dieten eta eredu maskulino arauemaileari lotutako erabilerak eta beharrak lehenesten dituzten (adibidez, etxeko/laneko joan-etorri pendularrak hirigunean) eta emakumeen erabilera-ereduei jaramonik egiten ez dieten (joan-etorriak katean, zaintza-lanarekin konbinatuta, denbora zatikatuak,

Al menor acceso a vehículo privado de las mujeres se le une la concentración de vehículos en los hogares donde vive un hombre. Así, los últimos datos para Euskadi (Viviendas de Euskadi según número de vehículos por sexo, EUSTAT, 2020) las mujeres se concentran principalmente en hogares con un solo vehículo (73%, frente al 63% de los hombres), mientras que los hombres tienen mayor presencia en viviendas con dos o más vehículos (37% frente a 27 % de las mujeres), lo que refuerza el patrón de desigual distribución de vehículos y recursos de transporte, reflejo de desigualdades económicas vinculadas al género.

El análisis de las desigualdades de género en los patrones de movilidad requiere profundizar en las diferentes variables que, junto con el sexo, interactúan para situar a las mujeres en posición de desventaja frente a los distintos recursos e infraestructuras de transporte. Así como datos sobre los tipos de uso (laboral, cuidados, ocio, mixtos, etc.) y sobre accesibilidad y seguridad en el transporte público. Por el momento, este análisis no es posible con el nivel de desagregación requerido, aunque se espera disponer de más información en próximos ejercicios presupuestarios.

Por otro lado, el análisis de las infraestructuras (transporte, energía, agua, telecomunicaciones, espacios públicos, equipamientos comunitarios, etc.), aun teniendo un impacto de género fundamental, es aún más complejo. Quizá debido a que las propuestas y herramientas técnicas de integración del enfoque de género en estas políticas locales tienen menos trayectoria que otras más consolidadas, es todavía muy difícil tener datos que permitan dibujar un panorama general de partida que permita conocer si su planificación, diseño, construcción y gestión promueve activamente la igualdad de mujeres y hombres o, por el contrario, como muestran los estudios en otros contextos, responde indirectamente a modelos tradicionales que privilegian los usos y necesidades asociadas al modelo masculino normativo (por ejemplo, los desplazamientos pendulares domicilio-trabajo en el centro urbano) y desatienden los patrones de

irisgarritasuna, sexu-jazarpenaren aurkako segurtasuna edo beste indarkeria matxista mota batzuk, etab.).

uso de mujeres (desplazamientos en cadena, combinados con trabajo de cuidado, tiempos fragmentados, accesibilidad, seguridad frente al acoso sexual u otras formas de violencia machista, etc.).


Oraingoz, adierazlea oso testuingurukoa da, aipatutako dimentsioetako bati dagokionez: emakumeek eta gizonek eraikuntzan duten parte-hartzea, baina ezinezkoa da obra publikoari dagokiona isolatzea.

Por el momento, se dispone de un indicador, muy contextual, respecto a una de las dimensiones señaladas: la participación de mujeres y hombres en la construcción, sin que sea posible aislar la correspondiente a obra pública.

Hurrengo grafikoak sektore horretako enpleguaren maskulinizazio argia erakusten du, adierazleak aintzat hartutako azken 15 urteetan ia aldaketarik izan gabe. Eta agerian uzten du Bizkaian eraikuntzaren sektoreak nabarmen maskulinizatutako patroi bati eutsi diola 2008 eta 2024 bitartean, gizonen ehunekoa beti % 90 ingurukoa izan baita, eta, gainera, pixka bat handitu da aurreko neurketaren eta oraingoaren artean.

El gráfico a continuación muestra la clara masculinización del empleo en este sector, sin apenas variaciones en los últimos más de 15 años considerados por el indicador, evidenciando cómo, en Bizkaia, el sector de la construcción ha mantenido entre 2008 y 2024 un patrón marcadamente masculinizado, con un porcentaje de hombres que se mantiene en torno al 90% y que se ha incrementado además ligeramente entre la anterior medición y la actual.

62. grafikoa. Eraikuntzako langile okupatuak sexuaren arabera (% sexuaren arabera). Bizkaia, 2008-2024
Gráfico 62 Personal ocupado de la construcción por sexo (% por sexo). Bizkaia, 2008-2024



Iturria / Fuente: EUSTAT

Egoera hori oso egonkor mantendu da, gorabehera txikiekin 2010 eta 2023 urteetan. Horietan emakumeen proportzioa, ia testimoniala izan arren, bere baliorik handienera iritsi zen (% 12,6 eta % 12,2, hurrenez hurren). Nolanahi ere, desoreka hain handia denez eta aldaketak hain apalak, zaila dirudi egoera epe laburrean aldatzea. Hala ere, etorkizunean ikusi beharko da ea azken urteko arrakalaren hazkundeak atzeranzko joera bati hasiera ematen dion edo, aitzitik, une bateko egoera den.

Este panorama se mantiene muy estable, con ligeras oscilaciones en años como 2010 y 2023, donde la proporción de mujeres, aun siendo casi testimonial, alcanzó su valor más alto (12,6 % y 12,2 % respectivamente). En cualquier caso, el desequilibrio es tan grande y los cambios tan modestos que parece difícil que la situación vaya a modificarse a corto plazo, aunque será necesario observar en el futuro si el incremento de la brecha en el último año apunta al comienzo de una tendencia regresiva o, por el contrario, es coyuntural.

8.2. Generoa eta turismoa

Bizkaiko turismo-sektoreko enpleguaren eta erantzukizunen banaketaren azterketari esker, emakumeen eta gizonen arteko banaketa orekatuagoa lortzeko aurrerapausoak identifika daitezke, bai eta egiturazko desberdintasunek irauten dutela ere. Beste kasu batzuetan bezala, beharrezkoa da sektore horri buruzko informazioa kudeatzeko sistemak hobetzea, lotutako aurrekontu-programak diseinatu eta kudeatu behar dituztenentzat analisi erabilgarriagoak egin ahal izateko.

Kasu honetan, Foru Aldundian inplikatuta dauden bulegoek emandako datu oso garrantzitsuak ditugu, eta horiei esker, genero-ikuspegitik, lehen hurbilketa bat egin ahal izan da sektore horretara, funtsezkoa dena Lurraldeko ekonomian eta gizarte-ongizatean.

Sektore turistikoko enpleguan emakumeek eta gizonek duten partaidetzatik hasita (presentzia-dimentsioa), azken aldiko datuek erakusten dute itxuraz parekotasuna dagoela enpleguaren bolumenean sexuaren arabera. Emakumeek erabaki-guneetan duten ordezkaritzak (ordezkaritza-dimentsioa), berriz, nabarmen txikiagoa izaten jarraitzen du, sektore horretan benetako berdintasunari dagokionez oraindik dauden erronkak islatuz.

8.2. Género y Turismo

El análisis del empleo y de la distribución de responsabilidades en el sector turístico de Bizkaia permite identificar tanto avances hacia un reparto más equilibrado entre mujeres y hombres como la persistencia de desigualdades estructurales. Como en otros casos, es necesario mejorar los sistemas de gestión de la información sobre este sector para que permita realizar análisis más útiles para quienes tienen que diseñar y gestionar los programas presupuestarios relacionados.

En este caso, contamos con datos muy relevantes aportados por las dependencias implicadas de la Diputación Foral, que han permitido una primera aproximación desde el enfoque de género a este sector, fundamental en la economía y el bienestar social del Territorio.

Comenzando por la participación de mujeres y hombres en el empleo del sector turístico (dimensión de presencia), los datos recientes muestran una aparente paridad en el volumen de empleo por sexo, mientras que la representación femenina en los espacios de decisión (dimensión de representación) continúa siendo notablemente inferior, reflejando los retos que aún existen en términos de igualdad real en este sector.


Aurten, turismo-sektorean emakumeek eta gizonek parte hartzeko eta ordezkatzeko dinamika horiek ezagutzeko oso baliagarriak diren bi adierazle sartu dira; lehenengoa turismo-enpleguan segregazio horizontalaren presentzia eta joerak identifikatzera bideratua, eta bigarrena segregazio bertikaleko dinamikak antzemateko baliagarria.

Lehenengoak sektore turistikoko jardueretan sexuaren arabera Gizarte Segurantzan dauden afiliazioak jasotzen ditu, eta enplegu turistikoa Bizkaian emakumeen eta gizonen artean nola banatzen den aztertzeko aukera ematen du. Generoaren ikuspegitik, datu horiek, esan bezala, bereziki garrantzitsuak dira okupazio-segregazioko prozesuak identifikatzeko eta jarduera turistikoa osatzen duten adarretan emakumeen eta gizonen presentzia desberdina antzemateko.

Este año se introducen dos indicadores de gran utilidad para conocer estas dinámicas de participación y representación de mujeres y hombres en el sector turístico; el primero orientado a identificar la presencia y también tendencias de segregación horizontal en el empleo turístico, y el segundo útil para evidenciar dinámicas de segregación vertical.

El primero de ellos recoge las afiliaciones a la Seguridad Social en las distintas actividades del sector turístico según sexo, permitiendo analizar cómo se distribuye el empleo turístico entre mujeres y hombres en Bizkaia. Desde el enfoque de género, estos datos, como se decía, resultan especialmente relevantes para identificar procesos de segregación ocupacional y la distinta presencia de mujeres y hombres en las diversas ramas que integran la actividad turística.

63. grafikoa. Sektore turistikoaren Gizarte Segurantzako afiliazioak, jardueraren eta sexuaren arabera (%a sexuaren arabera), Bizkaia, 2025eko 2. seihilekoa
Gráfico 63. Afiliaciones a la Seguridad Social del sector turístico por actividad y sexo (% por sexo), Bizkaia, 2º semestre 2025



Iturria / Fuente: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa / Ministerio de Empleo y Seguridad Social

Turismo-sektorean, oro har, parekotasunetik hurbil dagoen egoera ikusten da, baina gizonen gehiengoa pixka bat handiagoa da: emakumeak afiliazioen % 48,7 dira, eta gizonak, berriz, % 51,3. Hala ere, itxurazko berdintasun horrek jardueren arteko barne-desberdintasun handiak ezkutatzen ditu. Ostalaritza argi eta garbi feminizatuta agertzen da, emakumeen % 57,2rekin. Ehuneko hori % 59ra igotzen da ostatuetan eta % 57,1ean mantentzen da janari eta edarietan. Feminizazioa are handiagoa da bidaia-agentzietan, enpleguaren % 72,7 emakumeak baitira. Datu horiek erakusten dute emakumeen presentzia handia dela arretarekin eta zerbitzuarekin lotutako jardueretan, historikoki genero-rol feminizatuekin lotutako harreman-funtzioak baitira.

Aitzitik, "beste turismo-jarduera batzuk" izenekoek maskulinizazio handia dute (gizonen % 67,2), batez ere errepide bidezko garraioari dagokionez, alor horretan gizonak afiliazioen % 85,0 baitira, eta genero-arrakala 70 puntu portzentualetan dago. Nabarmentzekoak dira, halaber, alor hauetan dauden aldeak: garraio alokairua (44,2 puntu), beste garraio batzuk (33,3) eta garraioari lotutako jarduerak (29,4). Aisialdian eta kirolean ere gizonak dira gehiengoa (% 60,5). Kultura-industriak soilik erakusten du banaketa nahiko orekatua. Oro har, datuek agerian uzten dute turismo-sektorean segregazio horizontal nabarmena dagoela, emakumeak eta gizonak lan-merkatuaren desberdintasun tradizionalak errepikatzen dituzten jarduera bereizietan kontzentratzen baitira.

Aurreko adierazlearekin batera, sektorean segregazio horizontaleko modu baten presentzia identifikatzeko baliagarria dena, txosten honek Bizkaiko turismo-sektoreko enpresetako enpleguaren batez besteko banaketa jasotzen du, funtzio-arloaren eta sexuaren arabera. Horri esker, emakumeen eta gizonen presentziaz gain, erakunde turistikoen barruan okupazio-segregazio bertikaleko dinamika posibleak identifika daitezke. Generoaren ikuspegitik egindako azterketa bereziki garrantzitsua da oso feminizatuta dagoen

En el conjunto del sector turístico se observa una situación cercana a la paridad, aunque con ligera mayoría masculina: las mujeres representan el 48,7% de las afiliaciones frente al 51,3% de los hombres. Sin embargo, esta aparente igualdad oculta fuertes diferencias internas entre actividades. La hostelería aparece claramente feminizada, con un 57,2% de mujeres afiliadas, porcentaje que asciende al 59% en alojamiento y se mantiene en el 57,1% en comidas y bebidas. La feminización es todavía más intensa en las agencias de viaje, donde las mujeres representan el 72,7% del empleo. Estos datos reflejan la elevada presencia femenina en actividades vinculadas a la atención y el servicio, funciones relacionales históricamente asociadas a roles de género feminizados.


Por el contrario, las denominadas “otras actividades turísticas” presentan una fuerte masculinización (67,2% de hombres), especialmente en transporte por carretera, donde los hombres alcanzan el 85,0% de las afiliaciones y la brecha de género se sitúa en 70 puntos porcentuales. También destacan las diferencias en alquiler de transporte (44,2 puntos), otros transportes (33,3) y actividades anexas al transporte (29,4). Incluso en recreación y deporte los hombres son mayoría (60,5%). Solo la industria cultural muestra una distribución relativamente equilibrada. En conjunto, los datos evidencian una marcada segregación horizontal en el sector turístico, donde mujeres y hombres se concentran en actividades diferenciadas que reproducen desigualdades tradicionales del mercado laboral.

Junto con el indicador anterior, útil para identificar la presencia de una forma de segregación horizontal en el sector, este Informe incorpora el de distribución media del empleo en las empresas del sector turístico de Bizkaia según área funcional y sexo. Este permite identificar, además de la presencia de mujeres y hombres, posibles dinámicas de segregación ocupacional vertical dentro de las propias entidades turísticas. Su análisis desde el enfoque de género resulta especialmente relevante en un sector altamente

sektore batean, baina emakumeek ez dituzte nahitaez errekonozimendu, botere edo erabakitzeko gaitasun handieneko posizioak betetzen.

feminizado, pero donde las mujeres no necesariamente ocupan las posiciones de mayor reconocimiento, poder o capacidad de decisión.

64. grafikoa. Turismo-sektoreko enpresetako langile kopuruaren batez besteko banaketa, enpresa-arloaren eta sexuaren arabera (%a sexuaren arabera), Bizkaia 2023.
Gráfico 64. Distribución media del número de personas empleadas en empresas del sector turístico según área de la empresa y sexo (% por sexo), Bizkaia 2023.



Iturria / Fuente: Bizkaiko Turismo-Industriaren Behatokia / Observatorio de la Industria Turística en Bizkaia

Datuek agerian uzten dute emakumeen eta gizonen banaketa desberdina dela lan-arloen arabera. Emakumeen kontrako alderik handiena zuzendaritza-postuetan gertatzen da: gizonak % 59,6 dira eta emakumeak % 40,4, 19,3 puntu portzentualeko aldearekin. Aitzitik, emakumeak gehiengo argia dira giza baliabideetan (% 73,3), arlo komertzialean eta marketinean (% 68,4) eta kudeaketa/administrazioan (% 63,3), tradizionalki antolaketa, harreman edo euskarri-funtzioei lotutako arloetan. Produkzioan —eremu horretan kontzentratzen da batez besteko enplegu bolumen handiena— banaketa orekatuagoa da, nahiz eta oraindik ere emakumeen gehiengo txiki bat dagoen (% 52,7).

Los datos evidencian una distribución desigual de mujeres y hombres según las áreas de trabajo. La mayor brecha desfavorable para las mujeres se produce en los puestos de dirección, donde los hombres representan el 59,6% frente al 40,4% de mujeres, con una diferencia de 19,3 puntos porcentuales. En contraste, las mujeres son mayoría clara en recursos humanos (73,3%), comercial y marketing (68,4%) y gestión/administración (63,3%), áreas tradicionalmente vinculadas a funciones organizativas, relacionales o de soporte. En producción —ámbito que concentra el mayor volumen medio de empleo— la distribución es más equilibrada, aunque sigue existiendo una ligera mayoría femenina (52,7%).

Eredu horrek erakusten du lan-merkatuaren segregazio horizontala eta bertikala turismo-sektorera ere hedatzen dela, eta agerian uzten du emakumeek oraindik ere oztopoak dituztela erabaki-postuetan sartzeko, baita enpleguan duten presentzia orokorra handia den sektoreetan ere.

IX. NEKAZARITZA ETA INGURUNE NATURALA

Nekazaritzaren eta ingurune naturalaren sektorea funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, bai ekonomian eta gizartean duen eraginagatik, bai ingurumen eta lurralde jasangarritasunean duen paperagatik.

Oro har, genero-desberdintasunak areagotu egiten dira eremu horietan. Lehenengoan, emakumeek eskuragarritasun txikiagoa dute nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien jabetzan, eta askoz ere presentzia txikiagoa dute arrantza-sektorean. Gainera, paradoxa bat gertatzen da horietan: nekazaritza-lanetan eta natura-ingurunea zaintzen parte hartzen duten arren, askotan ez da haien lana aintzat hartzen, ezta ordaintzen ere, eta horrek haien mendekotasuna eta, muturreko kasuetan, prekarietate ekonomikoa betikotzen ditu. Antzeko zerbait gertatzen da ingurune naturalaren kontserbazioaren kasuan; izan ere, emakumeek oso rol aktiboa dute, baina zaila da haien lidergoa aitortzea, nahiz eta lidergo horrek emakumeen ekintzailetza bultzatzeko potentziala izan, bereziki gizarte-ekonomiako, nekazaritza ekologikoko edo nekazaritza-turismoko ekimenetan.

Txosten honetan, halaber, aurreko Txostenean egindako ahaleginarekin jarraituz, berriz aztertzen dira eremu horiek, ekonomian eta Lurraldearen etorkizunean funtsezko garrantzia dutenak, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aurrera egiteko ere bai, baina, oro har, ibilbide laburragoa izaten dutenak genero-eraginaren azterketan.

Este patrón refleja una segregación horizontal y vertical del mercado laboral que se extiende también al sector turístico, evidenciando la persistencia de barreras en el acceso de las mujeres a puestos de decisión, incluso en sectores donde su presencia global en el empleo es elevada.

IX. AGRICULTURA Y MEDIO NATURAL

El sector de agricultura y medio natural es clave para promover la igualdad entre mujeres y hombres, tanto por su impacto económico y social como por su papel en la sostenibilidad ambiental y territorial.

Generalmente, son ámbitos donde las desigualdades de género se recrudecen. En el primero, con menor acceso de las mujeres a la propiedad de las explotaciones agrícolas y ganaderas, y su mucha menor presencia en el sector pesquero. Además, se da en ellos la paradoja de que, a pesar de su participación en tareas de trabajo agrícola y de cuidado del entorno natural, a menudo su trabajo no es reconocido ni remunerado, lo que perpetúa su dependencia y, en casos extremos, su precariedad económica. Algo parecido sucede en el caso de la conservación del entorno natural, en el que las mujeres tienen un papel muy activo, pero en el que es difícil que se reconozca su liderazgo, a pesar del potencial que este puede tener en el impulso al emprendimiento femenino, especialmente en iniciativas de economía social, agricultura ecológica o agroturismo.

Dando continuidad al esfuerzo realizado en el pasado Informe, vuelven a incorporarse estos ámbitos que, aunque tienen una importancia central en la economía y el futuro del Territorio, y también para el avance en materia de igualdad de mujeres y hombres, tienen generalmente menos trayectoria en el análisis de impacto de género.

9.1. Emakumeak eta gizonak lehen sektorean

Lehen hurbilketa bat nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta arrantzan lan egiten duten pertsonen adierazleak ematen digu. Lurraldeari buruzko datuek agerian uzten dute emakumeen parte-hartzeak lehen sektorean gutxiengoa izaten jarraitzen duela, eta honako hau iradokitzen dute: alde batetik, emakumeek produkzio-eremu horretarako sarbidea mugatzen duten egitura- eta kultura-oztopoak daudela oraindik ere, eta, bestetik, merkatu horretan duten ikusgarritasun falta. Hain zuzen ere, sektore horretan emakume askok egiten duten lana "etxeko lanen" partetzat hartzen dira; izan ere, jarraian ikusiko dugun bezala, ez daude alta emanda langile gisa, eta ez dira ustiategien jabe, nahiz eta lanean parte hartzen duten.


Aurten adierazle horren bilakaerari buruzko datuak sartu dira. Datu horiek baliagarriak izan daitezke politika publikoen diseinuan prospektiba ahalbidetuko duten joerak identifikatzeko, politika horiek emakumeen parte-hartzea sustatzera eta sektore ekonomiko horretako genero-arrakala, garrantzitsuenetako bat dena, orekatzera bideratuta baitaude.

9.1. Mujeres y hombres en el sector primario

Una primera aproximación nos la da el indicador de personas empleadas en la agricultura, ganadería, silvicultura y pesca. Los datos relativos al Territorio evidencian que la participación femenina en el sector primario sigue siendo minoritaria y sugieren, por un lado, la persistencia de barreras estructurales y culturales que limitan el acceso de las mujeres a este ámbito productivo y por otro, su invisibilidad en este mercado, pues muchas de las mujeres que desarrollan su actividad laboral en este sector lo hacen como parte de las “tareas del hogar”, ya que, como veremos a continuación, ni están dadas de alta como empleadas, ni son propietarias de las explotaciones, aunque sí participan del trabajo.

Este año se incorporan datos de evolución de este indicador, que pueden ser útiles para identificar tendencias que faciliten la prospectiva en el diseño de políticas públicas orientadas a incentivar la participación de las mujeres y equilibrar la brecha de género, una de las más importantes, en este sector económico.

65. grafikoa. Nekazaritzan, abeltzaintzan, basogintzan eta arrantzan lan egiten duten pertsonen bilakaera, sexuaren arabera, Bizkaia. 2018-2025
Gráfico 65. Evolución de las personas empleadas en agricultura, ganadería, silvicultura y pesca por sexo, Bizkaia. 2018-2025



Iturria / Fuente: EUSTAT

Aztertutako aldi osoan gizonezkoek duten gehiegizko ordezkaritza erakusten du grafikoak. 2025ean sektorean lanean ari diren gizonak 3.190 dira, eta emakumeak, berriz, 714; hau da, lehen sektorean lan egiten duten hamar pertsonatik zortzi, gutxi gorabehera, gizonak dira. Gainera, sektorean enplegu osoaren beheranzko joera ikusten da 2019az geroztik, gizonen artean beherakada bereziki handia izanik, 2019an 3.831 izatetik 2025ean 3.190 izatera igaro baitira. Emakumeek ere behera egin dute, baina, zeukaten pisu askoz txikiagoaren arabera, modu apalagoan jaisten dira: 975 izatetik 714 izatera pasa ziren epealdi berean.

El gráfico evidencia la sobrerrepresentación masculina durante todo el periodo analizado. En 2025, los hombres ocupados en el sector ascienden a 3.190 frente a 714 mujeres, lo que supone que aproximadamente ocho de cada diez personas empleadas en el sector primario son hombres. Además, se observa una tendencia descendente del empleo total en el sector desde 2019, con una reducción especialmente intensa entre los hombres, que pasan de 3.831 ocupados en 2019 a 3.190 en 2025. Las mujeres también disminuyen, aunque, conforme a su peso muy inferior, de forma más moderada, pasando de 975 a 714 empleadas en el mismo periodo.

Nekazaritza- eta arrantza-jardueretan sexuaren araberako lan-banaketarekin lotutako egiturazko faktoreetatik harago, enplegu horietako lanpostu gehienak gizonei esleitzen baitizkie, garrantzitsua da aipatzea emakumeek landa-eremuan egindako lana ikusezin bihurtu dela tradizioz, bai sozialki eta bai estatistiketan ezkutuan gelditu dena, ustiategiei lotutako "familia-laguntzako eta zaintzako zereginak" arloan.

Jarraian, jarduera mota bakoitzean sakontzen da, baita emakumeen parte-hartze nabarmen txikiago hori azaltzeko erabil daitezkeen desberdintasun-faktoreetan ere.


Lehenik eta behin, nekazaritza-sektorearen genero-azterketaren oinarrizko adierazleetako bat nekazaritza-ustiategien titulartasuna eta buruzagitza da. Jarraian, grafikoak Bizkaiko 2020ko datu horiek erakusten ditu (eskuragarri dauden azkenak), eta agerian uzten du datu horiek aldian-aldian eguneratu behar direla, baita maila horretako genero-desberdintasunek bere horretan dirautela ere.

Más allá de los factores estructurales vinculados a la división sexual del trabajo en las actividades agrarias y pesqueras, que asigna a los hombres la mayor parte de estos empleos, es importante señalar la tradicional invisibilización del trabajo desarrollado por las mujeres en el ámbito rural, oculto social y estadísticamente en “tareas de apoyo familiar y cuidados” asociados a las explotaciones.

A continuación, se profundiza en cada tipo de actividad y en los factores de desigualdad que pueden estar operando para explicar esta clara menor participación de las mujeres.

En primer lugar, uno de los indicadores básicos del análisis de género del sector agrícola es la titularidad y jefatura de las explotaciones agrarias. El gráfico a continuación muestra estos datos para el año 2020 (últimos disponibles) en Bizkaia, evidenciando la necesidad de actualización periódica de estos datos, a la vez que la persistencia de las desigualdades de género en este nivel.

66. grafikoa. Nekazaritzako ustiategien titulartasuna (pertsona fisikoa) Bizkaian. 2020.
Gráfico 66. Titularidad de las explotaciones agrarias (persona física) en Bizkaia. 2020.



(*) ez dago sexuaren arabera bereizitako daturik / no se dispone del dato desagregado por sexo
Iturria: Nekazaritza zentsua, EUSTAT / Fuente: Censo agrario, EUSTAT

Bizkaian pertsona fisikoenak diren nekazaritza-ustiategien titularren % 31,4 emakumeak dira (4.302 ustiategitatik 1.351), eta % 68,6 berriz, gizonak (2.951 titular). Datu horrek agerian uzten du desoreka iraunkorra dagoela ustiategien titulartasun formalean, eta horrek zuzeneko inplikazioak ditu emakumeek lurraren gaineko eskubideak, laguntza publikoak eta prestakuntza espezifikoa eskuratzeko eta nekazaritza-sektorearen erabaki estrategikoak hartzen parte hartzeko gaitasunean. Zifrak Euskadiko batez bestekoa baino pixka bat hobeak badira ere (EAE mailan emakume titularrak % 25,6 dira), 10 ustiategitatik 7k gizonen esku jarraitzeak berdintasun-politiketan aurrera egiten jarraitzeko beharra berresten du, emakumeek titulartasuna benetan eta eraginkortasunez eskura dezaten sustatzeko.

Gainera, ustiategien familia-egiturak genero-rolen eredu tradizional bat islatzen du: titularraren senideen partaidetza duten 2.656 ustiategietatik, laguntzaile gehienak ezkontideak dira (2.474), eta datu hori ordaindu gabeko edo ustiategiaren barruan ikusezin bihurtutako emakumeen lanari lotuta egon ohi da. Errealitate horrek mendekotasun ekonomikoaren dinamikak indartu eta landa-eremuko emakumeen autonomia mugatu dezake. Bereziki garrantzitsua da "kontratatu erregularra" kategorian 188 pertsona baino ez daudela, eta horrek kanpoko profesionalizazio-maila txikia iradokitzen du, eta ustiategien familia-izaera indartzen du. Hain zuzen ere, familia-izaerako ustiategietan genero-rolak jabetzan eta lidergoan ekitate-mekanismo argirik gabe erreproduzitu ohi dira.


Bestalde, nekazaritzako ustiategiak zuzentzen dituzten pertsonei erreparatzen badiegu —jabeak izan daitezkeenak edo ez—, horien sexuaren eta Lurralde Historikoaren araberako banaketa jarraian ageri da grafikoan.

En Bizkaia, las mujeres representan 31,4 % de las personas titulares de explotaciones agrarias de persona física (1.351 de un total de 4.302 explotaciones), frente a un 68,6 % de hombres (2.951 titulares). Este dato pone de manifiesto un desequilibrio persistente en la titularidad formal de las explotaciones, lo que tiene implicaciones directas en el acceso de las mujeres a derechos sobre la tierra, ayudas públicas, formación específica, y en la capacidad de participar en la toma de decisiones estratégicas del sector agrario. Aunque las cifras son algo mejores que la media de Euskadi (donde las mujeres titulares son el 25,6 %), el hecho de que 7 de cada 10 explotaciones sigan en manos masculinas confirma la necesidad de seguir avanzando en políticas de igualdad que promuevan un acceso real y efectivo de las mujeres a la titularidad.

Además, la estructura familiar de las explotaciones refleja un patrón tradicional de roles de género: de las 2.656 explotaciones con participación de familiares de la persona titular, la gran mayoría de las personas colaboradoras son cónyuges (2.474), un dato que suele estar vinculado al trabajo femenino no remunerado o invisibilizado dentro de la explotación. Esta realidad puede reforzar dinámicas de dependencia económica y limitar la autonomía de las mujeres rurales. Es especialmente relevante que en la categoría de “contratada regular” apenas hay 188 personas, lo que sugiere un bajo grado de profesionalización externa y refuerza el carácter familiar de las explotaciones, donde los roles de género tienden a reproducirse sin mecanismos claros de equidad en la propiedad y el liderazgo.

Si atendemos, por otro lado, a las personas que dirigen las explotaciones agrarias —que pueden coincidir o no con sus propietarias—, su distribución por sexo y Territorio Histórico se muestra en el gráfico a continuación.

67. grafikoa. Euskal AEko nekazaritza-ustiategiak, Lurralde Historikoaren eta ustiategia zuzentzen duen pertsonaren sexuaren arabera. 2020
Gráfico 67. Explotaciones agrarias de la C.A de Euskadi por Territorio Histórico y sexo de la persona que dirige la explotación. 2020



Iturria: Nekazaritza zentsua, EUSTAT / Fuente: Censo agrario, EUSTAT

2020ko Nekazaritza zentsuko Euskadiko nekazaritza-ustiategiei buruzko datuek, Lurralde Historikoaren eta zuzentzen dituen pertsonaren sexuaren arabera banakatuta, agerian uzten dute titulartasunaren kasuan ikusitako proportzioen oso antzekoak direla. Horrela, ustiategi horien zuzendaritzan dagoen genero-desberdintasunaren ereduak bere horretan jarraitzen du, bai Bizkaian, bai Euskal Autonomia Erkidego osoan. Azken horri dagokionez, gizonak ustiategietako arduradunen % 74,4 dira (12.919 ustiategitatik 9.606), eta emakumeak, berriz, % 25,6 (3.313 ustiategi). Lurraldeen arteko konparazioan, Bizkaia batez besteko autonomikoaren gainetik nabarmentzen da emakumeen presentziari dagokionez, emakumeen % 28,2 baitira ustiategiak zuzentzen dituztenak (4.651ustiategietatik 1.311), gizonen % 71,8ren aldean. Gipuzkoan emakumeak % 25,9 dira, eta Araban dago portzentajerik txikiena, % 21,7. Datu horrek iradokitzen du Bizkaiko lurraldea zertxobait aurreratuago egon daitekeela emakumeak ustiategien lidergoan sartzeari dagokionez, nahiz eta aldeak ez diren egiturazko aldaketa bat adierazteko bezain esanguratsuak.

Los datos del Censo Agrario 2020 sobre las explotaciones agrarias de Euskadi desglosados por Territorio Histórico y sexo de la persona que las dirige, evidencia proporciones muy similares a las que se observaban en el caso de la titularidad. Así, el patrón de desigualdad de género en la dirección de estas explotaciones se mantiene, tanto en Bizkaia como en el conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Para esta última, los hombres representan el 74,4 % de las personas responsables de las explotaciones (9.606 de 12.919 explotaciones), mientras que las mujeres alcanzan el 25,6 % (3.313 explotaciones). En la comparación entre territorios, Bizkaia destaca ligeramente por encima de la media autonómica en presencia femenina, con un 28,2 % de mujeres dirigiendo explotaciones (1.311 de 4.651 explotaciones), frente a un 71,8 % de hombres. Gipuzkoa se sitúa con un 25,9 % de mujeres y Álava, con el porcentaje más bajo, 21,7 %. Este dato sugiere que el territorio vizcaíno podría estar algo más avanzado en términos de incorporación de las mujeres al liderazgo de explotaciones, aunque las diferencias no son tan significativas como para indicar un cambio estructural.

Nolanahi ere, nekazaritza- eta baso-ustiategien titulartasunean edo kudeaketan dagoen desoreka ez dator bat, hasieran esan bezala, emakumeek familia-finken eguneroko jardueran duten inplikazio zabalarekin. Horren arrazoia da ikusezin bihurtutako zereginetan parte hartzen dutela, hala nola animalien zaintzan, produktuen artisau-eraldaketan, etxeko kudeaketan edo ingurunearen mantentzean. Lan horiek ez dute ordainik eskubide ekonomikoetan, ezta ordezkaritza formalean ere sektoreko erakundeetan. Gainera, gorago jorratu ditugun faktoreak emakumeen ekintzailetza-tasa txikiagoak azaltzen dituzten desberdintasunei dagokienez, nekazaritza-ekintzailetza propioaren kasuan indartu egiten dira, eta ia ez dago halakorik.

Nekazaritza-ustiategien titulartasun partekatuari buruz urriaren 4ko 35/2011 Legearekin arau-esparruan egin ziren aurrerapenei esker, zalantzarik gabe, hobetu egin da emakumeek nekazaritza-sektorean duten presentzia eta ordezkaritza. Hala ere, datuek iradokitzen dutenez, arau-aldaketa horiek beharrezkoak izanik, ez dira nahikoak funtsezko aurrerapenak bermatzeko, eta neurri zehatzagoak behar dira, sektore horretan emakumeen presentziari eta posizioari dagokienez ikusitako desberdintasunak azaltzen dituzten egiturazko faktoreak ahultzen joateko.

Bestalde, eta orain arrantzari dagokionez, emakumeek sektorean duten parte-hartzeari buruz lurralde historikorako datu bereizirik egon ez arren, Euskal Autonomia Erkidego osorako datuek oso presentzia txikia erakusten dute. Adibidez, Itsasoko Gizarte Institutuaren arabera (2024ko urtarrila), Euskadin 125 emakume zeuden Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian afiliatuta, % 9 inguru lan-erregimen horretan. Presentzia txikia izateaz gain, sektore horretan aritzen diren emakumeak oso jarduera espezifikoetan aritzen dira; horren adibide dira neskatilak eta saregileak. Jarduera horiek ikusgarritasun eta errekonozimendu txikiagoa dute, eta emakumeek bakarrik egiten dituztenez, sexuaren araberako bereizketa argia erakusten dute sektore horren barruan.

En cualquier caso, el desequilibrio en la titularidad o gestión de explotaciones agrarias y forestales contrasta, como se decía al inicio, con la amplia implicación de las mujeres en la actividad diaria de las fincas familiares. Ello se explica porque su participación se concentra en tareas invisibilizadas como el cuidado de animales, la transformación artesanal de productos, la gestión doméstica o el mantenimiento del entorno, trabajos que no tienen un correlato en derechos económicos ni en representación formal en las organizaciones del sector. Además, los factores ya abordados respecto a las desigualdades que explican las menores tasas de emprendimiento de las mujeres se potencian en el caso del emprendimiento agrario propio, del que están prácticamente ausentes.

Los avances en el marco normativo que se produjeron con la Ley 35/2011, de 4 de octubre, sobre titularidad compartida de las explotaciones agrarias, sin duda han permitido mejoras en cuanto a la presencia y representación de las mujeres en el sector agrícola. No obstante, los datos sugieren que, siendo necesarios, estos cambios normativos no son suficientes para garantizar avances sustantivos, y se requieren medidas más concretas que vayan debilitando los factores estructurales que explican las desigualdades observadas en cuanto a presencia y posición de las mujeres en este sector.

Por otro lado, y atendiendo ahora a la actividad pesquera, aunque se carece de datos desagregados para el territorio histórico respecto a la participación de las mujeres en el sector, los datos para todo el País Vasco sugieren una presencia muy minoritaria. Así, por ejemplo, según el Instituto Social de la Marina (enero de 2024), en Euskadi había 125 mujeres afiliadas al Régimen Especial de la Seguridad Social de Trabajadores del Mar, aproximadamente el 9 % en este régimen laboral. Además de su escasa presencia, las mujeres que se dedican a este sector lo hacen en actividades muy específicas, como es el caso de las neskatilas y las rederas, actividades realizadas exclusivamente por mujeres, con menor visibilidad y reconocimiento, y que muestran además una clara segregación por sexo en el interior mismo de este sector.

Aurreko hori hainbat arrazoiengatik azaldu da: zeregin tradizionalak are errotuago dauden jarduera da; egitura komunitarioen pisua (kooperatibak, tokiko batzarrak edo arrantzaleen kofradiak), batez ere Kantauriko artisau-arrantzaren kasuan, oso garrantzitsua da oraindik; gizonek menderatutako egiturak diren heinean, emakumeen parte-hartze aktiboa oso mugatua da[15], eta hori, aldi berean, jarduera horietatik kanpo uztearen kausa eta ondorio bihurtzen da. Gainera, itsasoa gizonei dagokiela babesten duten genero-estereotipoen iraunkortasuna, lizentzia edo ontziratze formalik ez izatea eta sektorean ordaindu gabeko lana edo lan informala ikusezin bihurtzea presentzia hain mugatu hori azaltzen duten faktoreak dira.

Lo anterior se explica porque se trata de una actividad donde los roles tradicionales están aún más arraigados; el peso de las estructuras comunitarias (cooperativas, juntas locales o cofradías de pescadores), especialmente en el caso de la pesca artesanal del Cantábrico, sigue siendo muy importante; en la medida en que se trata de estructuras dominadas por hombres, la participación activa de las mujeres es muy restringida[15] , lo que se convierte a la vez en causa y efecto de su práctica exclusión de estas actividades. Además, la persistencia de los estereotipos de género que reservan el mar a los hombres, la falta de acceso a licencias o a embarques formales, la invisibilización del trabajo no remunerado o informal en el sector, son factores que explican esta presencia tan limitada.

Antzeko zerbait gertatzen da beste jarduera batzuetan, hala nola mendiko abeltzaintza estentsiboan: emakumeak presente daude, baina ia ez daude aitortuta, lizentziak eta larra-eskubideak eskuratzeko aukerak ez baitira ekitatiboak.

Algo similar sucede en otras actividades como la ganadería extensiva de montaña, en la que las mujeres están presentes, pero escasamente reconocidas, sin acceso equitativo a licencias y derechos de pasto.

Aurreko kasu guztietan, jarduera horiek nagusiki garatzen diren landa-testuinguruei lotutako dinamikek eragin bereziki negatiboa dute emakumeengan. Horiek horrela, kontziliazio- eta garraio-zerbitzurik ezak, biztanleriaren zahartzeak eta estaldura digital eskasak areagotu egiten dute haien isolamendua, eta zailago bihurtzen du landa-garapen berdintasunezkoago eta jasangarriago batean jarraitzea eta modu aktiboan sartzea.

Aldeak txikiak diren arren, beti dira sendoak beren zeinuari dagokionez: emakumeak posizio okerragoan jartzen dituzte, eta horrek adierazten du hautapen-postuetara, batez ere botere instituzional handienetara, berdintasunez iristeko oztopo gehiago egon daitezkeela. Aldeak txikiak baina iraunkorrak izateak adierazten du ere oinarrian dauden faktoreei eusten zaiela: emakumeen lidergoaren pertzepzioari buruzko genero-estereotipoak, euren alderdietan gora egitea erraztuko duten laguntza-sareen falta, espazioek eta sare informalek (tradizionalki oso maskulinizatuak) alderdi politikoen hierarkian gora egiteko duten garrantzia, komunikabideek eta hauteskunde kanpainetan emakumeen eta gizonen hautagai-zerrendek tratamendu desberdina izatea, besteak beste.


Aunque las diferencias son pequeñas, son siempre consistentes respecto a su signo: colocando a las mujeres en una peor posición, indicativa de posibles mayores obstáculos para llegar en igualdad a los puestos de elección, especialmente a aquellos de mayor poder institucional. El que las diferencias sean pequeñas pero persistentes indica que también se mantienen los factores que las sustentan: los estereotipos de género sobre la percepción del liderazgo de las mujeres, la falta de redes de apoyo que faciliten el ascenso en los partidos, el peso que tienen los espacios y las redes informales (tradicionalmente muy masculinizados) a la hora de ascender en la jerarquía de los partidos políticos, la diferente visibilidad con un tratamiento desigual por parte de los medios de comunicación de las candidaturas de las mujeres y hombres en las campañas, entre otros.

Beste funtsezko adierazle bat Bizkaiko Batzar Nagusietako sexuaren araberako langileen osaera orokorra da. Horietan, datuek banaketa ia orekatua erakusten dute: osatzen duten 58[18] pertsonetatik 28 emakumeak dira (% 48,3) eta 30 gizonak (% 51,7).

Otro indicador fundamental es la composición global por sexo del personal de las Juntas Generales de Bizkaia. En ellas, los datos muestran un reparto prácticamente equilibrado: de las 58 [18] personas que lo integran, 28 son mujeres (48,3 %) y 30 son hombres (51,7 %).

18 51 batzarkide eta beste 7 laguntzaile tekniko eta administrari
51 junteras y junteros, y 7 personas de personal de apoyo técnico y administrativo.

77. grafikoa. Bizkaiko Batzar Nagusietako langileen osaera, sexuaren arabera. XII. agintaldia
Gráfico 77. Composición por sexo del personal de las Juntas Generales de Bizkaia. Mandato XII



Iturria Bizkaiko Batzar nagusiak / Fuente: Juntas Generales de Bizkaia


Aurrekoak berretsi egiten du kopuruen orekan aurrerapausuak izan direla, eta, esan bezala, zerikusi handia izan dute hauteskunde-prozesuei eta ordezkaritza-postuei aplikatutako berdintasun-politikek, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna foru-organoen eraketan txertatzeko ahaleginek ere.

Datu orokor hori beste informazio batzuekin konbinatuta aztertu behar da —esaterako, okupatutako karguekin—, parekotasun horrek botere eta erabaki gehien hartzen diren eremuetarako sarbidean benetako berdintasuna dakarren ulertzeko. Mahaiaren osaera funtsezko adierazlea da, hurrengo grafikoan adierazita:

Lo anterior confirma un avance hacia el equilibrio numérico en el que, como se comentaba, han tenido mucho que ver las políticas de igualdad aplicadas a los procesos electorales y los puestos de representación, así como los esfuerzos por incorporar la igualdad entre mujeres y hombres en la configuración de los órganos forales.

Este dato global debe analizarse en combinación con otras informaciones —como los cargos ocupados- para comprender si esta paridad se traduce en igualdad real en el acceso a los espacios de mayor poder y toma de decisiones. Un indicador clave es la composición de la Mesa, representada en el siguiente gráfico.

78. grafikoa. Bizkaiko Batzar Nagusietako Mahaiaren osaera, karguaren arabera. XII. agintaldia
Gráfico 78. Composición de la Mesa de Juntas Generales de Bizkaia por cargo. Mandato XII



Iturria Bizkaiko Batzar nagusiak / Fuente: Juntas Generales de Bizkaia


Grafikoak botere instituzionaleko espazioetan oso ohikoa ez den egoera bat erakusten du: bost karguetatik lau emakumeek betetzen dituzte, eta gizon batek kargu bakarra. Emakumeek, gainera, erantzukizuneko lanpostu nagusiak betetzen dituzte: presidentetza, bi lehendakariordetzak eta lehen idazkaritza. Konfigurazio hori, proportzio orekatuagoan bada ere, aurreko agintaldietan eman zen: XI.ean (2019-2023) 3 gizon eta 2 emakume zeuden, eta X.ean (2015-2019) eta IX.ean (2011-2015) 3 emakume eta 2 gizon. Aipatutako guztietan, presidentetza emakume batek izan du.

Konfigurazio horrek erakusten du aurrerapen nabarmena egin dela emakumeek zuzendaritzako eta erabakiak hartzeko foru-organoetan duten presentzian, eta hori berretsi egiten da Aldundiko gobernu-taldearen osaerari erreparatuta, irudi honetan marraztuta:

El gráfico muestra una situación muy poco habitual en los espacios de poder institucional: de los cinco cargos, cuatro están ocupados por mujeres y solo uno por un hombre. Las mujeres desempeñan, además, los principales puestos de responsabilidad: la presidencia, ambas vicepresidencias y la secretaría primera. Esta configuración, aunque en una proporción más equilibrada, se daba ya en anteriores mandatos: en el XI (2019-2023) había 3 hombres y 2 mujeres, y en el X (2015-2019) y el IX (2011-2015) con 3 mujeres y 2 hombres. En todas las mencionadas la presidencia ha estado ostentada por una mujer.

Esta configuración refleja un avance significativo en la presencia de las mujeres en los órganos forales de dirección y toma de decisiones, que se confirma atendiendo a la composición del equipo de gobierno de la Diputación, dibujado en la siguiente ilustración:

1. irudia. Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Taldearen osaera, 2026.
Ilustración 1. Composición del Equipo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia, 2026.



♀ sinboloak, laranjaz, postua emakume batek betetzen duela adierazten du; ♂ sinboloak, urdin ilunez, gizon batek.
El símbolo ♀, en color naranja, indica que es una mujer quien ocupa el puesto; el símbolo ♂, en azul oscuro, un hombre.
Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Foru Aldundiaren webguneko datuetan oinarrituta
Fuente: elaboración propia a partir de los datos de la web de la Diputación Foral de Bizkaia


Beste urte batez, aurrerabide nabarmena dugu emakumeek kargu exekutibo gorenetan duten presentzian. Hamaika postu nagusietatik (Diputatu Nagusia eta departamentuetako foru-diputatuak), zortzi emakumeek betetzen dituzte, eta hiru gizonek. Gainera, 1979tik lehen aldiz, diputatu nagusiaren kargua emakume batek betetzen du. Datu horrek agerian uzten du emakumeek foru-eremuan botere eta erabaki gehien duten eremuetarako sarbide eraginkorra dutela, eta agerian uzten du badagoela genero-berdintasunarekiko konpromiso instituzionala.

Un año más, estamos ante un notable avance en la presencia de las mujeres en los máximos cargos ejecutivos. De los once puestos principales (Diputada General y diputadas y diputados forales de los diferentes departamentos), ocho están ocupados por mujeres y tres por hombres. Además, por primera vez desde 1979, el cargo de diputada general lo ostenta una mujer. Este dato refleja un acceso efectivo de las mujeres a los espacios de mayor poder y decisión en el ámbito foral y evidencia un compromiso institucional con la igualdad de género.

Hala ere, unean-uneko argazki hori tentuz irakurri behar da: kasu zehatz honetan emakumeen aldeko banaketa argia bada ere, ez du esan nahi, nahitaez, botere politikoaren beste maila batzuetan dirauen egiturazko desberdintasuna konpondu denik, hurrengo grafikoan Bizkaiko alkatetzei buruz ageri diren datuek erakusten duten bezala; izan ere, hurrengo grafikoan, oraindik ere, gizonek betetzen dituzte kargu nagusi gehienak.

Sin embargo, esta fotografía puntual debe leerse con cautela: aunque se trata de un reparto claramente favorable a las mujeres en este caso concreto, no implica necesariamente que se haya revertido la desigualdad estructural que persiste en otros niveles de poder político, como evidencian los datos de las alcaldías de Bizkaia que se reflejan en el siguiente gráfico, donde los hombres siguen ocupando la mayoría de los máximos cargos.

79. grafikoa. Bizkaiko alkatetzen osaera (%, sexuaren arabera). 2023
Gráfico 79. Composición de las alcaldías de Bizkaia (% por sexo). 2023



Iturria Bizkaiko Batzar nagusiak / Fuente: Juntas Generales de Bizkaia

Bizkaiko alkatetzen osaerak agerian uzten du desberdintasun iraunkorra dagoela emakumeek udal-erantzukizuneko kargu gorenetara iristeko duten aukerari dagokionez. 113 emakumeetatik 42tan emakumeek dute lidergoa, hau da, % 37,2tan, eta gizonen artean, berriz, % 62,8tan (71 alkatetza).

La composición de las alcaldías de Bizkaia revela una desigualdad persistente en el acceso de las mujeres a los máximos cargos de responsabilidad municipal. De un total de 113, solo 42 están lideradas por mujeres, lo que supone el 37,2 %, frente al 62,8 % de los hombres (71 alcaldías).

Agertoki horrek erakusten du kristalezko sabaia mantentzen dela foru-ordezkaritza politikoaren zenbait espaziotan, hala nola alkatetzetan, non herritarrentzat gauzatzen baitira, azken batean, tokiko mailako erabakiak. Datu horren eta foru gobernuan emakumeen presentzia handiagoaren

Este escenario ilustra cómo el techo de cristal se mantiene en algunos espacios de la representación política foral, como son las alcaldías, donde se materializan para la ciudadanía, en última instancia, las decisiones en el nivel local. El contraste de este dato, con la mayor presencia de

arteko kontrasteak gogoeta egitera bultzatzen gaitu, parekotasuna ez dadin koiunturala izan, baizik eta Lurralde Historikoko ordezkaritza politikoko maila eta organo guztietan ondorioak izango dituen praktika estruktural eta iraunkor gisa finkatu dadin.

10.2. Egoera eta posizioa Foru Administrazioan

Ondoren, foru-administrazio publikoan eskuragarri dauden azken datuen genero-azterketa egingo da.

Lehenik eta behin, Bizkaiko Foru Aldundiko langileen osaerari erreparatuta, ikusten da emakumeen presentzia orokorra handiagoa dela (guztizkoaren % 57), honako grafiko honetan ageri den langileen erregimenaren araberako banaketarekin:


las mujeres en el gobierno foral invita a reflexionar sobre la necesidad de que la paridad no sea coyuntural, sino que se consolide como una práctica estructural y sostenida en el tiempo que tenga efectos en todos los niveles y órganos de representación política del Territorio Histórico.

10.2. Situación y posición en la Administración Foral

A continuación, se realiza un análisis de género de los últimos datos disponibles en la administración pública foral.

En primer lugar, atendiendo a la composición del personal de la Diputación Foral de Bizkaia, se revela una mayor presencia general de las mujeres, que suponen el 57% del total, con la distribución por régimen de personal que muestra el siguiente gráfico:

80. grafikoa. Bizkaiko Foru Aldundiko administrazioko langileak, erregimenaren arabera (%, sexuka). 2024
Gráfico 80. Personal de la administración de la Diputación Foral de Bizkaia por régimen (% por sexo). 2024



Iturria: Bizkaiako Foru Aldundia / Fuente: Diputación Foral de Bizkaia


Grafikoak erakusten duenez, administrazio publikoetako plantilla gehienetan gertatzen den bezala, emakumeak gehiengoa dira ia langile mota guztietan. Horrela, karrerako funtzionarioen % 55,5 dira (1.282 emakume eta 1.029 gizon), eta joera hori areagotu egiten da bitarteko funtzionarioen artean, % 62,2 emakumeak baitira (654 emakume eta 398 gizon). Horrekin kontrajarrita, guztizkoan egonkortasun txikiagoa edo bolumen txikiagoa duten kategoriek gizonen presentzia handiagoa edo banaketa orekatuagoa dute. Enplegu funtzionarioen kasuan, gizonak dira gehiengoa (% 59,1), edo lan-kontratu mugagabeko langileen kasuan, non emakumeak gehiengoa diren, baina oso bolumen txikian (16 eta 4 gizon). Beste administrazio batzuetako funtzionarioak (6 gizon, 3 emakume), praktiketan daudenak, eta aldi baterako lan-kontratudun langileak (bakoitzean gizon bat), kategori minoritarioak dira, banaketa orokorrean oso adierazgarriak ez direnak.

Hurrengo grafikoak datu horiek ikusteko beste modu bat erakusten du, langile mota bakoitzak sexu bakoitzean duen pisua kontuan hartuta.

El gráfico evidencia que, al igual que sucede en la gran mayoría de las plantillas de las administraciones públicas, las mujeres son mayoría en la práctica totalidad de los tipos de personal. Así, representan el 55,5 % del funcionariado de carrera (1.282 mujeres frente a 1.029 hombres), tendencia que se acentúa en el funcionariado interino, donde el 62,2 % son mujeres (654 frente a 398 hombres). En contraste, las categorías con menor estabilidad o menor volumen en el total presentan una mayor presencia de los hombres o un reparto más equilibrado. Es el caso del funcionariado de empleo, donde los hombres son mayoría (59,1 %), o del personal laboral indefinido, donde las mujeres son mayoría, pero en un volumen muy reducido (16 frente a 4 hombres). El funcionariado de otras administraciones (6 hombres, 3 mujeres), en prácticas, y el personal laboral temporal (un hombre en cada una), son categorías minoritarias poco representativas en la distribución general.

El gráfico siguiente muestra otra forma de ver estos mismos datos, atendiendo al peso que tiene en cada uno de los sexos los diferentes tipos de régimen de personal.

81. grafikoa. Bizkaiko Foru Aldundiko administrazioko langileak, erregimenaren arabera (sexu bakoitzaren guztizkoaren gaineko %-a - % bertikala). 2024
Gráfico 81. Personal de la administración de la Diputación Foral de Bizkaia por régimen (% sobre el total de cada sexo-% vertical). 2024



Iturria: Bizkaiako Foru Aldundia / Fuente: Diputación Foral de Bizkaia

Banaketak agerian uzten du karrerako funtzionarioen pisu nagusia bietan, nahiz eta pixka bat handiagoa izan gizonetan: emakumeen % 64,3 eta gizonen % 69,0 modalitate horretan daude, eta horrek erakusten du enplegu egonkorrek garrantzi handia dutela plantilla osoan eta emakumeak nabarmen sartu direla kategoria horretan. Bitarteko funtzionarioek ere garrantzi handia dute, batez ere emakumeen artean (% 32,8, eta gizonen artean % 26,7), eta horrek lotura izan dezake oso feminizatuta dauden edo egonkortzeko zailtasun handiagoak dituzten sektoreei lotutako behin-behinekotasun-prozesuekin. Modalitate prekarioenek edo minoritarioenek ordea, lan-kontratu mugagabea dutenek edo aldi baterako lan-kontratuko langileek bezala, presentzia txikia dute bi sexuetan.

La distribución evidencia el peso dominante del funcionariado de carrera en ambos, aunque ligeramente mayor en hombres: el 64,3 % de las mujeres y el 69,0 % de los hombres ocupan esta modalidad, lo que refleja la importancia de los empleos estables en el conjunto de la plantilla y la notable inserción femenina en esta categoría. El funcionariado interino también tiene un peso relevante, especialmente entre las mujeres (32,8 % frente al 26,7 % de los hombres), lo que podría estar relacionado con procesos de temporalidad vinculados a sectores altamente feminizados o con mayores dificultades de estabilización. Por el contrario, las modalidades más precarias o minoritarias, como el personal laboral indefinido o el personal laboral temporal, tienen una presencia residual en ambos sexos.


Oro har, banaketa horrek agerian uzten du emakumeek presentzia nabarmena lortu dutela Aldundiko funtzionario-kidegoetan, eta fenomeno hori, esan bezala, ia administrazio publiko guztietan gertatzen dela; eta genero-azterketek enplegu publikora (lehiaketa-oposizioa) iristeko mekanismorik "objektiboenen" bidez azaltzen dituztela baldintza erakargarrienak egonkortasunari eta haiei tradizioz esleitutako zaintza-rolarekin bateragarri egiteko aukerei dagokienez, eta, halaber, berdintasun-politikek enplegu publikoan gero eta pisu handiagoa dutelako, enplegu pribatuak emakumeentzat izan ohi dituen oztopo handiagoekin kontrastean.

Hala ere, beste presentzia-adierazle batzuekin egiten den bezala, datu global hori foru-administrazioko beste posizio-adierazle batzuekin batera aztertu behar da, BFAko langileen artean emakumeen oreka eta presentzia handiagoak benetako berdintasuna dakarrela egiaztatzeko, botere eta erabaki gehien hartzen diren eremuetarako sarbidean. Ondorengo grafikoak Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendaritzako eta erantzukizuneko langileen banaketa adierazten du.

Globalmente, este reparto evidencia cómo las mujeres han logrado una notable presencia en los cuerpos funcionariales de la Diputación, un fenómeno que, como se decía, se da en la práctica totalidad de las administraciones públicas; y que los estudios de género explican por los mecanismos más “objetivos” de acceso al empleo público (concurso-oposición), las condiciones más atractivas en cuanto a estabilidad y posibilidades de compatibilización con el rol de cuidados tradicionalmente asignado a ellas y, también, por peso creciente de las políticas de igualdad en el empleo público, en contraste con los mayores obstáculos que el empleo privado suele presentar para las mujeres.

Sin embargo, al igual que se hace con otros indicadores de presencia, este dato global debe analizarse en combinación con otros de posición en la administración foral, para comprobar que el equilibrio e incluso la mayor presencia de las mujeres entre el personal de la DFB se traduce en igualdad real en el acceso a los espacios de mayor poder y toma de decisiones. El siguiente gráfico representa la distribución del personal directivo y de responsabilidad en la Diputación Foral de Bizkaia.

82. grafikoa. Bizkaiko Foru Administrazioko zuzendaritzako langileak, karguaren arabera (%, sexuaren arabera). 2024
Gráfico 82. Personal directivo de la administración foral de Bizkaia por cargo (% por sexo). 2024



Iturria: Bizkaiako Foru Aldundia / Fuente: Diputación Foral de Bizkaia

Grafikoak erakusten du, hain zuzen ere, sexuaren araberako segregazio bertikalak presente jarraitzen duela Aldundian. Horrela, foru-administrazioko langileen artean emakumeen presentzia ekitatea eta are presentzia handiagoa izan arren, gizonek zuzendaritza- eta erantzukizun-karguen % 61 baino gehiago betetzen dute (Aldundiko 39 goi-karguetatik 24). Zuzendaritza Nagusiko lanpostuetan, gizonak emakumeak baino hiru aldiz gehiago dira (19 gizon eta 8 emakume), eta horrek agerian uzten du emakumeak oraindik ere oso gutxi sartzen direla erabaki estrategikoak hartzen diren eta erakundearen egunerokoa kudeatzen den guneetara. Bestalde, funtsezko karguak, hala nola Idazkaritza Nagusia, Kabineteko Buruzagitzak eta Lehendakaritza, gizonek baino ez dituzte betetzen, eta sendotu egiten dute kristalezko sabaiaren iraunkortasuna administrazio-lidergoaren mailarik altuenetan eta sinbolikoenetan.

El gráfico muestra que, efectivamente, la segregación vertical por sexo sigue presente en la Diputación. Así, a pesar de la equidad e incluso mayor presencia de las mujeres entre el personal de la administración foral, los hombres ocupan más del 61% de los cargos directivos y de responsabilidad (24 de los 39 altos cargos de la Diputación). En los puestos de Dirección General, los hombres triplican a las mujeres (19 hombres frente a 8 mujeres), lo que revela un acceso todavía muy limitado de las mujeres a los espacios donde se toman las decisiones estratégicas y se gestiona el día a día de la institución. Por su parte, cargos clave como la Secretaría General, las Jefaturas de Gabinete y la Presidencia están ocupados exclusivamente por hombres, reforzando la persistencia de un techo de cristal en los niveles más altos y simbólicos del liderazgo administrativo.

Azkenik, nahiz eta diputatuen mailan emakumeen presentzia gehiengoa izan, eta horrek agerian uzten du aurrerapen handia izan dela emakumeen ordezkaritza politikoan, lorpena ez da botere exekutibo handieneko maila teknikoetara eramaten. Ikuspegi horrek erakusten du eremu politiko batzuetan parekotasun formalak ez duela bermatzen benetako berdintasuna zuzendaritza- eta kudeaketa-egituran, eta erabakitze-maila horietan emakumeen presentzia sustatzeko politika zorrotzagoak behar direla azpimarratzen du.

Finalmente, aunque a nivel de diputadas y diputados la presencia de las mujeres es mayoritaria, lo que evidencia un avance importante en la representación política de las mujeres, el logro no se traslada a los niveles técnicos de mayor poder ejecutivo. Este panorama muestra cómo la paridad formal en algunos espacios políticos no garantiza la igualdad real en la estructura directiva y de gestión, y subraya la necesidad de políticas más incisivas para fomentar la presencia de mujeres en estos niveles decisorios.


Aipatutakoa berresten da zuzendaritzako langile horiek sailka duten banaketari erreparatzen bazaio. Banaketa horrek erakusten du sexuaren araberako segregazio bertikalak eta horizontalak elkarreragin eta berrelikatu egiten direla. Argi dago zuzendaritza-postuak sexuaren eta sailen arabera bereizten direla, batzuetan emakumeen % 60 baino gehiago baitaude, hala nola sustapen ekonomikoa (% 66,7 emakumeak) edo enplegua, gizarte-kohesioa eta berdintasuna (% 60 emakumeak), baina oraindik ere oso maskulinizatuta dauden arloak daude, hala nola administrazio publikoa eta harreman instituzionalak eta azpiegiturak eta lurralde-garapena (karguen % 100 gizonei dagokie).

Lo anterior se confirma si se atiende a la distribución de este personal directivo por Departamento. Esta distribución muestra como la segregación vertical y horizontal por sexo interactúan y se retroalimentan. La segregación por sexo y departamentos de los puestos directivos se hace evidente en el hecho de que en algunos alcanzan o superan el 60% de mujeres, como el de promoción económica (66,7 % mujeres) o empleo, cohesión social e igualdad (60 % mujeres), pero persisten áreas fuertemente masculinizadas, como administración pública y relaciones institucionales e infraestructuras y desarrollo territorial, donde el 100 % de los cargos corresponden a hombres.

Hurrengo grafikoan aurkezten diren datuek erakusten dute tradizioz arlo teknikoari, lurraldekoari edo instituzionalari lotutako espazioetan oraindik ere gizonak direla nagusi, eta emakumeek ordezkaritza handiagoa dutela gizarte-, kultura- edo berdintasun-arloetan.

Los datos que se presentan en el siguiente gráfico reflejan cómo los espacios vinculados tradicionalmente a lo técnico, lo territorial o lo institucional continúan siendo ocupados mayoritariamente por hombres, mientras que las mujeres logran una mayor representación en áreas sociales, culturales o de igualdad.

83. grafikoa. Zuzendaritza-kargua duten Bizkaiko Foru Aldundiko langileak, Sailaren arabera. 2024
Gráfico 83. Personal de la Diputación Foral de Bizkaia con cargo directivo por Departamento. 2024



Iturria: Bizkaiako Foru Aldundia / Fuente: Diputación Foral de Bizkaia

Azken batean, banaketak agerian uzten du genero-desberdintasunek irauten dutela, baita enplegu publikoan ere, eta horrek emakumeen presentzia areagotuko duten neurriak bultzatzeko erronka planteatzen du, emakumeen posizioa orekatzen eta emakumeek boterea eta erantzukizuna duten eremuak dibertsifikatzen lagunduko dutenak.

En definitiva, el reparto revela la persistencia de desigualdades de género incluso en el empleo público, lo que plantea el desafío de impulsar medidas que no solo aumenten la presencia femenina, sino que contribuyan a equilibrar su posición y diversifiquen los ámbitos en los que las mujeres ejercen poder y responsabilidad.

10.3. Politikan eta gizartean parte hartzea

Ondoren, generoaren ikuspegitik aztertuko dira Euskal Autonomia Erkidego osorako parte-hartze sozial eta politikoari buruz eskura dauden datuak, emakumeen eta gizonen sare soziopolitikoan inplikatzeko modu horiei arreta ematearen garrantzia eta etorkizunean maila lokalean horri buruzko informazio gehiago izateko aukera ikusarazteko.

Lehenik eta behin, 2024an (eskuragarri dagoen azken datua) Euskadiko elkarte eta erakundeetan izandako parte-hartzeari erreparatzen badiogu, parte-hartzeari buruzko datu orokorrak nahiko orekatuta egon arren, gizonen artean partaidetza handiagoa da (gizonen % 51,2k eta emakumeen % 40,2k adierazi dute elkarteren batean parte hartzen dutela), eta alde nabarmenak ikusten dira erakunde motaren arabera.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, gizonek pisu handia dute kirol-elkarteetan, % 20,4ko parte-hartzearekin, eta emakumeek, aldiz, % 9,2ko parte-hartzearekin. Horrek agerian uzten du kirol-espazioak oraindik ere oso eremu maskulinizatuak direla. Aldiz, emakumeek lotura handiagoa dute, termino erlatiboetan, gizarte-ingurunearen hobekuntzarekin zerikusia duten erakundeekin: gizarte-laguntza (emakumeen % 3,9 eta gizonen % 3,2), garapenerako lankidetza (emakumeen % 2,0 eta gizonen % 1,4) eta giza eskubideak (emakumeen % 2,7 eta gizonen % 2,2). Bestalde, erakunde politiko, sindikal eta profesionaletan (gizonen % 6,5 eta emakumeen % 4,8) edo ingurumenekoetan (gizonen % 1,3 eta emakumeen % 0,8), gizonek gehiengoa izaten jarraitzen dute. Auzo-, arte- edo aisialdi-elkarteek eta beste elkarte batzuek nahiko partaidetza orekatua dute sexuen artean.


10.3. Participación política y social

A continuación, se analizan desde el enfoque de genero los datos disponibles sobre participación social y política para todo el País Vasco con objeto de visibilizar la importancia de atender a estas diferentes formas de implicación en el tejido sociopolítico de mujeres y hombres, y el horizonte puesto en una futura mayor disponibilidad de información al respecto en el nivel local.

Atendiendo primero a la participación en asociaciones y organizaciones de Euskadi en 2024 (último dato disponible), aunque los datos globales de participación están más o menos equilibrados, con una participación porcentual algo mayor en los hombres (el 51,2% de los hombres, frente al 40,2% de las mujeres declara participar en alguna asociación) se observan diferencias notables según el tipo de entidad.

Así, como muestra el gráfico a continuación, los hombres presentan un peso especialmente elevado en asociaciones deportivas, con un 20,4 % de participación frente al 9,2 % de las mujeres, lo que evidencia cómo los espacios deportivos siguen siendo ámbitos fuertemente masculinizados. En cambio, las mujeres muestran una mayor vinculación, en términos relativos, con organizaciones relacionadas con la mejora del entorno social: asistencia social (3,9 % frente a 3,2 % de hombres), cooperación al desarrollo (2,0 % frente a 1,4 %) y derechos humanos (2,7 % frente a 2,2 %). Por otro lado, en ámbitos como las organizaciones políticas, sindicales y profesionales (6,5 % de hombres frente a 4,8 % de mujeres), o las medioambientales (1,3 % de hombres y 0,8 % de mujeres), los hombres continúan siendo mayoría. Ámbitos como las asociaciones de vecinos, arte o recreativas, y otras asociaciones, muestran una participación bastante equilibrada entre sexos.

84. grafikoa. EAEko 6 urte eta gehiagoko biztanleak (*), sozietate eta elkarteetako kide direnak, motaren arabera. Milaka pertsona. 2024
Gráfico 84. Población de 6 y más años de la C.A. de Euskadi (*) que pertenece a sociedades y asociaciones por tipo. Miles de personas. 2024



(*) ez dago Bizkaiko Lurralde Historikorako datu bereizirik
no se dispone de datos desagregados para el Territorio Histórico de Bizkaia
OHARRA: Pertsona bat hainbat elkarte motatako kide izan daiteke.
NOTA: Una persona puede pertenecer a varios tipos de asociaciones.
Iturria / Fuente: EUSTAT

Oro har, zenbakiek agerian uzten dute genero-rol tradizionalak parte-hartze sozialera eramaten direla: gizonak kirolari eta jarduera lehiakorrei lotutako elkarteetan kontzentratzen dira, eta emakumeak, berriz, zaintzari, elkartasunari eta eskubideen defentsari lotutako guneetan.

Egoera horretan gehiago sakonduz, aurten Bizkaiko onura publikoko elkarteetako maila desberdinetan emakumeek eta gizonek duten parte-hartzeari buruzko adierazle bat gehitu da Txostenean. Datuek erakusten dute emakumeek presentzia nabarmena dutela, batez ere ordaindutako lanpostuetan eta boluntariotzan. Entitate hauetan ordaindutako lanpostuetan

En conjunto, las cifras evidencian cómo los roles de género tradicionales se trasladan a la participación social: los hombres se concentran en asociaciones vinculadas al deporte y las actividades competitivas, mientras que las mujeres tienen una mayor presencia en espacios ligados al cuidado, la solidaridad y la defensa de derechos.

Profundizando algo más en este panorama, se ha incluido este año en el Informe un indicador relativo a la participación de mujeres y hombres en distintos niveles de las asociaciones de utilidad pública en Bizkaia. Los datos muestran una participación destacada de las mujeres, especialmente en las actividades vinculadas al empleo remunerado y al voluntariado. Así,

emakumeak %71,8 dira, eta horrek agerian uzten du enpleguaren feminizazio handia dagoela elkarteetan eta hirugarren sektorean. Horretaz gain, boluntariotzan % 57,3 dira (3.539 emakume eta 2.638 gizon), eta horrek baieztatzen du emakumeek inplikazio handiagoa erakusten dutela komunitate-, zaintza- eta gizarte-partaidetzako jardueretan.

Zuzendaritza-batzordeen osaeran, aldiz, egoera askoz orekatuagoa da, zuzendaritza-organoetako kideen % 50,8 emakumeak baitira (452 emakume eta 437 gizon). Datu horrek onura publikoko elkarteen barruan erabakiak hartzeko gune formaletan presentzia parekidea dagoela adierazten badu ere, boluntarioen eta ordaindutako enpleguaren feminizazio handiarekiko kontrasteak iradokitzen du emakumeek erakundeen oinarri sozial eta operatiboan duten parte-hartze handiak ez duela beti modu proportzionalean suposatzen zuzendaritza- eta ordezkaritza-guneetan presentzia argiki handiagoa izatea.


Aurreko guztia jarraian ageri den grafikoan islatzen da.

representan el 71,8% de las personas remuneradas en estas entidades, lo que evidencia una fuerte feminización del empleo en el ámbito asociativo y del tercer sector. Adicionalmente, constituyen el 57,3% de las personas voluntarias (3.539 mujeres frente a 2.638 hombres), confirmando una mayor implicación femenina en actividades comunitarias, de cuidado y de participación social.

En cambio, la composición de las juntas directivas presenta una situación mucho más equilibrada, en la que las mujeres representan el 50,8% de las personas integrantes de órganos directivos (452 mujeres frente a 437 hombres). Aunque este dato apunta a una presencia paritaria en los espacios formales de decisión dentro de las asociaciones de utilidad pública, el contraste con la fuerte feminización del voluntariado y del empleo remunerado sugiere que la elevada participación de las mujeres en la base social y operativa de las entidades no siempre se traduce de manera proporcional en una presencia claramente mayoritaria en los espacios de dirección y representación.

Todo lo anterior queda reflejado en el gráfico a continuación.

85. grafikoa. Ordaindutako pertsonak, zuzendaritza-batzordeetako kideak eta boluntarioak Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroko onura publikoko elkarteetan. Bizkaia, 2024
Gráfico 85. Personas remuneradas, personas en juntas directivas y personas voluntarias en las asociaciones de utilidad pública en el Registro de Asociaciones del País Vasco. Bizkaia, 2024



Iturria/Fuente: EUSTAT

Atal honetako datuen azterketa bateratuak berresten du Bizkaiak aurrerapenak izan dituela emakumeen parte-hartzean eta ordezkaritzan, baina aurrerapen horiek ez dute beti esan nahi botere handieneko eremuetarako sarbide erreala eta bidezkoa izan denik.

Alde batetik, identifikatutako aurrerapenek erakusten dute eremu horietan genero-berdintasuna sustatzeko politiken garrantzia, eta politika horien emaitza onak nabarmenak dira. Bestetik, identifikatutako desorekek azpimarratzen dute politika anbiziotsuagoak behar direla, emakumeen parte-hartzea bultzatzeaz gain, botere- eta erabaki-guneetarako benetako sarbidea bermatzeko, eremu politiko-administratiboan, sozialean eta asoziatiboan benetako berdintasunerantz aurrera egiteko.

El análisis conjunto de los datos de este capítulo confirma que Bizkaia ha experimentado progresos en la participación y representación de las mujeres, aunque estos avances no siempre se traducen en un acceso real y equitativo a los espacios de mayor poder.

Por una parte, los avances identificados muestran la importancia de las políticas de promoción de la igualdad de género en estos ámbitos, cuyos buenos resultados son evidentes. Por otra, los desequilibrios identificados subrayan la necesidad de políticas más ambiciosas que no solo favorezcan la participación femenina, sino que garanticen su acceso real a los espacios de poder y decisión para avanzar hacia una igualdad sustantiva en el ámbito político- administrativo, y social y asociativo.

XI. INDARKERIA MATXISTA

Emakumeen segurtasuna eta askatasun sexuala, baita indarkeria matxista ere, genero-desberdintasunak aztertzeko eremu nagusia da; hala, genero-rolek, kultura patriarkalak eta boterearen eta baliabideen banaketan dauden egiturazko desberdintasunek (txosten honetako atal guztietan azaleratu dira) emakumeen segurtasuna eta askatasuna fisikoki eta sinbolikoki murrizten duen indarkeria-mota hori azaltzen dute.

Beti ikuspegi horretatik irakurrita, genero-desberdintasunen muturreko adierazpen horrek Bizkaian duen eraginari buruzko datu garrantzitsuenekin amaitzen da txostena, emakumeen aurkako indarkeriari arreta emateko eskuragarri dauden baliabideei eta intzidentziari erreparatuta.

11.1. Indarkeria matxistaren eragina.

Bizkaian, indarkeria matxistari buruzko datuek egoera kezkagarria islatzen dute, eta egiturazko erantzunak eskatzen ditu oraindik ere. 2025ean 3.595 biktimizazio erregistratu ziren, serie osoko bigarren baliorik handiena (lehenengoa iaz izan zen, 3.612), hurrengo grafikoan jasotzen den bezala.

XI. VIOLENCIA MACHISTA


La seguridad y la libertad sexual de las mujeres, así como la vulneración de estas en su forma más grave y extendida, la violencia machista, constituye un ámbito central para el análisis de las desigualdades de género; así, la persistencia de los roles de género, una cultura patriarcal y desigualdades estructurales en el reparto del poder y los recursos, que se han ido revelando en todos los apartados de este Informe, son los que explican esta forma de violencia, que merma física y simbólicamente la seguridad y libertad de las mujeres.

Siempre leído desde este enfoque, el Informe se cierra con los datos más relevantes sobre la incidencia en Bizkaia de esta expresión extrema de las desigualdades de género, atendiendo a la incidencia y recursos disponibles para la atención a la violencia contra las mujeres.

11.1. Incidencia de la violencia machista.

En Bizkaia, los datos sobre violencia machista reflejan un escenario alarmante que sigue exigiendo respuestas estructurales. En 2025 se registraron 3.595 victimizaciones, el segundo valor más alto de toda la serie (el primero se dio el pasado año, con 3.612), tal como se recoge en el gráfico a continuación.

86. grafikoa. Ertzaintzak indarkeria matxistagatik erregistratutako biktimizazio-kopuruaren bilakaera. Bizkaia, 2013-2025
Gráfico 86. Evolución del número de victimizaciones por violencia machista registradas por la Ertzaintza. Bizkaia, 2013-2025




Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

Bizkaian indarkeria matxistak eragindako biktimizazioei buruzko polizia-arloko datuek (Ertzaintza), erregistratzen den indarkeria-motaren arabera, hurrengo grafikoan adierazita, goranzko joera kezkagarria erakusten dute, batez ere azken lau urteetan.

Los datos del ámbito policial (Ertzaintza) sobre victimizaciones por violencia machista en Bizkaia según el tipo de violencia que se registra, representados en el siguiente gráfico, revelan una tendencia ascendente preocupante, especialmente en los últimos cuatro años.

87. grafikoa. Ertzaintzak indarkeria matxistagatik erregistratutako biktimizazio-kopuruaren bilakaera. Indarkeria-motaren arabera. Bizkaia, 2013-2025
Gráfico 87. Evolución del número de victimizaciones por violencia machista registradas por la Ertzaintza. Según tipo de violencia. Bizkaia, 2013-2025



Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriak biktimizazio-modu ohikoena eta egiturazkoena izaten jarraitzen du, 2025ean guztizkoaren % 71 izanik (2.544 kasu). Zifra horrek, 2016az geroztik goranzko joera sendotzeaz gain, beste erregistro-sistema batzuetan ikusitakoa indartzen du (babes-aginduak, aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa), eremu intimoko indarkeria menderatze-sistema patriarkalaren ardatz nagusia dela berretsiz.

Bestalde, sexu-indarkeria maximo historikora iritsi da beste urtebetez (387 kasu 2025ean, iaz baino 30 gehiago), 2020tik 2025era bitartean % 20tik gorako hazkunde metatua erakutsiz. Igoera hori salaketa jartzeko jarrera handiagoarekin eta indarkeria mota horren ikusgarritasun instituzional eta sozial handiagoarekin lotu daiteke. Familia barruko indarkeriak ere apur bat gora egin du, 664 biktimizazio izan baitira 2025ean, baina gorabehera arinagoak izan dira denboran zehar.

La violencia de pareja o expareja continúa siendo la forma más habitual y estructural de victimización, representando en 2025 el 71 % del total (2.544 casos). Esta cifra no solo consolida una tendencia al alza desde 2016, sino que también refuerza lo observado en otros sistemas de registro (órdenes de protección, asesoramiento jurídico, atención psicológica), confirmando que la violencia en el ámbito íntimo sigue siendo el principal eje del sistema patriarcal de dominación.

Por otro lado, la violencia sexual alcanza un año más su máximo histórico (387 casos en 2025, 30 más que el pasado año), mostrando un crecimiento acumulado de más del 20% entre 2020 y 2025. Este aumento puede vincularse tanto a una mayor disposición a denunciar como a una mayor visibilidad institucional y social de este tipo de violencia. La violencia intrafamiliar también muestra un ligero ascenso, con 664 victimizaciones en 2025, aunque con oscilaciones más suaves a lo largo del tiempo.


Genero-ikuspegiari esker, datu horiek bizitzaren eremu guztiak (intimoa, familiarra eta soziala) zeharkatzen dituen egiturazko indarkeriaren isla gisa azter daitezke. Horregatik, erantzuna ere integrala, iraunkorra eta erakundeen artean koordinatua izan behar da, eta ez da polizia-eremura mugatzen, baizik eta biktimentzako babesa, prebentzioa eta benetako erreparazioa artikulatu behar ditu.

Zentzu horretan, interesgarria da indarkeria matxistari ematen zaion erantzun judiziala ere ikustea. Eusko Jaurlaritzaren Emakumeen aurkako Indarkeria Koordinatzeko Zentroaren datuek aukera ematen dute indarkeria matxistaren aurrean babes eta ebazpen penaleko neurrien portaera judiziala aztertzeko. Bi kasuetan, bilakaera grafiko honetan ikus daiteke:

El enfoque de género permite analizar estos datos como el reflejo de una violencia estructural que atraviesa todos los ámbitos de la vida: íntimo, familiar y social. De ahí que la respuesta deba ser también integral, sostenida y coordinada entre instituciones, que no se limite al ámbito policial, sino que articule protección, prevención y reparación real para las víctimas.

En este sentido, es interesante observar también la respuesta judicial a la violencia machista. Los datos del Centro de Coordinación de Violencia contra las Mujeres (VCM) del Gobierno Vasco permiten analizar el comportamiento judicial de las medidas de protección y resolución penal ante la violencia machista. La evolución en ambos casos se muestra en el siguiente gráfico:

88. grafikoa. Indarkeria matxistaren aurkako neurrien bilakaera eremu judizialean, Bizkaia, 2014-2022 (*)
Gráfico 88. Evolución de medidas contra la violencia machista en el ámbito judicial, Bizkaia, 2014-2022 (*)



(*) Ez dago 2013, 2018, 2023, 2024 eta 2025 urteetarako datu kontsolidaturik
No se dispone de datos consolidados para los años 2013, 2018, 2023, 2024, y 2025
Iturria/Fuente: BFAren indarkeria matxistaren behatokia / Observatorio de violencia machista de la DFB.

Lehenengo kasuan, nabarmentzekoa da ukatutako babes-aginduen kopurua sistematikoki gainditu zela onartutakoen kopurua baino. Horrela, aldi horretan, batez beste, onarpen-tasa —formula honen bidez kalkulatua: = onartuak/(onartuak+ukatuak)x100— oso gutxitan gainditzen du % 50a, nahiz eta egia den goranzko joera ikusten dela. Nolanahi ere, datuek baieztatzen dute babesa eskatzen duten emakumeen erdiek inguru ez dutela lortzen, nahiz eta indarkeria-zantzuak egon. Genero-ikuspegitik, eredu horrek balizko oztopo judizialak, irizpide murriztaileak edo arrisku-ikuspegirik eza islatzen ditu, eta horrek guztiak eragotz dezake ebazpen horiek beren helburua betetzea: emakumeen bizitza eta integritatea babestea.

En el primer caso, destaca un patrón en el que el número de órdenes de protección denegadas supera sistemáticamente al de aprobadas. Así, de media en el periodo, la tasa de aprobación —calculada con la fórmula: =aprobadas/(aprobadas+denegadas)×100— rara vez supera el 50%, aunque es cierto que se observa una tendencia hacia su incremento. En cualquier caso, los datos confirman una realidad en la que en torno a la mitad de las mujeres que solicitan protección no la obtienen, aun existiendo indicios de violencia. Desde el enfoque de género, este patrón refleja posibles barreras judiciales, criterios restrictivos o falta de perspectiva de riesgo, que puede impedir que estas resoluciones cumplan su objetivo: proteger la vida y la integridad de las mujeres.


Bestalde, epaien datuek kondena-epai gehienak islatzen dituzte, absoluzioei dagokienez. Datuak ditugun azken urtean, 2022an, 787 kondena-epai eman ziren, eta 180 absoluzio-epai. Horrek esan nahi du kondena-tasa — formula honen bidez kalkulatua: = kondena-tasa/(kondena-tasa + absoluzio-tasa) × 100 altuagoa dela epealdian, % 81ekoa, hau da, 10 kasutik 8k baino gehiagok amaitzen dute condena izaten. Bilakaera positibo hori gorabehera, zifrek agerian uzten dute, alde batetik, prozesu judizial eraginkorrak daudela, baina, bestetik, biktimen testigantzaren sinesgarritasunean froga-oztopoak, alborapenak edo zailtasunak daudela oraindik, eremu judizialean eta hauek arlo judizialeko genero-ikuspegidun prestakuntzaren bidez, probak hobeto bilduz eta baliabide juridikoen, polizialen eta sozialen arteko koordinazio handiagoaren bidez landu behar direla.

Por otro lado, los datos de sentencias reflejan una mayoría de fallos condenatorios respecto a los absolutorios. En el último año del que se disponen datos, 2022, se dictaron 787 sentencias condenatorias frente a 180 absolutorias, lo que implica la tasa de condena —calculada con la fórmula: =condenatorias/(condenatorias + absolutorias)×100— más alta del periodo, del 81%, esto es más de 8 de cada10 casos acaban en condena. A pesar de esta evolución positiva, las cifras revelan, por un lado, la existencia de procesos judiciales eficaces, pero por otro, la persistencia de obstáculos probatorios, sesgos o dificultades en la credibilidad del testimonio de las víctimas que deben ser abordados mediante formación con perspectiva de género en el ámbito judicial, mejora en la recolección de pruebas y mayor coordinación entre recursos jurídicos, policiales y sociales.

Indarkeria matxistak Bizkaian duen eragina ikus daitekeen hirugarren espazioa osasun-eremuan atzematen diren kasuak dira. Hurrengo grafikoak Bizkaiko lehen mailako arretako zentroetan eta ospitaleetan detektatutako kasuen bolumenaren bilakaera erakusten du.

El tercero de los espacios desde el que puede observarse la incidencia de la violencia machista en Bizkaia son los casos que se detectan en el ámbito sanitario. El siguiente gráfico muestra la evolución en el volumen de casos detectados en los centros de atención primaria y hospitales de Bizkaia.

89. grafikoa. Osasun-arloan erregistratutako indarkeria matxistako kasuen bilakaera. Bizkaia, 2014-2024 (*)
Gráfico 89. Evolución de los casos de violencia machista registrados en el ámbito sanitario. Bizkaia, 2014-2024 (*)



(*) Txosten hau idazteko unean, 2025eko lehen seihilekoari buruzko datuak genituen: 281 kasu ospitaleetan eta 194 lehen mailako arretan. Ez dira grafikoan jaso serie osoa urteko datuetan oinarritzen delako, eta beraz irakurketa distortsionatu ahal izango zen eta nahastea eragin joerak identifikatzerakoan.

(*) en el momento de redacción de este Informe, se disponía de datos relativos al primer semestre de 2025: 281 casos en hospitales y 194 en atención primaria. No se han recogido en el gráfico porque, dado que toda la serie se basa en los datos anuales, puede distorsionar la lectura y llevar a confusión a la hora de identificar tendencias.

Iturria/Fuente: BFAren indarkeria matxistaren behatokia / Observatorio de violencia machista de la DFB

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak osasun-arloan genero-indarkeriako kasuak hautemateari buruz emandako datuen arabera, aurrerapauso handia egin da identifikazio instituzionalean, batez ere azken lau urteetan. 2024an 547 kasu detektatu ziren ospitaleetan eta 370 lehen mailako arretan; hau da, behera egin zuen 2023arekin alderatuta (640 eta 583, hurrenez hurren), baina maila prepandemikoen oso gainetik oraindik ere. 2020an, adibidez, 304 ospitale-kasu baino ez ziren detektatu, eta 196 lehen mailako arretan. Hori, ziurrenik, biztanleriak osasun zerbitzuetara jotzeko dituen murrizketa eta zailtasunen ondorio da.

Los datos del Departamento de Salud del Gobierno Vasco sobre detección de casos de violencia de género en el ámbito sanitario revelan un importante avance en la identificación institucional, especialmente en los últimos cuatro años. En 2024 se detectaron 547 casos en hospitales y 370 en atención primaria, lo que supone un descenso respecto a 2023 (640 y 583, respectivamente), pero aún muy por encima de los niveles prepandémicos. En 2020, se observa una caída en la detección de casos —304 casos hospitalarios y 196 en atención primaria— lo que se explique probablemente por las restricciones y dificultades de la población para acceder a los servicios sanitarios. .

Edozein kasutan, osasun arloko detekzio gaitasunaren goranzko joera orokortzen ari denez, arreta handiz ikusi beharko da etorkizuneko joera, 2024ko beherakadak joera-aldaketa dakarren konfirmatzeko —horrek protokolo horien jarraitutasuna eta kalitatea indartu beharra adieraziko bailuke, batez ere lehen mailako arretan, hori funtsezkoa baita prebentzio eta detekzio goiztiarrerako— edo egoeraren araberako gertakari bat ikusteko, eta kasu horretan bere zergatiak aztertu beharko dira.

Nolanahi ere, datuek azpimarratzen dute osasun-sistemak funtsezko zeregina duela babes- eta arreta-zirkuiturako sarrera-ate gisa, eta garrantzitsua dela gainerako gizarte-, polizia- eta justizia-baliabideekin behar adina baliabide, prestakuntza eta koordinazio ematea.

11.2. Genero-indarkeriaren aurkako baliabideak Bizkaian

Aurreko zenbakiek agerian uzten dute administrazioek eskura dituzten baliabideak indartu behar dituztela, emakumeen aurkako indarkeria-egoeren bolumenari eta konplexutasunari erantzun ahal izateko.

Aurreko atalean erakutsitako intzidentzia-zifrek agerian uzten dute neurri polizialak edo judizialak indartzeaz gain, emakumeen segurtasuna eta autonomia bermatuko duten laguntza integraleko dispositiboak (psikosoziala, ekonomikoa, bizitegietakoa) indartu behar direla. Ildo horretan, Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiaren [19] datu ofizial garrantzitsuenek aukera ematen dute Foru Aldundia egoera horiei aurre egiteko egiten ari den ahaleginari balioa emateko.

En cualquier caso, dada la tendencia general al incremento de la capacidad de detección en el ámbito sanitario, será necesario observar con atención el comportamiento de estas cifras en el futuro, para valorar si la caída de 2024 implica un cambio de tendencia —lo que implicaría medidas inmediatas para reforzar la continuidad y calidad de los protocolos, especialmente en el primer nivel de atención, clave para la prevención y detección precoz— o un hecho coyuntural en cuyas causas será necesario indagar. .

En cualquier caso, los datos subrayan el papel esencial del sistema sanitario como puerta de entrada al circuito de protección y atención, y la importancia de dotarlo de recursos, formación y coordinación suficiente con el resto de los dispositivos sociales, policiales y judiciales.


11.2. Recursos contra la violencia de género en Bizkaia

Las cifras anteriores ponen de manifiesto la necesidad de que las administraciones refuercen los recursos disponibles para poder responder al volumen y complejidad de las situaciones de violencia contra las mujeres.

Las cifras de incidencia mostradas en el anterior apartado ponen en evidencia la necesidad de reforzar no solo las medidas policiales o judiciales, sino los dispositivos de apoyo integral (psicosocial, económico, habitacional) que garanticen la seguridad y autonomía de las mujeres. En este sentido, los datos oficiales más relevantes del Observatorio de la Violencia Machista en Bizkaia[19] , permiten poner en valor el esfuerzo que se está haciendo, desde la Diputación Foral, para hacer frente a estas situaciones.

19 Ikus aurreko oharretako erreferentzia.
Ver referencia en notas anteriores.

2. irudia. Indarkeria matxistaren aurkako baliabideak Bizkaian
Ilustración 2. Recursos contra la violencia machista en Bizkaia



Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokia oinarri hartuta
Fuente: Elaboración propia a partir del Observatorio de la Violencia Machista en Bizkaia


Aurreko infografiak BFAk egoera horiei aurre egiteko dituen baliabideen aniztasuna erakusten du; lehenik eta behin, Harrerarako Foru Baliabideak, Berehalako Harrera Zerbitzu batek (24 plaza) eta Egonaldi Ertaineko 3 zentrok (42 plaza) osatzen dituztenak. 2013az geroztiko datu-bildumak aukera ematen du ikusteko Aldundiak ahalegin iraunkorra egin duela berehalako harrerako eta udal-harrerako baliabideen onuradunen kopurua handitzeko. Baliabide horien gehieneko historikoa 2024an izan zen, eta urte horretan 216 pertsona artatu ziren berehalako harrera-zerbitzuetan, eta 78 udal-harrerakoetan. Bestalde, egonaldi ertaineko harrera egonkor mantendu da 2013tik 2018ra bitartean, eta 2019-2022 aldian gora egin du, eta nabarmen jaitsi da azken bi urteetan, 2023an eta 2024an, arreta jaso duten 9 emakumeko gutxieneko historikoa lortu baitu.

Zifra horiek azken hamabi urteetan izan duten bilakaera hurrengo grafikoan jaso da.

La infografía anterior muestra la variedad de recursos de los que dispone la DFB para hacer frente a estas situaciones; en primer lugar, los Recursos Forales de Acogida, compuestos por un Servicio de Acogida Inmediata (24 plazas) y 3 Centros de Media Estancia (42 plazas). La serie de datos desde 2013 permite ver el esfuerzo sostenido de la Diputación para ampliar el número de personas beneficiarias de los recursos de acogida inmediata y acogida municipal, que tienen su máximo histórico en 2024, año en que se atendieron a 216 personas en los servicios de acogida inmediata y 78 en los de acogida municipal. Por su parte la acogida de media estancia, se ha mantenido estable entre los 2013 a 2018, para ascender en el periodo 2019-2022, y descender significativamente en los dos últimos años, 2023 y 2024, que alcanza un mínimo histórico de 9 mujeres atendidas.

La evolución de estas cifras en los últimos doce años se recoge en el siguiente gráfico.

90. grafikoa. Harrera-baliabideetan hartutako pertsonen kopuruaren bilakaera, Bizkaia, 2013-2024 (*)
Gráfico 90. Evolución del número de personas acogidas en los distintos recursos de acogida, Bizkaia, 2013-2024 (*)



Iturriaren OHARRA: Udal-harrerako zerbitzuen datuak, 2021, 2022 eta 2023 urteei dagozkienak, eta 2022koak egonaldi ertaineko harrerakoei dagozkienak, partzialak dira, urtearen zati bat hartzen dutelako kontuan, batura guztiak eskuragarri ez daudelako, etab.

NOTA de la fuente: Los datos de los servicios de acogida municipal para los años 2021, 2022, y 2023, así como el de 2022 para los de acogida de media estancia, son parciales por referirse a una parte del año, al no hallarse disponible la totalidad de sumandos, etc.

(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datu berriagoak ditugu, aurreko oharrean aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, aldi honetarako erregistratutako datuak honako hauek dira: Sexu-indarkeriaren biktimentzako arreta integrala: 68; Berehalako harrera: 96; Udal harrera: 54; Egonaldi ertaineko harrera: 5.


(*) Se dispone de datos más recientes, relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en nota anterior. En concreto, los datos registrados para este periodo son los siguientes: Atención integral a víctimas de violencia sexual: 68; Acogida Inmediata: 96; Acogida municipal: 54; Acogida Media estancia: 5.

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak eskaintzen duen Laguntza Juridikoko Zerbitzuarekin batera, prozesu aurreko aholkularitza juridikorako doako zerbitzuak daude lurraldeko hainbat udalerri eta mankomunitatetan. Hurrengo bi grafikoetan, baliabide horien erabiltzaileen kopuruaren bilakaera jasotzen da, bi modalitatetan, mankomunitateetan eta foru-aldundietan, indarkeria matxistaren motaren arabera.

En el Territorio Histórico de Bizkaia, junto con el Servicio de Atención Jurídica prestado por el Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, existen también servicios gratuitos de asesoramiento jurídico pre-procesal en diversos municipios y mancomunidades del Territorio; los dos siguientes gráficos recogen la evolución en el número de personas usuarias de estos recursos en sus dos modalidades, mancomunados y forales, en función del tipo de violencia machista.

91. grafikoa. Aholkularitza juridikoko baliabide mankomunatuen erabiltzaileen kopuruaren bilakaera, Bizkaia, 2013-2024 (*)
Gráfico 91. Evolución del número de usuarias de recursos mancomunados de asesoramiento jurídico, Bizkaia, 2013-2024 (*)



Iturriaren OHARRA: Datu guztiak partzialak dira, urtearen zati bati buruzkoak direlako, batugai guztiak eskuragarri ez daudelako eta abar, 2021ean sexu-indarkeriari eman beharreko arretari dagokiona izan ezik.


NOTA de la fuente: Todos los datos son parciales por referirse a una parte del año, al no hallarse disponible la totalidad de sumandos, etc., a excepción del correspondiente a la atención a la violencia sexual en 2021.

(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datu berriagoak ditugu, aurreko oharretan aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, aldi honetarako erregistratutako datuak honako hauek dira: Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeria: 298; Familia barruko indarkeria: 34; Sexu-indarkeria: 12 erabiltzaile.

(*) Se dispone de datos más recientes, relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en notas anteriores. En concreto, los datos registrados para este periodo son los siguientes: Violencia pareja/expareja: 298; Violencia intrafamiliar: 34; Violencia sexual: 12 usuarias.

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

92. grafikoa. Aholkularitza juridikoko foru-baliabideen erabiltzaileen kopuruaren bilakaera, Bizkaia, 2013-2024 (*)
Gráfico 92. Evolución del número de usuarias de recursos forales de asesoramiento jurídico, Bizkaia, 2013-2024 (*)



(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datu berriagoak ditugu, aurreko oharretan aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, aldi honetarako erregistratutako datuak honako hauek dira: Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeria: 53; Familia barruko indarkeria: 11; Sexu-indarkeria: 10 erabiltzaile.

(*) Se dispone de datos más recientes, relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en notas anteriores. En concreto, los datos registrados para este periodo son los siguientes: Violencia pareja/expareja: 53; Violencia intrafamiliar: 11; Violencia sexual: 10 usuarias.

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

Aholkularitza juridikoaren bilakaerak agerian uzten ditu intzidentzia- eta erantzun-ereduak, eta, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren kasuan, bai mankomunitate zein foru mailan zifra altuak eta iraunkorrak erregistratu dira urteetan zehar. 2024an, 624 emakumek jaso zuten aholkularitza mankomunatua arrazoi horrengatik —serieko baliorik handiena—, eta beste 85ek foru-zerbitzuetan. Datu horrek indarkeria-mota horren egiturazko magnitudea islatzen du, arreta juridikorako eta bikotekideak/bikotekide ohiak

La evolución del asesoramiento jurídico revela patrones de incidencia y respuesta que, en el caso de la violencia de pareja o expareja, tanto el nivel mancomunado como el foral registran cifras elevadas y sostenidas a lo largo de los años. En 2024, 624 mujeres recibieron asesoramiento mancomunado por este motivo —el valor más alto de la serie—, y otras 85 lo hicieron en servicios forales. Este dato refleja la magnitud estructural de este tipo de violencia, que representa el grueso de la demanda de atención jurídica y guarda

eragindako indarkeria-kasuen kopuruarekiko koherentzia proportzionala gordetzen duen eskaera nagusia baita Bizkaian. Mailen arteko estaldura-aldeak agerian uzten du, halaber, mankomunitateek eginkizun garrantzitsua dutela emakume askorentzat arreta juridikoaren lehen maila gisa.

Familia barruko indarkeriari eta sexu-indarkeriari dagokienez, zifrak txikiagoak dira, baina dinamika kezkagarriak erakusten dituzte. Familia barruko indarkeriagatiko aholkularitza 61 kasu mankomunatutan kokatu zen 2024an, eta 19 kasu foraletan; horrek esan nahi du aurreko urteekiko susperraldia izan dela, nahiz eta 2015eko edo 2016ko mailetara iritsi ez. Bestalde, sexu-indarkeriak (32 kasu mankomunatuan eta 20 kasu foralean) nolabaiteko egonkortzea erakusten du maila baxu baina iraunkorretan. Proportzio txikiago horren arrazoia izan daiteke, alde batetik, gutxiegi aipatzea, eta, bestetik, indarkeria horiek instituzioetan ikusgarritasun txikia izatea, Bizkaian sexu-indarkeriaren kasuak ugarituz joan baitira azken hamarkadetan.


Arreta psikologiko eta sozialaren arloan, Foru Aldundiak laguntza psikologikoko zerbitzu espezializatu bat eskaintzen du 1992tik tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnerako, lurraldeko hainbat tokitan deszentralizatuta. Hurrengo bi grafikoek arreta psikologikoaren zifren bilakaera erakusten dute aztertutako aldian, zerbitzuaren bi modalitateetan: forala eta mankomunatua.

coherencia proporcional con la cifra de casos de violencia ejercida por pareja/expareja en Bizkaia. La diferencia de cobertura entre niveles apunta también a la importante función de las mancomunidades como primer nivel de atención jurídica para muchas mujeres.

En cuanto a la violencia intrafamiliar y sexual, las cifras son más bajas, pero revelan dinámicas preocupantes. El asesoramiento por violencia intrafamiliar se sitúa en 61 casos mancomunados y 19 forales en 2024, lo que supone una recuperación respecto a años anteriores, aunque sin alcanzar los niveles de 2015 o 2016. Por su parte, la violencia sexual, con 32 casos en mancomunado y 20 en foral, muestra cierta estabilización en niveles bajos pero persistentes. Esta menor proporción puede deberse tanto a la infradenuncia como a la escasa visibilidad institucional de estas violencias, habida cuenta de que los casos registrados de violencia sexual en Bizkaia han ido incrementándose en las últimas décadas.

En materia de atención psicológica y social, la Diputación presta desde 1992 un servicio especializado de atención psicológica en supuestos de maltrato y agresiones sexuales, descentralizado en diversos puntos del Territorio. Los dos siguientes gráficos muestran la evolución de las cifras de atención psicológica en el periodo temporal considerado, en las dos modalidades del servicio: foral y mancomunado

93. grafikoa. Arreta psikologikoko baliabide mankomunatuen erabiltzaileen kopuruaren bilakaera, Bizkaia, 2013-2024 (*)
Gráfico 93. Evolución del número de usuarias de recursos mancomunados de atención psicológica, Bizkaia, 2013-2024 (*)




(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datu berriagoak ditugu, aurreko oharretan aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, aldi honetarako erregistratutako datuak honako hauek dira: Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeria: 174; Familia barruko indarkeria: 21; Sexu-indarkeria: 10 erabiltzaile

(*) Se dispone de datos más recientes, relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en notas anteriores. En concreto, los datos registrados para este periodo son los siguientes: Violencia pareja/expareja: 174; Violencia intrafamiliar: 21; Violencia sexual: 10 usuarias

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB..

94. grafikoa. Laguntza psikologikoko foru-baliabideen erabiltzaileen kopuruaren bilakaera, Bizkaia, 2013-2024(*)
Gráfico 94. Evolución del número de usuarias de recursos forales de atención psicológica, Bizkaia, 2013-2024 (*)



(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datu berriagoak ditugu, aurreko oharretan aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, aldi honetarako erregistratutako datuak honako hauek dira: Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeria: 373; Sexu-indarkeria: 60 erabiltzaile.

(*) Se dispone de datos más recientes, relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en notas anteriores. En concreto, los datos registrados para este periodo son los siguientes: Violencia pareja/expareja: 373; Violencia sexual: 60 usuarias.

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

Horietan, Bizkaian indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta psikologikoaren bilakaera jarraitua erakusten da, bai maila mankomunatuan, bai foru-mailan. Bilakaera horrek indarkerien iraunkortasuna eta zerbitzu horiek errekuperazio-prozesuetan duten funtsezko zeregina islatzen ditu. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren kasuan, foru-zerbitzuak nabarmentzen dira erantzuteko gaitasun handia dutelako, 2024an 803 emakumeri eman baitzaie arreta, serie osoko baliorik handiena (eta ia hirukoiztu egin da urte bereko zifra mankomunatua: 279). Eredu hori errepikatu egiten

En ellos se muestra una evolución sostenida en la atención psicológica a mujeres víctimas de violencia machista en Bizkaia, tanto en el nivel mancomunado como foral, que refleja tanto la persistencia de las violencias como el papel crucial de estos servicios en los procesos de recuperación. En el caso de la violencia de pareja o expareja, los servicios forales destacan por su alta capacidad de respuesta, con 803 mujeres atendidas en 2024, el valor más alto de toda la serie (y casi triplicando la cifra mancomunada del mismo año: 279). Este patrón se repite a lo largo del periodo, consolidando la atención psicológica

da aldi horretan zehar, eta aldundiko arreta psikologikoa sendotzen da laguntza-sistemaren zutabe gisa. 2021etik 2024ra bitarteko hazkunde jarraitua (447tik 803 emakumera) bat dator babes-aginduen eta erregistratutako kasu kopuruaren gorakadarekin, eta horrek iradokitzen du eskaera instituzional handiagoa dagoela eta baliabide horietarako sarbidea hobetu dela. Hala ere, bolumenaren eta maila mankomunatuaren arteko aldeak lurraldeen arteko desberdintasunak iradokitzen ditu eskubide horretarako irisgarritasunean.

Sexu-indarkeriari dagokionez, bai eremu mankomunatuak bai foralak gero eta arreta handiagoa ematen dute, baina askoz kopuru txikiagoekin: 110 emakume artatu ziren foru-mailan 2024an, eta 26, berriz, mankomunatuan. Kopuru horiek, apalak badira ere, hamarkada bat lehenago erregistratutakoak baino askoz handiagoak dira (2014an soilik 23 emakume artatu ziren foru-mailan). Eskaeraren handitzea dator sexu-indarkeria kasuetan izandako gorakadarekin eta berariazko baliabide berriak sortzearekin, hala nola krisi-zentroa. Bestalde, familia barruko indarkeriagatiko arreta nabarmen txikiagoa da, eta 47 emakume baino ez dira artatu 2024an eremu mankomunatuan (ez dago foru-eremuko daturik).

Bestalde, Esku-hartze Sozioedukatibo eta Psikosozialeko Zerbitzuak ikuspegi integralarekin heltzen dio indarkeria matxistaren egoerek eragindako kalte sozialari. 2024an, 16 adingabek eta 15 emakumek jaso zuten laguntza zerbitzu horren bidez.

Hurrengo grafikoak 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluko laguntza ekonomikoen bilakaera erakusten du Bizkaian, baliabide ekonomikorik ez duten eta enplegua lortzeko zailtasun bereziak dituzten genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.


foral como pilar del sistema de apoyo. El incremento sostenido entre 2021 y 2024 (de 447 a 803 mujeres) coincide con el repunte de órdenes de protección y del número de casos registrados, lo que sugiere una mayor demanda institucional y una mejora en el acceso a estos recursos. Sin embargo, la diferencia de volumen con el nivel mancomunado sugiere desigualdades territoriales en la accesibilidad a este derecho.

Respecto a la violencia sexual, tanto el ámbito mancomunado como el foral reflejan una atención creciente, aunque con cifras mucho menores: 110 mujeres atendidas a nivel foral en 2024, frente a 26 en el mancomunado. Estas cifras, aunque modestas, superan ampliamente las registradas una década antes (solo 23 mujeres atendidas en el nivel foral en 2014). El aumento de la demanda coincide con el ascenso registrado en los casos de violencia sexual y con la creación de nuevos recursos específicos como el centro de crisis. Por su parte, la atención por violencia intrafamiliar es visiblemente inferior, con apenas 47 mujeres atendidas en 2024 en el ámbito mancomunado (sin datos en el foral).

Por otro lado, el Servicio de Intervención Socioeducativa y Psicosocial aborda con enfoque integral el daño social derivado de las situaciones de violencia machista. Durante 2024 recibieron atención a través de este servicio 16 menores y 15 mujeres víctimas de esta violencia.

El siguiente gráfico refleja la evolución en Bizkaia de las ayudas económicas del artículo 27 de la Ley Orgánica 1/2004, destinadas a mujeres víctimas de violencia de género sin recursos económicos y con especiales dificultades para obtener empleo.

95. grafikoa. Laguntza ekonomikoen bilakaera 1/2004 LO 27. art., Bizkaia, 2013-2024 (*)
Gráfico 95. Evolución de las Ayudas Económicas del art. 27 LO 1/2004, Bizkaia, 2013-2024 (*)



(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datu berriagoak ditugu, aurreko oharretan aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, 205 aurkeztu dira, eta 89 eman dira.

(*) Se dispone de datos más recientes, relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en notas anteriores. En concreto, se han presentado 205 y concedido 89.

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

2013 eta 2024 bitartean, aurkeztutako eskaeren kopurua hirukoiztu egin da: 2013an 117 ziren eta 2024an 334. Horrek esan nahi du baliabidea hobeto ezagutzen dela eta/edo premia ekonomikoko egoerak areagotu egin direla indarkeria-egoeran dauden emakumeen artean. Igoera hori bat dator Bizkaian emandako babes-aginduen etengabeko gorakadarekin eta azken urteetan erregistratutako kasuen gorakadarekin; izan ere, salaketa jartzen duten emakume askok laguntza ekonomikoa ere behar dute erasotzailearekiko lotura hausteko eta haren bizitza berregiteko.

Entre 2013 y 2024, el número de solicitudes presentadas se ha triplicado, pasando de 117 en 2013 a 334 en 2024, lo que indica un mayor conocimiento del recurso y/o un aumento de las situaciones de necesidad económica entre las mujeres en situación de violencia. Este aumento coincide con el incremento sostenido de órdenes de protección dictadas en Bizkaia y con el repunte de los casos registrados en los últimos años, reflejando que muchas mujeres que denuncian requieren también apoyo económico para romper el vínculo con el agresor y rehacer su vida.

Hala ere, emandako eskaeren kopurua gehiago handitu da: 2013an 58 ziren, eta 2024an 195. Horrek esan nahi du aurkeztutako eskaeren % 58 baino ez zirela onartu urte horretan. Eskabideen eta emandakoen arteko arrakala horrek, ekitaldi guztietan mantendu denak, agerian uzten du irizpide murriztaileak edo zailtasun administratiboak daudela, eta horiek eskubide hori benetan eskuratzea mugatzen ari direla.

Izan ere, laguntza horien emate-tasa kalkulatzen bada (emandakoak/eskatutakoak), ikusten da egonkor samar mantendu dela aldi horretan, % 58 inguru, eta gorabehera txikiak izan dira % 49 eta % 60 artekoen artean. Egonkortasun hori ez dator bat azken urteetan aurkeztutako eskaeren gorakadarekin, eta horrek adierazten du, baliabidea eskuratzen duten emakume gehiago egon arren, % 40 inguruk eskaera atzera botatzen jarraitzen dutela. Genero-ikuspegitik, funtsezkoa da ebaluazio-mekanismo horiek berrikustea, izapidetzean laguntza ziurtatzea eta laguntza horiek emakumeentzako autonomia ekonomikoko benetako tresna bihurtzeko aurrekontu-esleipen nahikoa bermatzea.


Bestalde, baliabideen eta zerbitzuen mapa orokor honetan kontuan hartu behar dira Bizkaian genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta enplegua eskuratzeari buruzko datuak. Lehenengo kasuan, hurrengo grafikoak Etxebideren (Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza babestuen erregistroa) datuen bilakaera jasotzen du.

Sin embargo, el número de solicitudes concedidas ha crecido de forma más contenida, pasando de 58 en 2013 a 195 en 2024, lo que implica que solo el 58 % de las solicitudes presentadas fueron finalmente aprobadas ese año. Esta brecha entre solicitudes y concesiones, que se ha mantenido en todos los ejercicios, evidencia la existencia de criterios restrictivos o dificultades administrativas que podrían estar limitando el acceso efectivo a este derecho.

De hecho, si se calcula la tasa de concesión de estas ayudas (concedidas/solicitadas), se observa que se ha mantenido relativamente estable durante el periodo y en torno al 58 %, con ligeras oscilaciones entre el 49 % y el 60 %. Esta estabilidad contrasta con el incremento de solicitudes presentadas en los últimos años, lo que indica que, pese al mayor número de mujeres que acceden al recurso, alrededor del 40 % siguen viendo rechazada su petición. Desde una perspectiva de género, resulta esencial revisar estos mecanismos de evaluación, asegurar acompañamiento durante la tramitación y garantizar una asignación presupuestaria suficiente que permita transformar estas ayudas en herramientas reales de autonomía económica para las mujeres.

Por otro lado, hay que considerar en este mapa general de recursos y servicios, los datos de acceso a vivienda, RGI y empleo por parte de mujeres víctimas de violencia de género en Bizkaia. En el primer caso, el siguiente gráfico recoge la evolución de los datos en el caso de Etxebide (registro de vivienda protegida del Gobierno Vasco).

96. grafikoa. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzarako laguntzen (Etxebide) bilakaera, Bizkaia, 2013-2024 (*).
Gráfico 96. Evolución de las ayudas a la vivienda (Etxebide) para mujeres víctimas de violencia machista, Bizkaia, 2013-2024 (*).



(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datu berriagoak ditugu, aurreko oharretan aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, 103 alta eta 38 esleipen izan dira.

(*) Se dispone de datos más recientes, relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en notas anteriores. En concreto, se han producido 103 altas y 38 adjudicaciones.

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.


Bertan, gero eta autonomia ekonomiko eta bizitoki-eskari handiagoa eskatzen da, indarkeria-zikloa hausteko funtsezko baldintza gisa. Etxebideren kasuan, genero-indarkeriako emakumeen espediente aktiboen kopurua bikoiztu egin da azken hamarkadan: 2019ko 548tik 2024ko 1.067ra. Horrek esan nahi du eskaerak asko ugaritu direla. Hala ere, esleipen-kopuruak txikia izaten jarraitzen du: 52 etxebizitza esleitu ziren 2024an, eta 1.067 emakume erregistroan, hau da, % 5etik beherako ebazpen-tasa. Arrakala horrek agerian uzten du ez dagoela loturarik eskariaren eta etxebizitza-sistema publikoaren erantzun eraginkorraren artean, nahiz eta funtsezko baliabidea den emakumeen segurtasuna eta bizi-proiektua bermatzeko.

En él, se muestra la creciente demanda de autonomía económica y habitacional como condiciones esenciales para romper el ciclo de violencia. En el caso de Etxebide, el número de expedientes activos de mujeres VG se ha duplicado en la última década, pasando de 548 en 2019 a 1.067 en 2024, lo que indica un fuerte aumento de solicitudes. No obstante, el número de adjudicaciones sigue siendo bajo: 52 viviendas asignadas en 2024 frente a 1.067 mujeres en el registro, lo que representa una tasa de resolución inferior al 5 %. Esta brecha evidencia una desconexión entre la demanda y la respuesta efectiva del sistema público de vivienda, a pesar de que se trata de un recurso clave para garantizar la seguridad y el proyecto de vida de las mujeres.

DSBEn (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) izandako altei dagokienez, goranzko joera ikusten da 2020tik, 2024an 203 alta izan baitziren, beste zerbitzu batzuetan artatutako emakumeen eta kasuen gorakadaren ildotik. Antzera, enplegua lortzeko aukerak ere nabarmen egin du gora: enplegu-eskatzaile gisa emandako altak 2020an 255 izatetik 2024an 410 izatera igaro ziren. Datuak grafiko honetan adierazten dira:

En cuanto a las altas en RGI (Renta de Garantía de Ingresos), se observa una tendencia creciente desde 2020, alcanzando 203 altas en 2024, en línea con el aumento de casos y de mujeres atendidas en otros servicios. De forma similar, el acceso al empleo también ha crecido de manera significativa: las altas como demandantes de empleo pasaron de 255 en 2020 a 410 en 2024. Los datos se representan en el gráfico siguiente:

97. grafikoa. DSBEko alten (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) eta enplegu-eskatzaileentzako laguntzen bilakaera, Bizkaia, 2013-2024 (*)
Gráfico 97. Evolución de las altas en RGI (Renta de Garantía de Ingresos) y de las ayudas a demandantes de empleo, Bizkaia, 2013-2024 (*)



(*) 2015. urterako eskuragarri ez dauden datuak, baita 2016an DSBEan (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta) izandako alten kasuan ere. 2018an enplegu-eskatzaile gisa izandako altei dagokien datua iturrian honela jasotzen da: "Eskuragarri ez dagoen datua. Erreferentzia-urtearen ondoren abian jarritako errekurtsoa".
(*) Datos no disponibles para el año 2015, así como para las altas en RGI (Renta de Garantía de Ingresos) en 2016. El dato correspondiente a las altas como demandantes de empleo en el año 2018 se marca en la fuente como "Dato no disponible. Recurso puesto en marcha con posterioridad al año de referencia"

(*) 2025eko lehen seihilekoari buruzko datuak ditugu, aurreko oharretan aipatutako arrazoiengatik grafikoan jaso ez direnak. Zehazki, 103 alta erregistratu dira DSBEn, eta 38 esleipen enplegu-eskatzaileei.
(*) Se dispone de datos relativos al primer semestre de 2025, que no se han recogido en el gráfico por las razones mencionadas en notas anteriores. En concreto, se han registrado 103 altas en RGI y 38 adjudicaciones a demandantes de empleo.

Iturria: BFAren indarkeria matxistaren behatokia.
Fuente: Observatorio de violencia machista de la DFB.

2020tik aurrerako hazkundeak erakusten du erakundeen aktibazioa handiagoa dela eta emakumeek beren independentzia ekonomikoa berreraikitzeko prest daudela.

Oro har, arreta-baliabideei eta -zerbitzuei buruzko datuek agerian uzten dute foru-administrazioa ahalegin handia egiten ari dela indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko, eta erakusten dute, nahiz eta oraindik ez diren nahikoak, oro har oinarrizko eskubideen (etxebizitza, diru-sarrerak eta enplegua) politika integral baten esparruan bideratzen dela, ez laguntza-neurri gisa, baizik eta indarkeriarik gabeko bizitza baterako egiturazko baldintza gisa.

Datu horiekin, foru-arretako zerbitzu publikoen gaitasun operatiboaren eta benetako irismenaren lagin bat eskaintzen dute, eta atal hau ixten da. Zoritxarrez, intzidentzia-zifren gorakada ere agerian uzten du, dauden erregistro guztietatik.

El crecimiento evidenciado a partir de 2020 muestra una mayor activación institucional y una disposición de las mujeres a reconstruir su independencia económica.

En conjunto, los datos de los recursos y servicios de atención evidencian el gran esfuerzo que se está haciendo desde la administración foral para atender a las mujeres víctimas de violencia machista, mostrando que, aunque aún insuficientes, se enfoca en general en el marco una política integral de derechos básicos: vivienda, ingresos y empleo, no como medidas asistenciales, sino como condiciones estructurales para una vida libre de violencia.

Con estos datos, que ofrecen una muestra de la capacidad operativa y alcance real de los servicios públicos de atención forales, se cierra este apartado que, desafortunadamente evidencia también un incremento de las cifras de incidencia desde todos los registros existentes.

XII. ONDORIOAK

Amaitzeko, Bizkaiko emakumeen eta gizonen egoeraren azterketan identifikatutako aurkikuntza nagusien laburpena egin da, gaika antolatuta.

Horrela, foru-aurrekontu publikoen testuingurua aztertzeko eredu bat finkatzen da. Gainera, eredu honen oinarri den etengabeko hobekuntzaren ikuspegiarekin bat etorriz, eskuragarri dauden datu guztiei aurten adierazle berriak gehitu zaizkie, Bizkaiko emakumeen eta gizonen egoeraren ikuspegi gero eta osatuagoa eta esanguratsuagoa ematen dutenak.

Oro har, honek guztiak esparru bat eskaintzen du, esparru horietako bakoitzean zuzenean eta zeharka eragiten duten aurrekontu-programen genero-eraginaren plangintza eta ebaluazioa orientatzeko, lortutako aurrerapenak eta berdintasun eraginkorra lortzeko egiteke dauden erronkak azpimarratuz.

XII. CONCLUSIONES

Se cierra este Informe con una síntesis de los principales hallazgos identificados en el análisis de la situación de mujeres y hombres en Bizkaia, organizados por ámbitos temáticos.

Se consolida así un modelo de análisis de género del contexto en el que operan los presupuestos públicos forales. Además, en coherencia con el enfoque de mejora continua en que descansa este modelo, al conjunto de datos disponibles se han sumado este año nuevos indicadores que aportan una visión cada vez más completa y relevante de la situación de las mujeres y hombres en Bizkaia.

En conjunto, todo ello ofrece un marco de utilidad para orientar la planificación y evaluación del impacto de género de los programas presupuestarios, que inciden directa e indirectamente en cada uno de estos ámbitos, subrayando los avances conseguidos y los retos pendientes para lograr una igualdad efectiva.

1. Bizkaian egindako azterketa soziodemografikoak erakusten du, adierazle batzuetan aurrerapenak egon diren arren, egiturazko desberdintasunek jarraitzen dutela. Emakumeak dira nagusi adin-tarte handienetan, bizi-itxaropen handiagoa dutelako, baina bizitza-luzera horrek honako ondorio hauek dakartza: zahartzaroa osasun-baldintza okerragoek markatuta, beti bermatuta ez dauden zaintza-premia handiagoak eta ahultasun ekonomiko handiagoa izatea. Adineko biztanleriaren feminizazioak azpimarratzen du arreta eta babes sozialeko zerbitzuak indartuko dituzten politika publikoak premiazkoak direla, batez ere talde zaharrenetan.

2. Argi eta garbi bereizitako migrazio-ereduak ikusten dira: feminizatuak Hego Amerikatik eta Ekialdeko Europatik etorritako biztanleen kasuan, eta maskulinizatuak Afrikatik etorritakoen artean. Eredu horiek, neurri handi batean, lan-merkatuaren sexuaren araberako segregazioaren ondorio dira; izan ere, merkatu horrek genero-rol maskulinoarekin lotutako enpleguak eskaintzen dizkie gizonei (oinarrizko zerbitzuetan, industrian, eraikuntzan, etab.), eta emakumeei rol femeninoarekin lotutakoak (etxeko garbiketan, mendekotasuna dutenen zaintzan, etab.). Biztanleria horren kasuan, gainera, are zurrunagoak dira "genero-oztopoak".

3. Hezkuntzaren esparruan, emakumeek prestakuntza-maila gorenetan aurrera egin dutela egiaztatu da, baina lorpen horiek ez dute esan nahi prestakuntza-eremu guztietara eta lan-merkatura berdintasunez iritsi direnik. Lanbide-heziketan eta sektore teknikoetan etengabe bereizteak enpleguan berdintasuna lortzeko oztopoak indartzen ditu. Bestetik, aurten ere berretsi egin da irakasleen lanbidearen feminizazio handia, askoz ere nabarmenagoa dena hezkuntza-mailetan behera egin ahala. Bestalde, osasunari buruzko datuek berriro ere erakusten dute emakumeek pertzepzio okerragoa dutela; joera hori adinarekin larritzen da, eta bizi-baldintzekin eta osasunaren gizarte-baldintzatzaileekin zuzenean lotuta dago.

1. El análisis sociodemográfico realizado en Bizkaia muestra cómo, pese a los avances en algunos indicadores, persisten desigualdades estructurales. Las mujeres son mayoría en los tramos de mayor edad debido a su mayor esperanza de vida, pero esta longevidad se traduce en una vejez marcada por peores condiciones de salud, mayores necesidades de cuidados no siempre cubiertas y una mayor vulnerabilidad económica. La feminización de la población mayor subraya la urgencia de políticas públicas que refuercen los servicios de atención y protección social, especialmente en los grupos más envejecidos.

2. Se observan patrones migratorios claramente diferenciados: feminizados en el caso de la población procedente de Sudamérica y Europa del Este, y masculinizados en el de África. Estos patrones obedecen en gran medida a la segregación por sexo del mercado de trabajo, que ofrece a los hombres que inmigran empleos relacionados con el rol de género masculino (en servicios básicos, industria, construcción, etc.), y a ellas con el femenino (limpieza doméstica, cuidado de dependientes, etc.), siendo incluso más rígidas las “barreras de género” en el caso de esta población.

3. En el ámbito educativo, se constata el avance de las mujeres en los niveles superiores de formación, aunque estas conquistas no se traducen en un acceso igualitario a todos los campos formativos ni al mercado laboral. La persistente segregación en la formación profesional y en los sectores técnicos refuerza las barreras para la igualdad en el empleo. Por otro lado, un año más se confirma la fuerte feminización de la profesión docente, mucho más acusada a medida que se desciende en los niveles educativos. Por su parte, los datos de salud vuelven a mostrar la peor percepción por parte de las mujeres, una tendencia que se agrava con la edad y que está directamente vinculada con las condiciones de vida y los determinantes sociales de la salud.

4. Emakumeek eta gizonek enpleguan duten parte-hartzeari buruzko datuek agerian uzten dute genero-arrakalek gora egin dutela: emakumeen jarduera- eta okupazio-tasak behera egin du termino erlatiboetan, eta langabeziarena gizonena baino zertxobait handiagoa da. Sexuaren araberako segregazio-ereduei eutsi egiten zaie —are nabarmenagoak dira, kasu batzuetan—, eta horiek emakumeak sektore feminizatuetan kontzentratzen dituzte, hala nola osasunean, hezkuntzan edo merkataritzan, soldatak baxuagoak eta igotzeko aukerak mugatuagoak dituzten sektoreak hain zuzen. Eta gizonei uzten zaie ondoen ordaindutako espazioen nagusitasuna: industria, teknologiak, eraikuntza. Bestalde, datuek erakusten dute hautsi egin dela Bizkaiko enpresaburuen artean emakumeen proportzioak —gizonezkoena baino askoz ere txikiagoa dena— gora egiteko zuen joera, etorkizunean arreta handiz jarraitu beharko dena.

   Kontratazio-adierazleek, aldiz, joera positiboak dituzte, bai emakumeen kontratazio-tasaren hazkunde txikiagatik, bai kontratazio mugagabeagatik, nahiz eta genero-arrakala oraindik ere esanguratsua izan. Era berean, lanaldi partzialeko kontratazioak oso feminizatuta egoten jarraitzen du, eta soldata-arrakalaren dimentsio batzuk ere gauza bera erakusten dute. Gai horiek guztiek agerian uzten dute emakumeen lan-baldintzetan eragin beharra, egonkortasuna, kontratu mugagabeak eta lanaldi osoak lortzeko aukera bermatuz, eta soldata-osagarrietan eta mailaz igotzeko aukeretan dauden arrakalei aurre eginez. Azken finean, horiek azaltzen dute generoko soldata-arrakalak irautea. Enpresetan berdintasun-planak abian jartzea -adierazle hori aurten aztertu da lehen aldiz Txostenean- oso tresna baliagarria da aldaketa horiek bultzatzeko.

4. Los datos sobre participación de mujeres y hombres en el empleo evidencian un incremento de las brechas de género: disminuye en términos relativos la tasa de actividad y ocupación de las mujeres, y la de paro se resitúa como ligeramente mayor que la de los hombres. Se mantienen —e incluso profundizan en algunos casos— los patrones de segregación por sexo, que concentra a las mujeres en sectores feminizados como la sanidad, la educación o el comercio, donde los salarios son más bajos y las oportunidades de ascenso más limitadas; y deja a los hombres el dominio de los espacios mejor remunerados: industria, tecnologías, construcción. Por otro lado, los datos muestran una ruptura de la tendencia al ligero incremento en la proporción, todavía muy inferior a la masculina, de mujeres entre el empresariado de Bizkaia que habrá de ser seguida con atención en el futuro.

   Los indicadores de contratación mantienen por el contrario tendencias positivas, tanto por el ligero crecimiento de la tasa de contratación de las mujeres, como de la contratación indefinida, aunque la brecha de género siga siendo significativa. También lo es en el caso de la contratación a tiempo parcial , que sigue muy feminizada, y de algunas dimensiones de la brecha salarial, cuestiones todas ellas que vuelven a evidenciar la necesidad de actuar sobre las condiciones laborales de las mujeres, garantizando la estabilidad, el acceso a contratos indefinidos y jornadas completas, y combatiendo las brechas en los complementos salariales y en las oportunidades de promoción que, en última instancia, explican la persistencia de la brecha salarial de género. La puesta en marcha de planes de igualdad en las empresas —indicador que se analiza por primera vez este año en el Informe— constituyen una herramienta de gran utilidad para impulsar estos cambios.

5. Autonomia ekonomikoari eta bizi-baldintza materialei dagokienez, Bizkaian pobreziaren feminizaziorako joera berresten du azterketak. Emakumeak errenta txikieneko tarteetan kokatzen dira, batez besteko arrakala % 50etik gorakoa da gizonekiko, eta presentzia nabarmen txikiagoa dute diru-sarrera handieneko segmentuetan. Bi sexuetan eskura dagoen batez besteko errenta zertxobait hobetu bada ere, desberdintasunek bere horretan diraute, emakumeek etxebizitza edo hornidurak bezalako oinarrizko baliabideak eskuratzeko dituzten aukerak mugatuz eta gizarte-prestazioekiko mendekotasuna indartuz. Birbanaketa-politikek eta gizarte-babeseko sistemek oraindik ez dute lortzen konpentsatzea emakumeei eragiten dieten oinarrizko desberdintasunak, batez ere adinekoen kasuan, bakarrik daudenen kasuan eta emakumea buru duten guraso bakarreko familien kasuan. Gainera, datuek erakusten dute emakumeek arrisku handiagoa dutela mantenu-pobrezian, ongizaterik ezan eta benetako prekarietatean erortzeko.

6. Gizarte-laguntzak neurri handiagoan iristen badira ere emakumeengana, benetako ekitatea behar da baliabideen banaketan; izan ere, emakumeen lan- eta familia-bizitzan zeharreko desberdintasun-ibilbideek pentsio eta errenta txikiagoak eta gizarte-bazterketaren arriskuarekiko esposizio handiagoa eragiten dituzte.

   Zalantzarik gabe, aurrerapen handiak egin dira zaintza-lanaren antolaketa sozial erantzukidearen helburuari dagokionez, baina datuek erakusten dute oraindik ere gainditu gabeko gaia dela. Oraindik ere emakumeei askoz gehiago esleitzen zaie ordaindu gabeko lana, bai etxean, bai komunitatean. Emakumeek oraindik ere beren gain hartzen dituzte kontziliazio-baimenak eta -neurriak, eta horrek mugatu egiten ditu garapen profesionalerako dituzten aukerak, eta indartu egiten ditu genero-estereotipoak.

5. En el ámbito de la autonomía económica y las condiciones materiales de vida, el análisis confirma la tendencia a la feminización de la pobreza en Bizkaia. Las mujeres se concentran en los tramos de menor renta, con una brecha media de más del 50 % respecto a los hombres, y tienen una presencia significativamente menor en los segmentos de mayores ingresos. Aunque se observa una ligera mejora en la renta media disponible en ambos sexos, las desigualdades persisten, limitando las posibilidades de acceso de las mujeres a recursos básicos como la vivienda o los suministros, y reforzando su dependencia de las prestaciones sociales. Las políticas de redistribución y los sistemas de protección social no logran todavía compensar las desigualdades de base que afectan a las mujeres, especialmente a las mayores, en situación de soledad y a las familias monoparentales con una mujer al frente. Además, los datos muestran que las mujeres están más expuestas a situaciones de pobreza de mantenimiento, ausencia de bienestar y precariedad real.

6. Aunque las ayudas sociales llegan en mayor medida a las mujeres, reflejan más su necesidad que una verdadera equidad en la distribución de los recursos; de hecho, las trayectorias de desigualdad a lo largo de la vida laboral y familiar de las mujeres se traducen en pensiones y rentas más bajas y en una mayor exposición al riesgo de exclusión social.

   Ha habido indudables avances en cuanto a la meta de una organización social corresponsable en el trabajo de cuidado, aunque los datos muestran que sigue siendo una asignatura pendiente. A las mujeres se les sigue asignando en mucha mayor medida el trabajo no remunerado, tanto en el hogar como en el ámbito comunitario. Los permisos y medidas de conciliación siguen siendo asumidos mayoritariamente por ellas, lo que limita sus posibilidades de desarrollo profesional y refuerza los estereotipos de género.

Ekitaldi honetan garrantzi handiko adierazle bat sartu da azterketan, *Etxeko Lanaren Kontu Satelitea*. Datuek erakusten dutenez, batez ere emakumeek egiten duten eta neurketa-sistemetan ikusezina den lan horrek ezinbesteko balioa du bizitzari eta ekonomiari eusteko.

7. Beste aldea zainketen lan-sektorea da. Oso feminizatua dago, eta prekarietatea eta aitorpen ekonomiko eta sozial txikia ezaugarri dituzten enpleguekin errepikatzen ditu desberdintasun horiek. Gizarte-zerbitzuen eta arretarekin lotutako enpleguen feminizazio horrek, hazi egin dena aurtengo datuekin, genero-rol tradizionalak indartzen ditu, eta ordaindutako eremura eramaten ditu etxean izaten diren desorekak.

8. Generoen arteko arrakala digitalari eta I+G+b-n parte hartzeari dagokienez, ekitaldi honetan aztertutako datu berrienek agerian uzten dute genero-desberdintasunek jarraitzen dutela arrakala digitalaren modalitate guztietan. Ikusten da murriztu egin dela generoen arteko aldea teknologien sarbidean (lehen mailako arrakala digitala), nabarmenagoak direla oinarrizko erabileraren segregazioari dagokionez (bigarren mailako arrakala digitala), eta oso garrantzitsuak maila aurreratuenetan (hirugarren mailako generoko arrakala digitala). Izan ere, azken hauei dagokionez, datuek erakusten dute emakumeen presentziak apur bat okerrera egiten duela teknologiako eta goi-mailako berrikuntzako sektoreetan, bereziki erantzukizun eta aintzatespen postuetan sektore pribatuan eta espezialitate zientifiko-teknologiko batzuetan. Horrek guztiak mugatu egiten du ekonomiaren eremu estrategikoetan eragiteko eta etorkizuneko gizarte digital eta teknologikoaren eraikuntzan parte hartzeko gaitasuna.

Este ejercicio se ha incluido en el análisis un indicador de gran relevancia, la *Cuenta Satélite del Trabajo Doméstico*. Los datos muestran que este trabajo, realizado mayoritariamente por las mujeres e invisibilizado en los sistemas de medición, tiene un valor imprescindible para el sostenimiento de la vida y de la economía.

7. La otra cara es un sector laboral de los cuidados altamente feminizado, que reproduce estas desigualdades con empleos caracterizados por la precariedad y el bajo reconocimiento económico y social. Esta feminización de los servicios sociales y de los empleos relacionados con la atención, que se incrementa además con los datos de este año, refuerza los roles tradicionales de género, trasladando al ámbito remunerado los desequilibrios que se dan en el hogar.

8. En cuanto a la participación en el ámbito de las tecnologías y la I+D+i, los datos más recientes analizados en este ejercicio evidencian la persistencia de desigualdades de género en todas las modalidades de la brecha digital. Son menores en el acceso a las tecnologías (brecha digital primaria), más importantes en cuanto a la segregación de los usos (brecha digital secundaria) y muy relevantes en los niveles más avanzados (brecha digital de género terciaria). Sobre estos últimos, los datos más recientes muestran incluso un ligero empeoramiento en la presencia en los sectores tecnológicos y de alta innovación, y especialmente en los puestos de responsabilidad y reconocimiento en el sector privado y en ciertas especialidades científico-tecnológicas. Todo ello limita su capacidad de incidir en los ámbitos estratégicos de la economía y de participar en la construcción de la sociedad digital y tecnológica del futuro.

9. Aisialdian, kulturan eta kiroletan ere aurrerapen handiak egin dira, batez ere emakumeek kultura-industrietako zenbait sektoretan eta kirol-modalitate jakin batzuetan duten parte-hartzeari dagokionez. Hala ere, ordezkaritza txikia dute kirol federatuan, maila profesionaletan eta erabaki-organoetan, baita Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan etorkizuneko profesional modura. Eta ditugun datuek —azken eguneraketarik gabe— erakusten dutenez, kirol-jarduera oso segregatuta dago sexuaren arabera eta horrek emakumeak urrutiratu egiten ditu aintzatespen eta baliabide gehien dituzten kiroletatik eta talde eta lehiaketa kiroletatik.

   Bestalde, aurten gehitutako datuek erakusten dute enpleguak etengabe egin duela gora arte arloan, aisialdian eta entretenitzeko jardueretan, nahiz eta gizonen presentzia nabarmen handiagoa den oraindik ere. Kulturaren esparruan, berriz, emakumeek presentzia handiagoa dute azpisektore batzuetan, editorialean adibidez, baina gutxiengoa dira botere eta errekonozimendu handieneko guneetan. Aurreko guzti hau dela eta, berriz ere, kultura- eta kirol-sektorean sarbidean, ordezkaritzan eta aintzatespenean berdintasun-politikak indartzeko beharra ikusten da.

10. Azpiegiturak, turismoa eta mugikortasuna joan den ekitaldian sartu ziren lehen aldiz txostenean, genero-azterketa zehatzagoa egiteko xede gisa, eta Txosten honetan ere garrantzi handia dute. Eskuragarri dauden datuekin, emakumeen eta gizonen arteko mugikortasun-eredu desberdinak identifikatzen dira. Oro har, ikusten da emakumeek garraio pribaturako sarbide txikiagoa dutela eta garraio publikoarekiko eta oinezko desplazamenduekiko mendekotasun handiagoa dutela. Horrek desberdintasunak islatzen ditu mugikortasun-baliabideetarako sarbidean, eta emakumeen autonomia, denbora pertsonala eta enplegu-aukerak baldintzatzen ditu.

9. En materia de ocio, cultura y deportes, también se registran avances importantes, especialmente en cuanto a la participación de las mujeres en ciertos sectores de las industrias culturales y en la práctica deportiva de ciertas modalidades. Sin embargo, siguen infrarrepresentadas en el deporte federado, en los niveles profesionales y en los órganos de decisión, también como futuras profesionales en Ciencias de la Actividad Física y el Deporte, y los datos disponibles —sin actualizaciones más recientes— muestran una práctica deportiva muy segregada por sexo que aleja a las mujeres de los deportes con mayor reconocimiento y recursos, y de los de equipo y competición.

   Por otro lado, los datos incorporados este año muestran un crecimiento sostenido del empleo en actividades artísticas, recreativas y de entretenimiento, aunque la presencia masculina continúa siendo claramente superior. En el ámbito cultural, por su parte, las mujeres logran mayor presencia en algunos subsectores, como el editorial, pero siguen siendo minoría en los espacios de mayor poder y reconocimiento. Todo lo anterior, vuelve a llamar la atención sobre la necesidad de reforzar las políticas de igualdad en el acceso, la representación y el reconocimiento en el sector cultural y deportivo.

10. Los ámbitos de Infraestructuras, turismo y movilidad entraron por primera vez el pasado ejercicio a constituir objeto de análisis de género más detallado, y se mantiene su relevancia en este Informe. Con los datos disponibles, se identifican ya patrones de movilidad desiguales entre mujeres y hombres. En general, se observa un menor acceso de las mujeres al transporte privado y una mayor dependencia del transporte público y los desplazamientos a pie. Esto refleja desigualdades en el acceso a recursos de movilidad y condiciona la autonomía, el tiempo personal y las oportunidades de empleo de las mujeres.

Azpiegituren esparruan, daturik ez dagoenez, oraindik ezin da azterketa espezifikorik egin, nahiz eta daudenek erakusten duten gizonen enplegua nagusi dela sektorean (gainera, pixka bat larriagotzen da), genero-ikuspegia diseinuan eta plangintzan integratu behar dela, biztanleria osoaren beharrei eta erabilera-ereduei erantzuteko gaitasuna handituz.

En el ámbito de las infraestructuras, la carencia de datos impide todavía realizar análisis específicos, aunque los existentes muestran un predominio del empleo masculino en el sector (que además se agrava ligeramente),y la necesidad de integrar plenamente la perspectiva de género en su diseño y planificación, incrementando su capacidad para responder a las necesidades y patrones de uso de toda la población.

Bestalde, aurten, turismo-sektorean emakumeen eta gizonen partaidetza- eta ordezkaritza-dinamikak ezagutzeko oso baliagarriak diren bi adierazle sartu dira. Bi adierazle horiek berretsi egiten dute sektore horretako enpleguan segregazio horizontaleko fenomenoen presentzia —emakumeak arretarekin eta zerbitzuarekin lotutako jardueretan kontzentratzen dira, genero-rolari historikoki lotutako harreman-funtzioak—, eta bertikala —ia 20 puntu portzentualeko arrakala dago emakumeek zuzendaritza-postuetan duten ordezkaritzan. Aurreko guztiak azpimarratzen du sektoreari laguntzeko eta dirulaguntzak emateko politiken bultzada aprobetxatu behar dela desberdintasun horiek desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.

09 - ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA/ *EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD*	92.400.000,00 €	22.633.379,00 €	24,49 %	64.364.218,00 €	69,66 %	5.402.403,00 €	5,85 %
10 - AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA/ *INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL*	257.149.519,00 €	-	-	198.051.300,00 €	77,02 %	59.098.219,00 €	22,98 %
SAILAREN ERABILGARRIA GUZTIRA / *TOTAL DISPONIBLE DEPARTAMENTAL*	**1.808.637.663,00 €**	**23.161.179,00 €**	**1,28 %**	**1.301.998.443,00 €**	**71,99 %**	**483.478.041,00 €**	**26,73 %**

2. TAULA / *TABLA 2:*
Aurrekontu-kredituaren banaketa GUFEn, programen eta berdintasun-gastuaren sailkapenaren arabera (zuzena, zeharkakoa eta inpakturik gabea) /
Distribución en el IFAS del crédito presupuestario según programas y clasificación del gasto de igualdad (directo, transversal y sin impacto)

PROGRAMA	PROGRAMAREN KREDITU OSOA - *CRÉDITO TOTAL DEL PROGRAMA*	Gastu zuzena - *Gasto directo*	%	Zeharkako gastua - *Gasto transversal*	%	Eraginik gabeko gastua - Gasto sin impacto	%
231.105 *Umeak / Infancia*	61.965.000,00 €	-	-	55.816.686 €	90,08 %	6.148.314 €	9,92%
231.107 Pertsona ezinduak/ *Personas con discapacidad*	10.976.000,00 €	-	-	451.000,00 €	4,10 %	10.525.000,00 €	95,89 %
231.106 Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak/ *Personas en situación de dependencia*	7.528.000,00 €	-	-	-	-	7.528.000,00 €	100 %
232.112 Itsastarren etxeak/ *Casas del Mar*	1.169.000,00 €	-	-	-	-	1.169.000,00 €	100 %
920.110 Informatikako foru plana / *Plan informático foral*	2.299.000,00 €	-	-	-	-	2.299.000,00 €	100 %
ERAKUNDEAREN GUZTIZKOAK / *TOTALES DEL INSTITUTO*	**86.685.000,00 €**	**22.500,00 €**	**0,02 %**	**56.309.686 €**	**64,95 %**	**30.352.814,00 €**	**35,01 %**

* OHARRA/ *NOTA*: GUFEren guztizko aurrekontua Gizarte Ekintza Sailaren Administrazio Orokorraren programan sartzen da. /
El presupuesto total del IFAS se incluye en el programa de Administración general del Departamento de Acción Social.

3. TAULA / *TABLA 3:*
I. kapituluko kreditua, berdintasun-arloko zuzeneko gastu gisa sailkatua/
Crédito del Capítulo I clasificado como gasto directo en igualdad

BERDINTASUNEAN ERAGIN ZUZENA DUTEN LANGILEEN GASTUA/ GASTO DE PERSONAL CON INCIDENCIA DIRECTA EN IGUALDAD	*Gastu zuzena Gasto directo*
BFA KONTZILIAZIOA / *CONCILIACIÓN DFB*	7.393.286,00 €
GUFE KONTZILIAZIOA / *CONCILIACIÓN IFAS*	1.728.973,00 €
KONTZILIAZIOA GUZTIRA / TOTAL CONCILIACIÓN	**9.122.259,00 €**
BERDINTASUNERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA / *DIRECCIÓN GENERAL DE IGUALDAD*	1.262.016,00 €
INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK BABESTEKO ETA ARTATZEKO ZERBITZUA / *SERVICIO DE PROTECCIÓN Y ATENCIÓN A VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA*	1.774.097,00 €
BERDINTASUNEAN ERAGIN ZUZENA DUTEN TEKNIKARI ESPEZIALIZATUEN GASTUA, GUZTIRA / *TOTAL GASTO DE PERSONAL TÉCNICO ESPECIALIZADO CON INCIDENCIA DIRECTA EN IGUALDAD*	***3.036.113,00 €***
BERDINTASUN-ARLOKO GASTU OSOA, 1. KAPITULUAREN GAINEAN *GASTO TOTAL EN IGUALDAD SOBRE EL CAPÍTULO 1*	**12.158.372,00 €**

4. TAULA / *TABLA 4*:
Kudeaketa propioko aurrekontuaren banaketa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako zuzeneko eta zeharkako gastuaren sailkapenaren arabera. /
Distribución del presupuesto de gestión propia según la clasificación del gasto directo y transversal para la igualdad de mujeres y hombres.

SAILA / *DEPARTAMENTO*	KREDITU OSOA - *CRÉDITO TOTAL*	Gastu zuzena - *Gasto directo*		Zeharkako gastua - *Gasto transversal*	
SAILAREN ERABILGARRIA GUZTIRA / *TOTAL DISPONIBLE DEPARTAMENTAL*	**1.808.637.663,00 €**	23.161.179,00 €	1,28 %	1.301.998.443,00 €	71,99 %
I.KAPITULUA / *CAPÍTULO I*	**284.026.388,00 €**	12.158.372,00 €	4,28 %	-	-
PRESUPUESTO DE GESTIÓN PROPIA GUZTIRA/ PRESUPUESTO DE GESTIÓN PROPIA TOTAL	**2.092.664.051,00 €**	**35.319.551 €**	**1,69 %**	**1.301.998.443,00 €**	**62,22 %**

5. TAULA / TABLA 5:

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gastuaren sailkapenaren arabera, sailen kreditu osoaren aurrekontu-bilakaera (2026-2027) /
Evolución presupuestaria del crédito total de los departamentos según la clasificación del gasto para la igualdad de mujeres y hombres 2026-2027

SAILA / *DEPARTAMENTO*	**URTEA /** *AÑO*	**KREDITUA GUZTIRA (€) - *CRÉDITO TOTAL €***	**Gastu zuzena - *Gasto directo***		***Zeharkako gastua - Gasto transversal***		***Eraginik gabeko gastua – Gasto sin impacto***	
			€	%	**€**	%	€	%
02 - INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA / *MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA*	**2026**	79.046.664,00	15.000,00	0,02	30.324.778,60	38,36	48.706.885,40	61,62
	2027	**80.930.392,00**	**15.000,00**	**0,02**	**35.920.387,00**	**44,38**	**44.995.005,00**	**55,60**
03 - GIZARTE EKINTZA / *ACCIÓN SOCIAL*	**2026**	767.151.622,00	129.000	0,02	575.902.844,00	75,07	191.119.778	24,91
	2027	**813.984.000,00**	**131.000,00 €**	**0,02**	**606.820.168,00**	**74,55**	**207.032.832,00**	**25,43**
04 - EUSKERA, KULTURA ETA KIROLA/ *EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE*	**2026**	70.378.553,00	60.000,00	0,09	51.916.000,00	73,77	18.402.553,00	26,15
	2027	**73.096.000,00**	**109.700,00**	**0,15**	**50.685.700,00**	**69,34**	**22.300.600,00**	**30,51**
05 - OGASUNA ETA FINANTZAK / *HACIENDA Y FINANZAS*	**2026**	71.203.950,00	-	-	5.075.800,00	7,13	66.128.150,00	92,87
	2027	**77.070.470,00**	**-**	**-**	**5.159.780,00**	**6,69**	**71.910.690,00**	**93,31**
06 - GARRAIOAK, MUGIKORTASUNA ETA TURISMOA / *TRANSPORTES, MOVILIDAD Y TURISMO*	**2026**	221.291.249,00	-	-	216.124.154,00	97,67	5.167.095,00	2,33
	2027	**231.741.303,00**	**-**	**-**	**221.141.975,00**	**95,43**	**10.599.328,00**	**4,57**
07 - HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK / *ADMIN PÚBLICA Y RELACIONES. INSTITUCIONALES*	**2026**	89.540.000,00	26.241,00	0,03	57.812.361,00	64,57	31.701.398,00	35,40
	2027	**98.874.500,00**	**23.000,00**	**0,02**	**61.235.273,00**	**61,93**	**37.616.227,00**	**38,04**
08 - EKONOMIA ETA LURRALDE GARAPENA/ DESARROLLO ECONOMICO Y TERRITORIAL	**2026**	81.358.877,00	265.100,00	0,33	55.658.800,00	68,41	25.434.977,00	31,26
	2027	**83.391.479,00**	**249.100,00**	**0,30**	**58.619.642,00**	**70,29**	**24.522.737,00**	**29,41**
09 - ENPLEGUA, GIZARTE-KOHESIOA ETA BERDINTASUNA / *EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD*	**2026**	87.563.871,00	17.070.239,60	19,49	66.289.632,40	75,70	4.203.999,00	4,80
	2027	**92.400.000,00**	**22.633.379,00**	**24,49**	**64.364.218,00**	**69,66**	**5.402.403,00**	**5,85**
10.AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA / *INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL*	**2026**	250.689.000,00	-	-	193.179.622,00	77,06	57.509.378,00	22,94
	2027	**257.149.519,00**	**-**	**-**	**198.051.300,00**	**77,02**	**59.098.219,00**	**22,98**
GUZTIRA/ *TOTAL*	**2026**	1.718.223.786,00	17.565.580,60	1,02	1.252.283.992,00	72,88	448.374.213,40	26,10
	2027	**1.808.637.663,00 €**	**23.161.179,00 €**	**1,28 %**	**1.301.998.443,00 €**	**71,99 %**	**483.478.041,00 €**	**26,73 %**

6. TAULA / TABLA 6:
Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioko aurrekontuaren bilakaera, gastu zuzenaren eta zeharkako gastuaren banaketaren arabera (2023-2027)/ *Evolución presupuestaria del presupuesto de gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia según la distribución del gasto directo y transversal 2023-2027.*

		2027		**2026**		**2025**		**2024**		**2023**	
		GUZTIRA/ *TOTAL*	**%**	GUZTIRA/ *TOTAL*	%	GUZTIRA/ *TOTAL*	%	GUZTIRA/ *TOTAL*	%	GUZTIRA/ *TOTAL*	%
KREDITUA/ *CRÉDITO*	**Kudeaketa propioko aurrekontua** ***Presupuesto de gestión propia***	**2.092.664.051,00 €**	**100**	**2.000.409.616,00 €**	**100**	**1.924.254.755,00 €**	**100**	**1.864.639.629,00 €**	**100**	**1.792.432.332,00 €**	**100**
	Gastu zuzena ***Gasto directo***	35.319.551,00 €	1,69	28.843.435,60 €	1,44	27.098.421,40 €	1,41	22.615.014,20 €	1,21	21.685.893,31 €	1,21
	Zeharkako gastua ***Crédito transversal***	1.301.998.443,00 €	62,22	1.252.283.992,00 €	62,60	1.243.367.130,10 €	64,62	1.203.346.021,80 €	64,54	1.071.974.319 €	59,81

2.2. EMAITZAK BIZI-KALITATEAREN EREMUAREN ARABERA

Gaitasunen teoriak esparru analitikoa ematen du, aurrekontu-programek pertsonen bizi-baldintzetan eta benetako aukeretan izan ditzaketen ondorioak identifikatzeko eta baloratzeko erabiltzen dena. Ikuspegi horretatik, azterketa ez da esleitutako baliabideetara mugatzen; aitzitik, jarduera publikoek eragiten dieten bizi-kalitatearen eremuak hartzen ditu kontuan. Helburu horrekin, aurrekontu-programa bakoitzak inpaktu handiena eragiten duen ahalmen-eremuak identifikatzen ditu, eta, horrela, aurrekontu-jardunak eragin handiena duen bizi-kalitatearen arloen ikuspegi agregatua lortzea ahalbidetzen du.

Azken grafikoak programa guztiek bizi-kalitatearekin lotutako eremuetan duten eraginaren banaketa erakusten du. Banaketa hori programen beraien balorazioan oinarrituta egiten da; izan ere, hiru eragin-eremu identifikatzen dituzte gehienez, eta lehentasun-ordena bat esleitzen diete, garatutako jardueren arabera. Beraz, ehunekoek programek eremu bakoitzari ematen dioten pisu erlatiboa islatzen dute, baina ez aurrekontu-gastuaren banaketa.

2027an, "diru-sarrerak" dira presentzia handiena duen eremua, 68 punturekin eta guztizkoaren % 16,23rekin. Emaitza horrek erakusten du zer-nolako garrantzia duten biztanleriaren egoera ekonomikoarekin zerikusia duten jarduerek, hainbat sailetako programetan baitaude, eta, bereziki, Ogasunari eta Finantzei lotutakoetan.

2.2. RESULTADOS POR ÁMBITOS DE CALIDAD DE VIDA.

La teoría de las capacidades proporciona el marco analítico utilizado para identificar y valorar los efectos que los programas presupuestarios pueden tener sobre las condiciones de vida y las oportunidades reales de las personas. Desde esta perspectiva, el análisis no se limita a los recursos asignados, sino que considera los distintos ámbitos de la calidad de vida sobre los que inciden las actuaciones públicas. Con este fin, cada programa presupuestario identifica los ámbitos de capacidad en los que genera un mayor impacto, permitiendo así obtener una visión agregada de las áreas de la calidad de vida sobre las que la actuación presupuestaria tiene una incidencia más significativa.

El gráfico final presenta el reparto de la incidencia de la totalidad de los programas en los diferentes ámbitos relacionados con la calidad de vida. Este reparto se realiza a partir de la valoración de los propios programas, que identifican un máximo de tres ámbitos de incidencia y les asignan un orden de prioridad en función de las actuaciones desarrolladas. Por tanto, los porcentajes reflejan el peso relativo que los programas atribuyen a cada ámbito, pero no representan una distribución del gasto presupuestario.

En 2027, “ingresos” se sitúa como el ámbito con mayor presencia, con 68 puntos y el 16,23 % del total. Este resultado muestra la importancia que adquieren las actuaciones relacionadas con la situación económica de la población, presentes en programas de varios departamentos y de manera especialmente significativa en los vinculados a Hacienda y Finanzas.

Bigarren tokian "parte-hartzea" dago, 57 punturekin eta % 13,60rekin; ondoren "ordaindutako lana" dago, 49 punturekin eta % 11,69rekin. "Aisialdia eta kultura" (47 puntu eta % 11,22) eta "mugikortasuna" (45 puntu eta % 10,74) eremuek osatzen dituzte lehen bost tokiak. Oro har, bost eremu horiek programek esleitutako guztizko puntuazioaren % 63,48 biltzen dute.

En segundo lugar se encuentra “participación”, con 57 puntos y el 13,60 %, seguida de “trabajo remunerado”, con 49 puntos y el 11,69 %. Los ámbitos de “ocio y cultura”, con 47 puntos y el 11,22 %, y “movilidad”, con 45 puntos y el 10,74 %, completan los cinco primeros lugares. En conjunto, estos cinco ámbitos concentran el 63,48 % de la puntuación total asignada por los programas.

Tarteko maila batean daude "naturaren zaintza" (40 puntu eta % 9,55), "osasuna" (37 puntu eta % 8,83) eta "pertsonen zaintza" (32 puntu eta % 7,64). Batera hartuta, zaintzarekin eta ongizatearekin lotutako hiru eremu horiek guztizkoaren % 26,01 biltzen dute.

En un nivel intermedio se sitúan “cuidado de la naturaleza”, con 40 puntos y el 9,55 %; “salud”, con 37 puntos y el 8,83 %; y “cuidado de las personas”, con 32 puntos y el 7,64 %. Considerados conjuntamente, estos tres ámbitos relacionados con el cuidado y el bienestar reúnen el 26,01 % del total.

Puntuazio txikienak "hezkuntzari" (22 puntu eta % 5,25), "indarkeriarik ezari" (17 puntu eta % 4,06) eta "etxebizitzari" (5 puntu eta % 1,19) dagozkie. Pisu txikiago horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiko eremuak direnik, baizik eta lehentasunezko gisa identifikatzen dituztela programa kopuru txikiago batek edo posizio txikiagoa dutenek ezarritako lehentasun-ordenaren barruan.

Las menores puntuaciones corresponden a “educación”, con 22 puntos y el 5,25 %; “ausencia de violencia”, con 17 puntos y el 4,06 %; y “vivienda”, con 5 puntos y el 1,19 %. Este menor peso no implica que se trate de ámbitos poco relevantes, sino que son identificados como prioritarios por un número más reducido de programas o con una posición inferior dentro del orden de prioridad establecido.


Aldaketa handirik gertatzea ohikoa ez den arren, pixka bat bada ere zein arlo gehitzen eta gutxitzen diren ondorioztatu daiteke. Horrekin jakin dezakegu aurrekontu-esfortzuak zein norabidetan joango diren eta horiek eragin egiten dute, koiuntura iraunkorrekin edo denbora jakin batean haziz.

Si bien no es frecuente que se produzcan grandes cambios, sí se puede inferir qué ámbitos aumentan y disminuyen, aunque sea ligeramente, lo que da idea de la dirección de los esfuerzos presupuestarios, que suelen coincidir con coyunturas sostenidas o en crecimiento durante un periodo de tiempo.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, aldaketarik nabarmenena "diru-sarreren" garrantziaren hazkundea izan da, argi eta garbi lehen postura igaro baita. "Parte-hartzearen" presentzia erlatiboak ere gora egin du. Aitzitik, "ordaindutako lanaren" eta "aisiaren eta kulturaren" garrantzia murriztu egin da, aurreko ekitaldian % 14 ingurukoak baitziren. Gainerako esparruek banaketa egonkorragoa dute, aldaketa ez hain nabarmenekin.

Respecto al ejercicio anterior, el cambio más destacado es el incremento del peso de “ingresos”, que pasa a ocupar claramente la primera posición. También aumenta la presencia relativa de “participación”. Por el contrario, se reduce el peso de “trabajo remunerado” y de “ocio y cultura”, que en el ejercicio anterior se situaban en torno al 14 %. Los demás ámbitos presentan una distribución más estable, con variaciones menos destacables.

1.GRAFIKOA. Programek identifikatutako bizi-kalitatearen eremuak/
GRÁFICO 1. Ámbitos de calidad de vida identificados por los programas



3. GENERO-ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Hauxe da sexuaren ziozko desberdintasunak ezabatzeko politiken helburu operatiboa: gizonezkoek eta emakumezkoek baliabideak ekonomikoak eta sozialak eskuratzeko aukera berdinak izatea; baliabide horien etekinetan bereizkeriazko desorekarik gabe, eta berdintasunean.

3. EVALUACIÓN PREVIA DEL IMPACTO DE GÉNERO

La finalidad operativa de las políticas dirigidas a eliminar las desigualdades por sexo, es lograr que mujeres y hombres tengan las mismas oportunidades de acceso a los recursos económicos y sociales sin desequilibrios discriminatorios, en el beneficio que estos aportan y en condiciones de igualdad.

GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO

Txosten honek hiru eremu nagusi erakusten ditu zuzeneko eta zeharkako inbertsioko jarduketek honako hauetan duten eragina aztertzeko:

1. Emakumeak eta neskak,
2. Erantzunkidetasunean eragiteko gaitasuna eta,
3. Eragina arauak eta gizarte-balioak eraldatzen.

Hirurak elkar-dependienteak dira, eta beraz, horietariko edozeinetan egiten diren ekintzek eragina dute gainerako bietan. Inbertsioen zati handi batek, batez ere neskei eta emakumeei zuzendutakoak, balio-aldaketa sustatzera bideratutako aurrekontu-jarduketak biltzen ditu, eta, beraz, gutxi gorabeherako banaketa gisa ulertu behar da.

Kapitulu honek genero-inpaktu potentzialaren azterketa jorratzen du, honako hauek kontuan hartuta:

- Genero-ikuspegia txertatzea programek bideratzen dituzten eta eremu sozioekonomikoetan eragina duten berdintasuneko programetan eta gastuetan.
- Aztertzeko beste alderdi batzuk dira emakumeen eta gizonen parte-hartzea aurrekontuak egiteko eta erabakiak hartzeko, eta ondoriozko aurrekontu-araudia betetzea.

Genero-ikuspegia duen zeharkako aurrekontua identifikatzearen garrantzia honetan datza: sartutako neurri guztiek, azterketatik edo plangintzatik, sentsibilizaziotik, ordezkagarritasunetik edo ekintza positiboko irizpideetatik abiatuta, jarduketetan eragiten dute, eta neurri horiek, irismenaren arabera, emakumeen eta gizonen berdintasunerako helburuen alde egiten dute, gehiago edo gutxiago.

El presente informe muestra tres ámbitos principales para el análisis de la incidencia de las actuaciones de inversión directa y transversal en:

1. Mujeres y niñas,
2. Capacidad de incidencia en la corresponsabilidad e,
3. Incidencia en la transformación de las normas y valores sociales.

Los tres son interdependientes, de manera que las actuaciones en cualquiera de ellas tienen efectos en los dos restantes. Una buena parte de las inversiones, especialmente de las destinadas a niñas y mujeres, incluyen actuaciones presupuestadas destinadas a fomentar el cambio de valores, por lo que debe comprenderse como una distribución aproximada.

Este capítulo aborda el análisis del impacto de género potencial teniendo en cuenta:

- La integración de la perspectiva de género en los programas y el gasto en igualdad que los programas destinan y que impactan en los diferentes ámbitos socioeconómicos.
- Otros aspectos de análisis incluyen la participación de mujeres y hombres en la elaboración de los presupuestos y en la toma de decisiones, así como el cumplimiento de la normativa presupuestaria correspondiente.

La importancia de identificar el presupuesto transversal con perspectiva de género, reside en que todas las medidas incorporadas, desde el análisis o la planificación, la sensibilización, la representatividad o los criterios de acción positiva, repercuten en las actuaciones, favoreciendo en mayor o menor grado los objetivos de igualdad para mujeres y hombres, según su alcance.

Berdintasun-ekintzetarako zuzeneko gastuak erantzun eraginkorra eta kuantifikagarria eskatzen du desberdintasunak ezabatzeko.

Gastu mota biak dira beharrezkoak eta osagarriak baina kredituaren kontabilizazioa bereiz egin behar da, kontabilitate-izaera eta -ondorio desberdinak dituelako.

3.1. 2026KO EKITALDIKO EMAITZEN ANALISIA

2026 EKITALDIKO HELBURUEN BETETZE-MAILA

2026ko ekitaldiari dagozkion fitxek gauzatutako edo gauzatzen ari diren ekintzak jasotzen dituzte, eta aukera ematen dute berdintasunerako zuzeneko gastua duten ekintzak, zeharkako neurriak txertatzen dituztenak eta arlo horretan berariazko eraginik identifikatzen ez dutenak bereizteko.

Programek bi zentzutan interpretatzen dute helburuak betetzen diren ala ez:

- **Estrategikoa,** jardueren zentzuaren azken lorpena, adibidez: *"lantalde teknikoetan emakumeen ordezkaritza handitzea"*

- **Betearazlea,** planifikatutako jarduerak gauzatzeari edo garatzeari dagokiona. Adibidez, *"dirulaguntzaren dekretuan emakumeen presentziaren aldeko baldintzak sartu izana"*.

Programa batzuetan ikuspegi biak batera baloratzen dituzte.

Aurreko aurrekontu-fitxetan jasotako neurrien jarraipena da nagusi. Era berean, zerbitzuek antzemandako beharrei erantzuten dieten jarduketa berri batzuk identifikatu dira, baita doikuntzak edo hobekuntzak txertatu diren beste batzuk ere.

El gasto directo para acciones de igualdad implica una respuesta efectiva y cuantificable para la eliminación de desigualdades.

Ambos tipos de gasto son necesarios y complementarios, pero la contabilización del crédito ha de realizarse por separado, dada su distinta naturaleza e implicaciones contables.

3.1. ANÁLISIS DE RESULTADOS DEL EJERCICIO 2026

CUMPLIMIENTO DE OBJETIVOS Y ACTUACIONES DEL EJERCICIO 2026

Las fichas correspondientes al ejercicio 2026 recogen las actuaciones ejecutadas o en ejecución y permiten diferenciar entre aquellas que incorporan gasto directo en igualdad, las que incluyen medidas transversales y las que no identifican una incidencia específica en este ámbito.

Los programas interpretan el cumplimiento o no de los objetivos en dos sentidos:

- **Estratégico.** Entendido como el logro final del propósito de las actuaciones, por ejemplo: *"aumentar la representación de mujeres en los equipos técnicos"*.

- **Ejecutivo.** Referido a la correcta implementación o desarrollo de las actuaciones planificadas. Por ejemplo*: "haber introducido condiciones favorables para la presencia de mujeres en el Decreto de subvención"*.

En algunos programas ambos enfoques se valoran de manera conjunta.

Predomina la continuidad de las medidas ya recogidas en las fichas presupuestarias anteriores. Asimismo, se identifican algunas actuaciones nuevas que responden a necesidades detectadas por los servicios y otras en las que se han introducido ajustes o mejoras.

2025ean egindako txostenean adierazitakoaren aldean, ez da oro har ikusten aurreikusitako neurriak aplikatzeari utzi zaionik. Fitxa gehienetan adierazten da hartutako berdintasun-neurriak txertatu direla.

Hala ere, helburuen betetze-mailari, lortutako emaitzei eta aurkitutako oztopoei buruzko informazioa ez da homogeneoa izaten jarraitzen du.

Horrenbestez, fitxei esker argitasun handiagoz ezagut daiteke zer neurri txertatu diren; aldiz, zailagoa da zehaztea neurri horiek zer aldaketa eragin dituzten edo zer neurritan lagundu duten desberdintasunak murrizten.

Oro har, aurreko txostenean adierazitako joerari eusten zaio: jarduketen deskribapen osoagoa egiten da, eta lotura esplizituagoa ezartzen da programen eskumenen, haien esku-hartze tresnen eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren artean.

Jarraian, 2026an garatutako edo abian jarritako jarduketetan identifikatutako emaitza nagusiak aurkezten dira:

- Hizkuntza inklusiboaren erabilera:

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legearen 19.4 artikuluaren arabera, euskal botere publikoek hizkuntzaren erabilera inklusiboa eta ez-sexista egin behar dute.

Hizkuntza inklusiboa erabiltzearen helburua da pertsonen sexuan oinarritutako estereotipoak eta adierazpenak ez errepikatzea.

Dokumentazioan, komunikazioan eta jarduketen garapenean hizkera inklusibo eta ez-sexistaren erabilera oso hedatuta mantentzen da.

A diferencia de lo indicado en el informe realizado en 2025, no se observa de manera generalizada que las medidas previstas hayan dejado de aplicarse. La mayoría de las fichas manifiestan haber incorporado las medidas de igualdad comprometidas.

No obstante, la información sobre el grado de consecución de los objetivos, los logros obtenidos y los obstáculos encontrados continúa siendo desigual.

Por tanto, las fichas permiten conocer con mayor claridad qué medidas se han incorporado, aunque resulta más difícil determinar qué cambios han producido o en qué medida han contribuido a reducir desigualdades.

En términos generales, se mantiene la tendencia señalada en el informe anterior hacia una descripción más completa de las actuaciones y una vinculación más explícita entre las competencias de los programas, sus instrumentos de intervención y la igualdad de mujeres y hombres.

A continuación, se exponen los principales resultados identificados en las actuaciones desarrolladas o iniciadas durante 2026:

- Uso del lenguaje inclusivo:

Según la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres, artículo 19.4, los poderes públicos vascos deben hacer un uso inclusivo y no sexista del lenguaje.

La finalidad de la utilización del lenguaje inclusivo es evitar reproducir estereotipos que favorezcan la invisibilidad o la discriminación en función del sexo de las personas.

Se mantiene de manera ampliamente generalizada la utilización de lenguaje inclusivo y no sexista en la documentación, la comunicación y el desarrollo de las actuaciones.

Neurri hori programen jarduera zuzenean ez ezik, kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan, argitalpenetan, kanpainetan, webguneetan, azterlanetan, txostenetan eta memorietan ere txertatzen da.

Jarduketa askotan, gainera, erakunde esleipendunei, onuradunei edo erakunde laguntzaileei ere eskatzen zaie hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista bermatzea.

Hala ere, neurri horien betetze-mailaren egiaztapen eraginkorrari buruzko informazioak xehetasun-maila desberdinak ditu oraindik.

- Ordezkaritza orekatua

Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatzera bideratutako neurriak aplikatzen jarraitzen dira epaimahaietan, balorazio-batzordeetan, lan-mahaietan, parte-hartze organoetan eta gainerako kide anitzeko organoetan.

Era berean, emakumeen presentzia eta ikusgarritasuna handitzea helburu duten jarduketak ere identifikatzen dira, bereziki ordezkaritza txikia duten esparruetan; besteak beste, zenbait sektore profesional, enpresa-esparru, landa-eremu, kirol-, kultura- eta gizarte-partaidetzako eremuetan.

Programa batzuetan ordezkaritza orekatua betebehar orokor gisa txertatzen da; beste batzuetan, aldiz, irizpide zehatzagoak ezartzen dira, organoen osaerari, jardueretako parte-hartzeari edo jarduketen xede-populazioari lotuta.

- Adjudikazio-irizpideak eta -baldintzak

Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasun-klausulak eta -baldintzak txertatzea izaten jarraitzen du programek erabiltzen duten zeharkakotasun-mekanismo nagusia. Neurririk ohikoenen artean honako hauek daude:

Esta medida se incorpora tanto en la actividad directa de los programas como en contratos, subvenciones, convenios, publicaciones, campañas, páginas web, estudios, informes y memorias.

En numerosas actuaciones se exige también a las entidades adjudicatarias, beneficiarias o colaboradoras la utilización inclusiva y no sexista del lenguaje y de las imágenes.

No obstante, la información sobre la comprobación efectiva de su cumplimiento presenta distintos niveles de detalle.

- Representación equilibrada

Las medidas dirigidas a favorecer una presencia equilibrada de mujeres y hombres continúan aplicándose en tribunales, comisiones de valoración, jurados, mesas de trabajo, órganos de participación y otros órganos colegiados.

También se identifican actuaciones destinadas a aumentar la presencia y visibilidad de las mujeres en ámbitos en los que se encuentran infrarrepresentadas, especialmente en determinados sectores profesionales, empresariales, rurales, deportivos, culturales y de participación social.

En algunos programas la representación equilibrada se incorpora como obligación general, mientras que en otros se establecen criterios más específicos relacionados con la composición de los órganos, la participación en las actividades o la población destinataria.

- Criterios y condiciones de adjudicación

La incorporación de cláusulas y condiciones de igualdad en contratos, subvenciones y convenios continúa siendo el principal mecanismo de transversalización utilizado por los programas. Entre las medidas más frecuentes se encuentran:

- Berdintasun-klausulak kontratazio-espedienteetan txertatzea.
- Egikaritze-baldintza bereziak ezartzea.
- Berdintasunarekin lotutako balorazio-irizpideak erabiltzea.
- Memoria eta emaitzetan sexuen arabera bereizitako datuak aurkezteko betebeharra ezartzea.
- Hizkera eta irudi inklusiboak erabiltzeko obligazioa ezartzea.
- Batzordeen eta balorazio-organoen osaera orekatua bermatzea.
- Berdintasun-planak eta erakundeek arlo horretan egindako ibilbidea baloratzea.
- Dirulaguntzaren, kontratuaren edo hitzarmenaren xedearekin lotutako betekizun espezifikoak txertatzea.

- La inclusión de cláusulas de igualdad en los expedientes de contratación.
- La incorporación de condiciones especiales de ejecución.
- La utilización de criterios de valoración relacionados con la igualdad.
- La condición de aportar datos desagregados por sexo en las memorias y resultados.
- La obligación de utilizar lenguaje e imágenes inclusivas.
- La composición equilibrada de comisiones y órganos de valoración.
- La valoración de los planes de igualdad y de la trayectoria de las entidades en esta materia.
- La introducción de requisitos específicos vinculados con el objeto de la subvención, el contrato o el convenio.

2025eko prozesuan adierazitakoaren ildotik, programa batzuek aurrerapausoak egin dituzte klausula orokorrak erabiltzetik jarduketen eduki zehatzarekin estuago lotutako eskakizunak ezartzera.

En continuidad con lo señalado en el proceso de 2025, algunos programas han avanzado desde la utilización de cláusulas generales hacia requisitos más relacionados con el contenido concreto de las actuaciones.

Lotura hori bereziki nabarmena da gizarte-zerbitzuen, enpleguaren, kirolaren, kulturaren, enpresa-jardueraren, landa-garapenaren, mugikortasunaren, turismoaren eta lurralde-plangintzaren arloetan.

Esta vinculación se aprecia especialmente en servicios sociales, empleo, deporte, cultura, actividad empresarial, desarrollo rural, movilidad, turismo y planificación territorial.

Hala ere, fitxek agerian uzten dute aldeak daudela klausulak formalki txertatzearen eta gero haien betetze-mailaren jarraipena egitearen artean.

No obstante, las fichas muestran diferencias entre la mera incorporación formal de las cláusulas y el seguimiento posterior de su cumplimiento.

Egiaztapen-sistemei, antzemandako gorabeherei eta lortutako emaitzei buruzko informazioa, oraindik ere, ez da hain maiz jasotzen.

La información relativa a los sistemas de verificación, las incidencias detectadas y los resultados obtenidos continúa siendo menos frecuente.

- Komunikazioa eta ikusgarritasuna

Emakumeak ikusgai egotea eta irudiak zaintzea beste baldintzetako bat da gai horietan jarduerak izan ditzaketen jarduketa guztiak betetzen eta integratzen direla adierazteko.

Berdintasun-irizpideak informazioaren eta komunikazioaren ekoizpenean nahiz kudeaketan txertatzen jarraitzen da.

Jarduketen artean daude hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua material eta jardueretan, eta emakumeek hainbat esparrutan egindako ekarpenen ikusgarritasuna sustatzea.

Garrantzi berezia dute emakumeak tradizionalki maskulinizatutako sektoreetan edo haien parte-hartzea oraindik txikiagoa den eremuetan ikusgarri egiteko neurriek; hala nola, enpresa-erantzukizuneko zenbait esparrutan, landa-jardueretan, berrikuntzan, federatutako kirolean, prestakuntza teknikoan edo erabakiak hartzeko guneetan.

Halaber, indarkeria matxistaren prebentzioarekin, erantzunkidetasunarekin, aniztasunarekin, tratu-berdintasunarekin eta estereotipoak ezabatzearekin lotutako kanpainak, prestakuntza-jarduerak eta sentsibilizazio-ekintzak garatzen dira.

- Ezagutzaren hobekuntza:

Edozein esparrutan emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunak eta beharrizan desberdinak aztertu ahal izateko lehen urratsa zifren errealitatea ezagutzea da.

Horrek esan nahi du sexuaren arabera bereizitako datuak bildu behar direla, eta horrek, sarritan, datu bereiziak biltzeko eta tratatzeko tresnak berrikusi eta aldez aurretik prestatzea eskatzen du.

- Comunicación y visibilidad

La visibilidad de las mujeres y el cuidado de las imágenes es otra de las condiciones que manifiesta integrar y cumplir la práctica totalidad de las actuaciones con posible actividad en este tema.

Se mantiene la incorporación de criterios de igualdad en la producción y gestión de la información y la comunicación.

Las actuaciones incluyen el uso inclusivo del lenguaje y las imágenes, la presencia equilibrada de mujeres y hombres en materiales y actividades, y la visibilización de las aportaciones de las mujeres en diferentes ámbitos.

Tienen especial relevancia las medidas dirigidas a visibilizar a las mujeres en sectores tradicionalmente masculinizados o en los que su participación continúa siendo menor, como determinados espacios de responsabilidad empresarial, actividades rurales, innovación, deporte federado, formación técnica o toma de decisiones.

También se desarrollan campañas, actividades formativas y actuaciones de sensibilización relacionadas con la prevención de la violencia machista, la corresponsabilidad, la diversidad, la igualdad de trato y la eliminación de estereotipos.

- Mejora del conocimiento:

El primer paso para poder analizar las posibles desigualdades y necesidades diferenciadas entre mujeres y hombres en cualquier ámbito es conocer la realidad de las cifras.

Esto implica recoger los datos diferenciados por sexo, lo que con frecuencia requiere una revisión y preparación previa de herramientas de recogida y de tratamiento de los datos desagregados.

Datuak nahitaez bereiztea badirudi zeharka integratuta dagoela alderdi edo jarduketaren batean pertsonen datuak erabiltzen dituzten programa ia guztietan.

Hurrengo pausoa jasotako datuak tratatzea eta analizatzea da.

Arlo honetan, programek aurrerapen handia adierazi zuten 2025ean emakumeen eta gizonen emaitzen tratamenduari eta analisiari dagokienez, inkesta eta azterlanetan, eta joera hori mantenduegin da.

Hala ere, oraindik ere badago aldea datuak biltzearen eta, ondoren, genero-ikuspegitik ustiatzearen artean.

Informazio bereizia eskuragarri egoteak ez du beti esan nahi emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen, beharren edo egon daitezkeen berdintasun eza egoeren analisia egiten denik.

Fitxetan hainbat esparrutako azterlanak, inkestak, behatokiak, memoriak eta informazio-sistemak jasotzen dira; besteak beste:

- Gizarte-zerbitzuak, haurtzaroa, mendekotasuna, desgaitasuna, zaintzak eta zahartze luzea.
- Enplegua, ekintzailetza, inklusioa eta gizarte-kohesioa.
- Zerga- eta tributu-jarduera.
- Mugikortasuna, garraio publikoa, bide-segurtasuna eta turismoa.
- Kultura, kirola, gazteria eta parte-hartzea.
- Landa-ingurunea, nekazaritza eta ingurumena.
- Berrikuntza, lehiakortasuna eta enpresa-sustapena.
- Hiri-plangintza, lurralde-antolamendua eta azpiegiturak.

La desagregación de datos preceptiva parece integrada de manera transversal en la casi totalidad de los programas que en algún aspecto o actuación han de manejar datos de personas.

El siguiente paso es el tratamiento y el analisis de los datos recogidos.

En este terreno los programas manifestaron un avance importante en 2025 en el tratamiento y análisis de los resultados de mujeres y hombres en sus encuestas y estudios, que se mantiene.

Sin embargo, continúa existiendo una diferencia entre la recogida de los datos y su posterior explotación desde una perspectiva de género.

La disponibilidad de información desagregada no implica siempre que se realice un análisis de las diferencias, necesidades o posibles desigualdades entre mujeres y hombres.

Las fichas recogen estudios, encuestas, observatorios, memorias y sistemas de información en ámbitos diversos, entre ellos:

- Servicios sociales, infancia, dependencia, discapacidad, cuidados y longevidad.
- Empleo, emprendimiento, inclusión y cohesión social.
- Actividad tributaria y fiscal.
- Movilidad, transporte público, seguridad vial y turismo.
- Cultura, deporte, juventud y participación.
- Medio rural, agricultura y medio ambiente.
- Innovación, competitividad y promoción empresarial.
- Planificación urbana, ordenación territorial e infraestructuras.

Azterlan horietako batzuek generoa bera dute aztergai nagusi. Beste batzuetan, genero-ikuspegia sexu-aldagaiaren bidez, adierazle espezifikoen bidez edo parte-hartzaileen nahiz onuradunen analisi bereiziaren bidez txertatzen da.

Una parte de estos estudios incorpora el género en su propio objeto de análisis. En otros casos, la perspectiva de género se introduce mediante la variable sexo, indicadores específicos o el análisis diferenciado de la población participante o beneficiaria.

Eskuragarri dauden informazio-sistemek eta azterlanek oinarri garrantzitsua eskaintzen dute plangintza hobetzeko. Hala ere, komenigarria litzateke emaitzen zabalkundea indartzea, jarduketak berrikusteko duten erabilera sustatzea eta analisietatik eratorritako neurri zuzentzaileak identifikatzea.

Los sistemas de información y los estudios disponibles ofrecen una base relevante para mejorar la planificación. No obstante, sería conveniente reforzar la difusión de los resultados, su utilización para revisar las actuaciones y la identificación de las medidas correctoras derivadas de los análisis.

Programek guztira 32 azterlan, estatistika edo analisi-serieren berri ematen dute.

Los programas informan sobre 32 estudios, estadísticas o series de análisis.

Kasu askotan, aldizkako jarduketak dira, artatutako biztanleriaren ezagutza hobetzeko, zerbitzuak ebaluatzeko, esku-hartze eremuak aztertzeko edo politika publikoen plangintza errazteko helburua dutenak.

En muchos casos se trata de actuaciones periódicas destinadas a mejorar el conocimiento de la población atendida, evaluar servicios, analizar ámbitos de intervención o facilitar la planificación de las políticas públicas.

Horietatik, 28k genero-ikuspegia txertatzen dute, hau da, guztizkoaren % 87,5ek.

De ellos, 28 incorporan la perspectiva de género, lo que representa el 87, 5 % del total.

Integrazioa, batez ere, sexu-aldagaia txertatuz, emaitzen analisi bereizia eginez eta, zenbait kasutan, adierazle espezifikoak edo generoa bera azterlanaren xedean sartuz gauzatzen da.

La integración se realiza principalmente mediante la inclusión de la variable sexo, el análisis diferenciado de los resultados y, en algunos casos, la incorporación de indicadores específicos o del género en el propio objeto del estudio.

Azterlan batzuek genero-ikuspegia beren aztergai propioan txertatzen dute, bereziki enpleguarekin, indarkeria matxistarekin, gizarteratzearekin, emakumeen segurtasun beharrekin, amatasunarekin eta aitatasunarekin, ekintzailetzarekin edo emakumeen eta gizonen egoera fiskalarekin lotutakoek. Beste kasu batzuetan, integrazioa zeharkako moduan egiten da, sexu-aldagaia erabiliz eta informazioaren analisi bereizia eginez.

Algunos estudios incorporan la perspectiva de género en su propio objeto, especialmente los relacionados con el empleo, la violencia machista, la inclusión social, las necesidades de seguridad de las mujeres, la maternidad y paternidad, el emprendimiento o la situación fiscal de mujeres y hombres. En otros casos, la integración se realiza de forma transversal mediante la variable sexo y el análisis diferenciado de la información.

Azterlan horiek, oro har, ezagutza hobetzeko, plangintza errazteko eta zerbitzuen prestazioa orientatzeko erabiltzen dira.

Los estudios se utilizan, con carácter general, para mejorar el conocimiento, facilitar la planificación y orientar la prestación de servicios.

Hala ere, oraindik ere tarte handia dago azterlanen emaitzen, desberdintasunen identifikazioaren eta aurrekontu-prometan neurri zuzentzaileak hartzearen arteko lotura indartzeko.

Honela sailka daitezke, nahiz eta kontuan izan azterketa batek hainbat motatako ezaugarriak izan ditzakeela, neurri handiagoan edo txikiagoan:

a. Emakumeen eta gizonen artean egon daitezkeen desberdintasunen berri emateko azterlanak

b. Programaren eraginaren analisi diferentziala edo bere jarduketa-esparruetako bat.

c. Azterlan eta programa jakin batzuen eremu zehatzean, genero-kontsiderazio espezifikoak identifikatzea.

   Kategoria honetan sartzen dira aipatutako aldizkako ikasketa gehienak.

d. Aurrez definituta dauden irizpideekin esku hartzeko taldeen generoari buruzko analisia egitea.

- Zuzeneko jarduerak: berariaz Emakumeei eta Neskei zuzendutakoak

Emakumeei eta neskei berariaz zuzendutako jarduketek aurreko ekitaldian identifikatutako jarduketa-ildo nagusiei eusten diete.

Autonomia pertsonalerako, ekonomikorako eta sozialerako esku-hartzeak dira eta asmoa bizitza publikoko eta pribatuko arlo ezberdinetan aktiboki parte hartu dezaten sustatzea da.

Programa gehienak emakumeek presentzia handia duten biztanleria-taldeei nagusiki zuzendutako jarduketek osatzen dituzte.

No obstante, continúa existiendo un amplio margen para reforzar la relación entre sus resultados, la identificación de desigualdades y la adopción de medidas correctoras en los programas presupuestarios.

Se pueden clasificar de la siguiente forma, si bien teniendo en cuenta que un mismo estudio puede contar con características, en mayor o menor medida, de varios tipos:

a. Estudios dirigidos a aportar conocimiento de las posibles diferencias entre mujeres y hombres.

b. Estudios que analizan y hacen un diagnóstico del impacto de género en alguno de sus marcos de actuación.

c. Identificación de consideraciones de género específicas en el ámbito concreto de estudios y programas determinados.

   Esta categoría engloba a la mayor parte de los estudios periódicos.

d. Análisis de género sobre la población beneficiaria o de intervención, con criterios definidos.

- Actuaciones Directas destinadas Específicamente a Mujeres y Niñas

Las actuaciones dirigidas específicamente a mujeres y niñas mantienen las principales líneas identificadas en el ejercicio anterior.

Constituyen un conjunto de intervenciones orientadas a la autonomía personal, económica y social, y a promover su participación en diferentes ámbitos de la vida pública y privada.

La mayor parte de los programas se componen de actuaciones que se dirigen principalmente a diferentes grupos de población en donde las mujeres están ampliamente representadas.

Oro har, honako tipologia hauen inguruan egituratzen dira:

- Egoera zaurgarrian dauden emakumeei arreta eta laguntza integrala ematea.

Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien alaba-semeei zuzendutako arreta-, orientazio-, babes-, ostatu- eta laguntza-zerbitzuei eusten zaie, baita gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden emakumeei zuzendutako jarduketei ere.

Halaber, egoitza- eta eguneko baliabideak, ama gazteei laguntzeko programak, arreta psikologikoa eta soziohezitzailea, eta autonomia pertsonaleko zein sozialeko prozesuak sustatzera bideratutako neurriak jasotzen dira.

Jarduketa horiek berdintasunerako zuzeneko inbertsioaren eremu nagusietako bat izaten jarraitzen dute.

- Emakumeen autonomia ekonomikoa, ekintzailetza eta lidergoa sustatzea.

Jarduketa-talde horrek emakumeek enpleguan, ekintzailetzan eta jarduera ekonomikoan aktiboki parte hartzea bultzatzen du.

Prestakuntza, orientazioa, laguntza eta aholkularitza eskaintzen dituzte, baita emakumeek sustatutako proiektuentzako laguntzak, enpresari eta zuzendarien ikusgarritasuna sustatzeko ekintzak eta emakumeen lidergoa bultzatzeko neurriak ere.

Programa batzuetan, jarduketa horiek osatu egiten dira lan-merkatuan edo jarduera ekonomikoan parte hartzeko oztopo espezifikoak dituzten emakumeei zuzendutako sarbide-, balorazio- edo lehentasun-irizpideekin.

Xedea emakumeen eginkizuna ikusgai jartzea da berrikuntza eta aberastasun sortzaile gisa, baita ere emakumeen garapen profesionala eta erabakiak hartzeko ahala izatea mugatzen duten oztopoak ezabatzea.

De forma general, pueden agruparse en los siguientes tipos de actuaciones:

- Atención y apoyo integral a mujeres en situación de vulnerabilidad.

Se mantienen los servicios de atención, orientación, protección, alojamiento y acompañamiento dirigidos a mujeres víctimas de violencia machista y a sus hijas e hijos, así como las actuaciones destinadas a mujeres en situación o riesgo de exclusión social.

También se incluyen recursos residenciales y diurnos, programas de apoyo a madres jóvenes, atención psicológica y socioeducativa y medidas destinadas a favorecer procesos de autonomía personal y social.

Continúan representando uno de los principales ámbitos de inversión directa en igualdad.

- Fomento de la autonomía económica, el emprendimiento y el liderazgo de las mujeres.

Este grupo de actuaciones promueve la participación activa de las mujeres en el empleo, el emprendimiento y la actividad económica.

Incluyen formación, orientación, acompañamiento, ayudas a proyectos promovidos por mujeres, visibilización de empresarias y directivas y medidas de apoyo al liderazgo femenino.

En algunos programas, estas actuaciones se complementan con criterios de acceso, valoración o priorización dirigidos a mujeres que encuentran obstáculos específicos para participar en el mercado laboral o en la actividad económica.

Su objetivo es visibilizar el papel de las mujeres como generadoras de innovación y riqueza, así como eliminar barreras que limitan su desarrollo profesional y su acceso a la toma de decisiones.

- Berdintasunaren sustapena kirolean, kulturan, landa-eremuan eta gizarte-partaidetzan.

Jarduketa horien helburua da emakumeen eta nesken presentzia eta parte-hartzea handitzea haien presentzia oraindik txikiagoa den esparruetan.

Horretarako, prestakuntza-proiektuak, berariazko dirulaguntzak eta sustapen-programak garatzen dira, baita emakumeen parte-hartzea handitzera bideratutako neurriak ere, bereziki maskulinizatutako kirol-modalitateetan; landa-eremuko emakumeen erakundeei laguntzeko ekintzak, emakume erreferenteak ikusgarri egiteko jarduketak eta emakumeek parte-hartze eta erabakiak hartzeko guneetara duten sarbidea sustatzeko neurriak.

- Indarkeria matxista prebenitzea eta deuseztatzea.

Indarkeria matxista prebenitzeko, detekzio goiztiarra hobetzeko eta esku-hartze baliabideak indartzeko neurri espezifikoak biltzen ditu.

Sentsibilizazio-kanpainak, Bizkaiko errealitatearen analisia ikerketaren, jarraipenaren eta zabalkundearen bidez, lanbide-prestakuntza, arreta-sareak eta zerbitzu espezializatuak barne hartzen ditu, baita biktimei eta haien familia-inguruneari laguntza integrala emateko programak ere.

- Erantzunkidetasuneko eta Balioak aldatzeko zuzeneko Ekintzak

Ekimen horien helburua da erantzukizunak modu ekitatiboan banatzea, zaintza-lanak aitortzea eta partaidetza eta garapen pertsonala mugatzen dituzten genero-estereotipoak deuseztatzea.

Aurreko ekitaldiko jarduketa-ildo nagusiek indarrean jarraitzen dute. Orokorrean, jarduketa-mota hauek daude:

- Promoción de la igualdad en el deporte, la cultura, el medio rural y la participación social.

Estas actuaciones persiguen aumentar la presencia y participación de mujeres y niñas en ámbitos donde su presencia sigue siendo menor.

Se desarrollan así proyectos de formación, subvenciones específicas y programas de promoción, medidas dirigidas a incrementar la participación femenina en modalidades deportivas masculinizadas, apoyar a organizaciones de mujeres rurales, visibilizar referentes femeninos y favorecer el acceso de las mujeres a espacios de participación y decisión.

- Prevención y atención de la violencia machista.

Agrupa medidas específicas orientadas a prevenir la violencia machista, mejorar la detección precoz y fortalecer los recursos de intervención.

Incluye campañas de sensibilización, análisis de la realidad en Bizkaia mediante investigación, seguimiento y difusión, formación profesional, redes de atención y servicios especializados con programas de apoyo integral a las víctimas y sus entornos familiares.

- Áctuaciones Directas en Corresponsabilidad y Cambio de Valores

Estas iniciativas buscan promover una distribución equitativa de las responsabilidades, el reconocimiento del trabajo de cuidados y la eliminación de los estereotipos de género que limitan la participación y el desarrollo personal.

Se mantienen las principales líneas de actuación del ejercicio anterior. De forma general, pueden identificarse los siguientes tipos de actuaciones:

- Kontziliazioan laguntzea eta zaintzen erantzunkidetasuna.

Neurri ekonomikoak eta zerbitzu-neurriak dituzte lana, bizitza pertsonala eta familia kontziliatzea errazteko.

Laguntzen, dirulaguntzen eta hobarien bitartez emakumeen eta gizonen erantzukidetasuna bultzatzen da etxeko lanetan eta adinekoak edo menpekotasuna dutenak zaintzen. Baita zaintza-erantzukizunak bere gain hartzen dituzten pertsonentzako laguntza ere.

Zaintzen eta autonomia pertsonalaren ikuspegia sendotu egiten da gizarte-prometan, enpleguarekin, mendekotasunarekin, desgaitasunarekin, etxez etxeko arretarekin eta erronka demografikoarekin lotutako prometan.

Jarduketa horien xedea denboraren banaketa ezberdina gutxitzea eta, horrela, enplegurako eta ongizaterako sarbidea orekatuagoa izatea da.

BFAko eta GUFEko langileen kontziliaziora bideratutako zenbatekoa, amatasun-, aitatasun- eta zaintza-baimenen estaldurarekin haur-rak eta mendeko beste pertsona batzuk, 2027rako esparru horretan inbertsiorik handiena hartzen du.

- Prestakuntza eta sentsibilizazioa berdintasunean eta erantzukidetasunean

Foru Aldundiko langileei, profesionalei, erakunde laguntzaileei eta herritarrei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak garatzen jarraitzen da.

Lantzen diren edukien artean daude emakumeen eta gizonen berdintasuna, erantzunkidetasuna, indarkeria matxistaren prebentzioa, komunikazio inklusiboa, berdintasun-klausulak eta genero-ikuspegia modu praktikoan txertatzeko tresnak eta metodologiak.

- Apoyo a la conciliación y corresponsabilidad en los cuidados.

Incluyen medidas económicas y de servicios orientadas a facilitar la conciliación de la vida laboral, personal y familiar.

A través de ayudas, subvenciones y bonificaciones, se impulsa la corresponsabilidad entre mujeres y hombres en las tareas domésticas y de cuidado de menores o personas dependientes. Así como el apoyo a quienes asumen responsabilidades de cuidado.

Se consolida la incorporación de los cuidados y la autonomía personal en programas sociales, de empleo, dependencia, discapacidad, atención domiciliaria y reto demográfico.

Estas actuaciones buscan reducir la desigual distribución del tiempo y por tanto un acceso más equilibrado al empleo y al bienestar.

El importe dirigido a la conciliación del personal de la DFB e IFAS, con la cobertura de los permisos de maternidad, paternidad y cuidado de niñas y niños y otras personas dependientes, engloba para 2027 la mayor inversión en este concepto.

- Formación y sensibilización en igualdad y corresponsabilidad.

Continúan desarrollándose actividades de formación y sensibilización dirigidas al personal de la Diputación, profesionales, entidades colaboradoras y ciudadanía.

Los contenidos abarcan la igualdad de mujeres y hombres, la corresponsabilidad, la prevención de la violencia machista, la comunicación inclusiva, las cláusulas de igualdad y la incorporación práctica de la perspectiva de género.

Xedea hausnarketa kritikoa bultzatzea, ezagutzak eskuratzea eta berdintasuna eta ardurak modu orekatuan banatzea errazten duten trebetasunak garatzea da, bai lanean, bai hezkuntzan.

Aurrekoarekin lotuta, prestakuntza-eskaintza zabaltzen ari da, bai irismenean (hau da, geroz eta arlo eta jarduketa-maila gehiago barne hartuta) bai espezializazio-mailan ere. Hala, eduki geroz eta espezifikoagoak eta espezializatuagoak eskaintzen dira.

Berdintasun Programak prestakuntza-, aholkularitza- eta laguntza-eginkizun espezifikoa betetzen du sailen artean, berdintasuna haien programetan eta ohiko jardueran txertatzea errazteko.

DFBren VII. Berdintasun Planak jarduketa horiek bultzatu eta sendotzeko erreferentziazko esparru komuna eskaintzen du.

GUFEn ere berdintasunarekin, erantzunkidetasunarekin, ahalduntzearekin eta indarkeria matxistaren prebentzioarekin lotutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerei eusten zaie, bai langileei zuzendutakoetan, bai ematen den arretaren esparruan garatzen direnetan.

- Kultura-aldaketa bultzatzea eta genero-estereotipoak deuseztatzea.

Sentsibilizazio-kanpainak, dibulgazio-jarduerak eta komunitate-proiektuak dira. Asmoa elkarrekin bizitzeko eta harremanak izateko forma berriak, errespetua eta arlo guztietako erantzukidetasuna bultzatzea da.

Jarduketak hezkuntzaren, kirolaren, kulturaren, gazteriaren, enpleguaren, gizarte-partaidetzaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren esparruetan garatzen dira.

Su finalidad es promover la reflexión crítica, la adquisición de conocimientos y el desarrollo de habilidades que favorezcan la igualdad y el reparto equilibrado de responsabilidades, tanto en entornos laborales como educativos.

En este sentido, la oferta formativa sigue ampliándose de manera progresiva, tanto en su alcance (cubriendo cada vez más áreas y niveles de actuación), como en su grado de especialización, ofreciendo contenidos cada vez más específicos y especializados.

El programa de Igualdad desempeña una función específica de formación, asesoramiento y acompañamiento a los departamentos para facilitar la integración de la igualdad en sus programas y en su actividad ordinaria.

El VII Plan de Igualdad de la DFB proporciona el marco común para impulsar y consolidar estas actuaciones.

En el IFAS se mantienen asimismo actuaciones de formación y sensibilización relacionadas con la igualdad, la corresponsabilidad, el empoderamiento y la prevención de la violencia machista, vinculadas tanto a la plantilla como a la atención prestada.

- Promoción del cambio cultural y eliminación de estereotipos de género.

Comprende campañas de sensibilización, actividades divulgativas y proyectos comunitarios orientados a promover nuevas formas de relación y convivencia, el respeto y la corresponsabilidad en todos los ámbitos.

Las actuaciones se desarrollan en ámbitos como la educación, el deporte, la cultura, la juventud, el empleo, la participación social y la prevención de la violencia machista.

- Erabakiak hartzeko eta elkarrekin bizitzeko espazioetan partaidetza orekatua egotea.

Gizarteko, hezkuntzako eta arlo profesionaleko espazioetan eta erabakiak hartzeko eta herritarren partaidetzarako organoetan ordezkaritza parekidea egotea errazten duten neurriak garatzen dira.

Era berean, jarduketa batzuek gizonek erantzunkidetasunean eta zaintza-eredu tradizionalen eraldaketan parte har dezaten sustatzera bideratutako neurriak txertatzen dituzte.

Ekimen horiek lagundu egiten dute aukera-berdintasuna finkatzen eta genero-ikuspegia txertatzen erabakiak hartzeko prozesuetan eta baliabide publikoak kudeatzen direnean.

3.2. 2027RAKO AURREKONTUEN AZTERKETA

2027RAKO AURREIKUSITAKO JARDUKETAK

2027rako programek jakinarazitako aurreikuspenek, oro har, aurreko ekitaldietan garatutako jarduketen jarraipen- eta sendotze-orientazioa erakusten dute.

Programa oso gutxitan ezarri dituzte aurrekontu-ekitaldi berrirako berdintasun-konpromiso berriak eta gehienek zeharkako neurriak integratu dituzte.

Programa gehienek dagoeneko txertatuta dauden helburu eta neurriak mantentzea aurreikusten dute, eta, aldi berean, haien aplikazioan identifikatutako beharrei eta lortutako esperientziari lotutako doikuntzak, hedapenak edo hobekuntzak egitea.

Jarraitasun horrek ez du zertan aurrerapenik ez dagoenik esan nahi. Zeharkako neurriei eta zuzeneko jarduketei eusteak horiek programen ohiko jardunean txertatzea sendotzen laguntzen du, eta genero-ikuspegia unean uneko esku-hartze edo ekimen isolatuen mende soilik gera ez dadin sustatzen du.

- Participación equilibrada en espacios de decisión y convivencia.

Se desarrollan medidas que favorecen la representación paritaria en los espacios sociales, educativos y profesionales, así como en órganos de decisión y participación ciudadana.

Asimismo, algunas actuaciones incorporan medidas destinadas a implicar a los hombres en la corresponsabilidad y en la transformación de los modelos tradicionales de cuidado.

Estas iniciativas contribuyen a consolidar la igualdad de oportunidades y a integrar la perspectiva de género en los procesos de toma de decisiones y en la gestión de los recursos públicos.

3.2. ANÁLISIS DE LOS PRESUPUESTOS PARA 2027

ACTUACIONES PREVISTAS PARA 2027

Las previsiones comunicadas por los programas para 2027 muestran, con carácter general, una orientación de continuidad y consolidación de las actuaciones desarrolladas en ejercicios anteriores.

Como ya se constataba en el Ejercicio anterior, solo una parte minoritaria de los programas plantea compromisos o líneas de actuación completamente nuevas.

La mayoría prevé mantener los objetivos y medidas ya incorporados, introduciendo ajustes, ampliaciones o mejoras relacionadas con las necesidades identificadas y con la experiencia obtenida en su aplicación.

Esta continuidad no implica necesariamente una ausencia de avance. El mantenimiento de medidas transversales y actuaciones directas permite consolidar su incorporación a la actividad ordinaria de los programas y favorecer que la perspectiva de género no dependa exclusivamente de intervenciones puntuales.

Jarraitasun horrek emaitza iraunkorrak ekar ditzan, bereziki garrantzitsua da hura jarraipen-, ebaluazio- eta hobekuntza-tresnekin osatzea.

Para que esta continuidad produzca resultados sostenidos, resulta especialmente relevante acompañarla de instrumentos de seguimiento, evaluación y mejora.

2027rako aurreikuspenak, batez ere, honako jarduketa-ildo hauetan biltzen dira:

Las previsiones para 2027 se concentran principalmente en las siguientes líneas:

Berdintasunari lotutako klausulak, baldintzak eta irizpideak mantendu eta indartzea kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan eta kudeaketarako gainerako tresnetan.

El mantenimiento y refuerzo de cláusulas, condiciones y criterios de igualdad en contratos, subvenciones, convenios y otros instrumentos de gestión.

Sexuaren arabera bereizitako datuak biltzeko eta tratatzeko sistemak hobetzea, bai eta jarduketen emaitzak hobeto ezagutzeko aukera emango duten adierazleak txertatzea edo berrikustea ere.

La mejora de los sistemas de recogida y tratamiento de datos desagregados por sexo, así como la incorporación o revisión de indicadores que permitan conocer mejor los resultados de las actuaciones.

Azterlanak, inkestak, memoriak eta ebaluazioak erabiltzea, premia espezifikoak identifikatzeko, erabakiak bideratzeko eta zerbitzuen plangintza hobetzeko.

La utilización de estudios, encuestas, memorias y evaluaciones para identificar necesidades diferenciadas, orientar las decisiones y mejorar la planificación de los servicios.

Berdintasunaren, erantzunkidetasunaren, indarkeria matxistaren prebentzioaren eta genero-ikuspegiaren aplikazioaren arloko prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerei eustea eta horiek zabaltzea, bai Foru Aldundiko langileen artean, bai erakunde eta zerbitzu laguntzaileetan.

La continuidad y ampliación de la formación y sensibilización en igualdad, corresponsabilidad, prevención de la violencia machista y aplicación de la perspectiva de género, tanto entre el personal de la Diputación como en entidades y servicios colaboradores.

Segurtasunarekin, irisgarritasunarekin, zaintzekin, kontziliazioarekin eta autonomia pertsonalarekin lotutako beharrei hobeto erantzuteko, zerbitzuak, baliabideak eta azpiegiturak pixkanaka egokitzea.

La adaptación progresiva de servicios, recursos e infraestructuras para responder mejor a las necesidades relacionadas con la seguridad, la accesibilidad, los cuidados, la conciliación y la autonomía personal.

Emakumeei eta neskei berariaz zuzendutako jarduketei eustea, bereziki indarkeria matxistaren biktimen arretan, gizarteratzean, enpleguan, ekintzailetzan, lidergoan, kirolean eta partaidetzan.

El mantenimiento de actuaciones dirigidas específicamente a mujeres y niñas, especialmente en los ámbitos de la atención a víctimas de violencia machista, la inclusión social, el empleo, el emprendimiento, el liderazgo, el deporte y la participación.

Emakumeek oraindik ordezkaritza txikia duten eremuetan haien ikusgarritasuna eta partaidetza hobetzea, bai eta estereotipoak ezabatzera eta balio-aldaketa sustatzera bideratutako neurriak txertatzea ere.

Ildo orokor horien barruan, programa batzuek hobekuntza zehatzak aurreikusten dituzte gizarte-baliabideen egokitzapen eta hedapenarekin, hautaketa-prozeduren berrikuspenarekin, prestakuntza teknikoarekin, azpiegituren egokitzapenarekin, mugikortasun jasangarriarekin, bide-segurtasunarekin, jarduketa turistikoen jarraipenarekin, emakume ekintzaileen sustapenarekin eta genero-analisia azterlan eta lan tekniko berrietan txertatzearekin lotuta.

Beste kasu batzuetan, aurreikuspenek dagoeneko ezarrita dauden jarduketei eustea dute ardatz; ez da funtsezko aldaketarik aurreikusten, baizik eta aurreko ekitaldietan txertatutako helburuei, jarduketa-ildoei eta neurriei jarraipena ematea.

Emakumeei bereziki zuzendutako programek zuzeneko gastuaren aurrekontuaren %54 inguru biltzen dute, eta gehienak honako sail hauetan daude:

- Gizarte Ekintza.
- Euskara, Kultura eta Kirola.
- Ekonomia sustapena.
- Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna.

2027. urterako programako emaitza orokorrei dagokienez, ondoko faktore positibo hauek azpimarratu behar dira:

Garrantzitsua da genero-arrakaletan eragiten duten eta horietan lan egiten duten jarduketek beren jarduketei eustea; izan ere, eragina positiboa izateaz gain, iraunkorra ere izango dela bermatzen du horrek.

La mejora de la visibilidad y participación de las mujeres en ámbitos en los que continúan estando infrarrepresentadas, así como la incorporación de medidas dirigidas a eliminar estereotipos y favorecer el cambio de valores.

Dentro de estas líneas generales, algunos programas concretan mejoras relacionadas con la adaptación y ampliación de recursos sociales, la revisión de procedimientos de selección, la formación técnica, la adecuación de infraestructuras, la movilidad sostenible, la seguridad vial, el seguimiento de las actuaciones turísticas, el apoyo a mujeres emprendedoras y la incorporación del análisis de género a nuevos estudios y trabajos técnicos.

En otros casos, las previsiones se centran en mantener las actuaciones ya implantadas, sin introducir modificaciones sustanciales sino dando continuidad a los objetivos, líneas de actuación y medidas incorporadas en ejercicios anteriores.

Los programas que están especialmente dirigidos a mujeres acumulan alrededor del 54 % del presupuesto de gasto directo y se encuentran en su mayoría en los siguientes departamentos:

- Acción Social.
- Euskera, Cultura y Deporte.
- Promoción Económica.
- Empleo, Inclusión Social e Igualdad.

Respecto a los resultados generales de los programas para 2027, destacan los siguientes factores positivos:

Es relevante que las actuaciones que inciden en la existencia de brechas de género y trabajan en ellas, mantengan sus actuaciones, ya que garantiza que el impacto sea no sólo positivo sino duradero en el tiempo.

Tartean sartzen ez diren programa asko kudeaketa-gomendioko edo -laguntzako programak dira..

Kasu batzuetan, Europa edo Estatuko araudiari lotutako programak dira, aldaketak egiteko gaitasunik gabekoak.

Buena parte de los programas que no se consideran implicados, son programas de encomienda o apoyo a la gestión.

En algunos casos son programas sujetos a normativa y reglamentación europea o estatal, sin capacidad para introducir cambios.

3.3. EMAITZAK SAILEN ARABERA

02. INGURUNE NATURALA ETA NEKAZARITZA

Sailaren jarduera nagusiki landa-ingurunera eta lehen sektorera bideratzen da, bai eta baliabide naturalen eta ingurumen-baliabideen erabiltzaile diren udalerrietara, elkarteetara eta herritarrengana ere

Berdintasunaren arloko gastu zuzena landa-inguruneko emakumeen elkartegintza eta ahalduntzea indartzera bideratutako hiru dirulaguntza izendunen bidez gauzatzen da.

Horiekin batera, zeharkako jarduketak kontratuetan eta dirulaguntzetan txertatutako klausulen eta balorazio-irizpideen bidez egituratzen dira, baita sexuaren arabera bereizitako datuen tratamenduaren, ordezkaritza orekatuaren eta komunikazio inklusiboaren bidez ere.

Bereziki nabarmentzekoak dira landa-garapenaren, basogintzako laguntzen, ekoizpenaren eta osasunaren, bai eta ehizaren eta arrantzaren arloko jardun-ildoak ere. Azpimarratzekoa da, halaber, Ingurumen Azpiegituren programa, berdintasun-neurriak txertatzen baititu kontratazio publikoan, ingurumen-zerbitzuen kudeaketan eta sexuaren arabera bereizitako informazioa biltzeko sistemetan.

Ezagutzaren arloan, honako tresna hauek jasotzen dira: hondartzetako erabiltzaileen gogobetetze-inkesta, Bizkaiko Hondakinen Behatokia eta Parketxeetako bisitariei buruzko datuak.

3.3. RESULTADOS POR DEPARTAMENTO

02. MEDIO NATURAL Y AGRICULTURA

La actividad del Departamento se dirige principalmente al medio rural y al sector primario, así como a los municipios, asociaciones y ciudadanía usuaria de los recursos naturales y ambientales.

El gasto directo en igualdad se canaliza a través de tres subvenciones nominativas destinadas a reforzar el asociacionismo y el empoderamiento de las mujeres del medio rural.

Junto a ellas, las actuaciones transversales se articulan mediante cláusulas y criterios de valoración en contratos y subvenciones, tratamiento de datos desagregados por sexo, representación equilibrada y comunicación inclusiva.

Destacan especialmente las líneas de desarrollo rural, ayudas forestales, producción y sanidad, y caza y pesca. Cabe subrayar el programa de Infraestructuras Ambientales, que incorpora medidas de igualdad en la contratación pública, la gestión de servicios ambientales y la recopilación de información desagregada por sexo.

En materia de conocimiento, se recogen instrumentos como la encuesta de satisfacción de las personas usuarias de playas, el Observatorio de Residuos de Bizkaia y los datos de visitantes de los Parketxes.

Iturri horiek oinarri baliagarria eskaintzen dute emakumeek eta gizonek ingurumen-baliabide eta -zerbitzuetan duten parte-hartzea eta sarbidea sakonago aztertzeko.

2027ari begira, berritasun nagusiak sailaren berrantolaketarekin eta klima-aldaketari nahiz ingurumen-jasangarritasunari lotutako politiketan genero-adierazleak eta genero-analisia txertatzea indartzearekin lotuta daude. Era berean, kontratazio eta dirulaguntza berrietan dagoeneko txertatutako neurriak mantentzea aurreikusten da.

Era berean, sexuaren araberako analisiari eta energia-jasangarritasunarekin lotutako adierazleei dagokienez aurrerapausoak iragartzen dira, bai eta parte-hartzea eta ahalduntzea indartzera bideratutako Urdaibai, Aranzadi eta ingurumen-hezkuntzako jarduketetan ere.

Estas fuentes ofrecen una base útil para profundizar en el análisis de la participación y el acceso de mujeres y hombres a los recursos y servicios ambientales.

De cara a 2027, las principales novedades se vinculan a la reorganización departamental y al refuerzo de la incorporación de indicadores y análisis de género en las políticas relacionadas con el cambio climático y la sostenibilidad ambiental. Así mismo, se prevé mantener las medidas ya incorporadas en las nuevas contrataciones y subvenciones.

Asimismo, se anuncian avances en el análisis por sexo y los indicadores relacionados con la sostenibilidad energética, y en actuaciones de Urdaibai, Aranzadi y educación ambiental orientadas a reforzar la participación y el empoderamiento.

03. GIZARTE EKINTZA

Sailaren programek hainbat kolektibori ematen diete arreta, besteak beste, adineko pertsonei, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonei, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeei eta haien familiei, bai eta prestazioen eta laguntza-zerbitzuen onuradun diren pertsonei ere.

Adinari, zaintzei, diru-sarrerei, desgaitasunari eta familia-erantzukizunei lotutako desberdintasunek genero-ikuspegia bereziki garrantzitsua izatea eragiten duten esparruak dira.

Berdintasunaren arloko zuzeneko gastua mendekotasun-egoeran dauden pertsonei arreta emateko zerbitzuetan aplikatutako berdintasun-klausulen jarraipenean biltzen da nagusiki. Jarduketa horren helburua da zerbitzua ematen duten erakundeek aukera-berdintasunarekin, kontziliazioarekin, jazarpenaren prebentzioarekin eta genero-ikuspegia beren jardueran txertatzearekin lotutako neurriak aplikatzen dituztela bermatzea. Aurrekontu-pisu mugatua izan arren, eragin nabarmena du oso feminizatuta dagoen eta zaintzen hornidurarekin estuki lotuta dagoen sektore batean.

03. ACCIÓN SOCIAL

Los programas del Departamento atienden, entre otros colectivos, a personas mayores, personas con dependencia o discapacidad, menores en situación de desprotección y sus familias, así como a personas beneficiarias de prestaciones y servicios de apoyo.

Son ámbitos en los que las diferencias en longevidad, cuidados, ingresos, discapacidad y responsabilidades familiares hacen especialmente relevante la perspectiva de género.

El gasto directo en igualdad se concentra en el seguimiento de cláusulas de igualdad aplicadas a los servicios de atención a personas en situación de dependencia. Esta actuación tiene como finalidad garantizar que las entidades prestadoras incorporen medidas relacionadas con la igualdad de oportunidades, la conciliación, la prevención del acoso y la integración de la perspectiva de género en su actividad. Aunque su peso presupuestario es reducido, incide en un sector altamente feminizado y estrechamente vinculado a la provisión de cuidados.

Aitzitik, sailaren ekarpenaren zatirik handiena genero-ikuspegia itunetan, hitzarmenetan, kontratuetan, prestazio ekonomikoetan eta plangintza- eta ebaluazio-sistemetan zeharka txertatzearen bidez egituratzen da. Bereziki nabarmentzekoak dira iraupen luzeko zaintzekin, zaintzaileekin, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonen arretarekin, haurren babesarekin eta balorazio- eta orientazio-prozesuetan genero-ikuspegia txertatzearekin lotutako jarduketak.

En contraste, el grueso de la contribución del departamento se articula mediante la incorporación transversal de la perspectiva de género en conciertos, convenios, contratos, prestaciones económicas y sistemas de planificación y evaluación. Destacan especialmente las actuaciones relacionadas con los cuidados de larga duración, las personas cuidadoras, la atención a personas dependientes y con discapacidad, la protección a la infancia y la incorporación de la perspectiva de género en los procesos de valoración y orientación.

Azterlanen eta estatistiken arloan, nabarmentzekoak dira Haurtzaroaren memoriak eta 50 urteko eta hortik gorako pertsonen Gizarte Premiei buruzko Inkesta; izan ere, tresna horiek aukera ematen dute biztanleriaren beharren gaineko ezagutza sakontzeko eta politika publikoen diseinua nahiz orientazioa hobetzeko.

En el ámbito de los estudios y estadísticas destacan las memorias de Infancia y la Encuesta de Necesidades Sociales de Personas de 50 y más años, que permiten ampliar el conocimiento sobre las necesidades de la población y orientar las políticas públicas.

2027ari begira, tresna juridikoen eta jarraipen-tresnen jarraitutasunaren eta hobekuntzaren aldeko apustuari eusten zaio.

De cara a 2027 se mantiene la línea de continuidad y mejora de los instrumentos jurídicos y de seguimiento.

Mendekotasunaren arloak hitzarmenetan berdintasunaren arloko konpromiso berriak aztertzea aurreikusten du; Bizi Luzetasunaren eta Erronka Demografikoaren arloak, bere bigarren jarduera-urtean, datuen, inpaktuaren ebaluazioaren, zaintzen, ikerketaren, autonomiaren eta parte-hartzearen esparruetan aurrerapausoak planteatzen ditu; eta Azpiegituren arloak etorkizuneko azterlanak, zabalkunde-jarduerak eta jardunaldiak txertatzen ditu bere lan-ildoen artean.

Dependencia prevé estudiar nuevos compromisos de igualdad en los convenios; Longevidad y Reto Demográfico, para su segundo año de existencia, plantea avances en datos, evaluación de impacto, cuidados, investigación, autonomía y participación; e Infraestructuras incorpora estudios futuros, difusión y jornadas entre sus líneas de trabajo.

BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA - GUFE

INSTITUTO FORAL DE ASISTENCIA SOCIAL DE BIZKAIA- IFAS

GUFE Gizarte Ekintza Sailaren menpeko erakunde autonomoa da. Xede nagusia menpekotasuna duten edo gizarte-bazterketan edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonei zuzendutako zentroak, zerbitzuak edo programak kudeatzeko tresna eragilea izatea da. Eginkizunen artean egoitzetako arreta, eguneko arreta eta komunitate-arreta nabarmentzen dira.

IFAS es un organismo autónomo dependiente del Departamento de Acción Social. Su cometido principal es ser un instrumento operativo en la gestión de centros, servicios y programas dirigidos a personas en situación de dependencia, exclusión o vulnerabilidad social. Su actividad comprende la atención residencial, diurna y comunitaria, con especial presencia de los ámbitos de infancia, discapacidad y dependencia.

Gastu zuzenaren barruan sartzen dira berdintasunaren, erantzunkidetasunaren, ahalduntzearen eta genero-indarkeriaren prebentzioaren arloko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduketak, langileei zuzenduak eta ematen den arretarekin ere lotuak. Halaber, erakundearen Berdintasunerako IV. Plana garatzeko laguntza espezializatua aurreikusten da.

El gasto directo incluye actuaciones de formación y sensibilización en igualdad, corresponsabilidad, empoderamiento y prevención de la violencia de género, dirigidas a la plantilla y vinculadas también a la atención prestada. Se contempla asimismo el apoyo especializado para el desarrollo del IV Plan de Igualdad de la entidad.

Zeharkako neurriak nagusiki Haurtzaroaren arloko hitzarmenetan eta zerbitzuetan biltzen dira, eta, neurri txikiagoan, desgaitasuna duten pertsonei zuzendutakoetan.

Las medidas transversales se concentran, principalmente, en los convenios y servicios de Infancia y, en menor medida, en los dirigidos a personas con discapacidad.

Berdintasun-klausulen jarraipena, lanpostuari lotutako prestakuntza, berdintasuna hautaketa-prozesuetan txertatzea eta genero-ikuspegia txostenetan nahiz memorietan jasotzea barne hartzen dituzte.

Incluyen seguimiento de cláusulas de igualdad, formación para el puesto de trabajo, incorporación de la igualdad en procesos selectivos y presencia del enfoque de género en informes y memorias.

2027rako, GUFEk jardun-ildo horiei eustea aurreikusten du, eta, aldi berean, prestakuntza, sentsibilizazioa, erantzunkidetasuna, genero-indarkeriaren prebentzioa eta berdintasunaren arloko barne-plangintzaren garapena indartzea.

Para 2027 el IFAS prevé dar continuidad a estas líneas y reforzar la formación, la sensibilización, la corresponsabilidad, la prevención de la violencia de género y el desarrollo de su planificación interna de igualdad.

04- EUSKERA, KULTURA ETA KIROLAK

04. EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

Sailaren jarduera herritar guztiei zuzentzen zaie oro har, eta bereziki haurrei eta gazteei, kulturaren, ondarearen, euskararen, aisialdiaren, parte-hartzearen eta kirolaren bidez.

La actividad del Departamento se dirige a la ciudadanía en general y, de manera destacada, a la infancia y la juventud, a través de la cultura, el patrimonio, el euskera, el ocio, la participación y el deporte.

Genero-ikuspegia programen zati handi batean txertatuta dago, dirulaguntzei, kontratuei, hitzarmenei eta berezko jarduerei aplikatzen zaizkien irizpide eta betebeharren bidez.

La perspectiva de género está presente en buena parte de los programas mediante criterios y obligaciones aplicables a subvenciones, contratos, convenios y actividades propias.

Berdintasunean egiten den gastu zuzena “Pasa baloia, neska” proiektuan zentratzen da. Helburua emakumeen presentzia indartzea da futboleko ardurak dituzten karguetan eta partaidetzan.

La actuación de gasto directo más destacada es “Pasa baloia, neska”, dirigida a favorecer la captación, formación y permanencia de mujeres y niñas en el fútbol.

Bere fitxaren arabera, emakumeen parte-hartzea %120 handitu da 2021-2022 denboralditik; datu hori erreferentzia oso positiboa da neurri horren bilakaera baloratzeko.

Su ficha informa de un incremento del 120 % de la participación femenina desde la temporada 2021-2022, lo que aporta una referencia muy positiva sobre la evolución de la medida.

Zeharkako jarduketek klausulak, balorazio-irizpideak, ordezkaritza orekatua, sexuaren arabera bereizitako datuak, diskriminazioaren prebentzioa eta komunikazio inklusiboa txertatzen dituzte.

Programa horiek kultura- eta museo-arloan, liburutegi eta artxiboetan, euskararen sustapenean, ondarearen arloan, gazterian, federatutako kirolean eta udal-kirolean aplikatzen dira.

Gazteriaren eta kirolaren arloetan, gainera, parte-hartzeari eta emaitzei buruzko informazioa eskuragarri dago, eta horrek jarduketen jarraipena egitea errazten du.

2027rako ekitaldian ildo berean lan egiten jarraituko dute sailean.

Udal Kiroleko programan emakumeen presentziarekin eta ikusgarritasunarekin nahiz prestakuntza teknikoarekin lotutako hobekuntzak planteatzen dira; Aisialdiko Kiroleko programan, berriz, ñabardura berriak txertatzen dira neskei eta haurren babesari bereziki zuzenduta.

Las actuaciones transversales incorporan cláusulas, criterios de valoración, representación equilibrada, datos por sexo, prevención de la discriminación y comunicación inclusiva.

Se aplican en programas culturales y museísticos, bibliotecas y archivos, promoción del euskera, patrimonio, juventud, deporte federado y deporte municipal.

En juventud y deporte se dispone, además, de información de participación y resultados, lo que facilita el seguimiento.

Para 2027 se prevé mantener las principales líneas de trabajo.

En Deporte Municipal se plantean mejoras relacionadas con la presencia y visibilidad de las mujeres y la formación técnica; en Deporte Recreativo se introducen matices orientados a las niñas y a la protección de la infancia.

05. OGASUNA ETA FINANTZAK

Sailaren jardueraren zati esanguratsu bat barne-funtzionamendura eta zerga-, finantza- nahiz ondare-kudeaketara bideratzen da.

Esparru horretan, berdintasuna nagusiki zeharka txertatzen da, prozeduren, kontratazioaren, informazioaren ekoizpenaren eta erabiltzaileei ematen zaien arretaren bidez.

Garatutako jarduketen artean nabarmentzekoak dira kontratuetan berdintasun-irizpideak eta -klausulak txertatzea, sexuaren arabera bereizitako gogobetetze-inkestak egitea, hobekuntza-proposamenak jasotzen dituzten txosten espezifikoak prestatzea eta genero-ikuspegia zenbait lan teknikotan txertatzea.

05. HACIENDA Y FINANZAS

Una parte relevante de la actividad del Departamento se destina al funcionamiento interno y a la gestión tributaria, financiera y patrimonial.

En este marco, la incorporación de la igualdad se produce fundamentalmente de manera transversal, a través de los procedimientos, la contratación, la producción de información y la atención a las personas usuarias.

Entre las actuaciones desarrolladas destacan la inclusión de criterios y cláusulas de igualdad en contratos, las encuestas de satisfacción desagregadas por sexo, la elaboración de informes específicos con propuestas de mejora y la incorporación de la perspectiva de género en determinados trabajos técnicos.

Era berean, neurriak aplikatzen dira Europako Gaiak, Katastroa eta Balorazioa, Ondarearen Kudeaketa, Arriskuen Prebentzioa, Antolaketa eta Argitalpenak nahiz Zerga Politika programei lotutako jarduketetan.

Sailak ezagutza sortzeko gaitasun bereziki esanguratsua du zerga-arloan.

Aitorpena egiten duen pertsonaren sexuaren arabera ustiatutako PFEZaren datuek desberdintasunak identifikatzeko aukera ematen dute, eta arauen, zerbitzuen eta zerga-erabakien ebaluaziorako lagungarri izan daitezke.

Horri gehitzen zaizkio genero-inpaktuaren aurretiazko txostenak eta kontratazioari nahiz auditoretzari lotutako kontrol-eginkizunak.

2027ari begira, jarraitutasuneko ildo bati eustea planteatzen da, dagoeneko txertatutako neurriak mantenduz eta genero-ikuspegia azterlanen eta lan teknikoen kontratuetan txertatzen aurrera eginez, bai eta eskuragarri dagoen informazioa zerbitzuen jarraipena egiteko eta hobekuntzak sustatzeko erabiltzen ere.

06 - GARRAIOAK, MUGIKORTASUNA ETA TURISMOA

Sailaren eskumenak hiri- eta landa-biztanleriari, garraio publikoaren eta mugikortasun-azpiegituren erabiltzaileei, bai eta turismo-sektoreari eta turismo-zerbitzuen erabiltzaile diren pertsonei ere zuzentzen zaizkie.

Joan-etorrien ereduen, zaintzen, segurtasunaren eta irisgarritasunaren arloko desberdintasunak funtsezko alderdiak dira esparru horietan genero-ikuspegia txertatzeko.

Sailak genero-ikuspegia batez ere zeharkako neurrien bidez txertatzen du, Bizkaibusen kontratu eta zerbitzuetan, garraio-azpiegituretan, bizikleta bidezko mugikortasunean eta turismoaren arloko laguntza eta jarduketetan.

También se aplican medidas en programas de Asuntos Europeos, Catastro y Valoración, Gestión del Patrimonio y Prevención de Riesgos, Organización y Publicaciones y Política Fiscal.

El Departamento dispone de una capacidad de conocimiento especialmente relevante en el ámbito fiscal.

La explotación del IRPF por sexo de la persona declarante permite identificar diferencias y puede servir de apoyo a la evaluación de las normas, los servicios y las decisiones tributarias.

A ello se añaden los informes previos de impacto de género y las funciones de control vinculadas a la contratación y la auditoría.

Para 2027 se plantea una línea continuista, manteniendo las medidas incorporadas y avanzando en la inclusión de la perspectiva de género en los contratos de estudios y trabajos técnicos, así como en la utilización de la información disponible para el seguimiento y la mejora de los servicios.

06. TRANSPORTES, MOVILIDAD Y TURISMO

Las competencias del Departamento alcanzan a la población urbana y rural, a las personas usuarias del transporte público y de las infraestructuras de movilidad, y al sector y las personas usuarias de los servicios turísticos.

Las diferencias en pautas de desplazamiento, cuidados, seguridad y accesibilidad son aspectos relevantes para la integración de la perspectiva de género en estos ámbitos.

El Departamento la incorpora principalmente mediante medidas transversales en los contratos y servicios de Bizkaibus, las infraestructuras de transporte, la movilidad ciclista y las ayudas y actuaciones turísticas.

Klausulak, datu bereiztuak, balorazio-irizpideak, erakunde onuradunentzako betebeharrak eta segurtasunarekin nahiz irisgarritasunarekin lotutako neurriak txertatzen dira.

Se incorporan cláusulas, datos desagregados, criterios de valoración, obligaciones para entidades beneficiarias y medidas relacionadas con la seguridad y la accesibilidad.

Nabarmentzekoa da Bizkaibus zerbitzuaren kalitateari buruzko azterlana; izan ere, generoari buruzko eranskin bat eta gogobetetzeari, erabilerari eta zaintzekin lotutako beharrei buruzko adierazleak jasotzen ditu.

Destaca el estudio de calidad del servicio Bizkaibus, que incluye un anexo de género e indicadores sobre satisfacción, uso y necesidades vinculadas a los cuidados.

Era berean, bereziki aipagarria da emakumeen segurtasun-sentsazioa hobetzeko diseinatutako markesinen ekimena.

También resulta relevante el diseño de marquesinas orientado a mejorar la seguridad percibida por las mujeres.

Turismoaren arloan, Turismo Behatokiak eta Turismo Adimeneko Sistemak genero-ikuspegia txertatzen dute, bai beren xedean, bai informazioa diseinatzeko moduan.

En Turismo, el Observatorio Turístico y el Sistema de Inteligencia Turística integran el género en el objeto y en el diseño de la información.

2027ari begira, dauden jardun-ildoei eustea aurreikusten da, eta genero-ikuspegia turismoaren arloko jarduketen jarraipenean txertatzen aurrera egitea.

Para 2027 se prevé mantener las líneas existentes e incorporar el enfoque de género al seguimiento de las actuaciones turísticas.

Mugikortasunaren arloan, genero-ikuspegia bide berdeekin eta mugikortasun jasangarriarekin lotutako proiektuetan eta obretan aplikatzea aurreikusten da.

En Movilidad se contempla su aplicación en proyectos y obras vinculados a vías verdes y a la movilidad sostenible.

07 - HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

07. ADMINISTRACIÓN. PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES

Sailaren jarduerak herritar guztiei zuzenduta daude, bai arretarako kanalen bitartez, bai lurraldeko udalei eta BFAren langileei ere.

La actividad departamental se dirige al conjunto de la ciudadanía, los ayuntamiento y entidades del territorio y al personal de la Diputación Foral de Bizkaia.

Horregatik, berdintasun-helburuak zerbitzu publikoen kudeaketan ez ezik, enpleguan, prestakuntzan, hautaketa-prozesuetan, herritarren arretan, komunikazioan eta kontratazioan ere txertatzen dira.

Por ello, los objetivos de igualdad se incorporan tanto en la gestión de los servicios públicos como en el empleo, la formación, la selección, la atención ciudadana, la comunicación y la contratación.

Gastu zuzena Langileen programan biltzen da nagusiki, berdintasunaren arloko berariazko nahiz zeharkako prestakuntza-ekintzen bidez, baita hautaketa-prozesuetako proba fisikoei lotutako neurrien bidez ere.

El gasto directo se concentra en el programa de Personal, con acciones de formación específica y transversal en igualdad y medidas vinculadas a las pruebas físicas de selección.

Jarduketa horiek enplegurako sarbidea eta sustapen profesionala arautzen dituzten neurriekin, lan-osasunaren arloko ekintzekin eta kontziliaziora nahiz erantzunkidetasunera bideratutako aurrekontu-kredituarekin osatzen dira.

Estas actuaciones se complementan con la regulación del acceso y la promoción profesional, la salud laboral, y el crédito destinado a la Conciliación y la corresponsabilidad.

Zeharkako neurriak Digitalizazioaren eta Herritarren Arretaren, Administrazio Orokorraren, erakunde arteko koordinazioaren, Gobernu Onaren eta Gardentasunaren, Bizkaiko Behatokiaren (sortu berri den programa), komunikazioaren, garraio-zerbitzuen eta Suhiltzaileen Parkearen programetan txertatzen dira.

Las medidas transversales se incorporan en la Digitalización y Atención ciudadana, la Administración general, la coordinación institucional, el Buen Gobierno y la Transparencia, el Observatorio de Bizkaia, programa de nueva creación, la comunicación, los servicios de transporte y el Parque de Bomberos.

Kontratu-klausulen, sexuaren arabera bereizitako datuen bilketaren, parte-hartze orekatuaren, komunikazio inklusiboaren eta zerbitzuen nahiz azpiegituren egokitzapenaren bidez aplikatzen dira.

Se aplican a través de cláusulas contractuales, la recogida de datos desagregados, la participación equilibrada, la comunicación inclusiva y la adaptación de servicios e infraestructuras.

2027ari begira, aurrerapen zehatzak aurreikusten dira suhiltzaileen parkearen egokitzapenean eta Langileen programan; besteak beste, prestakuntza zabaltzea, hautaketa-probetan berrikuspenak egitea eta berdintasun-irizpideetan oinarritutako praktika-programa garatzea.

Para 2027 se plantean avances concretos en la adaptación de los parques de bomberos y en el programa de Personal, con ampliación de la formación, la revisión de las pruebas selectivas y el desarrollo del programa de prácticas con criterios de igualdad.

Era berean, erantzunkidetasunaren arloan gizonen parte-hartzea sustatzeko eta sentsibilizatzeko jarduketekin jarraituko da.

También se mantiene el impulso y sensibilización a la participación de los hombres en materia de corresponsabilidad.

08 - EKONOMIA SUSTAPENA

08. PROMOCIÓN ECONÓMICA

Sailak berdintasuna txertatzen du berrikuntzari, lehiakortasunari, ekintzailetzari, enpresa-sustapenari, nazioartekotzeari eta eskualde-garapenari laguntzeko tresnetan.

El Departamento incorpora la igualdad en los instrumentos de apoyo a la innovación, la competitividad, el emprendimiento, la promoción empresarial, la internacionalización y el desarrollo comarcal.

Foru-araudian aurreikusitako betebeharrak dirulaguntzetara, hitzarmenetara eta kontratuetara eramaten dira, balorazio-irizpideen, parte hartzeko baldintzen, sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa eta tratamenduaren, eta ebaluazio-organoen osaera orekatuaren bidez.

Las obligaciones previstas en la normativa foral se trasladan a subvenciones, convenios y contratos mediante criterios de valoración, condiciones de participación, recogida y tratamiento de los datos desagregados por sexo y la composición equilibrada de los órganos evaluadores.

Gastu zuzeneko jarduketak emakumeen lidergoa, ikusgarritasuna, sareak eta enpresa-erabakiak hartzeko guneetan duten presentzia sustatzera bideratuta daude.

Horien artean daude Enpresan Bardin programa, enpresaburu eta zuzendariei lotutako aitortzak, emakumeek bultzatutako enpresa-proiektuak ikusgarri egiteko laguntzak eta eskualde-garapenean emakumeen lidergoa sustatzeko ekimenak.

Genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna berrikuntzari eta enpresa-sustapenari laguntzeko programetan, ekintzailetzan, talentuaren sustapenean, partaidetutako sozietateetan, kanpo-sustapenean eta eskualde-planetan txertatzen da.

Ezagutzaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko GEM azterlanak sexuaren aldagaia txertatzen du, eta ekintzailetza-jardueran emakumeen eta gizonen artean dauden aldeak aztertzeko aukera ematen du.

2027rako, Sailak aurreikusten du martxan dauden jarduketak mantendu eta sendotzea, jarraipena emanez bai emakume enpresariei bereziki zuzendutako neurriei, bai laguntza ekonomikorako tresna orokorretan txertatutako berdintasun-betebeharrei.

09 - ENPLEGUA, GIZARTE-KOHESIOA ETA BERDINTASUNA

Sailak bere jarduera berdintasunarekin, indarkeriarik ezarekin, gizarteratzearekin, enpleguarekin, aniztasunarekin eta gizarte-kohesioarekin zuzenean lotuta dauden esparruetan garatzen du.

Programa horiek hainbat kolektibori ematen diete arreta, besteak beste, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei, emakume gazteei eta ama gazteei, gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonei, langabeei eta diskriminazioa pairatzeko arriskuan dauden kolektiboei.

Las actuaciones de gasto directo se orientan al liderazgo, la visibilidad, las redes y la presencia de mujeres en los espacios de decisión empresarial.

Entre ellas se encuentran Enpresan Bardin, los reconocimientos vinculados a empresarias y directivas, las ayudas para visibilizar proyectos empresariales impulsados por mujeres y las iniciativas de promoción del liderazgo femenino en el desarrollo comarcal.

La transversalidad se incorpora en los programas de ayudas a la innovación y la promoción empresarial, el emprendimiento, el talento, las sociedades participadas, la promoción exterior y los planes comarcales.

En el ámbito del conocimiento, el estudio GEM del País Vasco incorpora la variable sexo y permite observar diferencias por sexo en la actividad emprendedora.

Para 2027 el Departamento prevé mantener y consolidar las actuaciones en curso, dando continuidad tanto a las medidas específicas dirigidas a mujeres empresarias como a los requisitos de igualdad incluidos en los instrumentos generales de apoyo económico.

09. EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD

El Departamento desarrolla su actividad en ámbitos directamente relacionados con la igualdad, la ausencia de violencia, la inclusión social, el empleo, la diversidad y la cohesión social.

Sus programas atienden, entre otros colectivos, a mujeres víctimas de violencia machista y a sus hijas e hijos, mujeres jóvenes y madres jóvenes, personas en situación o riesgo de exclusión, personas desempleadas y colectivos expuestos a discriminación.

Berdintasun programak eginkizun estrategiko eta zeharkakoa betetzen du Bizkaiko Foru Aldundi osoarentzat.

Bere jarduera foru-politiketan berdintasuna txertatzea sustatzera eta sailen plangintzan, programetan eta ohiko jardunean integratzea erraztera bideratzen da, prestakuntzaren, aholkularitzaren, laguntza teknikoaren eta tresna komunen garapenaren bidez.

Gastu zuzenak pisu esanguratsua du, eta batez ere berdintasunaren sustapenean, indarkeriaren biktimei babesa eta arreta ematean, emakumeentzako egoitza- eta eguneko baliabideetan, ama gazteei ematen zaizkien laguntzetan eta gizarteratzea nahiz gizarte-kohesioa sustatzeko beste jarduketa batzuetan biltzen da; baita Bizkaian indarkeria matxistaren errealitatea ezagutzera bideratutako ekimenetan ere.

Herritarrei zuzendutako neurriek arreta espezializatua, laguntza eta akonpainamendua, ostatu-ematea, prestakuntza, prebentzioa eta autonomia nahiz gizarteratze-prozesuei laguntzeko ekintzak uztartzen dituzte.

Genero-ikuspegia zeharka ere txertatzen da, herritarrei zuzendutako neurrien bidez, sarbide- eta puntuazio-irizpideen, dirulaguntza, kontratu eta hitzarmenetako klausulen, ordezkaritza orekatuaren, datu eta adierazleen, komunikazio inklusiboaren eta artatutako biztanleriaren jarraipenaren bitartez.

Enpleguaren eta Ekintzailetzaren, Gizarteratzearen eta Gizarte Kohesioaren programek sexuaren aldagaia eta genero-analisia txertatzen dituzten jarduketa eta azterlan ugari biltzen dituzte.

2027rako, programen orientazio orokorrari eusten zaio.

Gizarteratzearen programan, baliabideetarako sarbidean eta haien egokitzapenean hobekuntzak aurreikusten dira, bai eta Askabide Askarri zerbitzuan ere; beste jarduketa batzuek, berriz, hezkuntza-indartzea eta ama gazteentzako nahiz haien seme-

El programa de Igualdad ejerce una función estratégica y transversal para el conjunto de la Diputación Foral de Bizkaia.

Su actividad se orienta a impulsar la integración de la igualdad en las políticas forales y a facilitar su incorporación en la planificación, los programas y la actividad ordinaria de los departamentos, mediante formación, asesoramiento, acompañamiento técnico y creación de herramientas comunes.

El gasto directo tiene un peso destacado y se concentra principalmente en la promoción de la Igualdad, la protección y atención a víctimas de violencia, los recursos residenciales y diurnos para mujeres, los apoyos a madres jóvenes y otras actuaciones de inclusión y cohesión social, así como al conocimiento de la realidad de la violencia machista en Bizkaia.

Las medidas hacia la ciudadanía combinan la atención especializada, el acompañamiento, alojamiento, la formación, la prevención y el apoyo a procesos de autonomía e inclusión.

La perspectiva de género se incorpora también de manera transversal mediante criterios de acceso y puntuación, cláusulas en subvenciones, contratos y convenios, representación equilibrada, datos e indicadores, comunicación inclusiva y seguimiento de la población atendida.

Los programas de Empleo y Emprendimiento, Inclusión Social y Cohesión Social reúnen un conjunto amplio de actuaciones y estudios que incorporan la variable sexo y el análisis de género.

Para 2027 se mantiene la orientación general de los programas.

En Inclusión Social se prevén mejoras en el acceso y la adaptación de los recursos, así como en el servicio Askabide Askarri; otras actuaciones contemplan el refuerzo educativo y la ampliación de plazas para madres jóvenes y sus hijas e hijos.

alabentzako plaza kopurua handitzea aurreikusten dute.

10 - AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA

Sailaren jarduerak biztanleria osoarengan du eragina, eta, bereziki, lurraldeko udalerriengan.

Sailaren eskumenek hirigintza-plangintza, errepideak, bide-segurtasuna, bizikleta bidezko mugikortasuna eta azpiegiturak hartzen dituzte barne; esparru horiek aukera garrantzitsua eskaintzen dute eguneroko bizitzarekin, zaintzekin, segurtasunarekin, irisgarritasunarekin eta ekipamendu zein zerbitzuetarako sarbidearekin lotutako beharrak kontuan hartzeko.

Berdintasuna nagusiki zeharka txertatzen da, kontratuetan ezarritako exekuzio-baldintza berezien eta klausulen, sexuaren arabera bereizitako datuen bilketaren, inpaktu-memorien eta generoaren aldez aurreko ebaluazioen bidez.

Neurri horiek errepide-sarearen kudeaketan eta hobekuntzan, berrikuntzan eta ustiapenean, bide-segurtasunean, errepidez kanpoko azpiegituretan eta laguntza teknikoetan aplikatzen dira.

Lurralde Antolamenduaren eta Hiri Plangintzaren programak genero-ikuspegiaren garapen sakonena aurkezten du:

Genero-ikuspegia Lurralde Plan Partzialetan, 7.000 biztanletik beherako udalerrientzako dirulaguntzetan eta plangintza nahiz kartografia tresnetan txertatzen du.

Egokitzapenaren zain dauden plangintza-tresnak dituzten 59 udalerri identifikatzeak interes bereziko lurralde-lankidetzarako ildo bat garatzeko aukera ematen du.

2027rako, kontratazio eta jarduketa berrietan berdintasun-klausulak eta -betebeharrak txertatzen jarraitzea aurreikusten da.

10. INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

La actividad del Departamento incide en el conjunto de la población y, de manera específica, en los municipios del territorio.

Sus competencias en planificación urbana, carreteras, seguridad vial, movilidad ciclable e infraestructuras ofrecen un campo relevante para considerar las necesidades de la vida cotidiana, los cuidados, la seguridad, la accesibilidad y el acceso a equipamientos y servicios.

La incorporación de la igualdad se realiza fundamentalmente de manera transversal mediante condiciones especiales de ejecución y cláusulas en contratos, recogida de datos desagregados, memorias de impacto y evaluaciones previas de género.

Estas medidas están presentes en la gestión y mejora de la red viaria, la innovación y explotación, la seguridad vial, las infraestructuras no viarias y las asistencias técnicas.

Ordenación Territorial y Planificación Urbana presenta el desarrollo más sustantivo del enfoque:

Integra la perspectiva de género en los Planes Territoriales Parciales, en subvenciones a municipios de menos de 7.000 habitantes y en instrumentos de planeamiento y cartografía.

La identificación de 59 municipios con planeamiento pendiente de adaptación permite proyectar una línea de colaboración territorial de especial interés.

Para 2027 se prevé mantener la incorporación de cláusulas y requisitos de igualdad en las nuevas contrataciones y actuaciones.

Halaber, hobekuntza-ildo bat irekitzen da industria-lurzoruekin eta fotogrametriarekin lotutako lanetan, bai eta bide-segurtasunari eta plangintzari buruzko azterlanak eta datuak etorkizuneko neurriak bideratzeko erabiltzean ere.

3.4. ONDORIOAK

AURREKONTUAK PRESTATZEAN ARAUDIA ZER NEURRITAN BETE DEN

Azterketatik kanpo geratzen dira zerga-eremua eta beste aurrekontu-kategoria batzuk.

Hori dena kontuan izanik, txostenak bere helburua betetzen du, 169/2014 Foru Dekretuaren d) letraren 82. artikuluan adierazten den eta beharrezkoa den analisia eginez. Foru Dekretu horrek gastu-programen ebaluazioari buruzko memoria egiteko agintzen du, horien genero-eraginaren beren-beregiko analisia eginez.

AURREKONTUARI BURUZKO ARAUA PRESTATZEAN IZANDAKO PARTAIDETZA

Bizkaiko Foru Aldundiko aurrekontuaren banaketan erabakiak hartzea, ardura maila guztietan emakumeek eta gizonek duten ordezkaritzarekin lotzen da.

Emakumeen presentzia esanguratsua da, gizarteko, politikako eta ekonomiako beste esparru batzuetan egoten dena baino handiagoa. Oro har, emakumeen presentziaren kopuruak gora egiteko joera du sailkako karguen banaketan.

ARAUTEGIA ETA EGITURA

Foru Aldundiaren aurrekontuek generoan izan dezaketen ondoko adierazle positibo hauek mantendu dira.

Se abre asimismo una línea de mejora en los trabajos vinculados a suelos industriales y fotogrametría, así como en la utilización de estudios y datos de seguridad vial y planificación para orientar futuras medidas.

3.4. CONCLUSIONES

CUMPLIMIENTO DE LA NORMATIVA EN LA ELABORACIÓN DE LOS PRESUPUESTOS

Quedan fuera del análisis, el ámbito impositivo y otras categorías presupuestarias.

Teniendo en cuenta estas salvedades, el informe responde con su cumplimiento, realizando el análisis necesario señalado en el Artículo 82, apartado d) del Decreto Foral 169/2014, que marca realizar la memoria sobre la evaluación de los programas de gasto, haciendo un análisis expreso del impacto de género de los mismos.

PARTICIPACIÓN EN LA ELABORACIÓN DE LA NORMA PRESUPUESTARIA

La toma de decisiones en el reparto presupuestario de la Diputación Foral de Bizkaia se relaciona con la representación de mujeres y hombres en los distintos niveles de responsabilidad.

La presencia de mujeres es significativa, en mucha mayor medida de lo que sucede en otros ámbitos sociales, políticos y económicos, con una tendencia general al aumento de mujeres en cargos por departamentos.

NORMATIVA Y ESTRUCTURA

Se mantienen los siguientes indicadores positivos del posible impacto de género del presupuesto de la Diputación Foral:

GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO

Aurrekontu propioa duen foru-egitura egonkor bat egotea, Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia, Genero Politiken Idazkaritza Teknikoarekin, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko, bai barne-mailan, bai esku-hartze sozialean. Egitura hori teknikariekin indartuta 2022az geroztik, berdintasun-politiken garapena eta iraunkortasuna bultzatzen ditu.

Berdintasuna sustatzeko egitura honi dagokionez, nabarmentzekoa da Sailen arteko batzordearen funtzionamendua, Berdintasuna Taldea batzorde teknikoarena (2003az geroztik) eta sail barruko taldeak abian jartzea (2006az geroztik, 13/2008 Foru Dekretuaren bidez erregulatuak).

Bere jarduerak berdintasun-helburuen genero ikuspegia eta integrazioa zeharka lantzerakoan foru sailek duten lan-ibilbide luzea eta oparoa islatzen du.

- Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Foru Plana Berdintasun Zuzendaritzaren koordinaziopean diseinatu da, Berdintasuna Taldearen eta sail barruko batzordeen bidez sail guztien parte-hartzearekin. Planaren ardatzak Euskal Autonomia Erkidegoko Eusko Jaurlaritzaren planarekin lerrokatuta daude, eta foru sail guztiak inplikatzen ditu, bakoitzaren eskumen-eremuari lotutako berdintasun-helburuak txertatuz.

- Foru Arauaren garapena.

- Foru Arauan jasota dauden herritarren partaidetzarako eta lankidetzarako egiturak abian jartzea eta finkatzea, Bizkaiko gizarte-sarean berdintasun-helburu eta -politikak ezartzen laguntzeko:

  - Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sarea eta,.

  - Bizkaiko Emakumeen Partaidetza Kontseilua.

La existencia de una estructura foral estable con presupuesto propio, la Dirección General de Igualdad con la Secretaría Técnica de Políticas de Género, para el impulso de la igualdad de mujeres y hombres, tanto a nivel interno como de intervención social, reforzado con personal técnico desde 2022, que favorece el desarrollo y la sostenibilidad de las políticas de igualdad.

En relación a esta estructura de impulso de la igualdad, destaca el funcionamiento de la comisión interdepartamental, de la comisión técnica Berdintasuna Taldea desde 2003 y la puesta en marcha de los grupos intradepartamentales desde 2006 reguladas en el Decreto Foral 13/2008.

Su actividad refleja la larga trayectoria de trabajo de los departamentos forales para la transversalización del enfoque de género y la integración de los objetivos de igualdad.

- El VII Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bizkaia ha sido elaborado bajo la coordinación de la Dirección de Igualdad, con la participación de todos los departamentos a través de Berdintasuna Taldea y de las comisiones intradepartamentales. Sus ejes se encuentran alineados con el plan del Gobierno Vasco para la Comunidad Autónoma del País Vasco e implican al conjunto de los departamentos forales, incorporando objetivos de igualdad vinculados a sus respectivos ámbitos competenciales.

- El desarrollo de la Norma Foral.

- La puesta en marcha y afianzamiento de estructuras de participación y colaboración ciudadana establecidas en la Norma foral, que favorecen la implementación de los objetivos y las políticas de igualdad en el tejido social bizkaino:

  - La Red Territorial para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia y,

  - El Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia.

- 2003. urtetik aurrera badugula “Bizkaiko indarkeria matxistaren Behatokia”; behatoki honek errealitatearen ezagutza bideratzen du eta erakundeen barruko eta kanpoko eta adituen arteko foro moduan jarduten du.

- Genero-ikuspegidun aurrekontu-prozesu pilotua: Foru Sektore Publikoan garatutako esperientziari esker, metodologia eta tresna komun bat sortu da, irizpideak bateratuz eta parte hartzen duten erakundeen barne-gaitasunak indartuz. Genero-ikuspegidun aurrekontuak foru eremu osora pixkanaka zabaltzeko oinarria da lan hau.

- 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duenak, berdintasunerako helburuen garapena lehenesteko eta laguntzeko lege-esparru bat ematen die foru-aldundiei, gizarte-eremu guztietan.

AURREKONTUA EGITEKO PROZESUA

Ekitaldi honetan, genero-ikuspegia txertatzen duen aurrekontugintza-prozesuari jarraipena eman zaio, foru-sailetako eta GUFEko aurrekontu-programen fitxak aztertuz.

Oro har, fitxek informazio nahikoa ematen dute programen ezaugarri nagusiak, jarduketa-eremuak eta emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta beren eskumenen eta jardueren artean ezartzen duten harremana ezagutzeko.

2026rako egindako prozesuari jarraipena emanez, programa askok modu zabalean azaltzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotuta duten eskumen-esparrua, eta beren jarduketak zuzentzen dizkieten biztanle-taldeen ezaugarri eta premia nagusiak identifikatzen dituzte, bai eta garatzen dituzten jarduketa nagusiak ere.

- La existencia, desde 2003, del “Observatorio de Violencia Machista en Bizkaia”, que favorece el conocimiento de la realidad y sirve de foro de encuentro intra e interinstitucional y experto.

- Proceso piloto de presupuestación con perspectiva de género: la experiencia desarrollada en el Sector Público Foral ha permitido crear una metodología y una herramienta común, armonizando criterios y fortaleciendo las capacidades internas de las entidades participantes. Este trabajo sienta una base para extender de forma progresiva la presupuestación con perspectiva de género al conjunto del ámbito foral.

- El Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, proporciona un marco legislativo de priorización y apoyo al desarrollo de los objetivos de igualdad para las diputaciones forales, en todos los ámbitos sociales.

PROCESO DE PRESUPUESTACIÓN

En este ejercicio se ha dado continuidad al proceso de presupuestación con enfoque de género mediante el análisis de las fichas correspondientes a los programas presupuestarios de los departamentos forales y del IFAS.

En términos generales, las fichas aportan información suficiente para conocer las principales características de los programas, sus ámbitos de actuación y la relación que establecen entre sus competencias y la igualdad de mujeres y hombres.

En continuidad con el proceso previo para 2026, una parte importante de los programas desarrolla de manera amplia el contexto de sus competencias en relación con la igualdad de mujeres y hombres e identifica las principales características y necesidades de la población a la que dirige sus actuaciones, así como identifica sus principales actuaciones.

Horrek aurrekontu-jardueraren ikuspegi osoagoa izatea errazten du, eta berdintasun-neurriak txertatuta dauden jarduketa zehatzekin lotzea ahalbidetzen du.

Esto facilita una visión más completa de la actividad presupuestaria y permite relacionar las medidas de igualdad con las actuaciones concretas en las que se integran.

Fitxetan jasotzen dira bai berdintasunera berariaz bideratutako jarduketak, bai programen ohiko jardueran txertatutako zeharkako neurriak ere.

Las fichas recogen tanto actuaciones específicamente orientadas a la igualdad como medidas transversales incorporadas a la actividad ordinaria de los programas.

Azken horien irismena eta garapen-maila desberdinak dira, eskumen-eremuaren, jarduketen izaeraren eta programa bakoitzaren aurretiazko ibilbidearen arabera.

Estas últimas presentan diferente alcance y grado de desarrollo en función del ámbito competencial, la naturaleza de las actuaciones y la trayectoria previa de cada programa.

Emandako informazioak, halaber, berdintasuna txertatzeko erabiltzen diren tresnei buruzko ikuspegi zehatzagoa eskaintzen du: kontratuak, dirulaguntzak, hitzarmenak, zerbitzuak, informazio-sistemak, azterlanak, prestakuntza-jarduerak, komunikazioa eta herritarrei arreta emateko mekanismoak.

La información aportada permite disponer también de una visión más precisa de los instrumentos mediante los que se incorpora la igualdad: contratos, subvenciones, convenios, servicios, sistemas de información, estudios, actividades de formación, comunicación y atención a la ciudadanía.

Kasu askotan, programetan garatutako jarduketak, berdintasuna txertatzeko erabilitako mekanismoak eta hurrengo ekitaldian mantendu edo indartu nahi dituzten jardun-ildoak identifikatzen dira.

En numerosos casos, los programas identifican las actuaciones desarrolladas, los mecanismos empleados para integrar la igualdad y las líneas que prevén mantener o reforzar en el próximo ejercicio.

Hala ere, alde esanguratsuak mantentzen dira erantzunen betetze-mailari, zehaztasunari eta sakontasunari dagokienez.

No obstante, se mantienen diferencias significativas en el nivel de cumplimentación, precisión y profundidad de las respuestas.

Fitxa xehatu eta ondo egituratuekin batera, beste batzuek informazio orokorragoa jasotzen dute, arau-formulazioak errepikatzen dituzte edo ez dute aukera ematen adierazitako neurrien irismena behar bezain argi zehazteko.

Junto a fichas detalladas y bien estructuradas, otras presentan información más general, reproducen formulaciones normativas o no permiten determinar con suficiente claridad el alcance de las medidas señaladas.

Era berean, zenbait apartaturen betetzean gorabehera puntual batzuk atzeman dira.

También se han detectado algunas incidencias puntuales en la cumplimentación de determinados apartados.

Horien artean daude osatu gabeko taulak, eskatutako lehentasun-hurrenkeraren ordez marka edo gurutzeak erabiltzea, eta aurreikusitakoa baino kontzeptu kopuru handiagoa hautatzea.

Entre ellas se encuentran tablas incompletas, utilización de marcas o cruces en lugar de la priorización solicitada y selección de un número de conceptos superior al previsto.

Egoera horiek ez dute eragozten azterketa orokorra egitea, baina emaitzen homogeneotasuna eta alderagarritasuna murrizten dituzte.

Fitxak aukera ematen jarraitzen du programek beren jarduketak modu sistematikoan berrikusteko, generoaren arloko balizko inplikazioak identifikatzeko eta dagoeneko aplikatzen dituzten edo txerta ditzaketen neurriak zehazteko.

Fitxaren erabilgarritasuna handiagoa da emandako informazioak diagnostikoa, jarduketak, baliabideak eta hobekuntzarako aurreikuspenak modu argi eta koherentean lotzen dituenean.

Oro har, prozesua finkatuta dago, eta genero-ikuspegia aurrekontu-jardueran txertatzeari buruzko informazio zabala eskuratzea ahalbidetzen du.

HOBETU BEHARREKO EREMUAK

Prozesua hobetzeko, komenigarria litzateke fitxen betetzean homogeneotasuna eta erantzunen zehaztasuna indartzen jarraitzea, bai eta fitxak plangintza, jarraipen eta ebaluaziorako tresna eraginkor gisa gehiago baliatzea ere.

Hori erabiltzea, geroko azterketarekin batera, funtsezkoa da genero-ikuspegia duten ekimenak ezartzea eta horietan inbertitzea errazten duen gida gisa, eta gehien erabiltzen duten programen emaitza onek hura sakonago eta zehatzago lantzeko motibatzen jarraitu beharko lukete.

ORO HAR:

Egindako azterketak erakusten du berdintasun-neurriak oso hedatuta daudela, baina sakontasun-maila desberdina dutela.

Hobekuntza-eremu nagusiak zeharkako gastua identifikatzeko zehaztasunarekin, antzemandako neurrien eta desberdintasunen arteko loturarekin eta emaitzen ebaluazioarekin lotzen dira.

Estas situaciones no impiden el análisis general, pero reducen la homogeneidad y comparabilidad de los resultados.

La ficha continúa ofreciendo una oportunidad para que los programas revisen sistemáticamente sus actuaciones, identifiquen posibles implicaciones de género y concreten las medidas que ya aplican o que pueden incorporar.

Su utilidad es mayor cuando la información aportada vincula de forma clara el diagnóstico, las actuaciones, los recursos y las previsiones de mejora.

En conjunto, el proceso se encuentra consolidado y permite obtener información amplia sobre la integración de la perspectiva de género en la actividad presupuestaria.

ÁMBITOS DE MEJORA

Como línea de mejora del proceso, convendría continuar reforzando la homogeneidad en la cumplimentación de las fichas, la precisión de las respuestas y su utilización como instrumento efectivo de planificación, seguimiento y evaluación.

Su utilización, junto con su análisis posterior, resulta esencial como guía que facilita la implementación y la inversión en iniciativas con perspectiva de género, y los buenos resultados de aquellos programas que más la utilizan, debería seguir motivando a trabajarla de manera más exhaustiva y detallada.

EN GENERAL:

El análisis realizado muestra una incorporación ampliamente extendida de medidas de igualdad, aunque con diferente nivel de profundidad.

Los principales ámbitos de mejora se relacionan con la precisión en la identificación del gasto transversal, la vinculación entre las medidas y las desigualdades detectadas y la evaluación de sus resultados.

Komenigarria litzateke beste gogoeta bat egitea zeharkako inbertsioaren eta haren emaitzen jarraipenari buruz; izan ere, zeharkako neurriak dituzten ekintza gehienak gauzatzeko tresnak kontratuak eta dirulaguntzak dira.

Es importante ampliar el análisis y profundizar en torno al seguimiento de los resultados y evolución del gasto indirecto, ya que los instrumentos de ejecución del grueso de acciones con medidas transversales son contratos y subvenciones.

Komeni da berdintasun-araudian ezarritako betebeharrak betetzearen eta jarduketa bakoitzaren edukiari eta helburuei berariaz egokitutako neurriak sartzearen arteko bereizketan aurrera egitea.

Es conveniente avanzar en la diferenciación entre el cumplimiento de las obligaciones establecidas en la normativa de igualdad y la incorporación de medidas específicamente adaptadas al contenido y a los objetivos de cada actuación.

Berdintasun-klausulak, hizkuntza inklusiboa, datu bereiziak edo ordezkaritza orekatua sartzea ezinbesteko oinarria da zeharkakotasunerako.

La inclusión de cláusulas de igualdad, lenguaje inclusivo, datos desagregados o representación equilibrada constituye una base necesaria para la transversalidad.

Hala ere, bere presentziak ez du ahalbidetzen integrazioaren norainokoa eta izandako emaitzak ezagutzea.

No obstante, su presencia no permite por sí sola conocer el alcance de la integración ni los resultados producidos.

Osorik zeharkako gastu gisa kontabilizatzen diren jarduketetan, komenigarria litzateke zehaztea zer neurrik justifikatzen duten gogoeta hori, jarduketaren zein zatiri eragiten dioten eta zer mekanismoren bidez egiten den jarraipena.

En las actuaciones que se contabilizan íntegramente como gasto transversal sería conveniente precisar qué medidas justifican esta consideración, a qué parte de la actuación afectan y mediante qué mecanismos se realiza su seguimiento.

Honako hauen arteko trazabilitatea indartu behar da: identifikatutako desberdintasuna edo beharra, lortu nahi den helburua, aplikatutako neurria, esleitutako kreditua eta haren gauzatzea eta emaitzak baloratzeko erabilitako adierazleak.

Debe reforzarse la trazabilidad entre la desigualdad o necesidad identificada, el objetivo perseguido, la medida aplicada, el crédito atribuido y los indicadores utilizados para valorar su ejecución y sus resultados.

Sexuaren arabera bereizitako datuen bilketa oso txertatuta dago.

La recogida de datos desagregados por sexo se encuentra ampliamente incorporada.

Hurrengo urratsa haren ustiapenean eta azterketan sakontzea da, informazioak aukera eman dezan desberdintasunak identifikatzeko, erabakiak oinarritzeko eta, hala dagokionean, neurri zuzentzaileak sartzeko.

El siguiente paso consiste en profundizar en su explotación y análisis, de manera que la información permita identificar diferencias, fundamentar decisiones e introducir, cuando proceda, medidas correctoras.

Programek 32 azterlan, estatistika edo analisi-serieri buruzko informazioa ematen dute, eta horietatik 28k genero-ikuspegia txertatzen dute.

Los programas informan sobre 32 estudios, estadísticas o series de análisis, de los cuales 28 incorporan la perspectiva de género.

Hala ere, tresna horiek sail jakin batzuetan kontzentratzen dira, eta beste batzuek ez dute azterlanik erregistratzen atal espezifikoan.

Erabilera zabaltzeaz gain, komeniko litzateke argiago adieraztea emaitzetatik zer erabaki edo hobekuntza eratortzen diren.

Oraindik ere beharrezkoa da berdintasun-helburuak betetzeari buruzko informazioa hobetzea.

Fitxek aukera ematen dute zehatzago jakiteko zer neurri txertatu diren, baina informazio gutxiago ematen dute lortutako ondorioei, adierazleen bilakaerari edo aurkitutako zailtasunei buruz.

Neurrien jarraitutasuna plangintza egonkor eta iraunkor baten ondorio izan daiteke.

Hala ere, komenigarria litzateke programek aldian-aldian lortutako emaitzen berri ematea eta, egindako ebaluazioan oinarrituta, jarduketak mantentzearen, aldatzearen edo zabaltzearen arrazoiak justifikatzea.

GENERO-ERAGIN ESPEZIFIKORIK GABEKO AURREKONTUA

Herritarrei edo herritarren talde jakinei zuzendutako jarduketek, neurri handiagoan edo txikiagoan, generoari lotutako eraginak izaten dituzte beti; beraz, ezin dira generoaren ikuspegitik guztiz neutraltzat jo.

- Talde honetan sailkatzen dira oraindik pertsonengan zuzenean edo zeharka eragina izan dezaketen zenbait programa; beraz, diskriminazio-egoerak gainditzen laguntzeko hobekuntzak txertatzeko ahalmena dute.
- Jarduketa horiek modu espezializatuagoan analizatuko balira, datuak eta informazioa eskuratuko lirateke, frogatzeko ea benetan ekintza horiek *neutralak* diren ala nolabait pertsonen bizitzetan eragiten duten.

Sin embargo, estos instrumentos se concentran en determinados departamentos, mientras que otros no registran estudios en el apartado específico.

Además de ampliar su utilización, convendría reflejar con mayor claridad qué decisiones o mejoras se derivan de sus resultados.

Continúa siendo necesario mejorar la información sobre el cumplimiento de los objetivos de igualdad.

Las fichas permiten conocer con mayor precisión qué medidas se han incorporado, pero ofrecen menos información sobre los efectos obtenidos, la evolución de los indicadores o las dificultades encontradas.

La continuidad de las medidas puede responder a una planificación estable y sostenida.

No obstante, sería conveniente que los programas explicasen periódicamente los resultados alcanzados y justificasen, a partir de su evaluación, el mantenimiento, modificación o ampliación de las actuaciones.

PRESUPUESTO SIN IMPACTO ESPECÍFICO DE GÉNERO

Las actuaciones dirigidas a la ciudadanía o a determinados grupos de población, en mayor o menor medida, siempre tienen implicaciones de género; por tanto, no pueden considerarse completamente neutrales desde la perspectiva de género.

- En este grupo se posicionan aún algunos programas que pueden incidir directa o indirectamente en las personas, y con capacidad por tanto-de aportar mejoras que remuevan obstáculos discriminatorios.
- Un análisis más especializado de sus actuaciones permitiría obtener datos e información que podrían evidenciar si realmente estas acciones son ``*neutrales*´´ o impactan en alguna medida en la vida de las personas.

ZEHARKAKO GASTUA DUEN AURREKONTUA

Talde horretan daude programa gehienak, eta genero-ikuspegiaren integrazio-maila oso desberdinak ikusten dira.

Programen zati baten sailkapena, batez ere, araudian ezarritako betebehar orokorrak betetzean oinarritzen da: berdintasun-klausulak, hizkuntza inklusiboa, sexuaren arabera bereizitako datuak, ordezkaritza orekatua eta kontratuei, dirulaguntzei edo hitzarmenei aplikatu beharreko baldintzak.

Beste programa batzuek integrazio espezifikoagoa garatzen dute, beren jarduera-eremuen ezaugarriei lotuta: azterlanak, datuen azterketak, adierazleak, ekintza positiboko irizpideak, zerbitzuen egokitzapena, sarbide-neurriak, hartzaileen jarraipena edo jarduketen xedearekin zuzenean lotutako baldintzak.

Aniztasun horrek zeharkako inbertsioaren justifikazioan sakontzea gomendatzen du.

Zeharkakotasuna ez litzateke soilik klausula edo betebehar arauemaile baten existentzia formalaren mende egon behar, baizik eta baita neurriek jarduketarekin duten erlazioaren eta emakumeen eta gizonen egoeretan eragiteko duten gaitasunaren mende ere.

Neurri batek jarduketaren zati bati bakarrik eragiten dionean, komenigarria litzateke neurri horri benetan lotutako kreditua identifikatzea eta kuantifikatzea, ahal den guztietan.

Neurri batek jarduketaren zati bat bakarrik eragiten dionean, komenigarria litzateke neurri horri benetan kreditua identifikatzea eta kuantifikatzea, ahal den guztietan.

PRESUPUESTO CON GASTO TRANSVERSAL

Es el grupo en el que se sitúan la mayor parte de los programas y se observan niveles muy diferentes de integración de la perspectiva de género.

Una parte de los programas fundamenta su clasificación principalmente en el cumplimiento de las obligaciones generales establecidas en la normativa: cláusulas de igualdad, lenguaje inclusivo, datos desagregados por sexo, representación equilibrada y condiciones aplicables a contratos, subvenciones o convenios.

Otros programas desarrollan una integración más específica, vinculada a las características de sus ámbitos de actuación: incorporan estudios, análisis de datos, indicadores, criterios de acción positiva, adaptación de servicios, medidas de acceso, seguimiento de la población destinataria o requisitos directamente relacionados con el objeto de las actuaciones.

Esta diversidad aconseja profundizar en la justificación de la inversión transversal.

La transversalidad no debería depender únicamente de la existencia formal de una cláusula o de una obligación normativa, sino también de la relación de las medidas con la actuación y de su capacidad para incidir en las situaciones de mujeres y hombres.

Cuando una medida afecta solo a una parte de la actuación, sería conveniente identificar y cuantificar, siempre que sea posible, el crédito efectivamente vinculado a ella.

Si se atribuye como transversal el presupuesto completo, debería explicarse de qué manera la perspectiva de género alcanza al conjunto de la actuación.

Garapen handiena duten programek erreferentzia erabilgarriak eskaintzen dituzte zeharkakotasunean aurrera egiteko: desberdintasunak identifikatzen dituzten azterlanak, datuen ustiapena sexuaren arabera, jarraipen-adierazleak, sarbide- edo puntuazio-irizpideak, segurtasun- eta irisgarritasun-neurriak, baliabideen egokitzapena eta artatutako biztanleriaren ebaluazioa.

Komeni da praktika horiek programen artean transferitzen laguntzea, bereziki oraindik ere baldintza orokorrak betetzen dituzten programetara.

Azkenik, adierazi behar da programen aurrekontua hobetzeko ez dela beharrezkoa urtero jarduera berriak sartzea.

Halaber, dauden neurriak zehatzago aplikatuz, jarraipen sistematikoagoa eginez eta emaitzak hobeto ebaluatuz ere gerta daiteke.

Los programas con mayor desarrollo ofrecen referencias útiles para avanzar en la transversalidad: estudios que identifican diferencias, explotación de datos por sexo, indicadores de seguimiento, criterios de acceso o puntuación, medidas de seguridad y accesibilidad, adaptación de los recursos y evaluación de la población atendida.

Conviene favorecer la transferencia de estas prácticas entre programas, especialmente hacia aquellos cuya integración se concentra todavía en el cumplimiento de requisitos generales.

Finalmente señalar que la mejora de la presupuestación de los programas no exige necesariamente incorporar cada año nuevas actuaciones.

También puede producirse mediante una aplicación más precisa de las medidas existentes, un seguimiento más sistemático y una mejor evaluación de sus resultados.

BERDINTASUNEKO ZUZENEKO GASTUAREN AURREKONTUA

Kasu honetan, Berdintasuneko eta Biktimen Laguntzako programak sartzen dira, biak Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailarenak. Programa horietan, aurrekontu-kreditu osoa berdintasunarekin zuzenean lotutako helburuetara edo indarkeria matxistaren biktima diren emakumeen arreta eta babesera bideratzen da.

Programa horien izaera kontuan hartuta, hobekuntza-eremu nagusia ez dago berdintasunarekiko duten lotura justifikatzean; aitzitik, haien estalduraren, emaitzen eta bilakaeraren jarraipena sakontzean dago.

Bereziki garrantzitsua da jarduera-bolumena edo artatutako pertsonen kopurua neurtzeaz harago doazen adierazleak izatea; hain zuzen ere, baliabideen irisgarritasuna, emandako erantzunaren egokitasuna, esku-hartze prozesuen jarraitutasuna, lortutako autonomia-maila eta egindako jarduerek desberdintasun-egoeretan duten eragina baloratzeko aukera emango duten adierazleak.

PRESUPUESTO DE GASTO DIRECTO EN IGUALDAD

En este supuesto se sitúan los programas de Igualdad y Apoyo a las víctimas, ambos del Departamento de Empleo, Cohesión Social e Igualdad. En ellos, la totalidad del crédito se destina a objetivos directamente relacionados con la igualdad o con la atención y protección de mujeres víctimas de violencia machista.

Dada la naturaleza de estos programas, el principal ámbito de mejora no se encuentra en justificar su vinculación con la igualdad, sino en profundizar en el seguimiento de su cobertura, sus resultados y su evolución.

Resulta especialmente relevante disponer de indicadores que permitan valorar no solo el volumen de actividad o el número de personas atendidas, sino también la accesibilidad de los recursos, la adecuación de la respuesta, la continuidad de los procesos, la autonomía alcanzada y la incidencia de las actuaciones en las situaciones de desigualdad.

Berdintasunerako programan, sailei emandako prestakuntzaren, aholkularitzaren eta laguntzaren irismena ebaluatzen jarraitzea komeni da, baita BFAren VII. Berdintasun Planean aurreikusitako neurrien benetako txertatze-maila ere.

Biktimei laguntzeko programan beharrezkoa da artatutako emakumeen eta haien seme-alaben ezaugarriei eta premiei buruzko ezagutza mantentzea eta indartzea, baita zerbitzuetarako sarbidea, baliabideen koordinazioa eta babes-, berreskuratze- eta autonomia-prozesuen emaitzak ere.

Bilakaera-azterketak egiteak aurrerapenak, sortzen ari diren beharrak eta baliabideetan egin beharreko egokitzapen posibleak identifikatzen lagunduko luke; era berean, zuzeneko inbertsioaren eraginaren balorazio osoagoa egiteko aukera emango luke.

GENERO-INPAKTU POSIBLEA

Genero-inpaktu posiblearen azterketak aurrekontu-jarduketek emakumeen eta gizonen eskubide, aukera eta emaitzen berdintasunean laguntzeko duten gaitasunean jartzen du arreta, bai eta aurrez identifikatutako desberdintasunak murrizteko duten ahalmenean ere.

Gastu zuzenak aukera ematen du berdintasunera berariaz bideratutako baliabideak argitasun handiagoz identifikatzeko. Hala ere, haren eragina ez dago baliabideen bolumenaren mende bakarrik; neurriak egokiak izateak, haien estaldurak, jarraitutasunak, gauzatze-mailak eta ebaluazioak ere baldintzatzen dute.

Bestalde, zeharkako jarduketek berdintasun-politikaren irismen potentziala zabaltzen dute, askotariko sektore-eremuetan txertatzen baitute. Haien eragina handiagoa izango da genero-ikuspegia neurri zehatzetan, baliabide identifikagarrietan, argi definitutako erantzukizunetan eta lortutako emaitzak egiaztatzeko aukera ematen duten adierazleetan gauzatzen denean.

En el programa de Igualdad conviene continuar evaluando el alcance de la formación, el asesoramiento y el acompañamiento proporcionados a los departamentos, así como el grado de incorporación efectiva de las medidas previstas en el VII Plan de Igualdad de la DFB.

En el programa de Apoyo a las víctimas resulta necesario mantener y reforzar el conocimiento sobre las características y necesidades de las mujeres atendidas y de sus hijas e hijos, el acceso a los servicios, la coordinación de los recursos y los resultados de los procesos de protección, recuperación y autonomía.

La realización de análisis evolutivos contribuiría a identificar avances, necesidades emergentes y posibles ajustes en los recursos, además de facilitar una valoración más completa del impacto de la inversión directa.

POSIBLE IMPACTO DE GÉNERO

El análisis del posible impacto de género pone el foco en la capacidad de las actuaciones presupuestarias para contribuir a la igualdad de derechos, oportunidades y resultados de mujeres y hombres, así como para reducir las desigualdades previamente identificadas.

El gasto directo permite reconocer con mayor claridad los recursos destinados específicamente a la igualdad. No obstante, su capacidad de impacto no depende únicamente de su volumen, sino también de la adecuación de las medidas, su cobertura, continuidad, ejecución y evaluación.

Por su parte, las actuaciones transversales amplían el alcance potencial de la política de igualdad al incorporarla en ámbitos sectoriales muy diversos. Su incidencia será mayor cuando la perspectiva de género se traduzca en medidas concretas, recursos identificables, responsabilidades definidas e indicadores que permitan comprobar sus resultados.

Kontuan hartuta aurreko gogoeta horiek, 2027ko aurrekontuak emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboak sortzeko baldintzak eskaintzen ditu, honako jardun-ildo hauen bidez:

Berdintasunaren arloko gastu zuzen eta zeharkakoaren jarraitutasuna.

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna eta Biktimei babesa eta familiei laguntza programek berdintasuna sustatzera, indarkeria matxista prebenitzera eta horren biktimei arreta ematera bereziki bideratutako aurrekontu-jarduera biltzen dute, bai eta artatutako emakumeen babesa, errekuperazioa eta autonomia sustatzera zuzendutakoa ere.

Gastu hori beste programa batzuek garatutako zuzeneko jarduketek osatzen dute, besteak beste, enpleguaren eta ekintzailetzaren, emakumeen parte-hartzearen eta lidergoaren, landa-ingurunearen, kirolaren, gizarteratzearen, prestakuntzaren, erantzunkidetasunaren eta indarkeriaren prebentzioaren esparruetan.

Gizarte-politiken eta zaintzen arloko politiken aurrekontu-pisua.

- Aurrekontuaren zati esanguratsu bat adineko pertsonengana, mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonengana, babesgabetasun-egoeran dauden adingabe eta familietara, gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden pertsonengana eta premia espezifikoak dituzten beste kolektibo batzuengana bideratzen da.

Genero-desberdintasunak adinarekin, desgaitasunarekin, diru-sarrerekin, jatorriarekin, familia-egoerarekin edo zaintza-erantzukizunekin batera ager daitezkeen esparruak dira, eta horrek zaurgarritasun bereziko egoerak sor ditzake.

Teniendo en cuenta estas consideraciones, el presupuesto de 2027 presenta condiciones para producir efectos positivos en la igualdad de mujeres y hombres a través de las siguientes líneas:

La continuidad del gasto directo y transversal en igualdad.

- Los programas Igualdad de mujeres y hombres y Protección a víctimas y apoyo a familias concentran la actuación presupuestaria específicamente dirigida a la igualdad, la prevención y atención de la violencia machista y la protección, recuperación y autonomía de las mujeres atendidas.

Este gasto se complementa con actuaciones directas desarrolladas por otros programas en ámbitos como el empleo y el emprendimiento, la participación y el liderazgo de las mujeres, el medio rural, el deporte, la inclusión social, la formación, la corresponsabilidad y la prevención de la violencia.

El peso presupuestario de las políticas sociales y de cuidados.

- Una parte relevante del presupuesto se dirige a personas mayores, personas con dependencia o discapacidad, menores y familias en situación de desprotección, personas en riesgo de exclusión y otros colectivos con necesidades específicas.

Son ámbitos en los que las desigualdades de género pueden confluir con la edad, la discapacidad, los ingresos, el origen, la situación familiar o las responsabilidades de cuidado, generando situaciones de especial vulnerabilidad.

GENEROAREN ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA
INFORME EVALUACION PREVIA IMPACTO DE GENERO

Genero-ikuspegia zerbitzu horien diseinuan, sarbidean eta egokitzapenean txertatzeak emakumeen eta gizonen egoera desberdinetara hobeto egokitzea lagun dezake, bai eta lehendik dauden desberdintasunak emandako arretan berriz gerta ez daitezen prebenitzen ere.

La incorporación de la perspectiva de género en el diseño, el acceso y la adaptación de estos servicios puede contribuir a mejorar su adecuación a las diferentes situaciones de mujeres y hombres, así como a prevenir que las desigualdades existentes se reproduzcan en la atención prestada.

Indarkeria matxistaren ezagutza, prebentzioa eta arretara bideratutako gastua.

- Emakumeen eskubideen babesa, segurtasuna eta autonomia bermatzeko, bai eta zerbitzuen plangintzarako beharrezkoa den ezagutza sortzeko ere, duen lotura zuzenagatik, jardun-ildo garrantzitsuenetako bat izaten jarraitzen du.

El gasto dirigido al conocimiento, la prevención y atención de la violencia machista.

- Se mantiene como una de las líneas de mayor relevancia por su relación directa con el conocimiento necesario para la planificación de servicios, la protección de los derechos, la seguridad y la autonomía de las mujeres.

Datuak biltzeko, tratatzeko, aztertzeko eta aldizka jarraitzeko baliabideak barne hartzen ditu, baita arreta espezializatua, ostatu-ematea, laguntza eta akonpainamendua, prebentzioa, errekuperazio-prozesuei laguntzeko neurriak eta seme-alabei nahiz zaurgarritasun gehigarriak dituzten emakumeei zuzendutako jarduketak ere.

Comprende recursos de recogida, tratamiento, análisis y seguimiento periódico de datos, atención especializada, alojamiento, acompañamiento, prevención, apoyo a procesos de recuperación y actuaciones dirigidas también a hijas e hijos y a mujeres que presentan vulnerabilidades añadidas.

Zaintzen, kontziliazioaren eta erantzunkidetasunaren ikuspegiaren zabaltzea.

- Zaintza-beharrak kontuan hartzeak emakumeei bereziki eragiten dieten eta haien lan-, gizarte- eta ekonomia-partaidetza baldintzatzen duten desberdintasunei heltzea ahalbidetzen du.

La ampliación del enfoque de los cuidados, la conciliación y la corresponsabilidad.

- La consideración de las necesidades de cuidado permite abordar desigualdades que afectan de manera especialmente intensa a las mujeres y que condicionan su participación laboral, social y económica.

Ikuspegi hori gizarte-politiketan ez ezik, enplegu publikoarekin, mugikortasunarekin, lurralde-plangintzarekin, herritarrei zuzendutako zerbitzuekin eta barne-antolaketarekin lotutako jarduketetan ere presente dago.

Este enfoque está presente tanto en las políticas sociales como en actuaciones relacionadas con el empleo público, la movilidad, la planificación territorial, los servicios a la ciudadanía y la organización interna.

Ikuspegi hori garatzeak denboraren eta erantzukizunen banaketa orekatuagoa lortzen lagun dezake, baldin eta neurri zehatzekin eta emakumeengan zein gizonengan dituen eragin bereiziak ezagutzeko aukera ematen duen informazioarekin osatzen bada.

Su desarrollo puede contribuir a una distribución más equilibrada de los tiempos y las responsabilidades, siempre que se acompañe de medidas concretas y de información que permita conocer sus efectos diferenciados.

Emakumeen autonomia ekonomikoa, parte-hartzea eta tradizionalki maskulinizatutako eremuetan duten presentzia sustatzea.

- Enpleguari, ekintzailetzari, enpresa-lidergoari, landa-garapenari, kirolari eta gizarte-partaidetzari zuzendutako jarduketek emakumeen eta gizonen presentzia orekatuagoa susta dezakete, eta baliabideetarako sarbidearekin, sare profesionalekin, erabakiak hartzearekin eta gizarte-aitortzarekin lotutako oztopoak murrizten lagun dezakete.

Berdintasun programaren eginkizun estrategikoa.

- Herritarrei eta gizarte-sareari zuzendutako jarduketez gain, programa honek zeharkako eginkizuna betetzen du Bizkaiko Foru Aldundi osoarentzat, prestakuntzaren, aholkularitzaren, laguntza teknikoaren eta tresna bateratuak garatzearen bidez.

DFBren Berdintasunerako VII. Planak prozesu hori koordinatu eta sendotzeko esparrua eskaintzen du. Horregatik, programaren jarduerak biderkatzaile-efektua izan dezake, sail desberdinek berdintasuna beren plangintzan, aurrekontu-tresnetan eta ohiko jardunean txertatzeko duten gaitasuna indartzen baitu.

Berdintasuna esku-hartze publikoko tresna orokorretara hedatzea.

- Kontratuetan, dirulaguntzetan, hitzarmenetan eta itunetan berdintasunari lotutako klausulak, balorazio-irizpideak, betebeharrak eta eskakizunak txertatzeak neurrien balizko irismena Administrazioaren beraren esparrutik harago zabaltzen du, eta haren ondorioak enpresetara, erakunde laguntzaileetara eta erakunde onuradunetara hedatzea ahalbidetu dezake.

El impulso de la autonomía económica, la participación y la presencia de las mujeres en espacios tradicionalmente masculinizados.

- Las actuaciones dirigidas al empleo, el emprendimiento, el liderazgo empresarial, el desarrollo rural, el deporte y la participación social pueden favorecer una presencia más equilibrada de mujeres y hombres y ayudar a reducir obstáculos relacionados con el acceso a los recursos, las redes profesionales, la toma de decisiones y el reconocimiento social.

La función estratégica del programa de Igualdad.

- Además de sus actuaciones hacia la ciudadanía y el tejido social, este programa desarrolla una función transversal para el conjunto de la Diputación Foral de Bizkaia mediante la formación, el asesoramiento, el acompañamiento técnico y la elaboración de herramientas comunes.

El VII Plan de Igualdad de la DFB proporciona el marco para coordinar y consolidar este proceso. Por ello, la actividad del programa puede generar un efecto multiplicador, al reforzar la capacidad de los distintos departamentos para integrar la igualdad en su planificación, sus instrumentos presupuestarios y su actividad ordinaria.

La extensión de la igualdad a los instrumentos generales de intervención pública.

- La incorporación de cláusulas, criterios de valoración, obligaciones y requisitos de igualdad en contratos, subvenciones, convenios y conciertos amplía el alcance potencial de las medidas más allá de la propia Administración y puede trasladar sus efectos a empresas, entidades colaboradoras y organizaciones beneficiarias.

Potentzial hori are esanguratsuagoa izango da klausulak jarduketa bakoitzaren xedearekin eta ezaugarriekin lotuta daudenean, eta haien betearazpena egiaztatzeko aukera ematen duten jarraipen-mekanismoekin osatzen direnean.

Este potencial será más significativo cuando las cláusulas estén relacionadas con el objeto y las características de cada actuación y se acompañen de mecanismos de seguimiento que permitan comprobar su cumplimiento.

Desberdintasunen gaineko ezagutza hobetzea.

- Fitxetan 32 azterlan, estatistika, behatoki, memoria edo informazio-sistema identifikatzen dira; horietatik 28k sexuaren aldagaia edo genero-analisirako moduren bat txertatzen dute.

La mejora del conocimiento sobre las desigualdades.

- Las fichas identifican 32 estudios, estadísticas, observatorios, memorias o sistemas de información, de los cuales 28 incorporan la variable sexo o alguna forma de análisis de género.

Tresna horiek emakumeen eta gizonen egoera, behar, erabilera eta emaitza desberdinei buruzko ezagutza hobetzen lagun dezakete, eta errealitate horietara hobeto egokitutako erabakiak hartzea erraztu.

Estos instrumentos pueden mejorar el conocimiento de las diferentes situaciones, necesidades, usos y resultados de mujeres y hombres y facilitar la adopción de decisiones más ajustadas.

Hala ere, tresna horien ekarpena baldintzatuta egongo da informazio desagregatua aztertzen den, ondorio zehatzak ateratzen diren eta jarduketak berrikusteko erabiltzen den neurrian.

No obstante, su contribución dependerá de que la información desagregada se analice, se traduzca en conclusiones y se utilice para revisar las actuaciones.

Bizi-kalitatearen hainbat dimentsiotan duen eragina.

- Aurrekontu-jarduketak hainbat esparrutara hedatzen dira, hala nola diru-sarreretara, ordaindutako lanera, parte-hartzeara, aisialdira eta kulturara, mugikortasunera, natura zaintzera, osasunera, pertsonen zaintzara, hezkuntzara, indarkeriarik ez izatera eta etxebizitzara.

La incidencia en diferentes dimensiones de la calidad de vida.

- Las actuaciones presupuestarias se proyectan sobre ámbitos como los ingresos, el trabajo remunerado la participación, el ocio y la cultura, la movilidad, el cuidado de la naturaleza, la salud, el cuidado de las personas, la educación, la ausencia de violencia y la vivienda.

Esparru horien zabalera berdintasunaren izaera zeharkakoaren adierazgarri da. Hala ere, bizi-kalitatearen hobekuntza orokorrak ez dakar berez genero-desberdintasunak murriztea.

La amplitud de estos ámbitos muestra el carácter transversal de la igualdad. Sin embargo, la mejora general de la calidad de vida no implica por sí sola una reducción de las desigualdades de género.

Para valorar esta dimensión será necesario conocer si mujeres y hombres acceden en condiciones equivalentes a los recursos y si las actuaciones producen resultados diferenciados.

Para valorar esta dimensión será necesario conocer si mujeres y hombres acceden en condiciones equivalentes a los recursos y si las actuaciones producen resultados diferenciados.

Neurrien jarraitutasuna eta sendotzea.

- 2027rako aurreikuspenek, oro har, dagoeneko ezarrita dauden jardun-ildoak mantentzen dituzte. Programa batzuek hobekuntzak txertatzen dituzte informazio-sistemetan, prestakuntzan, kontratazio- eta dirulaguntza-irizpideetan, zerbitzuen eta baliabideen egokitzapenean, ebaluazioan nahiz zenbait jarduketen hedapenean.

Neurri horien egonkortasunak izaera progresibo eta egiturazko aldaketak susta ditzake, baldin eta plangintza iraunkor baten baitan garatzen badira eta jarraipen-, ebaluazio- eta doikuntzak egiteko gaitasunarekin osatzen badira.

Oro har, 2027ko aurrekontuak berdintasunean aurrera egiteko potentzial positiboa erakusten du, bereziki zuzeneko inbertsioa duten programetan eta desberdintasunen diagnostikoa neurri espezifikoekin, baliabideekin eta jarraipen-adierazleekin uztartzen dutenetan.

Zeharkako neurriak jasotzen dituzten programen hedadurak genero-ikuspegia foru-eskumeneko ia jardun-esparru guztietara zabaltzea ahalbidetzen du.

Aldi berean, dagoen aniztasunak beharrezko egiten du berdintasunaren arloko betebehar orokorren txertatze formala eta genero-ikuspegiaren integrazio sakonagoa erakusten duten jarduketak bereiztea.

Beraz, inpaktua baloratzeko erronka nagusia jarduketen eta baliabideen identifikaziotik harago joatea izango da, lortutako emaitzen ezagutzan sakontzeko: zer biztanleria-taldek jasotzen duten onura, zer desberdintasun murrizten diren eta jarduketek zenbateraino aldatzen dituzten emakumeen eta gizonen bizi-baldintzak.

La continuidad y consolidación de las medidas.

- Las previsiones para 2027 mantienen, con carácter general, las líneas ya implantadas. Algunos programas incorporan mejoras en los sistemas de información, la formación, los criterios de contratación y subvención, la adaptación de servicios y recursos, la evaluación o la ampliación de determinadas actuaciones.

La estabilidad de estas medidas puede favorecer cambios de carácter progresivo y estructural cuando responda a una planificación sostenida y se acompañe de seguimiento, evaluación y capacidad para introducir ajustes.

En conjunto, el presupuesto de 2027 presenta un potencial positivo para avanzar en la igualdad, especialmente en los programas con inversión directa y en aquellos que combinan un diagnóstico de las desigualdades con medidas específicas, recursos e indicadores de seguimiento.

La amplitud de los programas con medidas transversales permite extender el enfoque de género a prácticamente todos los ámbitos de competencia foral.

Al mismo tiempo, la diversidad existente hace necesario diferenciar entre la incorporación formal de obligaciones generales de igualdad y las actuaciones que muestran una integración más sustantiva del enfoque de género.

Por tanto, el principal reto para valorar el impacto será avanzar desde la identificación de actuaciones y recursos hacia el conocimiento de los resultados obtenidos: qué población se beneficia, qué desigualdades se reducen y en qué medida las actuaciones modifican las condiciones de vida de mujeres y hombres.

ERANSKINA B: Taulen eta grafikoen *zerrenda / ANEXO B: Relación de tablas y gráficos*

1. TAULA / *TABLA 1:*

Aurrekontu-kredituaren sailen banaketa, programen eta berdintasun-arloko gastuaren sailkapenaren arabera (zuzena, zeharkakoa eta inpakturik gabea) /
Distribución departamental del crédito presupuestario según programas y clasificación del gasto en igualdad (directo, transversal y sin impacto)

2. TAULA / *TABLA 2:*

Aurrekontu-kredituaren banaketa GUFEn, programen eta berdintasun-gastuaren sailkapenaren arabera (zuzena, zeharkakoa eta inpakturik gabea) /
Distribución en el IFAS del crédito presupuestario según programas y clasificación del gasto de igualdad (directo, transversal y sin impacto)

3. TAULA / *TABLA 3:*

I. kapituluko kreditua, berdintasun-arloko zuzeneko gastu gisa sailkatua/ Crédito del Capítulo I clasificado como gasto directo en igualdad

4. TAULA / *TABLA 4*:

Kudeaketa propioko aurrekontuaren banaketa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako zuzeneko eta zeharkako gastuaren sailkapenaren arabera. / *Distribución del presupuesto de gestión propia según la clasificación del gasto directo y transversal para la igualdad de mujeres y hombres.*

5. TAULA / TABLA 5:

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako gastuaren sailkapenaren arabera, sailen kreditu osoaren aurrekontu-bilakaera (2026-2027) / *Evolución presupuestaria del crédito total de los departamentos según la clasificación del gasto para la igualdad de mujeres y hombres 2026-2027*

6. TAULA / TABLA 6*:*

Bizkaiko Foru Aldundiaren kudeaketa propioko aurrekontuaren bilakaera, gastu zuzenaren eta zeharkako gastuaren banaketaren arabera (2023-2027). / Evolución presupuestaria del presupuesto de gestión propia de la Diputación Foral de Bizkaia según la distribución del gasto directo y transversal 2023-2027.

1.GRAFIKOA. Programek identifikatutako bizi-kalitatearen eremuak/
GRÁFICO 1. Ámbitos de calidad de vida identificados por los programas

AURREKONTUA GAZTERIAREN IKUSPEGITIK
EL PRESUPUESTO DESDE LA PERSPECTIVA DE JUVENTUD

AURREKONTUA GAZTERIAREN IKUSPEGITIK
EL PRESUPUESTO DESDE LA PERSPECTIVA DE JUVENTUD

I. TESTUINGURUA

Gizartea gero eta azkarrago eraldatzen ari da, eta aldaketek imajina daitezkeen ia alderdi eta esparru guztiei eragiten diete. Testuinguru likido horretan, zaila da epe ertainean etorkizuneko egoera bat definitzera ausartzea. Hala ere, Bizkaiaren bilakaeran presentzia segurua izango duten osagaietako batzuk bereiz daitezke, hala nola digitalizazioa, lan-merkatuaren etengabeko eraldaketa, globalizazioa eta garapen iraunkorra, beste joera askoren artean. Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzukizuna da gazteei laguntzea erresilienteagoak izan daitezen, eta inguruko aldaketei paradigma berrien bidez aurre egiteko eta aprobetxatzeko gai izan daitezen. Horrela bakarrik hobetu ahal izango dira ongizatea eta bizi-kalitatea Lurraldean.

Bizkaia Gazteak 2030 proiektua etorkizunerako bidearen oinarrizko esparrua da, Bizkaiko gazte-politiketarako erreferentzia-esparrua den heinean. Dokumentu honek Lurraldean garatzen diren 15 eta 29 urte bitarteko pertsonentzako esku-hartzeak definitu, bultzatu eta koordinatzeko iparrorratz gisa balio du, eta politika guztien bideek kolektiboaren beharrei eta eskaerei erantzuten dietela ziurtatzen du. *Bizkaia Gazteak 2030ek* ere lan egingo du gazteen eskubideak bermatzeko, haien autonomia indibiduala handitzeko eta komunitatean parte hartzeko. Gazteei gazte gisa garatzen eta helduarora igarotzen lagunduko dieten tresnak emango zaizkie, planteamendu protekzionistegietatik urrun.

Estrategia horren ikuspegia, printzipioak eta helburuak lantzeko zutabeak hiru izan dira. Lehenengo zutabea autonomia, estatu, Europa eta mundu mailako dokumentu "senidetu" batzuek osatzen dute; arau, plan eta estrategia multzo batek, tokiko/Lurraldeko esku-hartzea helburuak partekatzen dituzten gainerako testuinguru eta erakundeekiko koherente egiten laguntzen dutenak. Bigarren zutabea aurreko dokumentuari

I. CONTEXTUALIZACIÓN

Berebat, berrikuspen fiskalerako 2/2025 FAk zenbait hobari-ehuneko ezarri ditu, zeinak kapital higiezinaren etekin osoei aplikatzen baitzaizkie gastu gisa, kontuan harturik zer motatakoa den errentan emandako etxebizitza. Ildo horretan, ehunekoa 100eko 30 da etxebizitza-premia iraunkorra asetzen duen etxebizitzaren errentamenduaren kasuan. Beste bi kasu hauetan, berriz, 100eko 70 da: lehenik, Eusko Jaurlaritzaren programetatik edo autonomia-, foru- edo udal-mailako antzeko beste etxebizitza-plan eta -programa batzuetatik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, eta, bigarrenik, premia iraunkor bat asetzen duen etxebizitza-errentamendutik datozen kapital higiezinaren etekinen kasuan, baldin eta etxebizitza bizitegi-merkatu tentsionatutzat deklaratutako eremu batean badago, betiere lehen aldiz alokatzen bada edo azken bost urteetan alokatu ez bada eta berriz alokatzen bada. Halaber, etxebizitza turistikoen edo denboraldikoen errentatzaileek etekin osoaren gaineko hobari txikiagoa izango dute: 100eko 20. Zerga-gastua bigarren aldiz estimatu da ekitaldi honetan, eta ia 39 milioi eurokoa izango dela kalkulatu da.

A la vista de los datos relativos a la última campaña del IRPF, que muestran un mayor rendimiento neto del trabajo además del número de personas trabajadoras por cuenta ajena presentadoras del mismo, y siguiendo la tendencia creciente de años anteriores, sumado al ya comentado incremento de la bonificación del trabajo personal para las rentas más bajas recogido en la NF 2/2025, se ha realizado una estimación del gasto fiscal para IRPF 2025 correspondiente a la bonificación del trabajo aplicada, que se cifra en 576,25 millones.

Asimismo, se han introducido por la NF 2/2025 de revisión fiscal diferentes porcentajes de bonificación aplicables sobre los rendimientos íntegros del capital inmobiliario en concepto de gastos, en función de la tipología de la vivienda arrendada. En este sentido, el porcentaje es del 30 por 100 cuando se trate de arrendamiento de vivienda que satisfaga la necesidad permanente de la misma, siendo del 70 por 100, en primer lugar, en el supuesto de rendimientos del capital inmobiliario procedentes de los programas del Gobierno Vasco, o de otros planes y programas de vivienda autonómicos, forales o municipales similares, y en segundo lugar, en el supuesto de rendimientos de capital inmobiliario procedentes del arrendamiento de vivienda que satisfaga una necesidad permanente, situada en una zona declarada de mercado residencial tensionado, cuando esta sea arrendada por primera vez o no lo haya sido en los últimos cinco años y se vuelva a arrendar. Igualmente, el arrendador de viviendas turísticas o de temporada, va a disponer de una bonificación inferior, del 20 por 100 sobre el rendimiento íntegro. El gasto fiscal se estima por segunda vez este ejercicio, y se prevé que ascienda casi a 39 millones de euros.

Zehazki, 2027ko aurrekonturako 2026 ekitaldiko PFEZaren zerga-oinarriaren zerga-gastua, oinarriaren kenkarien zenbatespenak jasotzen dituena, 844,73 milioi euro baino gehixeagoan zenbatetsi da, hau da, aurreko urteko ZGArekin alderatuta ia % 5ekoa den igoerarekin.

En concreto, el gasto fiscal en la base imponible del IRPF del ejercicio 2026 para el Presupuesto 2027, que incluye las anteriores estimaciones de reducciones de la base, se cifra en algo más 844,73 millones de euros, importe que aumenta respecto al PGF del año anterior, con un incremento de casi el 5 por ciento.

2. Kuotaren kenkariak

Kuotako kenkari jakin batzuei dagokien zerga-gastuak zenbatesteko, 2025 eta 2024 ekitaldietako aitorpenetan jasotako zenbatekoak proiektatu egiten dira aurrekontu-urtean, 2027an, aurkeztuko direnetarako, honako hauek kontuan hartuta:

- Zerga-gastua osatzen duen kenkari bakoitzak aurreko urteetan izandako bilakaera.

- Kuota nahikorik ez izateagatik aplikatu gabeko kenkarien eragina.

2026ko PFEZerako kuota-kenkariei buruzko aurreikuspenetan lortutako emaitzei dagokienez, honako hau nabarmendu behar da:

- Ohiko etxebizitza erosteagatiko kenkaria 2026an 226,34 milioi izango dela kalkulatu da, aurreko ekitaldietako aitorpenetan ikusitako datuetan oinarriturik, eta, gainera, 2/2025 FAk araututako gizatalde kaltebera berriei (aurretik aipatuak) ehuneko gehitua aplikatzearen ondorioz. Horrenbestez, orain arteko goranzko joerari jarraituko dio.

- Etxebizitza-konturako ekarpenengatiko kenkariaren zenbatekoan igoera garrantzizko bat aurreikusten da, aurreko urteko aurrekontuan egin zen zenbatespen zuhurraren ondorioz, eta, gainera, berrikuspen fiskalean ezarritako neurriak aplikatzearen ondorioz. Izan ere, oraingo

2. Deducciones de la cuota

Los gastos fiscales referentes a ciertas deducciones en cuota los estimamos mediante una proyección de los importes obtenidos en las declaraciones del ejercicio 2025 y 2024 a aquellas que se presentarán en el año presupuestado, 2027, teniendo en cuenta:

- La evolución experimentada por cada deducción que constituye gasto fiscal en años anteriores.

- El efecto de las deducciones no practicadas por insuficiencia de cuota.

Respecto a los resultados obtenidos en las previsiones sobre las deducciones en cuota para IRPF 2026, hay que destacar que:

- En el caso de la deducción por adquisición de vivienda habitual la estimación para el ejercicio 2026 realizada en base a los datos observados en las declaraciones de ejercicios anteriores y, a su vez, por la aplicación del porcentaje incrementado a nuevos colectivos vulnerables regulados por la NF 2/2025, anteriormente mencionados, asciende a 226,34 millones, siguiendo con la tendencia creciente registrada hasta ahora.

- Se prevé un incremento sustancial en la cuantía de la deducción por aportaciones a cuenta vivienda como consecuencia de la cauta estimación en el presupuesto del año anterior, y además, por la aplicación de las medidas establecidas en la revisión fiscal de considerar joven a la persona menor de

arauan, 36 urtetik beherakoak gaztetzat jotzen dira; 2024ko PFEZeraino, berriz, 30tik beherakoak. Hala, 30 eta 35 urte bitartekoei aukera ematen zaie ehuneko 23ko kenkari-ehuneko handitua aplikatzeko, muga delarik 1.955 euro. Horrenbestez, 25,3 milioikoa da 2026ko PFEZerako

36 años, frente a los 30 años como venía siendo hasta IRPF 2024, dando acceso a este colectivo de entre 30 y 35 años al porcentaje incrementado de deducción del 23 por cien con el límite de 1.955 euros. Se cifra, por ello, en 25,3 millones para IRPF 2026.

- Gainera, ohiko etxebizitza alokatzearen kenkariak gora egingo duela aurreikusi da, aurreko urteetako goranzko joerari jarraituz. Horren arrazoia, hein handi batean, 2/2025 Fak jasotzen duen kenkari-ehunekoan izandako gehikuntza da, zabalagoa den talde bati aplikatzen zaiona, gainera; beraz, zenbatetsi dugu horren zenbatekoa gutxi gorabehera 89,34 milioikoa izango dela.

- Asimismo, se estima un incremento en la deducción por alquiler de la vivienda habitual, siguiendo con la tendencia creciente de años anteriores, motivado en gran parte por el incremento en el porcentaje de deducción, aplicable para un colectivo a su vez más amplio, anteriormente señalado que recoge la mencionada NF 2/2025, lo que nos lleva a estimar su importe en 89,34 millones.

- Ekitaldi honetan lehen aldiz kuantifikatu da aurrekontuan abenduaren 5eko 13/2013 FAren 44. xedapen gehigarriarekin bat ohiko etxebizitza alokatzeagatiko kenkariaren kuota osoa nahikoa ez izateagatik zenbatekoa jasotzeko eskubidea, zeina apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak sartu baitu 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. 2025-2029 aldiko zergaldietan, zergadun batek, aitorpena aurkezten badu nahiz eta horrelako betebeharrik ez eduki, eta behin-behineko likidazioan ez badago kuota nahikorik ohiko etxebizitzaren alokairuaren kenkaria osorik edo partzialki aplikatzeko, aipatutako behin-behineko likidazioan aplikatu gabeko zenbatekoa jasotzeko eskubidea izango du. 2025eko PFEZaren datuetan oinarrituta, 2027ko zerga-gastua 16,83 milioi eurokoa izango dela estimatu da.

- Por primera vez este ejercicio se cuantifica en el presupuesto el abono por insuficiencia de cuota íntegra de la deducción por alquiler de vivienda habitual recogido en la DA44 de la NF 13/2013, de 5 de diciembre, introducida con efectos desde 1 de enero de 2025 por la NF 2/2025, de 9 de abril. Durante los períodos impositivos de 2025-2029, las personas contribuyentes que no teniendo obligación de declarar presenten declaración y en la liquidación provisional practicada no exista cuota suficiente para aplicar la totalidad o parte de la deducción por alquiler de vivienda habitual, tendrán derecho al abono de la cantidad no aplicada en la citada liquidación provisional. Basándonos en los datos de IRPF 2025 se estima para 2027 un gasto fiscal de 16,83 millones de euros.

- Zerga-gastua osatzen duten kuotako beste kenkari batzuek, zeinak sartuta baitaude jarduera ekonomikoak eta berrikuntza sustatzera bideratutako inbertsiorako eta enplegurako pizgarriengatiko kenkarien atalean, munta txikiko zenbatekoak dituzte, banaka hartuta, baina, denak batuta, 11,88

- Otras deducciones de la cuota que constituyen gasto fiscal, englobadas en el apartado de deducciones por incentivos a la inversión y al empleo destinadas al fomento de las actividades económicas y de la innovación, tienen importes de poca relevancia individualmente consideradas,

milioi inguruko zenbatekoa estimatu da. Atal honetan kenkari hauek sartzen dira: mikroenpresa eta enpresa txiki eta ertain berrietan, berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiakoetan egindako inbertsioengatikoak, BATUZ ezartzeagatikoak, langileek enpresan parte hartzeagatikoak, berrikuntza sustatzeko Europako funtsetan egindako inbertsioengatikoak eta gardentasun fiskaleko sozietateetan egindako inbertsioengatikoak.

pero en términos agregados ya se estima un importe de alrededor de 11,88 millones. Este apartado incluye las deducciones por inversiones en micropymes nuevas, innovadoras o economía plateada, por implantación de BATUZ, por participación de los trabajadores en la empresa, por inversión en Fondos europeos para el impulso de la innovación e inversiones en sociedades en transparencia fiscal.

- ZGA honetan, berrikuspen fiskalerako 2/2025 FAk ezarritako bi kenkari berriak sartu dira bigarren aldiz: bata da borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitateetan integratutako lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planei egindako ekarpenengatiko kenkaria, zeinaren zerga-gastua 2,34 milioikoa dela kalkulatu baita, eta bestea da enplegu-aurreikuspeneko sistemei egindako ekarpenengatiko kenkaria, baldin eta sistema horietako partaideak edo bazkide osoak norberaren konturako langileak edo autonomoak badira eta beren kargura langilerik ez badute, zeinarentzako 0,32 milioiko gastua kalkulatu baita. Guztira 2,66 milioi euro zenbatetsi dira bi kontzeptuengatik.

- Para este PGF se incluye por segunda vez las dos nuevas deducciones establecidas en la NF 2/2025 de revisión fiscal, que son la deducción por aportaciones a Planes de Previsión Social Preferentes integrados en Entidades de Previsión Social Voluntaria cuyo gasto fiscal se estima en 2,34 millones y la deducción por aportaciones a sistemas de previsión de empleo en los que las y los partícipes o socios y socias de número sean personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas y por aportaciones a sistemas de previsión de empleo realizadas por personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas que carezcan de trabajadoras y trabajadores a su cargo para el que se prevé un gasto de 0,32 millones. Se ha estimado un importe total por ambos conceptos de 2,66 millones de euros.

- Dohaintzei, sindikatuentzako kuotei eta bestelakoei dagozkien gainerako kenkariek praktikan egonkor eusten diote, eta haien zenbatekoa, orotara, ia 29,88 milioi euro da. Zenbateko horrek, lehen aldiz, kenkari hauek hartzen ditu barnean: etxebizitzetan energia-efizientzia hobetzeko eta energia berriztagarriak integratzeko obrak egiteagatikoak, ingurumena errespetatzen duten ibilgailu jakin batzuk erosteagatikoak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeagatikoak eta alokatutako etxebizitza birgaitzeagatikoak.

- El resto de las deducciones relativas a donativos, cuotas a sindicatos y otras, incrementan su importe total que se cifra en casi 29,88 millones. Este importe incluye por primera vez las deducciones por la realización de obras de eficiencia energética e integración de energías renovables en las viviendas, por adquisición de determinados vehículos respetuosos con el medio ambiente, por instalación de puntos de recarga de vehículos eléctricos y por rehabilitación de vivienda arrendada.

Arestian esandako guztiagatik, 402,23 milioi euroko guztizko zerga-gastua zenbatetsi da PFEZaren kuota osoaren kenkariengatik, hots, % 14,4ko igoera aurreko ZGAren aldean. Hala, guztizko horren ia % 89 baino gehiago ohiko etxebizitza erosi eta alokatzearen eta etxebizitza-kontuaren ziozko kenkariei dagokie.

2025eko PFEZari dagozkion 2027ko ZGArako aurreikusitako zerga-gastuen zenbatekoen batuketak 1.501,77 milioiko guztizko zifra eragiten du, hau da, 110 milioi euro baino gehixeagoko igoera termino absolutuetan eta % 7,95ko gehikuntza erlatiboa, aurreko ZGAn aurreikusitako zenbatekoarekin alderatuta.

Guztizko zenbateko hori honela banatzen da: salbuespenak, % 16,97; zerga-oinarriaren murriztapenak, % 56,25, eta kuotan aplikatutako kenkariak, % 26,78. Txosten honen amaierako taulan daude jasota.

Oro har, diru-sarrera fiskal teorikoen % 24,72 dira, zerga-gasturik gabe lortuko litzatekeen diru-bilketa gisa definituta, eta aurrekontuaren zenbateko osoaren gaineko % 31,87.

Por todo lo comentado, se ha estimado un total de gasto fiscal por deducciones de la cuota íntegra en IRPF de 402,23 millones, lo que supone un aumento del 14,4 por ciento con respeto al PGF anterior, correspondiendo a las deducciones por vivienda habitual casi el 89 por ciento de ese total.

La agregación de los importes de los gastos fiscales estimados para el PGF 2027 correspondientes a IRPF 2025, conduce a una cifra total de 1.501,77 millones lo que supone un incremento en términos absolutos de algo más de 110 millones de euros y relativo del 7,95 por ciento, respecto a la cantidad presupuestada en el PGF anterior.

La distribución de dicho monto total entre los conceptos de exenciones, reducciones de base imponible, y los relativos a deducciones en la cuota se reparte al 16,97%, 56,25%, y 26,78%, respectivamente y se recogen en el cuadro que figura al final de este informe.

En conjunto, suponen el 24,72% sobre los ingresos fiscales teóricos, definidos éstos como la recaudación que se obtendría sin la existencia de los gastos fiscales, y un 31,87% sobre el importe total del Presupuesto.

II. Sozietateen gaineko zerga

SZn egon dauden zerga-gastuen barruan sartzen dira zerga egitatean jarduten duten eta kontabilitateko emaitza zuzentzen duten pizgarrien multzo bat. Hain zuzen ere, zenbait murrizpen ezarri dira likidazio-oinarrian jarduera ekonomikoa eta enpresen kapitalizazioa sustatzeko, karga-tasa gutxituen eta kuota osoa gutxitzen duten kenkari batzuen aplikazioagatik.

Abenduaren 12ko 6/2025 Foru Arauak, zeinaren bidez ezartzen baita zerga osagarri bat talde multinazionalei eta talde nazional handiei zuzendutako gutxieneko zergapetze-maila global bat bermatzeko, eta aldatu egiten baitira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua

II. Impuesto sobre Sociedades

Los gastos fiscales existentes en el IS están compuestos por un conjunto de ajustes que corrigen el resultado contable y actúan en la base imponible, por el establecimiento de ciertas reducciones en la base liquidable para el fomento de la actividad económica y la capitalización de las empresas, por la aplicación de tipos de gravamen reducidos y por una serie de deducciones que minoran la cuota íntegra.

Norma Foral 6/2025, de 12 de diciembre, por la que se establece un impuesto complementario para garantizar un nivel mínimo global de imposición para los grupos multinacionales y los grupos nacionales de gran magnitud y se modifican la Norma Foral del impuesto sobre sociedades y la

eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, zenbait aldaketa egin dizkio sozietateen gaineko zergaren araudiari. Arau hori eta Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Araua, zeinak zenbait aldaketa egin baitizkio sozietateen gaineko zergaren araudiari, dira zerga-gastuaren zenbatekoaren kalkuluan baina ez definizioan eragina duten arau-berrikuntza nagusiak, jarraian azalduko den bezala.

Hala, zerga-gastuaren kontzeptu hauek zehaztu, zenbatu eta sartu dira SZn:

1. Galera eta irabazien kontuaren emaitzaren doikuntzak:
   - Zuzenketak gastuen arloan
   - Zuzenketak sarreren arloan
2. Konpentsazioak
3. Zerga-oinarrian hala nola mikroenpresentzako ezarritako konpentsazioa eta erreserba bereziak egoteari dagozkionak.
4. Zerga-tasa desberdinak.
5. Kuotaren kenkariak.

Metodologia

Sozietateen gaineko Zergaren arloko zerga-gastuen zenbatespena egitea erraztearen ondoreetarako bakarrik hartzen dira aintzat berariaz foru arautegia aplikatzen duten oinarri likidagarri positibodun sozietateak, horiek direlako kuota eragingarri positiboa sortzen dutenak, beti ere Bizkaian egiten dituzten eragiketen bolumena kontuan hartuta.

Norma Foral del impuesto sobre la renta de las personas físicas ha introducido varias modificaciones en la normativa del Impuesto sobre Sociedades. Esta, junto a la Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia ha introducido varias modificaciones en la normativa del Impuesto sobre Sociedades son las principales novedades normativas que influyen, como se explicará a continuación, en el cálculo de los importes del gasto fiscal, pero no en su definición.

Así, para este ejercicio se definen, se cuantifican y se incorporan los siguientes conceptos de gasto fiscal en el IS:

1. Ajustes al resultado de la cuenta de pérdidas y ganancias:
   - Correcciones en materia de gastos
   - Correcciones en materia de ingresos
2. Compensaciones.
3. Correcciones en la base imponible, tales como la compensación establecida para las microempresas y las relativas a la existencia de reservas especiales.
4. Tipos impositivos especiales.
5. Deducciones de la cuota.

Metodología

Para facilitar la realización de la estimación de los gastos fiscales del Impuesto sobre Sociedades se tienen en cuenta únicamente las sociedades con base liquidable positiva, ya que son las que generan cuota efectiva positiva, que aplican exclusivamente normativa foral y teniendo en cuenta el porcentaje de volumen de operaciones en Bizkaia.

Metodologiaren arloan, 2027ko ZGAn, 2026ko Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, aurreko urteetako Sozietateen gaineko Zergaren aitorpenetan islatu dira zerga-kostu gisa lorturiko balio errealak, azterturikoaren antzekotzat jo daitezkeenak arlo ekonomikotik, betiere 2026ko ekitaldirako aplika daitezkeen aldaketak sartuta.

Zerga hobariak eragiten dituzten eta zenbatesteko modukoak diren zergako elementuak jarraian adierazten diren hauek dira:

1.- Kontabilitatez kanpoko doikuntzak

Kontabilitatez Kanpoko Doikuntzen ziozko zerga-gastua, guztira, 56,2 milioi euroan zenbatu da; sarreretako zuzenketei nahiz gastuetan eginikoei dagozkie.

Beraz, gastuen zuzenketaren arloan, doikuntza negatiboaren kontzeptua, Merkataritzako Funts Finantzarioa baliatzeari dagokiona, 20,19 milioi eurokoa dela zenbatetsi da, hots, jaitsiera nabarmena aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta, 2025eko datu errealetan oinarrituta.

Gastuak zuzentzeko kategoria horretan sartuko lirateke amortizazio libre eta azkartuagatiko doikuntzak. 2025eko ekitaldian, doikuntza negatiboak positiboak baino handiagoak izan dira, eta, horregatik, 2,2 milioi bateko zenbatekoa kalkulatzen da ZGA honetarako, kontuan hartuta haien denborazko izaeraren ondorioz doikuntza horiek atzera itzuli behar direla. Zenbateko horren barruan sartzen da, lehen aldiz, honako honi dagokion zerga-gastua: amortizazio-askatasuna, edo amortizazio bizkorra, aplikatzea oso gutxi kutsatzen duten edo batere kutsatzen ez duten ibilgailu berriei, 2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako soilik, apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauari jarraikiz.

En el terreno metodológico, para el PGF 2027 relativo al Impuesto sobre Sociedades 2026, se proyectan los valores reales obtenidos como coste fiscal en las declaraciones del Impuesto sobre Sociedades de años anteriores que se puedan considerar económicamente similares al analizado y con las modificaciones normativas aplicables para el ejercicio 2026.

Los elementos del impuesto que generan beneficios fiscales y son susceptibles de cuantificación para este PGF en términos homogéneos son los enumerados a continuación:

1.- Ajustes extracontables

El total gasto fiscal por Ajustes Extracontables se cuantifica en 56,2 millones de euros, correspondiendo tanto a correcciones en los ingresos como en los gastos.

Así, en materia de corrección de gastos, el concepto de Ajuste negativo por la dotación del Fondo de Comercio Financiero se cuantifica en 20,19 millones, y supone un fuerte descenso respecto al presupuesto del año anterior, basándonos en los datos reales obtenidos en 2025.

En esta categoría de corrección de gastos entrarían los ajustes por amortización libre y acelerada. En el ejercicio 2025, los ajustes negativos han sido superiores a los positivos, por ello se estima un importe de 2,2 millones para este PGF, teniendo en cuenta que como consecuencia de su propia naturaleza temporal estos ajustes son objeto de reversión. Este importe incluye por primera vez el gasto fiscal correspondiente a la aplicación de la libertad de amortización, o la amortización acelerada, a los vehículos nuevos con escaso o nulo efecto contaminante con vigencia exclusiva para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero de 2025 y hasta el 31 de diciembre de 2035, introducida mediante la Norma Foral 2/2025, de 9 de abril.

Gainera, 2026rako zerga-gastua ere kalkulatu behar da, meatzaritzako jarduerak eta hidrokarburoen esplorazio-, ikerketa- eta ustiapen-jarduerak agortze-faktorearen kontzeptuan doitzeagatik; kasu honetan ere munta oso txikia da, 34 mila eurokoa, aurreko ekitaldian bezala.

Asimismo, también procede estimar gasto fiscal para 2026 por el ajuste en concepto de factor de agotamiento de las actividades de minería y actividades de exploración, investigación, y explotación de hidrocarburos, al igual que en el ejercicio anterior por un importe insignificante de 34 mil euros.

Aurreko ekitaldian bezala, zeinean ez zen inolako gasturik zenbatetsi mikroenpresen eta ETEen kaudimengabeziengatiko egokitzapenarengatik; 2026rako, ordea, ez da inolako gasturik estimatu.

Al igual que en el ejercicio anterior, por el ajuste por Insolvencias en microempresas y PYMES, para 2026 no se estima ningún gasto.

11/2013 FAren 32.5. artikuluko kasuen ondoriozko doikuntza negatiboa zenbatetsi da, gutxi gorabehera 11,1 milioi eurokoa.

Se cuantifica un ajuste negativo en términos de cuota derivado de los supuestos del artículo 32.5 de la NF 11/2013 que se estima en 11,1 millones de euros.

Sarreren zuzenketei dagokienez, zerga-gastu gisa zenbatu dira kontabilitate emaitzako doikuntza hauek:

En el caso de las correcciones de ingresos, se han cuantificado los siguientes ajustes al resultado contable como gasto fiscal:

- Jabetza intelektualak edo industrialak eragindako sarrerak murriztearen ziozko doikuntza: zergaren zerga-oinarrian murriztapena aplikatzean datza, konpainiaren jabetza intelektual edo industrialaren ustiapenaren ondoriozkoa. Patent Box deritzon araubidea da. Aztertutako datuen arabera, 3,6 milioikoa izango da 2026rako, aurreko ekitaldian bezalatsu.

- Ajuste por Reducción de ingresos procedentes de la propiedad intelectual o industrial, que consiste en aplicar una reducción en la base imponible del impuesto, derivada de la explotación de la propiedad intelectual o industrial de la entidad. Es el denominado régimen de Patent Box**.** A la vista de los datos analizados, se estima en 3,6 millones para 2026, importe similar al del ejercicio anterior.

- Zati Batez Salbuetsitako Erakundeek aplikaturiko doikuntza negatiboa, baina zuhur jokatzen da zenbatespena egitean, 4,2 milioi eurokoa. Erakunde horiek beren sozietate helburuaren inguruan lorturiko zenbait errentaren ziozko salbuespenari dagozkio.

- Ajuste negativo aplicado por las Entidades Parcialmente Exentas, para el cual se realiza una estimación que se cifra en 4,2 millones de euros. Se refiere a la exención de determinadas rentas obtenidas por estas entidades relacionadas con su objeto social.

– Tokiko zerbitzu publikoak emateagatiko salbuespena: tokiko zerbitzu publikoak ematen dituzten entitateek lortutako errenten % 100eko salbuespena. Aurtengo aurrekontuan zenbateko garrantzigabea aurreikusi da: 32 mila euro.

– Higiezinen errentamenduaren gaineko jarduera gaitua duten erakundeentzako doikuntza negatiboak murriztapena dakar errentamenduen ondoriozko errentetarako zerga-oinarrian 0,98 milioi euroko zenbatespena egin da 2026rako.

– Aparteko mozkinak berrinbertitzeagatiko salbuespenagatiko doikuntzak pisu espezifiko nabarmena du zerga-ekitaldietan, eta 2025erako diru-sarreren arloko doikuntza guztien ia % 52ra iristen da. 2027ko ZGArako, 11,9 milioi eurokoa izango dela estimatu da. Zifra hori aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa da.

  Doikuntza horrek gorabeherak izan ditu aurreko ekitaldi guztietan zehar eta hori horrela da kontabilitateko emaitzaren doikuntza honen jatorria diren ondare eskualdaketen izaeragatik beragatik, eskualdaketa horiek abagune ekonomikoari lotuta daudelako eta enpresen beharrizan finantzario eta erabaki estrategikoei lotuta daudelako.

– Horrez gain, ZGA honetarako partaidetza-maileguak emateagatiko errenten doikuntza sartu da, enpresa-proiektu berriak garatzea sustatzeko diseinatutakoa, nahiz eta aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta igoera oso txikia izan; 45 mila eurokoa izango dela kalkulatu da.

– Exención por la prestación de servicios públicos locales que se materializa en la exención del 100% respecto a las rentas obtenidas por aquellas entidades que presten servicios públicos locales. Para este año se presupuesta una imperceptible cantidad de 32 mil euros.

– El ajuste negativo para las Entidades con actividad cualificada de arrendamiento de inmuebles supone una reducción de la base imponible para las rentas procedentes de los arrendamientos y se cuantifica para 2026 en 0,98 millones de euros.

– El ajuste por Exención por reinversión de beneficios extraordinarios presenta a lo largo de los ejercicios fiscales un peso específico considerable, y para 2025 asciende al 52% del total de ajustes en materia de ingresos. Se estima un importe de 11,9 millones de euros para el PGF 2027, cifra muy similar a la del ejercicio anterior.

  Este ajuste presenta altibajos a lo largo de todos los ejercicios precedentes y ello por la propia naturaleza de las transmisiones patrimoniales que son el origen de este ajuste al resultado contable, las cuales se hallan expuestas a la coyuntura económica y a las necesidades financieras y las decisiones estratégicas de las empresas.

– Asimismo, se incluye para este PGF el ajuste por rentas por concesión de préstamos participativos, diseñado para fomentar el desarrollo de nuevos proyectos empresariales, así, se estima en una mínima cantidad que asciende a 45 mil euros.

– Azkenik, itsasoko enpresek Tonnage Tax araubidean buruturiko doikuntza ia 1,9 milioi euroan zenbatetsi da 2026. urteko SZrako, azken ekitaldiko aitorpenetan bildutako datuak ikusita. Halako doikuntza gertatzen da horrelako erakundeek zerga-oinarriaren zati bat legez ezarritako prozedura erabiliz zehaztea hautatzen dutenean, baina ez itsasontzien tona kopuruaren arabera, benetako errentaren arabera baizik.

Beraz, kontabilitatez kanpoko doikuntzei dagokienez, guztizko zenbatespena murriztu egin da aurreko urteko ZGAren guztizko zenbatespenarekin alderatuta, ehuneko 13 jaitsita, Finantza Merkataritzako Funtsaren zuzkiduragatiko doikuntzaren jaitsierak eraginda.

2.- Zerga-oinarriaren zuzenketak

2.1. Ehuneko 15eko murriztapena mikroenpresentzat.

SZari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 32.4 artikuluak, zeina Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak aldatu baitu 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan ondorioak izan ditzan, *sine die* finkatu du mikroenpresentzat zerga-oinarritik zerga-oinarri positiboaren 100eko 15 kentzeko aukera, dimentsioari datxezkion zailtasunengatiko tributu-konpentsazio gisa.

Ziurgabetasun handiko egoera ekonomikoa kontuan hartuta, haren kostua 18 milioitan kalkulatzen da kuotari dagokionez; zenbateko hori aurreko ekitaldikoa baino apur bat handiagoa da, mikroenpresen likidazio-oinarriaren goranzko joeran oinarrituta.

– Por último, el ajuste llevado a cabo por las empresas marítimas por el Régimen de Tonnage Tax se estima para el IS 2026 en casi 1,9 millones de euros a la vista de los datos recabados en la última declaración. Se produce cuando este tipo de entidades opta por determinar parte de la base imponible mediante un procedimiento establecido legalmente en función del tonelaje de los buques en lugar de hacerlo en función de la renta real.

Por tanto, en materia de ajustes extracontables, la estimación total disminuye respecto a la estimación total del PGF del año anterior, con un descenso del 13 por ciento, motivado principalmente por el descenso del ajuste por la dotación del Fondo de Comercio Financiero.

2.- Correcciones a la base imponible

2.1. Reducción del 15 por ciento para las Microempresas.

El artículo 32.4 de la Norma Foral 11/2013, de 5 de diciembre, del IS, modificado con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025, por la Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia, establece sine die la posibilidad para las microempresas de poder considerar deducible de su base imponible un importe equivalente al 15 por 100 de su base imponible positiva en concepto de compensación por las dificultades inherentes a su dimensión.

Teniendo en cuenta la actual coyuntura económica caracterizada por la incertidumbre, se estima su coste en términos de cuota en 18 millones, importe ligeramente superior al ejercicio anterior basándonos en la tendencia alcista de la base liquidable de las microempresas.

Araudi berriak (2014tik hasita izango ditu ondorioak) sartu dituen eta zergaren zerga-oinarrian eragina duten erreserba bereziei buruzkoak dira oinarriko hurrengo zuzenketak, eta uztailaren 20ko 8/2022 Foru Arauak, enpresen kapitalizazio handiagoa bultzatzeko hobekuntzak ezartzen dituenak, aldatu egin ditu krisi-egoerei errazago aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren baliabideak emateko. Horien kuantifikazioa egiteko 2025eko ekitaldian erregistratutako emaitzak hartu dira erreferentziatzat.

Las siguientes correcciones, en materia de aplicación del resultado, son las relativas a las reservas especiales, que afectan a la base imponible del impuesto, introducidas en la normativa con efectos a partir de 2014 y modificadas por Norma Foral 8/2022, de 20 de julio, por la que se implementaron mejoras para impulsar una mayor capitalización de las empresas, con el fin de dotarlas de los recursos necesarios para que puedan afrontar más fácilmente situaciones de crisis. Su cuantificación se incluye tomando como referencia los resultados registrados en el ejercicio 2025.

Zenbatespena kuotari dagokionez egin da, hau da, tasa orokorra (% 24) aplikatuz erreserba horretarako aurreikusitako zenbatekoari.

La estimación se realiza en términos de cuota, es decir aplicando el tipo general del (24%) al importe previsto para estas reservas.

2.2. Enpresen kapitalizazioa sustatzeko erreserba

11/2013 Foru Arauko 51. artikuluan, zerga-oinarriaren murriztapena biltzen da, ondare garbiaren gehikuntzako zenbatekoaren % 15aren kantitate baliokideari dagokiona eta aurreko ekitaldiarekiko zerga-ondorioak dituena.

2025eko ekitaldiko datuak ikusita, kontzeptu horrengatiko zerga-gastua 6,8 milioiren inguruan ibiliko dela kalkulatu da.

2.2. Reserva para fomentar la capitalización empresarial

El artículo 51 de la NF 11/2013 recoge una reducción de la base imponible de una cantidad equivalente al 15 por 100 del importe del incremento de su patrimonio neto a efectos fiscales respecto al ejercicio anterior.

A la vista de los datos del ejercicio 2025, el gasto fiscal por este concepto se estima que sea de 6,8 millones.

2.3. Etekinak berdintzeko erreserba berezia

11/2013 FAko 52. artikuluan, kontabilitate emaitza positiboaren zenbatekoari dagokion zerga-oinarriaren murriztapena biltzen da, baldin eta etekinak berdintzeko erreserba berezirako baliatzen bada, betiere, gehienez, libreki balia dezaketen emaitza horren zatiaren % 10 izango dena.

2.3. Reserva especial para la nivelación de beneficios

El artículo 52 de la NF 11/2013 recoge una reducción de la base imponible en el importe de su resultado contable positivo que se destine a la dotación de una reserva especial para nivelación de beneficios hasta un importe máximo del 10 por 100 de la parte de ese resultado sobre la que puedan disponer libremente.

ZGA honetarako, zerga-gastua 108 mila euro izango dela kalkulatu da, aurreko urtean bezalatsu. Aurreikuspenerako, 2025eko ekitaldian lortutako datuak hartzen dira kontuan.

2.4. Ekintzailetza eta ekoizpen-jarduera sustatzeko erreserba berezia

11/2013 FAko 52. artikuluan, kontabilitateko emaitza positiboaren zenbatekoaren % 65eko murriztapena biltzen da zerga-oinarrian, betiere ekintzailetza eta ekoizpen-jarduera sustatzeko erreserba berezirako baliatzen baldin bada.

Kontzeptu horrengatiko zerga-gastua 0,99 milioi eta erdi baino apur bat gehiagokoa izango dela kalkulatu da, aurreko ZGA baino txikiagoa, 2025eko ekitaldian lortutako datu errealetan oinarrituta.

3.- Zerga-tasa bereziak

Zerga-gastua dago lortutako errenta osoari nahiz zati bati orokorra baino tasa baxuagoa ezartzen zaionean eta hori, 2019ko ekitaldirako soilik, ehuneko 24koa da, 2/2018 FAn ezarritakoaren arabera.

Kontzeptu horri dagokion zerga-gastuaren zenbatekoa lortzeko, karga-tasa orokorra eta ezarri den benetako tasaren arteko diferentzia biderkatu behar da aitortutako oinarri likidagarriaz, Bizkaiari dagokionez, azken ekitaldietan eskuratu diren emaitzak ikusiz zenbatespena eginda lortuta.

- Mikroenpresak eta enpresa txikiak: % 20ko tasa aplikatzen diote sortutako oinarri likidagarri positibo osoari, eta horrek berekin dakar ehuneko 4 punturen aldea tasa orokorrarekin alderaturik. Zenbatespenak egiteko kontuan hartu da aurreikusitako egoera ekonomikoa, hazkunde apalekoa. Horrek ekarri du kolektibo horretarako lortutako zerga-gastua handitzea, 40,8 milioi

Para este PGF se estima gasto fiscal por importe de 108 mil euros, semejante al año anterior. Para la previsión se tienen en cuenta los datos obtenidos en el ejercicio 2025.

2.4. Reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva

El artículo 53 de la NF 11/2013 recoge una reducción de la base imponible en el 65 por 100 del importe del resultado contable positivo que se destine a la dotación de una reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva.

El gasto fiscal por este concepto se estima en poco más de 0,99 millones de euros, inferior al anterior PGF, basándonos en los datos reales obtenidos en el ejercicio 2025.

3.- Tipos impositivos especiales

Existe gasto fiscal cuando una parte o la totalidad de la renta neta obtenida tribute a un tipo de gravamen inferior al general, siendo este, según se establece en la NF 2/2018, a partir del ejercicio 2019, el 24 por ciento.

El volumen de gasto fiscal por este concepto resulta de multiplicar la diferencia del tipo aplicado respecto del tipo impositivo general por la base liquidable positiva declarada, correspondiente a Bizkaia, obtenida por estimación a la vista de los resultados obtenidos en los últimos ejercicios.

- Microempresas y Pequeñas Empresas: Aplican el tipo del 20% a toda la base liquidable positiva generada, lo que conlleva una diferencia de 4 puntos porcentuales con el tipo general. Para las estimaciones se tiene en cuenta la coyuntura económica previsible de crecimiento, lo que conduce a un incremento para este colectivo del gasto fiscal real obtenido estimándose un importe

eurokoa izango dela zenbatetsi dena, bereziki enpresa mota horren zerga-oinarria handituko dela aurreikusi delako eta aurreko urteko zenbatespen zuhurra dela eta.

- Sozietate kooperatiboak: tasa orokorra ez diren tasa hauek aplikatzen dira: % 20koa fiskalki babestutzat jotzen diren kooperatiben kasuan, % 18koa mikroenpresen eta enpresa txikien kasuan, eta % 19koa a oinarri bereziaren kasuan. Sozietateen gaineko Zergan 2025ean eskuratutako emaitzetan oinarrituta -bertan murriztu egin da halako sozietateen zerga-oinarria-, zerga-gastua kooperatiba guztientzat 3,8 milioi eurokoa izango dela zenbatetsi da.

- Nahiko antzekoa den kopurua zenbatetsi da beste zerga-tasa berezi batzuen ondoriozko zerga-gasturako: 0,94 milioi euro guztira.

Orokorra ez bestelako zerga-tasak aplikatzearen ziozko zerga-gastua, guztira, 45,6 milioi euroan zenbatetsi da, hots, ia % 8ko gehikuntza aurreko ZGArekiko zenbatespenaren aldean, mikroenpresei eta enpresa txikiei dagokien zerga-gastua gehitzearen ondorioz batez ere.

4.- Kuotan egindako kenkariak

Zerga arautzen duen araudian jasotako neurri inbertsio-pizgarriei buruzko zerga-gastuak zenbatestea da. Enpresa-inbertsiorako zerga-pizgarriek osatzen dute zergaren etekinen zati handia.

Kenkari horien aplikazioa inplizituki dago lotuta kenkari aplikatuen zenbatekoaren eta kuota likidoaren arteko erlazioarekin. Kuota horrek behera egiten duen heinean, zenbaturiko kenkariak ere jaisten dira (baina ez sozietateek sorturikoak, zeren kuota handiagoko ekitaldirako atzeratzen baitute aplikazioa).

de 40,8 millones de euros, debido principalmente a la previsión del aumento de la base imponible de este tipo de empresas y a la moderada estimación del año anterior.

- Sociedades Cooperativas: se aplica a la diferencia con el tipo general de los tipos del 20% a las consideradas fiscalmente protegidas, del 18%, además, en el caso de Microempresas y Pequeñas Empresas, y del 19%, aplicable a la base especial. Dados los resultados obtenidos en Sociedades 2025 que se caracterizan por el descenso de la base imponible de este tipo de sociedades, se realiza una cuantificación del gasto fiscal de 3,8 millones de euros para la totalidad de las cooperativas.

- Se mantiene bastante pareja la estimación del gasto fiscal por otros tipos impositivos especiales, ascendiendo a un total de 0,94 millones de euros.

El total de gasto fiscal por la aplicación de tipos impositivos diferentes al general se cuantifica en 45,6 millones, cifra que implica aumentar en un 8% la estimación respecto a la del precedente PGF debido principalmente al aumento de gasto fiscal correspondiente a las microempresas y pequeñas empresas.

4.- Deducciones en la cuota

Se trata de cuantificar los gastos fiscales relativos a las medidas incentivadoras de la inversión contenidas en la normativa reguladora del impuesto. Los diversos incentivos fiscales a la inversión empresarial constituyen el grueso de los beneficios fiscales del impuesto.

La aplicación de estas deducciones está implícitamente ligada a la relación entre el importe de las deducciones aplicadas y el importe de la cuota líquida. En la medida en que esta disminuye también lo hacen las deducciones computadas (no así las generadas por las sociedades que ven aplazada su aplicación a ejercicios con mayor cuota).

Zergen arloko Neurriei buruzko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, 2018ko ekitaldiaren ondorengo ekitaldietarako murriztu zuen kuota likidoaren muga, aipaturiko kuota horren % 45etik % 35era, eta % 70eko muga ezarri zuen I+G-ri eta Berrikuntzari dagozkien kenkarietan; aurreko ekitaldietan ez zegoen halakorik. Ondoren, % 35eko muga % 50eraino handitu zitzaien 2022ko eta hurrengo ekitaldirako, garapen jasangarria, ingurumenaren kontserbazioa eta hobekuntza eta energia-iturrien aprobetxamendu eraginkorragoa helburu duten proiektuei lotutako inbertsio eta gastuengatiko kenkariari SZFAren 65. artikulua), eta 2023ko ekitaldirako, kultura sustatzeko pizgarriengatiko kenkariari (SZFAren 66 quater artikulua). 2024. urtetik Neurriei buruzko Foru Arauak % 50eko muga duten kenkarien artean sartu du ikus-entzunezko lanen eta arte eszenikoen eta musikalen eta zuzeneko ikuskizunen eta liburuen argitalpenaren finantzaketan parte hartzea, eta % 70eko muga dutenen artean, berriz, ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzea. Lehen biek % 35eko muga zuten.

Araudiaren aldaketa horrek eragina izan behar du ekitaldiko zerga-gastuaren zenbatespenean, zeren eta enpresek sortutako kenkariekiko eta ekitaldi bakoitzean aplikaturikoekiko egiten baitira zenbatespena. Kuota likido nahikorik ez izateak edo horren gaineko muga aldatzeak eragina du enpresa bakoitzak aurreko urteetan aplikaturiko kenkariak oinarri hartuta eginiko kalkuluetan.

Kontuan hartuta 2025eko ekitaldian aurkeztutako azken aitorpenetan lortutako datuak, eta gizarte-aurreikuspena sustatzeko hartutako neurriak (2/2025 Foru Arauan jasoak), 336,6 milioi euroko baterako zerga-gastua zenbatetsi da pizgarriengatiko kuotan aplikatuko diren kenkarietarako.

La Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo, de Medidas Tributarias, en lo que se refiere al Impuesto sobre Sociedades, redujo para ejercicios posteriores a 2018 el límite de la cuota líquida desde el 45% hasta el 35% de la mencionada cuota y estableció un límite para aquellas deducciones relativas a I+D y a la Innovación del 70% que en ejercicios anteriores no existía. Posteriormente, se incrementó el límite del 35% hasta el 50%, para el ejercicio 2022 y siguientes, a la deducción por inversiones y gastos vinculados a proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la conservación y mejora del medio ambiente y el aprovechamiento más eficiente de fuentes de energía (artículo 65 de la NFIS), y para el ejercicio 2023, a la deducción por incentivos para el fomento de la cultura (artículo 66 quater de la NFIS). Desde el año 2024 la Norma Foral de medidas incluye entre las deducciones con límite del 50% la participación en la financiación de obras audiovisuales y de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales y en la edición de libros, y entre las del límite del 70% la participación en proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica, teniendo anteriormente ambas un límite del 35%.

Este cambio normativo deberá influir en la estimación del gasto fiscal del ejercicio porque dichas estimaciones se realizan sobre las deducciones generadas por las empresas y aplicadas en cada ejercicio. La insuficiencia de cuota líquida o la variación del límite sobre la misma afecta a los cálculos efectuados en base a las deducciones aplicadas en años anteriores por cada empresa.

Dados los datos obtenidos en las últimas declaraciones presentadas del ejercicio 2025, y las medidas adoptadas para la previsión social recogidas en la Norma Foral 2/2025, se estima un importe de 336,6 millones de euros el gasto fiscal conjunto para las deducciones que se aplicaran en la cuota por incentivos.

ZGA egitean, ekitalditik datozen kenkari aplikatuen irizpidea jarraitzen da, baita aurreko urteetan sortutako saldo aplikatuen irizpidea ere, saldo horiek egiazko kuotan duten efektua nabarmentzeko.

Zenbatespenen arabera, ia 172,7 milioi euro da sortutako kenkarien zenbatekoa, ekitaldian bertan aplikatua, eta 163,95 milioi euro aurreko urteetako saldoen zenbatekoa, 2026ko Sozietateen gaineko Zerga aplikatuko dena. Aplikatutako kenkarien guztizko zenbatekoak gora egin du aurreko ekitaldiaren aldean, batez ere sozietateen kuota likidoa gehitu delako.

Ekitaldian sortutako eta aplikatutako kenkariei dagokienez:

⇒ 2025eko ekitaldian aurkeztutako aitorpenetan, igoera handia ikusi da aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioengatik aplikatutako kenkarian, aurreko ekitaldiarekin alderatuta; hori dela eta, 2025eko SZrako zerga-gastua 16,8 milioi izango dela aurreikusi da, hau da, ia % 35 gehituko da aurreko ekitaldiko estimazioaren aldean.

⇒ 2026ko ekitaldian I+Gko eta berrikuntzako proiektuak egiteagatik sortu eta aplikatu diren kenkarien ondoriozko zerga-gastua 18,75 milioi euro da; izan ere, kalkulatu da ezen, goranzko joerari jarraikiz, gora egingo dutela zientzian eta ikerketan egindako inbertsioek. Gainera, 2025eko ekitalditik aurrera, kenkari-ehunekoa zergaldian ikerketa- eta garapen-jarduerak gauzatzeko egindako gastuen % 35eraino igo da (% 55 aurreko bi ekitaldietako batezbestekoaren gaineko soberakinerako), baldin eta gastu horiek ingurumen-inpaktu negatiboa nabarmen murriztearekin soilik lotuta badaude.

En la confección de este PGF se sigue el criterio de las deducciones aplicadas procedentes del propio ejercicio y los saldos aplicados procedentes de deducciones generadas en años anteriores para destacar el efecto en la cuota efectiva de dichos saldos.

Se estima en 172,7 millones el importe de las deducciones generadas y aplicadas en el propio ejercicio y en 163,95 millones el importe de los saldos de años anteriores que se aplicarán en Sociedades 2026. El importe total de las deducciones aplicadas aumenta respecto al ejercicio anterior, principalmente por el aumento de la cuota líquida de las sociedades.

Respecto de las deducciones generadas y aplicadas en el ejercicio:

⇒ En las declaraciones presentadas en el ejercicio 2025 se ha observado un gran aumento en la deducción aplicada por inversiones en activos no corrientes nuevos respecto al ejercicio anterior, por tanto, se prevé para IS de 2025 un gasto fiscal de 16,8 millones, aumentando un 35% sobre la estimación del ejercicio anterior.

⇒ El gasto fiscal derivado de las deducciones generadas y aplicadas en el ejercicio 2026 por realización de proyectos de I+D e innovación asciende a 18,75 millones de euros, ya que se estima que, siguiendo la tendencia creciente, las inversiones en ciencia e investigación aumenten. Además, a partir del ejercicio 2025 el porcentaje de deducción ha aumentado hasta el 35% (55% para el exceso sobre la media de los dos ejercicios anteriores) de los gastos efectuados en la realización de actividades de investigación y desarrollo en el período impositivo vinculados exclusivamente a la reducción de forma sustancial del impacto ambiental negativo.

Bestalde, ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuen finantzaketan parte hartzeari dagokion zerga-gastua nabarmen gehitu da, 42,8 milioiraino, batez ere 2024ko ekitalditik aurrera % 70eraino igo delako proiektu mota horien finantzatzaileen kenkariei dagokien aplikazio-muga.

Por otro lado, el gasto fiscal relativo a la Participación en la financiación de proyectos de investigación y desarrollo o innovación tecnológica ha aumentado considerablemente hasta los 42,8 millones, originado principalmente por el aumento del límite de aplicación al 70% a partir del ejercicio 2024 correspondiente a las deducciones de los financiadores de este tipo de proyectos.

Horrenbestez, I+Gko eta berrikuntzako kenkari guztien zerga-gastua ia 61,6 milioi izango dela estimatu da; alegia, aurreko urtean baino askoz ere gehiago.

Por lo tanto, el gasto fiscal de todas las deducciones de I+D e innovación se estima en casi 61,6 millones, aumentando considerablemente respecto a la estimación realizada el año anterior.

⇒ Enplegua sortzeagatik aplikatutako kenkariak behera egingo duela uste da, 2025eko ekitaldian lortutako datuak eta enplegu-itxaropen ez oso baikorrak kontuan hartuta, 4,3 milioi euroraino. Zenbateko hori aurreko urtekoa baino txikiagoa da. Horren arrazoia da, neurri batean, 2025eko ekitalditik kenkari berri bat sortu izana, emakumeen eta 36 urtetik beherakoen enplegua sortzeagatikoa, zeinaren 2027rako zerga-gastua 2 milioi eurokoa baita.

⇒ La deducción por creación de empleo aplicada se estima que disminuya teniendo en cuenta los datos obtenidos en el ejercicio 2025 con un importe que asciende a 4,3 millones de euros. Este importe es inferior al del año anterior, debido en parte a la creación de una nueva deducción desde el ejercicio 2025 por la creación de empleo de mujeres y menores de 36 años, cuyo gasto fiscal para 2027 asciende a 2 millones de euros.

⇒ Nabarmentzekoak dira, batetik, 2023ko ekitalditik kultura sustatzeko zerga-pizgarriengatiko kenkaria dela-eta egin den idazketa berria; hala indargabetuta geratu da Sozietateen gaineko Zergaren Foru Arauaren 15. xedapen gehigarria, lehen kulturarekin lotutako kenkariak jasotzen zituena, eta, bestetik, ikus-entzunezko lanen eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzeagatiko kenkari berria. Hala, gehitu egin dira ikus-entzunezko lanen ekoizpenetan egindako inbertsio eta gastuetarako kenkarien ehunekoak, eta arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunengatiko kenkari berri bat gehitu da. 2025ko ekitaldian lortutako datuak kontuan hartuta, 2,9 milioi euroko gastua kalkulatu da kontzeptu honengatik.

⇒ Cabe destacar la nueva redacción desde el ejercicio 2023 de la deducción por incentivos fiscales para el fomento de la cultura, quedando derogada la Disposición Adicional 15 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades donde se recogían anteriormente las deducciones relacionadas con la cultura, y la nueva deducción por participación en la financiación de obras audiovisuales y de espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales. Así, se incrementan los porcentajes de deducción para las inversiones y gastos en producciones de obras audiovisuales, y se añade una nueva deducción por espectáculos en vivo de artes escénicas y musicales. Teniendo en cuenta los datos obtenidos del ejercicio 2025 se estima un gasto por este concepto de 2,9 millones de euros.

Halaber, 2023. urtean, kenkari berri bat sortu zen ikus-entzunezko lanen eta arte eszenikoen zuzeneko ikuskizunen finantzaketan parte hartzeagatik. Berrikuntza horiek guztiak azaroaren 23ko 9/2022 Foru Arauaren bidez sartu ziren. Arau horren bidez, kultura sustatzeko zerga-pizgarriak eguneratu eta handitu ziren, aplikagarri zaizkien zerga-pizgarriak nabarmen hobetuz. Halaber, 2024rako, kenkari hori % 35eko kuota-muga izatetik % 50ekoa izatera igaro zen; horregatik, zerga-gastuak hazten jarraituko duela estimatu da, ekonomia-intereseko taldeek euren bazkideei egozten dieten aipatutako lehenengo kenkaritik finantzaketa-kontratu bat sinatuta finantzaketan parte hartzeari dagokion kenkari honetara pasatzearen ondorioz. Hala, aurrekontu honetarako, 60,5 milioi euroko zenbatekoa kalkulatu da. Zenbateko hori aurreko aurrekontukoa baino askoz ere handiagoa da, eta horrek agerian uzten du goranzko bilakaera, % 50eko mugara igaro denetik.

Igualmente, en 2023, se creó una nueva deducción por la participación en la financiación de obras audiovisuales y espectáculos en vivo de artes escénicas. Todas estas novedades se introducen por Norma Foral 9/2022, de 23 de noviembre, por la que se actualizan y amplían los incentivos fiscales para el fomento de la cultura, mejorando sustancialmente los incentivos fiscales que les son aplicables. Asimismo, para el año 2024 esta deducción pasó de tener un límite de cuota del 35% al 50%, por ello se estima que el gasto fiscal siga aumentando, como consecuencia a su vez del trasvase de la primera deducción anterior que imputan las AIEs a sus socios, a esta deducción correspondiente a la participación en la financiación con la suscripción de un contrato de financiación. Así, para este presupuesto se calcula en una cuantía de 60,5 millones de euros, cuantía considerablemente superior a la del presupuesto anterior, y que confirma la evolución creciente desde su paso al límite del 50%.

Gainera, 2024tik ere handitu egin zen liburuak argitaratzeagatiko kenkariaren intentsitatea, eta liburuak editatzeko jardueraren finantzaketan parte hartzeagatiko kenkaria lortzeko aukera ezarri zen.

Además, también desde el año 2024, se incrementó la intensidad de la deducción por edición de libros y se estableció la posibilidad de acceder a la deducción por participación en la financiación de la actividad de edición de libros.

2025eko ekitaldiko datuetan eta urte horretatik aurrera sartutako aldaketetan oinarrituta, batez ere aplikazio-muga handitzeagatik, kenkari berri horien guztizko zerga-gastuaren aurreikuspena 63,4 milioi eurokoa da.

En base a los datos del ejercicio 2025, y las modificaciones introducidas desde ese mismo año, esencialmente por el aumento del límite de aplicación, la previsión de gasto fiscal total de estas nuevas deducciones asciende a 63,4 millones de euros.

⇒ Garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuei lotutako inbertsio eta gastuengatik aplikatu ahal den kenkaria, 2025eko ekitalditik aurrera aplikatzeko ehuneko berri bat onesteari esker, 2,8 milioi euroraino igo da, % 30etik % 35era igarota.

⇒ La deducción por inversiones y gastos vinculados a proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular, gracias a la aprobación de un nuevo porcentaje de deducción a partir del ejercicio 2025, pasando del 30% al 35% ha aumentado hasta 2,8 millones de euros.

⇒ Abenduaren 12ko 6/2025 FAren bidez, kenkari berri bat sartu zen, 2025eko urtarrilaren 1etik 2035eko abenduaren 31ra bitartean hasitako zergaldietarako soilik, garapen jasangarria, ingurumen-inpaktuaren murrizketa, trantsizio energetikoa eta ekonomia zirkularra sustatzen dituzten proiektuetan parte hartzeagatik. 2027rako, eta 2025eko sozietateen gaineko zergan oinarrituta, 9,6 milioi euroko zerga-gastua estimatu da.

⇒ Mediante la NF 6/2025, de 12 de diciembre, se introdujo, con vigencia exclusiva para los periodos impositivos iniciados entre el 1 de enero de 2025 y hasta el 31 de diciembre de 2035 una deducción por la participación en proyectos que procuren el desarrollo sostenible, la reducción del impacto ambiental, la transición energética y la economía circular. Para 2027, y basándonos en el Impuesto sobre Sociedades de 2025 se estima un gasto fiscal de 9,6 millones de euros.

⇒ Mikroenpresetan, enpresa txiki edo ertainetan —berrietan zein sortu berrietan—, enpresa berritzaileetan edo zilarrezko ekonomiarekin edo *silver economy*arekin lortutakoetan —ekonomia hori adinekoen sektoreak egindako eta eskatutako jardueren inpaktu ekonomiko eta sozialetik eratorritako aukeren multzotzat hartuta—, egindako inbertsioagatiko kenkaria, bai eta zilarrezko ekonomiaren esparruan eta zainketen sektorean Lanbide Heziketako gastuengatiko kenkaria ere, zenbateko urrian zenbatetsi dira biak, zehazki, 208 mila euro, 2025eko datuen arabera.

⇒ La deducción por inversión en microempresas, pequeñas o medianas empresas de nueva o reciente creación, innovadoras o vinculadas con la economía plateada o Silver Economy, entendida, como el conjunto de las oportunidades derivadas del impacto económico y social de las actividades realizadas y demandadas por el sector de las personas mayores, así como una deducción por los gastos de formación profesional en el ámbito de la economía plateada y en el sector de los cuidados, se estima ambos en una cuantía de 208 mil euros, atendiendo a los datos del año 2025.

⇒ Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauaren 66 septies artikuluak % 15-% 25eko kenkaria ezartzen du BGAEetan integratutako lehentasunezko gizarte-aurreikuspeneko planei egindako enpresa-kontribuzioengatik, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin.

Foru-arau berberak xedatutako 66 octies artikuluak beste kenkari bat ezartzen du, % 10ekoa, lehentasunezkoak ez diren enpleguko gizarte-aurreikuspeneko sistemei egindako enpresa-kontribuzioengatik, betiere betekizun jakin batzuk betetzen badira.

⇒ El artículo 66 septies, con efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2025, introducido por Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia, establece una deducción de entre el 15% y el 25% de las contribuciones empresariales a Planes de Previsión Social Preferentes integrados en EPSV.

El artículo 66 octies implantado por la misma Norma Foral establece igualmente una deducción del 10% por las contribuciones empresariales a sistemas de previsión social de empleo no preferentes siempre que se cumplan una serie de requisitos.

Estimazioen arabera, lehenengoaren zerga gastua 125 mila eurokoa izango da, eta 336 mila eurokoa bigarrenarena, 2025eko ekitaldiko sozietateen gaineko zergaren datuak oinarri hartuta.

⇒ Lehentasunezkotzat jotako jarduera eta programengatiko kenkariak 919 mila euroko zerga-gastua ekarriko duela kalkulatzen da, eta mezenasgoaren onuradun gisa kalifikatutako erakundeen aldeko dohaintza eta ekarpenengatiko kenkariarenak, berriz, 677 mila eurokoa.

⇒ Lan-jardueran integratzea sustatzeko kenkarirako, zeina Irabazi-asmorik gabeko entitateen irabazteko asmorik gabeko entitateen eta mezenasgorako zerga-pizgarrien zerga-araubideari buruzko martxoaren 20ko 4/2019 FAren bosgarren xedapen gehigarriak ezarri baitu 2022tik, ez da estimatu zerga-gasturik aurtengo.

Lehen aldiz jaso dira aurrekontuan apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak 2025eko ekitalditik sartutako kenkari batzuk.

⇒ Hala, 17 mila euroko zerga-gastua estimatu da, familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurriak ezartzearekin lotutako kenkariengatik.

⇒ Hiriko bizikletetan inbertitzeagatiko eta bizikletak aparkatzeko egokitutako instalazioetan inbertitzeagatiko kenkariei dagokienez, aurrekontu honetan ez da zenbatekorik zerga-gastutzat jo.

Bestalde, kuota osoan aplikatzeko kenkariei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

Se estima un gasto fiscal de 125 mil euros para la primera y 336 mil para la segunda basándonos en datos del Impuesto sobre Sociedades del ejercicio 2025.

⇒ La deducción por actividades y programas declarados prioritarios se estima que suponga un gasto fiscal de 919 mil euros, mientras que el de la deducción por donaciones y aportaciones a favor de entidades calificadas como beneficiarias del mecenazgo se calcula en 677 mil euros.

⇒ Para la deducción por fomento de la integración en la actividad laboral introducida desde 2022 por la DA Quinta de la NF 4/2019, de 20 de marzo, de Régimen Fiscal de las Entidades sin fines lucrativos y de los Incentivos Fiscales al Mecenazgo no se estima un importe como gasto fiscal para este año.

Se incluyen por primera vez en el presupuesto algunas deducciones introducidas por la NF 2/2025, de 9 de abril, desde el ejercicio 2025.

⇒ Así, se estima un gasto fiscal de 17 mil euros por las deducciones relacionadas con la implantación de medidas de conciliación de la vida personal, familiar y laboral.

⇒ En cuanto a la deducción por inversión en bicicletas urbanas y la inversión por instalaciones adaptadas para su aparcamiento este presupuesto no se estima ningún importe como gasto fiscal.

Por otro lado, en relación con las deducciones aplicables en cuota íntegra cabe señalar lo siguiente:

⇒ Indarrean dagoen araudiarekin bat etorriz, bereziki babesturik dauden sozietate kooperatiboek aplikatutako kenketak kuotako kenkariak izatera pasatzen dira eta 2026ko Sozietateen gaineko Zergan 6,96 milioi euroan zenbatetsi dira, azken urteetako goranzko joera etenda.

⇒ Estimazioen arabera, TicketBAI sistemara egokitzeko kenkariak apurka-apurka behera egingo du hurrengo ekitaldietan, eta 112 mila eurokoa izango da 2026ko sozietateen gainerako zergarako. Aipatu bezala, 2025era arte egindako inbertsioengatik bakarrik sortu ahal izan den kenkaria da, baina kuotarik ez izateagatik kenkaria aplikatu ezin izan duten enpresek hurrengo 30 urteetan aplikatu ahal izango dute.

⇒ Azkenik, portu-agintaritzek egindako inbertsioengatik 2020ko ekitalditik aurrera ezarritako kenkarirako (11/2013 FAren 60. bis), halako entitateek zuten salbuespen subjektiboa kendu egin denez, 2,8 milioi euroko zenbatekoa estimatu da 2026ko ekitaldirako.

2027ko ZGArako Sozietateen gaineko Zergako zerga-etekinen guztizko zenbatekoa, 2026ko ekitaldi fiskalari dagokionez, 464 milioi ingurukoa da, hau da, aurrekontu osoaren % 9,86 eta zerga hori dela-eta lortzen diren diru-sarrera teoriko guztien % 33,98, hau da, ia ehuneko 14ko igoera aurreko ZGAren aldean.

Aurreko urteko ZGArekin alderatuta, ia 100 milioi euro inguruko igoera izan da termino absolutuetan, hau da, ehuneko 27ko aldakuntza-tasa.

⇒ Ateniéndonos a la normativa vigente, las bonificaciones aplicadas por las sociedades cooperativas especialmente protegidas pasaron a ser deducciones en cuota, y para el IS 2026 se cuantifican en 6,96 millones de euros, rompiendo la tendencia creciente de los últimos años.

⇒ La Deducción de adaptación al sistema TicketBAI se estima que vaya disminuyendo poco a poco durante los próximos ejercicios, situándose en 112 mil euros para el Impuesto sobre Sociedades de 2026. Como se ha mencionado, se trata de una deducción que solo se ha podido generar por inversiones realizadas hasta 2025 pero que las empresas que no hayan podido aplicar la deducción por falta de cuota podrán aplicarla en los siguientes 30 años.

⇒ Por último, para la deducción introducida a partir del ejercicio 2020, por inversiones realizadas por las Autoridades Portuarias (art. 60. bis de la NF 11/2013), como consecuencia de la eliminación de la exención subjetiva de que disfrutaban este tipo de entidades, se estima un importe de 2,8 millones de euros para el ejercicio 2026.

El importe total de los beneficios fiscales en el Impuesto sobre Sociedades para el PGF 2027, relativos al ejercicio fiscal 2026, se sitúa en torno a los 464 millones lo que representa el 9,86% del total presupuestado y un 33,98% del total de ingresos teóricos por esta figura impositiva, con un ascenso de casi el 14 por ciento respecto al PGF precedente.

Respecto al PGF del año anterior, se produce un aumento de alrededor de 100 millones de euros en términos absolutos lo que supone una tasa de variación porcentual del 27 por ciento.

III. Ondarearen gaineko zerga.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren edukitik abiatuz, zerga-gastua osatzen duten elementu kontzeptualak eta zenbatespenen alderdi metodologikoak zehaztu ditzakegu.

Esan behar da 2023ko ZGAn OZaren eta PFEZaren kuota osoei ezarritako muga bateratuaren araberako doikuntza zerga-gastutzat hartu zela, eta dagokion kuantifikazioa jaso zela. Horren arabera, bi kuoten baturak ezin du gainditu PFEZaren zerga-oinarrien baturaren ehuneko 65, "Ezkutu Fiskala" ere esaten zaiona. Hala ere, doikuntza hori sakonago aztertu eta gero, ez zen zerga-gastutzat hartu 2024ko ZGAn, arau teknikoa eta aplikazio orokorrekoa baita, eta bi zergak ordaindu behar dituzten zergadunentzat konfiskatzailetzat jo ez dadin lortu nahi baita,

Beraz, zerga honetan zerga-gastua osatzen duten kontzeptuen zehaztapena aldatu egin da2024. urtearen aurreko aurrekontuekin alderatuta, PFEZaren kuota duen kuota osoaren muga zerga-gastu gisa kuantifikatzeari utzi zaiolako. Horrela definitzen ditugu honako kontzeptu hauek.

- Zerga-gastua salbuetsita dagoen gutxiengoagatik.

  2025. ekitaldietako ondarearen aitorpenak irakurri ziren eta simulazioak egin ziren salbuetsi gabeko gutxieneko ezarekin eta oinarri likidagarri berria eskuratu zen; oinarri horrekin zergaren indarreko tarifara joan zen. Etorkizunerako, simulazio horiek oinarri hartuz egin da zenbatespena.

III. Impuesto sobre el Patrimonio

A partir del contenido de la Norma Foral 2/2013 de 27 de febrero, del Impuesto sobre el Patrimonio podemos determinar los elementos conceptuales constitutivos de gasto fiscal, así como los aspectos metodológicos de las estimaciones.

Cabe señalar que en el PGF 2023 se consideró gasto fiscal, recogiéndose la correspondiente cuantificación, el ajuste por el límite conjunto establecido a las cuotas íntegras del IP y el IRPF, según el cual la suma de ambas cuotas no puede exceder del 65 por ciento de la suma de las bases imponibles del IRPF, también denominado “Escudo Fiscal”. No obstante, un análisis en mayor profundidad de dicho ajuste llevó a no considerarlo gasto fiscal en el PGF 2024, al tratarse de una norma de carácter técnica y de aplicación general cuyo objetivo es evitar que pudiera calificarse de confiscatorio para aquellas y aquellos contribuyentes que han de pagar ambos impuestos.

Por tanto, la determinación de los conceptos que constituyen gasto fiscal en este impuesto ha variado con respecto a presupuestos anteriores a 2024, ya que deja de cuantificarse como gasto fiscal el límite de la cuota íntegra conjunto con cuota del IRPF. Así definimos los siguientes conceptos:

- Gasto fiscal por mínimo exento

  Se procede a la lectura y simulación en las declaraciones del impuesto sobre el patrimonio del ejercicio 2025 de la no existencia del mínimo exento obteniéndose una nueva base liquidable con la cual se acude a la tarifa vigente del impuesto. Se realiza una estimación futura en base a dichas simulaciones.

2027. urtean Ondarearen gaineko Zergaren 2026ko aitortzaileek kenkaria aplikatuko dute zerga-oinarrian, hain zuzen ere 800.000 eurokoa, oinarri likidagarria eskuratzeko, horrek esan nahi du kuotan zenbatetsi den kostua 74,88 milioi euro baino apur bat gehiago dela, eta zenbatekoak nabarmen egin duela gora zergadunen kopurua nabarmen handitzearen ondorioz.

En el año 2027 las personas declarantes del Impuesto sobre el Patrimonio 2026 aplicarán una reducción en base imponible de 800.000 euros para la obtención de la base liquidable, lo que supondrá un coste estimado en cuota líquida de poco más de 74,88 millones de euros, con un gran ascenso en su cuantía respecto del año anterior, como consecuencia del gran incremento del número de contribuyentes.

- Ohiko etxebizitzaren ziozko salbuespenaren zerga kostua.

  Zergadunaren ohiko etxebizitzaren ziozko salbuespena, aurreko ekitaldietan gertatu den bezala, gehienez 400.000 eurokoa den muntaraino ezarrita dago, baina aldatu egin da 2016ko Ondarearen gaineko Zergaren prestazio guztietarako higiezin guztiak zenbatzeko balioa, ohiko etxebizitzarena barne. Egotzi daitekeen balioaren % 50era igo da.

  Hala ere, 2026ko zerga-ekitaldirako lortu den zerga-gastuaren zenbatekoa, 2027ko ZGAn konputatu beharrekoa dena, % 42,3 igo da, 2025 ekitaldiari dagozkion benetako datuak ikusita. 13,98 milioi euro baino apur bat gehiagoko zenbatespena egin da, aurkezturiko aitorpen bakoitzean ohiko etxebizitza salbuetsi legez adierazitako ondasun higiezinen balio berria likidazio-oinarrian sartzearen simulaziotik lortua.

  2026ko ondarearen gaineko zergaren zerga-gastuaren aurreikuspena guztira 88,86 milioi euro pasatxo da, hau da, % 32 baino gehixeago, eta onura fiskal horiek egongo ez balira konputatuko liratekeen guztizko diru-sarrera teorikoen % 63,13 da, eta guztizko zerga-gastuaren gaineko % 1,89 besterik ez.

- Coste fiscal por exención de la vivienda habitual.

  La exención de la vivienda habitual del contribuyente sigue establecida, como en ejercicios anteriores, hasta un importe máximo de 400.000 euros. Sin embargo, el valor por el que hay que computar todos los inmuebles incluida la vivienda habitual se modificó a partir de las presentaciones del Impuesto de Patrimonio 2016, incrementando el mismo hasta el 50% del Valor mínimo Atribuible (VMA)

  El importe de gasto fiscal obtenido para el ejercicio fiscal 2026 a computar en el PGF 2027, aumenta un 42,3 por ciento a la vista de los datos reales del ejercicio 2025. Se realiza una estimación de 13,98 millones de euros, obtenida de la simulación de incluir en la base liquidable el nuevo valor de los bienes inmuebles declarados como vivienda habitual exenta en cada declaración presentada.

  El monto total de la previsión de gasto fiscal en el Impuesto sobre el Patrimonio 2026, se eleva a 88,86 millones de euros, con un incremento de algo más del 32%, y supone un 63,13% sobre los ingresos totales teóricos que se computarían si no existiesen dichos beneficios fiscales y sobre el gasto fiscal total, tan sólo un 1,89 por ciento.

IV. Balio erantsiaren gaineko zerga

Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) harmonizatuta dago Europako Batasun osoan. Estatu kideen araugintza-ahalmena mugatuta dago Europako erregulazioak berariaz aurreikusitako alderdi jakinetara.

Bestalde, kontuan hatu behar da BEZ Doikuntza deritzona. Estatuaren Administrazioaren eta Euskadikoaren arteko finantza doikuntza hau oinarritzen da zerga-administrazioen artean bilketa teoriko eta benetako bilketa egokitzeko duten beharrizanean.

Horrek guztiak Euskadiri berak arautze-gaitasunik ez duen zerga bat dakarkio; horren arabera, ordainarazteko gaitasuna banandu egiten da aurretiaz erabakitako konexio-puntuen arabera eta, azkenean, BEZaren bilketaren banaketa egiten da, doikuntza bidez, zerga-administrazioen artean —Estatua eta Euskadi—, irizpide makroekonomikoen arabera.

BEZen zerga mozkinik dakartela irizten zaien kontzeptuen multzoa ez da aldatzen aurreko urteen aldean eta honako hauek osatzen dute:

1.- Kulturarekin, osasungintzarekin, gizarte laguntzarekin, hezkuntzarekin, kirolekin, finantza zerbitzuekin eta zerbitzu profesionalekin loturiko zerbitzu publiko eta pribatu batzuei buruzko zergetatik salbuetsitako salmentak.

2.- Zergaren egiturazko elementua den ehuneko 21eko alikuota estandarraz bestelako ehuneko 4ko edo 10eko zerga-tasa murriztuetako edozeinen pean dauden eragiketak.

Tasa murritzarekin (BEZaren Foru Arauaren 91. bat artikuluan aurreikusitako eragiketak) eta oso tasa murritzarekin (BEZaren Foru Arauaren 91. bi artikuluan aurreikusitakoak) zamatutako eragiketak zerga-gastua dira, beraz. Zerga-gastu horrek garrantzi ekonomiko handia du, herritarrek funtsezko behartzat edo gizarte zein kultura

IV. Impuesto sobre el Valor Añadido

El Impuesto sobre el Valor Añadido (IVA) está armonizado en el conjunto de la Unión Europea. La capacidad normativa de los Estados miembros se limita a determinados aspectos expresamente previstos por la regulación comunitaria.

Por otra parte, ha de tenerse en cuenta el denominado Ajuste IVA. Este ajuste financiero entre la Administración del Estado y del País Vasco se fundamenta en la necesidad de adecuar las recaudaciones, teóricas y reales, entre las Administraciones tributarias.

Todo ello configura para el País Vasco un tributo para el que no dispone de capacidad normativa, en el que se distribuye la capacidad de exacción, conforme a los puntos de conexión acordados, resultando finalmente, vía Ajuste, un reparto de la recaudación del IVA entre Administraciones tributarias -Estado y País Vasco- según criterios macroeconómicos.

El conjunto de conceptos que se considera que generan beneficios fiscales en el IVA no varía respecto al de años anteriores y está integrado por:

1.- Las ventas exoneradas de imposición relativas a ciertos servicios públicos y privados relacionados con la cultura, sanidad, asistencia social, educación, deportes, servicios financieros, y servicios profesionales.

2.- Las operaciones gravadas con cualquiera de los dos tipos impositivos reducidos del 4 por ciento y del 10 por ciento, distintos de la alícuota estándar del 21 por ciento que constituye el elemento estructural del impuesto.

Las operaciones gravadas al tipo “reducido” (operaciones previstas en el artículo 91. Uno de la Norma Foral del IVA) y al tipo “súper reducido” (previstas en el artículo 91. Dos de la Norma Foral del IVA) constituyen, por tanto, gasto fiscal. Este gasto fiscal tiene gran trascendencia económica ya que su origen reside en favorecer el acceso de los

intereseko behartzat jotako ondasun eta zerbitzuak eskuratzea errazteko direnez gero (elikagaiak, etxebizitza, botikak, liburuak, museoak eta garraioak).

Metodologia

2026 urterako BEZaren arloan zerga-gastua zenbatesteko erabili den metodologia aurreko ekitaldietan erabili denaren antzekoa da:

- Uste da zerga-gastuak bakarrik sortarazten direla salbuespenen ondorioz (beste tributu batzuek kargatzen dituztenak izan ezik, adibidez salbuespen teknikoak eta aseguruen jarduerari lotuta daudenak) eta baita orokorra ez diren beste tasa batzuen menpean daudenak ere. Uste da orokorra ez den BEZaren araubide bereziak ez duela zerga-gasturik eragiten, zergaren kudeaketa erraztu baino ez dutelako egiten.

- Kalkuluen arabera, eragiketa guztiek jasandako BEZaren batez besteko tasa haztatua lurralde erkideko berbera da: % 13,415 2027rako, Ogasun Ministerioak emana.

- Aurrekontuko diru-bilketa zati batez besteko tasa haztatua eginda lortzen da zerga-oinarri inplizitua (z.o.i.).

- Zerga-gastua kalkulatzeko, tasa orokorra (% 21) z.o.i. horri aplikatuta lortuko litzatekeen kuota teorikoaren eta aurrekontuan bildutako zenbatekoaren arteko aldea hartuko da kontuan.

- Azkenik, zerga-gastuaren zenbatekoaren kontzeptuen araberako banaketa bat egin da. Lurralde erkideko salbuespenei esleitutako ehunekoa hartu da (Ogasun Ministerioak %42,956 zenbatetsi du 2027rako) eta, gainerakoak, sortutako BEZaren zerga-oinarrien proportzioan esleitu dira (2025ekoak, eskura dauden azkenak aplikatuz) tasa txikian (% 10) eta oso txikian (% 4), eta tasa horien eta orokorraren arteko aldearen proportzioan. Aurten lehenengo aldiz % 0ko eragiketak ere sartu dira.

ciudadanos a los bienes y servicios considerados de primera necesidad, o de interés social o cultural (alimentos, vivienda, medicamentos, libros, museos y transportes).

Metodología

La metodología utilizada para cuantificar el gasto fiscal para el año 2026 en IVA es similar a la de ejercicios precedentes:

- Se considera que los gastos fiscales se originan exclusivamente por exenciones (salvo las gravadas por otros tributos como por ejemplo las exenciones técnicas y las ligadas a la actividad aseguradora) y las operaciones sometidas a tipos distintos del general. Se considera que los regímenes especiales del IVA no generan gastos fiscales, sino que únicamente simplifican la gestión del impuesto.

- Se estima que el tipo medio ponderado del IVA soportado por la totalidad de las operaciones es el mismo que en territorio común: el 13,415% para 2027 facilitado por el Ministerio de Hacienda.

- Se obtiene la base imponible implícita (bii) como resultado de dividir la recaudación presupuestada entre el tipo medio ponderado.

- El gasto fiscal se cuantifica por la diferencia entre la cuota teórica que se obtendría aplicando el tipo general (21%) a esa bii y la recaudación presupuestada.

- Por último, se realiza la distribución por conceptos del importe del gasto fiscal. Se adopta el porcentaje atribuido a exenciones de territorio común (el Ministerio de Hacienda estima para 2027 el 42,956%) y el resto se atribuye en proporción a las bases imponibles del IVA devengado (las de 2025, últimas disponibles) a tipo reducido (10%) y súper reducido (4%) y a la diferencia entre estos tipos y el general. Este año por primera vez se incluyen además las operaciones al 0%.

Zerga-gastu zenbatetsia 2.486,81 milioi euro da. Milioi horietatik, ia % 43 salbuetsitako eragiketei dagokie (1.068,23 milioi), eta % 57, berriz, zerga-tasa murriztuetan kargatutako eragiketei: % 10eko tasa murriztuan, 961,4 milioi eta guztizkoaren % 39; % 4ko tasa "super murriztuan", 401,6 milioi eta guztizkoaren ia %16, eta, % 0ko tasan, 55,6 milioi eta guztizkoaren % 2.

Partaidetza % 52,78raino igo da aurrekontuan jasotako guztizkoaren gainean. 2027rako estimatutako zerga-gastua % 5,8 gehitu da 2026rako kalkulatutakoarekin alderatuta. Gehikuntza hori koherentea da BEZa dela-eta 2027rako espero diren sarrerak gehitu egingo direlako aurreikuspenarekin.

Diru-sarrera teoriko guztietan, estatuarekiko doikuntzen ziozko sarrerak barne hartuta, zerga-tasa % 36,12 inguru da, ehuneko hori gainerako lurralde historikoen eta Estatuaren Zerga-gastuen Aurrekontuan lortutakoaren antzekoa da, erabilitako metodologia ere antzekoa da eta.

V. Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga

Zerga honen xedea diren Irabazi asmoko ondare eskualdaketen, ekitaldi juridiko dokumentatuen eta sozietateen eragiketen kargetan makina bat dira zerga hobaria ematen duten kasuak, hala foru arauan nola beste xedapen batzuetan.

Ondare-eskualdaketen eta ekintza juridiko dokumentatuei buruzko zerga-gastuak kalkulatzeko, aitorpenetan bilatzen da beharrezko informazioa bai eta araudian aurreikusten den informazio betebeharretan ere, dela karga-tasak dakartzan datuei buruzkoa, dela zerga egitateen zerga-oinarriari edo likidazio-oinarriari buruzkoa.

El gasto fiscal estimado es de 2.486,81 millones de euros, correspondiendo a casi un 43% del total a las operaciones exentas (1.068,23 millones) y un 57% a las gravadas a tipos impositivos reducidos: al tipo reducido del 10%: 961,4 millones y un 39% del total, y al tipo "super reducido" del 4%: 401,6 millones y casi el 16% del total, y al tipo del 0%: 55,6 millones, el 2% del total.

Sobre el total presupuestado aumenta su participación hasta el 52,78%. El gasto fiscal estimado para 2027 aumenta un 5,8%, respecto del computado para 2026, incremento coherente con la previsión de incremento de la cifra de ingresos estimados por IVA para 2027.

Sobre el total de los ingresos teóricos, incluidos los ingresos por Ajustes con el Estado, el gasto fiscal supone alrededor de un 36,12%, similar porcentaje al obtenido en los Presupuestos de Gastos Fiscales de los otros Territorios Históricos ya que es la misma metodología empleada.

V. Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y AJD

En el gravamen de las transmisiones patrimoniales onerosas, los actos jurídicos documentados y las operaciones societarias, que constituyen los tres hechos imponibles objeto de este impuesto, hay una relación prolija de supuestos en los que existe beneficio fiscal tanto en la Norma Foral como en otras disposiciones.

Para el cálculo de los gastos fiscales del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y AJD se dispone de la información contenida en las declaraciones relativa, tanto a las exenciones y bonificaciones, como a los datos contenidos en tipos de gravamen, base imponible o base liquidable de los diferentes hechos imponibles.

Salbuespenen kasuan. Zerga-oinarri bakoitzari dagokion zerga-tasa aplikatzeak, kontzeptu bakoitzak eratorri duen zerga-gastua zehaztea ahalbideratzen du.

Zergaren xedea diren zerga-oinarri guztietan definitu den 2027. urteko zerga-gastua 17,89 milioi euroan zenbatetsi da:

- Kostu bidezko ondare-eskualdaketen kasuan, salbuespenak 4,5 milioi ingurukoak direla estimatu da, partikularren arteko mailegu gehiago ematea aurreikusi baita neurri handi batean.
- Egintza juridiko dokumentatuetan, salbuespenak 12,01 milioitan zenbatetsi dira; 2026ko ZGAren aldean jaitsiera izan da. Zenbateko horren zatirik handiena ohiko etxebizitza erosteko hipoteka-mailegu eta kitapenetarako ezarritako salbuespenetik dator.
- Sozietate-eragiketetan, 1,36 milioi inguru estimatu da, eta zifra horren jatorria Balore Merkatuaren Legeari lotutako eragiketa salbuetsietan dago gehienbat. Haren kuantifikazioak gorabeherak izaten ditu urtetik urtera, eragiketa horien izaera atipikoagatik.

Horregatik, zerga honen zerga-egiteari dagozkion kasu guztietan, urteko zenbatespenetan euren zenbatekoagatik distortsio larriak eragiten dituzten aparteko eragiketak ezabatzen ditugu.

2027ko ZGArako, 2020rako ZGAn sartutako metodologiarekin jarraituko dugu, zerga-tasen diferentziatik eratorritako zerga-gastuaren kalkuluari eragiten diona. Ildo horretatik uste da zergaren araudian Kostubidezko Ondare Eskualdaketen zerga-tasetako ezberdintasunetatik datorren zerga-gastuaren kontzeptua definituta dagoela hiru tasa orokorren bidez: % 1, % 4 eta % 7, eta ez 2021. urtearen aurreko ekitaldietan bezala, % 7ko tasa bakarrarekin.

En el caso de las exenciones, la aplicación de los tipos impositivos correspondientes a las bases imponibles permite estimar el gasto fiscal derivado de cada concepto.

El gasto fiscal para el año 2027 por exenciones, definidas en los distintos hechos imponibles objeto del impuesto, se estima en 17,89 millones de euros:

- En el caso de las Transmisiones Patrimoniales Onerosas (TPO), las exenciones se estiman en alrededor de 4,5 millones motivado en gran medida por la previsión de mayor concesión de préstamos entre particulares.
- En Actos Jurídicos Documentados (AJD), la cuantía de las exenciones se estima en 12,01 millones, con un descenso respecto del PGF 2026. La mayor parte de su cuantía proviene de la exención establecida para los préstamos y cancelaciones con garantía hipotecaria destinados a la adquisición de la vivienda habitual.
- En Operaciones Societarias la cifra estimada en torno a 1,36 millones tiene el origen, en su mayor parte, en las operaciones exentas relacionadas con la Ley del Mercado de Valores y su cuantificación sufre altibajos en los diferentes años por la naturaleza atípica de dichas operaciones.

Por ello, en todos los supuestos de hechos imponibles de este tributo, en las estimaciones anuales eliminamos aquellas operaciones extraordinarias que por su cuantía introducen severas distorsiones en las mismas.

Para el PGF 2027 continuamos con la metodología introducida en el PGF del año 2020, que afecta al cálculo del gasto fiscal derivado de la diferencia de tipos impositivos. Así, se ha considerado que en la normativa del impuesto el concepto de gasto fiscal proveniente de las diferencias de tipo de gravamen en Transmisiones Patrimoniales Onerosas viene definido por la consideración tres tipos generales, 1%, 4% y 7%, y no un sólo tipo, el 7%, como en ejercicios anteriores a 2021.

- Bermeen, pentsioen, fidantzen edo maileguen eta kreditu emateen egiazko eskubideetarako, tasa orokorra % 1ean ezarrita dago.

- Ohiko etxebizitza eta ondasun higiezinak edo erdi-higigarriak erostearen ziozko kasurako tasa orokorra % 4 da.

- Beste higiezin mota batzuk eta higiezin horien gaineko egiazko beste eskubide batzuk eskuratzeko, tasa orokorra % 7 da.

Beraz, zerga-tasaren modalitate hori soilik agertzen da 120 metro karratutik behera dituen etxebizitza erosten denean edo eroslea familia ugariko kidea denean, ohiko etxebizitza eskuratzeko tasa% 2,5eko tasa murriztuaren eta % 4ko tasa orokorraren arteko diferentziagatik, 23,8 milioi euro guztira. Zenbatekoan izandako gehikuntza horren arrazoi nagusia da bigarren eskuko etxebizitzen salmentan izandako gehikuntza.

Kasu honetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko tributu-sistemaren berrikuspen fiskalerako neurriak onartzen dituen apirilaren 9ko 2/2025 Foru Arauak aldatu egin du betekizuna, eta, horren arabera, orain aukera dago tasa murriztua aplikatzeko, are aurretik aplikatu bada ere, betiere zergaduna udalerri berean beste etxebizitza baten % 25etik gorako titularra ez bada.

Gainera, 2/2025 Foru Arau horrek beste aldaketa batzuk ere sartu zituen ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, zeinak zerga-gastuak baitira; esaterako, erabilera egonkor eta iraunkorrerako etxebizitzaren errentamenduaren salbuespena.

Zerga-oinarriaren eta kuotako hobarien murrizketen emaitzako zerga-gastuaren kontzeptuan eransten dugu. Horren garrantzi kuantitatiboa hondarrekoa baino ez da eta 2027rako 16 mila eurotan zenbatetsi da.

- Para los derechos reales de garantía, pensiones, fianzas o préstamos y cesión de créditos, el tipo general está establecido en el 1%.

- Para el caso de la adquisición de vivienda habitual y de bienes muebles y semovientes el tipo general es del 4%.

- Para adquisición de otros tipos de inmuebles y otros derechos reales sobre dichos inmuebles, el tipo general es el 7%.

Por tanto, esta modalidad de gasto fiscal solo se manifiesta en el caso de adquisición de la vivienda habitual cuando esta es inferior a 120 metros cuadrados o la persona adquiriente es titular de una familia numerosa por diferencia entre el tipo reducido del 2,5% y el tipo general de adquisición en vivienda del 4%, ascendiendo a un total de 23,8 millones de euros. Este aumento en el importe se debe principalmente al aumento de compraventa de vivienda de segunda mano.

En este caso, la Norma Foral 2/2025, de 9 de abril, por la que se aprueban medidas para la revisión fiscal del sistema tributario del Territorio Histórico de Bizkaia, ha modificado el requisito, permitiendo aplicar el tipo reducido incluso aunque se haya aplicado anteriormente, siempre que no se sea titular de más del 25% de otra vivienda en el mismo término municipal.

Además, esta Norma Foral 2/2025 introdujo también otras modificaciones en el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados que constituyen gasto fiscal, tales como la exención del arrendamiento de vivienda para uso estable y permanente.

Añadimos otro concepto de gasto fiscal derivado de reducciones en la base imponible y las bonificaciones en cuota. Su importancia cuantitativa es residual, así, para 2027 se estima en alrededor de 16 mil euros.

Beraz, ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako 2027ko aurrekontuan kalkulatutako guztizko zerga-gastua, 41,7 milioi euro da. Zifra horrek esan nahi du igoera egon dela aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta, besteak beste: higiezinen merkatuan interes-tasen beherakadaren ondorioz espero den hazkundeagatik; zehazki, zerga-oinarri handiagoa duten ohiko etxebizitza gehiago erosteagatik, etxebizitzen prezioa gehitzea aurreikusten baita.

Kalkuluak 2025ean eta 2026ko lehen hilabeteetan aurkeztutako 600 ereduko aitorpenetatik eskuratutako egiazko datuetan oinarrituta egin dira, 2027rako zerga-bilketako aurreikuspenak kontuan hartuta.

Zerga-egitate bakoitzak eragindako zerga-gastuaren zenbatespena honela banatzen da: 28,3 milioi KOEn (guztizkoaren % 67,94), 12,01 milioi EJDn (% 28,80) eta 1,36 milioi, sozietate-eragiketetan (% 3,26), eta guztietan aparteko eragiketengatiko distortsioa kendu ondoren.

Ondare-eskualdaketen eta ekintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren zerga-gastua diru-sarrera teoriko guztien %23,4 da guztira.

VI. Zerga bereziak

- Zenbait garraiobideren gaineko zerga

Zerga honen arautegian ondoko zerbitzu hauei lotuta dauden garraiobide batzuen lehen matrikulazioko salbuespenak ezartzen dira: taxiak, autoeskolak, ibilgailuen alokairua, kidego diplomatikoa, berariaz desgaituek erabiltzeko matrikulatzen direnak edo alokatzeko diren 15 metroko luzera baino gutxiagoko ontziak eta lehiaketa olinpikoetara dedikatzen diren beste batzuk, eta baita Estatuak eta beste erakunde publiko batzuk matrikulatzen dituzten aireontzienak, edo pilotuak trebatzeko edo airetiko nabigazioko enpresen izenean daudenak.

Por tanto, el gasto fiscal total estimado para el ITP y AJD en el presupuesto 2027 es de 41,7 millones de euros. Esta cifra representa un ascenso con respecto al Presupuesto del año anterior, como consecuencia, entre otros factores, de un esperado crecimiento en el mercado inmobiliario, concretamente un mayor número adquisiciones de vivienda habitual con mayor base imponible debido a la previsión de incremento de los precios de éstas, fundamentalmente en el caso de las viviendas de segunda mano.

Estos cálculos se realizan a partir de los datos reales obtenidos en las declaraciones del modelo 600 presentadas en 2025 y los primeros meses de 2026 y teniendo en cuenta las previsiones de recaudación para 2027.

La estimación de este gasto fiscal por los diferentes hechos imponibles se distribuye en 28,3 millones en TPO (67,94% del total), 12,01 millones en AJD (28,80%) y 1,36 millones en Operaciones Societarias, (3,26%) y una vez eliminada la distorsión por operaciones extraordinarias en todos ellos.

El total de gasto fiscal para ITP y AJD representa el 23,4% sobre el total de ingresos teóricos.

VI. Impuestos Especiales

- Impuesto sobre Determinados Medios de Transporte

En la normativa de este impuesto se establecen exenciones por la primera matriculación de varios medios de transporte relacionados con los servicios de taxi, autoescuelas, alquiler de vehículos, cuerpo diplomático, los matriculados para uso exclusivo de discapacitados, o las embarcaciones con eslora menor de 15 metros dedicados al alquiler, y otras dedicadas a las competiciones olímpicas, así como las aeronaves matriculadas por el Estado y otras instituciones públicas, o las dedicadas a la formación de pilotos o a nombre de empresas de navegación aérea.

Bestalde, zergaren araudian % 50eko murrizpena ezarri da zerga-oinarrian gutxienez 5 plaza eta gehienez 9 dituzten autoei dagokienez, familia ugarien erabilera esklusiborako direnean, eta % 30eko murrizpena auto-karabana deritzen ibilgailuei dagokienez. Baldintza bat bete behar da murrizpenok aplikatzeko: aurretik zerga administrazioak aintzatetsi beharra.

Beraz, zerga-gastua osatzen dute, zergaren beraren araudian agertzen diren salbuespenek, eta familia ugariengan eragina duen zerga-oinarriaren txikipenek.

Metodologia

Salbuespenak eta zerga-oinarriaren gaineko txikipenak ezartzeko, esan bezala, beharrezkoa da aldez aurretik Tributu Administrazioaren onarpena egotea. 05 ereduaren bitartez, non zergadunek dagokion eskaera aurkezten duten eta zergaren aitorpen-likidazioa aurkezteko 565 eta 576 ereduaren bitartez, zerga-gastuaren inguruko informazioa lor daiteke.

Salbuespenei dagokien zerga-gastuaren kalkulua zerga-oinarrietatik abiatuta lortzen da; azken horien gainean batez besteko tasa haztatua aplikatzen da.

Zerga-oinarriaren murrizpenen ondoriozko zerga-gastuaren zenbatespena egiteko, murrizpenen zenbatekoari (tasen arabera banakatua) dagokion zerga-tasa aplikatzen zaio.

Bestalde, kenkarien bolumena zerga-gastu moduan hartzen da bere osotasunean.

2027rako aurreikuspenek erakusten dute zerga-gastua osorik jaitsi dela, mugikortasun urriko pertsonen izenean dauden ibilgailuen matrikulazioa murrizteko aurreikuspenari lotuta, lortutako datuen arabera, eta, beraz, horri lotutako salbuespenak murriztu egingo direla.

Por otra parte, en la normativa del Impuesto se establece una reducción del 50% en la base imponible respecto de los automóviles con una capacidad no inferior a 5 plazas y no superior a 9, incluida la de la persona conductora, cuando se destinen al uso exclusivo de familias numerosas y una reducción del 30% para algunos vehículos denominados auto caravanas.

Por tanto, constituyen gasto fiscal, señaladas en la normativa del Impuesto, las exenciones y las reducciones de la base imponible.

Metodología

Para la aplicación de las exenciones y de las reducciones de la base imponible es necesaria una concesión previa por parte de la Administración tributaria competente. A través del modelo 05, en la que los contribuyentes presentan la correspondiente solicitud, y de los modelos 565 y 576, de declaración-liquidación del Impuesto, se puede obtener la información correspondiente a ambos conceptos de gasto fiscal.

El cálculo del gasto fiscal correspondiente a las exenciones se obtiene a partir de las bases imponibles, sobre las cuales se aplica el tipo medio ponderado.

La estimación del gasto fiscal derivado de las reducciones de la base imponible resulta de aplicar al importe de las reducciones, desglosado según tipos, el tipo impositivo correspondiente.

Por otra parte, el volumen de las deducciones es considerado gasto fiscal en su totalidad.

Las previsiones para el año 2027 muestran un descenso del gasto fiscal en su totalidad, asociado a la previsión de disminución de la matriculación de vehículos a nombre de personas con movilidad reducida a la vista de los datos obtenidos y, por tanto, disminución en las exenciones a ella asociadas.

Hala, 2027rako zerga-gastua ia 1,1 milioi euro izango dela estimatu da; alegia, % 27 egingo du behera aurreko urteko aurrekontuarekin alderatuta, 2025ean eta 2026an orain arte erdietsitako zerga-gastuarekin bat.

Salbuespenei lotutako zerga-gastuari dagokionez, 0,74 milioi euro estimatu da, eta pisu espezifiko handieneko osagaia mugikortasun urriko pertsonen izenean eurek soilik erabiltzeko matrikulatutako automobilentzako salbuespena da.

565 ereduan jasotako zerga-oinarriaren murriztapenekin eta aplikatutako kenkariekin lotutako zerga-gastua minimoa da, eta 2027rako 352 mila euro izango dela estimatu da.

Sarrera teoriko guztiak aintzat hartuta zerga-gastua % 7,06 da.

- Ekoizpeneko zerga bereziak

Zerga-gastua sortzen duten kontzeptuen multzoan sartuko lirateke kontsumo salbuetsi batzuk, bai eta alkoholerako eta eratorritako edarietarako eta hidrokarburoetarako ezarritako zerga-tasa murriztuak ere kasu bietan:

Bai hidrokarburoen gaineko zergaren kasuan, bai alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren kasuan, zerga-gastuak kalkulatzeko erabilitako metodologia Estatuaren Zerga Etekinen 2026ko Aurrekontuan (eskuragarri dagoen azkena) egindako estimazioetan oinarritzen da. Administrazio guztien onura fiskalaren estimaziotik abiatuta, 2027ko zerga-gastuaren estimazioa lortzen da, 10/2023 Legean araututako ehunekoak aplikatuz. Jarraian, 2027an Euskal Autonomia Erkidegorako estimatutako zerga-gastutik lortutako datua lurralde historiko bakoitzari egozten zaio 2026ko urriko HDEKn 2027rako onetsitako banaketa horizontaleko koefizienteekiko proportzioan. Azkenik, zerga-gastua motaren arabera banatzeko, Ogasun Ministerioak 2026rako emandako proportzio berak aplikatzen dira.

Así, el gasto fiscal se estima, para el ejercicio 2027, en 1,1 millones de euros, con un descenso del 27% sobre el presupuesto del año anterior, en consonancia con el gasto fiscal obtenido en los años 2025 y 2026 hasta la fecha.

En el caso del gasto fiscal asociado a las exenciones la estimación asciende a 0,74 millones de euros, siendo el componente de mayor peso específico la exención para los automóviles matriculados para su uso exclusivo a nombre de personas con movilidad reducida.

El gasto fiscal asociado a las reducciones de la base imponible y deducciones aplicadas recogidas en el modelo 565 es mínimo y se estima para 2027 en 352 mil euros.

Sobre el total de ingresos teóricos, el gasto fiscal supone casi un 7,06%.

- Impuestos especiales de Fabricación

El conjunto de conceptos que se consideran generadores de gasto fiscal está integrado por ciertos consumos exentos junto con los tipos impositivos reducidos establecidos en ambos casos, para alcohol y bebidas derivadas e hidrocarburos.

Tanto en el caso del Impuesto sobre Hidrocarburos como en el Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas, la metodología utilizada para el cálculo de los gastos fiscales se basa en las estimaciones realizadas en el Presupuesto de Beneficios Fiscales del Estado de 2026. A partir de la estimación del beneficio fiscal del conjunto de las Administraciones se obtiene la estimación del gasto fiscal 2027, aplicando los porcentajes regulados en la Ley 10/2023. Seguidamente, el dato obtenido del gasto fiscal estimado para el País Vasco en 2027 se atribuye a cada territorio histórico en proporción a los coeficientes de distribución horizontal aprobados para 2027 en el CVFP de octubre de 2026. Finalmente, la distribución del gasto fiscal por tipología se efectúa aplicando las mismas proporciones facilitadas por el Ministerio de Hacienda referentes a 2026.

Fabrikazioagatiko zerga berezietako zerga-hobari osoaren zenbateko agregatua 2026. urterako, guztira, 96,8 milioi euro da eta munta hori kontzeptu horiengatiko ekitaldiko sarrera teorikoen % 11,14 da, horien barruan sartuta inportazioengatiko eta barruko eragiketengatiko doikuntzak. Horrek 2027ko ZGA osoan duen berariazko pisua % 2,05ekoa da.

Zergen araberako zerga-gastuen banakapena honakoa da:

Hidrokarburoak: ia 92,2 milioi baino gehiago; munta hori Fabrikazioaren gaineko ZZBBen % 95,2 da, eta % 0,47 gehiago da aurreko urtearen aldean.

Alkohola eta edari eratorriak: 4,6 milioi, aurreko ekitaldian baino gehiago, hau da, Fabrikazioaren gaineko ZZBBen % 4,8 baino gehiago.

- Elektrizitatearen gaineko zerga

Elektrizitatearen gaineko zerga kontsumorako edo autokontsumorako ekoizleek sortutako elektrizitatea haiek kontsumitzeko argindar hornidura zergapetzen duen zerga da.

Kalkulatzeko baliatutako metodologiari dagokionez, aurreko bi urteetako jarraibide berari jarraitzen zaio. Ondorioz, energia elektrikoaren ekoizleen kontsumoaren salbuespena baino ez da jotzen zerga-gastutzat.

Autokontsumitutako energiaren salbuespenari dagokionez:

En los seis primeros meses de 2026, la inflación ha vuelto a situarse por encima del 3,0%. Tras anotar un 2,3% en los dos primeros meses, la inflación repuntó hasta el 3,4% en marzo, para estabilizarse después en el 3,2% en los tres meses correspondientes al segundo trimestre. En lo que va de segunda mitad del año, los últimos datos disponibles revelan otro repunte, llegando el índice al 3,6% en julio y hasta el 4,3% en agosto.

Elikagaien prezioek 2023ko hazkunde handietatik urrun jarraitu dute, otsailean urtetik urterako % 16,6ra iritsi baitziren. Urtea urtarrilean % 3,0rekin hasi ondoren, otsailean lortu zuten urteko puntu gorena, % 3,2rekin. Horren ondoren, behera egin dute, ekainean lehen seihilekoa % 1,9an itxi arte. Bigarren seihilekoan, uztailean % 1,6ra jaitsi bazen ere, abuztuan berriz ere % 2,0tik gora kokatu da (% 2,3).

Azpiko inflazioak, bestalde, goranzko joera izan du 2026ko lehen erdian, urtarrilean erregistratutako % 2,6tik maiatzean % 3,0ra igaro baita. Apirila eta ekaina izan ziren aurreko hilekoa baino kopuru txikiagoa izan zuten hilabete bakarrak: % 2,8 eta % 2,9, hurrenez hurren. Igoera ez da indize orokorraren kasuan bezain nabarmena izan; horregatik, urtarrilean eta otsailean haren gainetik egon ondoren, martxotik aurrera azpiko inflazioa azpitik mantendu da. Azkenik, uztailean berriz ere gora egin zuen pixka bat % 3,0raino, eta abuztuan berriz ere % 2,9ra iritsi zen, bi kasuetan indize orokorraren azpitik.

Langile bakoitzeko lan-kostua, lehen hiruhilekoan urte arteko aldakuntzaren % 4,9ra igo ondoren (duela urtebeteko aldi bereko % 3,8a baino puntu bat gehiago), moteldu egin da, eta % 4,0ra iritsi da apiriletik ekainera. Errentei dagokienez, soldatapekoen ordainsaria urte arteko % 7,0 hazi zen 2026ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren baino bi hamarren gutxiago.

Los precios de los alimentos han continuado lejos de los elevados incrementos anotados en 2023, cuando llegaron al 16,6% interanual en el mes de febrero. Tras comenzar el año con un 3,0% en enero, alcanzaron su punto máximo del año en febrero con un 3,2%, tras lo cual ha ido bajando hasta cerrar el primer semestre en un 1,9% en el mes de junio. En el segundo semestre, si bien continuó bajando hasta el 1,6% en julio, en agosto ha vuelto a situarse por encima del 2,0% (2,3%).

La inflación subyacente, por su parte, ha dibujado una trayectoria ascendente en la primera mitad de 2026, pasando del 2,6% que registró en enero al 3,0% en mayo. Abril y junio fueron los únicos meses cuya cifra fue menor a la del mes anterior, anotando un 2,8% y 2,9%, respectivamente. La subida ha sido menos acusada que en el caso del índice general, lo que explica que, tras situarse por encima de él en enero y febrero, a partir de marzo la inflación subyacente se ha mantenido por debajo. Finalmente, en julio volvió a subir levemente hasta el 3,0% para situarse nuevamente en el 2,9% en agosto, también por debajo del índice general en ambos casos.

El coste laboral por trabajador, tras repuntar hasta el 4,9% de variación interanual en el primer trimestre (más de un punto por encima que el 3,8% del mismo periodo de un año antes), se modera hasta el 4,0% de abril a junio. En cuanto a las rentas, la remuneración de los asalariados creció un 7,0% interanual en el segundo trimestre de 2026, dos décimas menos que en el trimestre anterior.

3. Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia

Munduko ekonomiak hazten jarraitu zuen 2025ean, baina aurreko ekitaldietan ikusitakoa baino ingurune konplexuago eta ziurgabeagoan. Mundu mailako jardueraren oinarri izaten jarraitu zuten eskariaren sendotasunak, finantza-baldintzen pixkanakako hobekuntzak eta berrikuntza teknologikoarekin lotutako sektore jakin batzuen bultzadak. Hala ere, bilakaera on hori merkataritza-arloko ziurgabetasunaren hazkunde nabarmenarekin batera gertatu zen; hazkunde horren arrazoi nagusia Estatu Batuetako muga-zergen politikaren orientazio-aldaketa izan zen, eta aldaketa horrek enpresa ugariren inbertsio-, ekoizpen- eta merkataritza-erabakiak baldintzatu zituen. Halaber, nazioarteko trukeetan ikusitako dinamismoaren zati bat eragiketa komertzialak zergapetze berriak aplikatu aurretik aurreratzearekin lotuta egon zen; horrenbestez, munduko merkataritzaren bilakaera nolabaiteko zuhurtziaz aztertu behar da.

Testuinguru horretan, euskal ekonomiak bilakaera positiboa izan zuen berriro. BPG errealak % 2,3 egin zuen gora, 2024an baino bi hamarren gutxiago; eta hazkunde iraunkor eta moderatuko etapan jarraitu zuen, pandemiaren ondorengo susperraldiari lotutako estimuluak pixkanaka desagertu ondoren. Eguneko terminoetan, BPGa 103.530,6 milioi eurora iritsi zen; hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 5,3ko igoera izan zuen. Hala ere, azken bost urteetako aurrerapen nominal txikiena da, inflazioaren presio txikiagoa eta prezioen pixkanakako moderazioa ezaugarri dituen egoera batean.

Horrela, euskal ekonomiak 2025. urtea hasieran aurreikusitakoa baino hazkunde pixka bat handiagoarekin amaitu zuen. Urteko aldakuntza-tasak Ekonomia Zuzendaritzak ekitaldian zehar

3. Economía del País Vasco

La economía mundial continuó creciendo en 2025, aunque lo hizo en un escenario más complejo e incierto que el observado en ejercicios anteriores. La actividad global siguió apoyándose en la solidez de la demanda, la progresiva mejora de las condiciones financieras y el impulso de determinados sectores ligados a la innovación tecnológica. No obstante, este comportamiento favorable coexistió con un notable incremento de la incertidumbre en el ámbito comercial, motivado principalmente por el cambio de orientación de la política arancelaria de Estados Unidos, que condicionó las decisiones de inversión, producción y comercio de numerosas empresas. Asimismo, una parte del dinamismo observado en los intercambios internacionales estuvo vinculada al adelanto de operaciones comerciales antes de la aplicación de nuevos gravámenes, por lo que la evolución del comercio mundial debe analizarse con cierta prudencia.


En este contexto, la economía vasca volvió a registrar una evolución favorable. El PIB real aumentó un 2,3%, dos décimas menos que en 2024, continuando una etapa de crecimiento sostenido y moderado tras la desaparición progresiva de los estímulos asociados a la recuperación posterior a la pandemia. En términos corrientes, el PIB alcanzó los 103.530,6 millones de euros, lo que supone un incremento del 5,3% respecto al año anterior. Se trata, no obstante, del avance nominal más reducido de los últimos cinco años, en un escenario caracterizado por una menor presión inflacionista y una moderación gradual de los precios.

La economía vasca cerró así 2025 con un crecimiento ligeramente superior al previsto inicialmente. La tasa de variación anual superó las estimaciones realizadas por la Dirección de

egindako zenbatespenak gainditu zituen; zenbatespen horiek, hasiera batean, hazkundea % 2,1ean kokatzen zuten (2025eko martxoan eta ekainean), eta, ondoren, gorantz berrikusi ziren, % 2,2raino (2025eko irailean). Euskadiren bilakaera, gainera, Europako ingurunearekin alderatuta nabarmendu egin zen; izan ere, Europar Batasunak % 1,5eko hazkundea izan zuen, eta euroguneak % 1,3koa. Jarduera ekonomikoaren hedapena inflazioari eusteko eta finantza-baldintzak pixkanaka hobetzeko esparru batean gertatu zen; faktore horiek inbertsioaren aurrerapenean eta kontsumo dinamikoa mantentzen lagundu zuten. Hala ere, EAEko hazkundea Espainian erregistratutakoa baino zertxobait txikiagoa izan zen (Espainiako BPGa % 2,6 hazi zen), neurri handi batean industriak EAEko ekoizpen-egituran duen pisu handiaren eta kanpo-eskariaren nahiz Europako merkatu nagusien ahultasunarekiko duen esposizioaren ondorioz.

Economía a lo largo del ejercicio, que situaban el crecimiento en un primer momento en el 2,1% (marzo y junio de 2025) y que posteriormente fueron revisadas al alza hasta el 2,2% (septiembre de 2025). El comportamiento de Euskadi destacó además en comparación con el entorno europeo, donde la Unión Europea registró un crecimiento del 1,5% y la zona euro del 1,3%. La expansión de la actividad económica tuvo lugar en un marco de contención de la inflación y de mejora gradual de las condiciones financieras, factores que contribuyeron al avance de la inversión y al mantenimiento de un consumo dinámico. Aun así, el crecimiento vasco se situó ligeramente por debajo del registrado en España, cuyo PIB avanzó un 2,6%, como consecuencia, en buena medida, del importante peso de la industria en la estructura productiva de la CAPV y de su exposición a la debilidad de la demanda externa y de los principales mercados europeos.

BPGren bilakaera bolumenean / Crecimiento del PIB en volumen
Aldiko urtetik urterako ald. / %Variacion interanual



3.1 Euskal ekonomia 2025. urtean


Euskal ekonomiak dinamismoa erakutsi zuen 2025ean; une horretan, euroguneak hobekuntza neurritsua lortu zuen, baina Europako motor ekonomikoek (bereziki Alemaniak) ahultasuna erakusten jarraitu zuten. Hala ere, EAEko jarduera aurreko ekitaldian baino apalagoa izan da. Hazkunde ekonomikoak nagusiki zerbitzuen sektorean oinarritzen jarraitu zuen; sektore hori, beste behin ere, jardueraren eta enpleguaren bultzatzaile nagusi gisa sendotu zen. Aitzitik, industriak bilakaera neurritsuagoa izan zuen, erreferentziazko Europako merkatuen ahuleziak, merkataritza-tentsioen areagotzeak eta Estatu Batuetako muga-zergen politikak sortutako ziurgabetasunak eraginda. Eraikuntzak ere bilakaera positiboa izan zuen, jardueraren susperraldiak eta produktibitatearen hobekuntzak lagunduta. Hala ere, etxebizitzen merkatuak eskaintza-murrizketa batzuk erakusten jarraitu zuen; murrizketa horiek hasitako etxebizitzen zein amaitutako etxebizitzen kopuruaren jaitsieran islatu ziren.

Lurraldeka, 2025eko hazkundea homogeneoa izan zen. Bizkaia eta Gipuzkoa aurrerabidearen buru izan ziren, % 2,3ko hazkunde berdinarekin; hurbiletik jarraitu zien Arabak (% 2,2ko hazkundearekin, 2024ko hazkunde-mailari eutsi zion).

3.1 La economía vasca en 2025

La economía vasca demostró su dinamismo en 2025 en un momento en el que la zona del euro logró una mejora moderada, pero donde las locomotoras europeas, especialmente Alemania, continúan mostrando debilidad. No obstante, la actividad en la CAPV ha sido menos vigorosa que en el ejercicio precedente. El crecimiento económico siguió sustentándose principalmente en el sector servicios, que se consolidó nuevamente como el principal impulsor de la actividad y del empleo. Por el contrario, la industria mantuvo una evolución más contenida, afectada por la debilidad de los mercados europeos de referencia, el incremento de las tensiones comerciales y la incertidumbre generada por la política arancelaria de Estados Unidos. La construcción también presentó una evolución positiva, favorecida por la recuperación de la actividad y por una mejora de la productividad. Sin embargo, el mercado residencial continuó mostrando ciertas restricciones de oferta, reflejadas en la reducción tanto del número de viviendas iniciadas como de las viviendas finalizadas.

Por territorios, el crecimiento de 2025 fue homogéneo. Bizkaia y Gipuzkoa lideraron el avance con un incremento idéntico del 2,3%, seguidas de cerca por Araba/Álava que, con un 2,2%, mantuvo el nivel de crecimiento de 2024.




Euskal ekonomiaren hazkundea barne-eskariaren sendotasunean oinarritu zen; barne-eskaria izan zen hazkundearen eragile nagusia, eta % 2,8ko aurrerabidearekin aurreko urteko erregistroa berdindu zuen. Aitzitik, kanpo-sektoreak bost hamarren kendu dizkio BPGari. 2024aren aldean ekarpen negatiboa handitu du; izan ere, urte hartan hiru hamarren kendu zizkion.

Azken kontsumoko gastuak, etxeetako gastua eta administrazio publikoena barne hartzen dituenak, ibilbide egonkorrari eutsi dio 2025ean zehar; hazkunde-tasek % 2,5rekin ekin zioten urteari urtarrila eta martxoa bitartean, eta % 2,4rekin amaitu zuten azken hiruhilekoan (%2,5eko urteko batez bestekoa erregistratu zuten). Prezioen moderazioak eta zerbitzu publikoen funtzionamendu onak bultzatu dute bilakaera hori. Bere agregatuen barruan, bai kontsumo pribatuak (% 2,7) bai publikoak (% 1,7) hazkundeak izan dituzte, baina azken horrek intentsitate txikiagoarekin 2024an erregistratutakoarekin alderatuta.

El crecimiento de la economía vasca se apoyó en la solidez de la demanda interna, su principal motor, que con un avance del 2,8% igualó el registro del año anterior. En contraste, el sector exterior ha restado cinco décimas al PIB, ampliando su contribución negativa respecto a 2024, cuando había restado tres décimas.

El gasto en consumo final, que incluye el gasto de los hogares y el de las administraciones públicas, ha mantenido una trayectoria estable a lo largo de 2025, con tasas de crecimiento que iniciaron el año con un 2,5% entre enero y marzo y lo cerraron con un 2,4% en el último trimestre, para anotar una media anual del 2,5%. Esta evolución se ha visto impulsada por la moderación de los precios y el buen funcionamiento de los servicios públicos. Dentro de sus agregados, tanto el consumo privado (2,7%) como el público (1,7%) han anotado crecimientos, si bien este último con menor intensidad respecto al registrado en 2024.



Bestalde, inbertsioak ekonomia osoak baino bilakaera dinamikoagoa izan du, eta lehen hiruhilekoan % 2,8ko hazkundea izatetik laugarrenean % 5,1koa izatera igaro da. Hala, urteko batez bestekoa % 4,0koa izan da, azken hiru urteetako erregistrorik handiena, eta nabarmen gainditu du 2024an kapital-eraketa gordinak erregistratutako % 2,7a. Ekipamendu-ondasunetako kapital finkoaren inbertsioaren gorakada, bigarren seihilekoan ikusitakoa, erabakigarria izan da. Urte osoan, osagai horrek % 4,3 egin du gora; hau da, aurreko urtean (% 2,4) baino 1,9 puntu gehiago. Gainerako KEGak, eraikuntzaren bilakaerarekin lotuago dagoenak, % 3,8ko hazkundea izan du (hori ere 2024ko % 2,9aren gainetik dago).

Por su parte, la inversión ha presentado un comportamiento más dinámico que el conjunto de la economía, pasando de un crecimiento del 2,8% en el primer trimestre al 5,1% en el cuarto. Así, la media anual se ha situado en el 4,0%, el mayor registro de los últimos tres años, superando ampliamente el 2,7% registrado por la formación bruta de capital en 2024. El repunte de la inversión de capital fijo en bienes de equipo observado en el segundo semestre ha resultado determinante. En el global del año, este componente ha avanzado un 4,3%, lo que supone 1,9 puntos más que en el año precedente (2,4%). El resto de la FBC, más ligada a la evolución de la construcción, ha registrado un crecimiento del 3,8%, también por encima del 2,9% de 2024.

Euskadiko Eskari-erantsiak / Agregados de Demanda del País Vasco

Bolumen jarraituaren indizeen urte arteko aldakuntza (%)
Variación interanual en (%) de los índices de volumen encadenado

	2023	2024	2025 (p)
AZKEN KONTSUMOA / CONSUMO FINAL	1,9	2,8	2,5
Etxeetako Kontsumoa / Consumo Hogares	2,0	2,5	2,7
Herri Administrazioetako Kontsumoa / Consumo AA.PP.	1,9	3,5	1,7
K. E. GORDINA / FORMACION BRUTA CAPITAL	2,4	2,7	4,0
BARNEKO ESKARIA / DEMANDA INTERIOR	2,1	2,8	2,8
On.eta zerb. esportazioak / Exportaciones bienes y servicios	-1,1	0,1	0,4
On.eta zerb. / Importaciones bienes y servicios	-2,2	0,4	1,2
PG merkatuko prezioetan / PIB precios de mercado	3,0	2,5	2,3

Iturria: Eustat - Kontu Ekonomikoak – Oinarria: 2022 - Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak
Fuente: Eustat -Cuentas Económicas – Base 2022- Datos corregidos de efectos estacionales y de calendario

(p): provisional

Kanpo-sektorea, 2022an maximo historikoetara iritsi zena, indarra galduz joan da, eta horrek Europako merkatu batzuen ahultasuna islatzen du. 2025eko ekitaldi osoan, esportazioak % 0,4 hazi ziren; aldiz, inportazioek aurrerapen handiagoari eutsi zioten (% 1,2ra iritsi ziren).

El sector exterior, que alcanzó máximos históricos en 2022, ha ido perdiendo fuerza, reflejando la debilidad de algunos mercados europeos. En el total del ejercicio 2025, las exportaciones crecieron un 0,4%, en cambio, las importaciones mantuvieron un avance superior, situándose en el 1,2%.

Gogora ekarri behar da Eustatek esportazio eta inportazio gisa tratatzen dituela atzerriko erosketak eta salmentak, baina Estatuko gainerako tokietako erosketak eta salmentak ere bai.

Hay que recordar que el Eustat trata como exportaciones e importaciones las compras y las ventas al extranjero, pero también con el resto del Estado.

Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren datuek kanpoko sektorearen moteltzea berresten dute. EAEko esportazioek, 2020an pandemiaren ondorioz izandako beherakada handiaren ondoren, dinamismo nabarmena mantendu zuten 2023ko lehen hiruhilekora arte. Ordutik, haien bilakaeran hiruhileko batzuetan igoerak eta beste batzuetan jaitsierak txandakatu dira. 2025ean, joera negatiboa izan da bigarren hiruhilekotik aurrera: urtarriletik martxora bitartean urte arteko % 1,6ko hazkundea izan ondoren, kanpo-salmentek -% 2,7ko jaitsiera izan zuten bigarren hiruhilekoan eta -% 9,9koa

Los datos de la Secretaría de Estado de Comercio confirman la ralentización del sector exterior. Las exportaciones vascas, tras el desplome sufrido en 2020 debido a la pandemia, mantuvieron un notable dinamismo hasta el primer trimestre de 2023. Desde entonces, su evolución ha alternado con subidas y bajadas trimestrales. En 2025 la tendencia ha sido negativa a partir del segundo trimestre: tras un aumento interanual del 1,6% entre enero y marzo, las ventas al exterior registraron una caída del -2,7% en el segundo trimestre y del -9,9% en el tercero, para cerrar el año, en el cuarto trimestre,

hirugarrenean; urtea, laugarren hiruhilekoan, -% 3,7ko beherakada moderatuagoarekin amaitu zuten. Gorabeheratsuak izanagatik ere, EAEko esportazioen balio absolutuak pandemia aurreko zifren oso gainetik daude oraindik.

Horrela, 2025eko urte osoan, esportazioek ia 30.000 milioi euroko salmentekin amaitu zuten urtea, eta -% 3,6ko urte arteko jaitsierarekin 2024arekin alderatuta. Esportazioen jaitsiera orokorra izan da, eta salmenta ez-energetikoei zein energetikoei eragin die. Produktu ez-energetikoen esportazioak, guztizkoaren % 95,6, -% 1,6 jaitsi dira. Bestalde, produktu energetikoen kanpo-salmentek atzerakada nabarmenagoa izan dute (-% 32,8koa) eta guztizko bolumenaren % 4,4ko pisu erlatiboa dute.

Lurraldeka, 2025ean esportazioek aldakuntza negatiboak izan zituzten Bizkaian (-% 9,3) eta Araban (-% 3,1), Gipuzkoako bilakaera positiboarekin alderatuta (+% 2,8).

2025ean, eta sektoreka, bilakaera desberdina ikusten da adar esportatzaile nagusien artean. Ekipamendu-ondasunek (kanpo-salmenta guztien % 39,9 biltzen dituztenek) aldakuntza positiboari eustea lortu dute, eta % 0,7ko urte arteko hazkundea izan dute. Hala ere, erdi-manufakturetan (guztizkoaren % 24,7) eragin handiagoa du euskal ekonomiaren inguruko testuinguru ekonomiko konplexuak, eta -% 8,0 egin dute atzera. Bestalde, automobilgintzaren sektoreak (salmenten % 18,8) eremu negatiboan jarraitzen du, bigarren urtez jarraian; baina jaitsiera oso apala da (-% 0,1ekoa). Aitzitik, elikagaiek (esportazio guztien % 6,2) % 13,6ko bilakaera hedakorra izan dute, eta 2024an izandako uzkurdura (-% 21,5) alderantzikatu egin dute.

con una bajada más moderada del -3,7%. A pesar de estas oscilaciones, los valores absolutos de las exportaciones vascas siguen situándose muy por encima de las cifras prepandemia.

De este modo, en el año 2025 en su conjunto las exportaciones cierran con unas ventas de casi 30.000 millones de euros y un descenso interanual del -3,6% respecto a 2024. La bajada de las exportaciones ha sido generalizada, afectando tanto a las ventas no energéticas como a las energéticas. Las exportaciones de productos no energéticos, que suponen el 95,6% del total, han caído un -1,6%. Por su parte, las ventas exteriores de productos energéticos han experimentado un retroceso más acusado, del -32,8% y representan un peso relativo del 4,4% sobre el volumen total.

Por territorios, en 2025 las exportaciones presentaron variaciones negativas en Bizkaia (-9,3%) y Araba/Álava (-3,1%), contrastando con la evolución positiva de Gipuzkoa (+2,8%).

En 2025 y por sectores, se observa una evolución diferenciada entre las principales ramas exportadoras. Los bienes de equipo, que concentran el 39,9% del total de las ventas al exterior, logran mantener una variación positiva y registran un crecimiento interanual del 0,7%. Sin embargo, las semimanufacturas (24,7% del total) se ven más afectadas por el complejo contexto económico que rodea a la economía vasca y retroceden un -8,0%. Por su parte, el sector de la automoción (18,8% de las ventas) continúa en terreno negativo, por segundo año consecutivo, si bien la caída resulta muy moderada, un -0,1%. En sentido contrario, los alimentos (6,2% del total exportaciones) muestran un comportamiento expansivo del 13,6%, revirtiendo la contracción anotada en 2024 (-21,5%).

Inportazioei dagokienez, urte osoan 26.604,9 milioi euroko zifrara iritsi dira; horrek esan nahi du -% 1,6ko jaitsiera gertatu dela 2024arekin alderatuta. Osaera kontuan hartuta, inportazio ez-energetikoak % 5,3 hazi dira; energetikoak (guztizkoaren % 21,1), berriz, -% 20,8 jaitsi dira, eta horrek mugatu egiten du euskal ekonomiaren kanpo-erosketen guztizko hazkunde-erritmoa.

En cuanto a las importaciones, en el conjunto del año han alcanzado la cifra de 26.604,9 millones de euros, lo que supone una caída del -1,6% respecto a 2024. Atendiendo a su composición, las importaciones no energéticas crecen un 5,3%, mientras las energéticas (21,1% del total) registran una caída del -20,8%, lo que limita el ritmo de crecimiento conjunto de las compras exteriores de la economía vasca.

Urte osoan eta lurraldeka, Arabako eta Gipuzkoako inportazioen gehikuntzak % 11,0 eta % 4,4koak izan dira, hurrenez hurren; Bizkaiak, berriz, -% 8,6ko atzerakada izan du. Eremu geografikoen arabera, Europar Batasunetik Euskadira egindako inportazioak hazi (% 2,4) egin dira eta munduko gainerako herrialdeetatik datozenak ahuldu (-% 5,3) egin dira.

En el total del año y por territorios, Araba/Álava y Gipuzkoa registran incrementos en sus importaciones del 11,0% y del 4,4%, respectivamente, mientras que Bizkaia anota un retroceso del -8,6%. Por áreas geográficas, las importaciones de la Unión Europea a Euskadi crecen (2,4%) y se resienten las procedentes del resto del mundo (-5,3%).

Esportazioen atzerakadaren intentsitatea inportazioena baino handiagoa denez, EAEko kanpo-merkataritzaren superabita -692,0 milioi euro murriztu da 2024koarekin alderatuta; hala, 3.239,7 milioi eurokoa izan da 2025ean. Ondorioz, estaldura-tasa (esportazioen eta inportazioen arteko zatidura) bi puntu baino gehiago jaitsi da urte batean, % 114,5etik % 112,2ra.

La mayor intensidad en el retroceso de las exportaciones frente a las importaciones ha provocado una merma del superávit del comercio exterior vasco de -692,0 millones de euros respecto a 2024, situándose de esta manera en 3.239,7 millones en 2025. Como consecuencia, la tasa de cobertura (cociente entre exportaciones e importaciones) cae en más de dos puntos en un año, al pasar del 114,5% al 112,2%.

Euskadiko Eskaintza-erantsiak / Agregados de Oferta del País Vasco

Bolumen jarraituaren indizeen urte arteko aldakuntza (%)
Variación interanual en (%) de los Índices de volumen encadenado

	2023	2024	2025 (p)
NEK. ETA ARRANTZA / - AGROPESQUERO	12,2	4,3	-0,6
INDUSTRIA / INDUSTRIA	2,2	2,0	0,4
ERAIKUNTZA / CONSTRUCCIÓN	4,2	2,0	3,7
ZERBITZUAK / SERVICIOS	3,3	2,9	2,8
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa / Comercio, Hosteleria y Transporte	3,8	2,0	3,3
Herri ad., hez., osasun eta giz. zerb. jarduerak / AAPP, Educ., Sanidad y Serv. Sociales	1,2	2,9	2,1
Gainerako zerbitzuak / Resto servicios	4,2	3,5	2,9
BEG pb / VAB pb	3,2	2,6	2,3
Produktuen gaineko zerga garbiak / Imp.netos s/ Productos	1,7	1,6	2,2
PG merkatuko prezioetan / PIB precios de mercado	3,0	2,5	2,3

Iturria: Eustat - Kontu Ekonomikoak – Oinarria: 2022 - Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.
Fuente: Eustat - Cuentas Económicas – Base 2022 -Datos corregidos de efectos estacionales y de calendario

(p): provisional

Eskaintzaren aldetik, ekonomiaren hiru sektore nagusiek aurrera egin zuten 2025ean. Zerbitzuen sektorea euskal ekonomiaren eragile nagusi gisa mantendu da, dinamismo nabarmenari eutsiz, eta balio erantsiak urte arteko % 2,8ko hazkundea izan du. Eraikuntzak % 3,7ko hazkunde bereziki bizia izan du; eta industriak, berriz, bilakaera neurritsuagoa izan du (% 0,4ko hazkundea izan du). Azkenik, Euskadin pisu erlatibo txikia duen lehen sektoreak -% 0,6ko jaitsiera izan du ekitaldian.

Desde el lado de la oferta, los tres sectores principales de la economía avanzaron en 2025. El sector Servicios se ha mantenido como el principal motor de la economía vasca, conservando un notable dinamismo, con un crecimiento del valor añadido del 2,8% interanual. La Construcción ha mostrado un crecimiento especialmente intenso del 3,7%, mientras que la Industria ha evolucionado de forma más contenida, con un avance del 0,4%. Por último, el sector primario, de escaso peso relativo en Euskadi, ha registrado un descenso del -0,6% en el ejercicio.

Euskadiko Eskaintza-erantsiak / Agregados de Oferta del País Vasco

Prezio arrunten indizeen urte arteko aldakuntza (%)

Variación interanual en (%) de los agregados a precios corrientes

	2023	2024	2025 (p)
NEK. ETA ARRANTZA / - AGROPESQUERO	11,9	-5,0	2,1
INDUSTRIA / INDUSTRIA	5,5	1,9	2,7
ERAIKUNTZA / CONSTRUCCIÓN	8,7	8,2	8,8
ZERBITZUAK / SERVICIOS	8,5	7,1	4,8
Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa / Comercio, Hosteleria y Transporte	8,6	6,9	6,4
Herri ad., hez., osasun eta giz.zerb.jarduerak / AAPP, Educ., Sanidad y Serv. Sociales	5,6	6,0	4,4
Gainerako zerbitzuak / Resto servicios	10,1	7,8	4,0
BEG pb / VAB pb	7,8	5,8	4,5
Produktuen gaineko zerga garbiak / Imp.netos s/ Productos	4,8	2,3	12,6
PG merkatuko prezioetan / PIB a precios de mercado	7,5	5,5	5,3

Iturria: Eustat - Kontu Ekonomikoak – Oinarria: 2022 - Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak.

Fuente: Eustat-Cuentas Económicas – Base 2022 -Datos corregidos de efectos estacionales y de calendario

(p): provisional

Eustaten HKEen arabera, EAEko BPGak 2025ean eguneko prezioetan % 5,3ko hazkundea izan zuen; horren ondorioz, euskal ekonomiaren deflaktore inplizitua % 3,0an kokatu da, 2024an erregistratutako % 2,8 baino pixka bat handiagoa. Gorakada txiki hori gorabehera, prezioek inflazio handieneko urteetan ikusitakoa baino bilakaera askoz ere apalagoa erakusten jarraitu zuten, energia-kostuen eta hornidura-merkatuen pixkanakako normalizazioaren testuinguruan, nahiz eta oraindik ere lan-kostuei eta zerbitzu-jarduera jakin batzuei lotutako presio batzuek iraun zuten.

Kontsumoko Prezioen Indizeak (KPI) Euskadin 2025ean izandako bilakaera egonkortasun erlatibo batek markatu zuen, nahiz eta urtean zehar gorabeherak izan; gorabehera horien ondorioz, urteko batez besteko tasa % 3,0koa izan zen, 2024an erregistratutakoaren (% 3,1) oso antzekoa. Bilakaera hori desinflazio-prozesuak aurrera egiten jarraitu zuen testuinguru batean gertatu zen, nahiz eta espero baino modu motelagoan izan. Horretan

Según las CET del Eustat, el PIB de la CAPV a precios corrientes en 2025 creció un 5,3%, lo que ha situado al deflactor implícito de la economía vasca en el 3,0%, ligeramente por encima del 2,8% registrado en 2024. A pesar de este ligero repunte, los precios continuaron mostrando una evolución mucho más moderada que la observada en los años de mayor inflación, en un contexto de progresiva normalización de los costes energéticos y de los mercados de suministros, aunque todavía persistieron algunas presiones asociadas a los costes laborales y a determinadas actividades de servicios.

La evolución del Índice de Precios al Consumo (IPC) en Euskadi durante 2025 estuvo marcada por una relativa estabilidad, aunque con fluctuaciones a lo largo del año que dieron como resultado una tasa media anual del 3,0%, muy similar a la registrada en 2024 (3,1%). Este comportamiento tuvo lugar en un contexto en el que el proceso de desinflación continuó avanzando, si bien de forma más lenta de lo esperado. A ello contribuyeron diversos factores,

hainbat faktorek eragin zuten; horien artean, honako hauek nabarmendu ziren: energiarekin eta izaera fiskaleko aldaketekin lotutako zenbait tentsiok, bai eta zerbitzuen prezioek gora egiten jarraitzeak ere. Horiek inflazioaren moderazio handiagorako galga gisa jardun zuten.


Zehatzago, ekitaldia inflazio-maila nahiko handiekin hasi zen; batez ere honako hauek baldintzatuta: neurri fiskal batzuk pixkanaka kentzeak (neurri horien artean dago elektrizitatearen BEZaren normalizazioa) eta urte hasieran produktu energetikoetan izandako garestitzeak. Bigarren hiruhilekoan, inflazio orokorrak moteltzeko joera izan zuen, neurri handi batean erregaien prezioen jaitsierari eta petrolio-merkatuaren bilakaera hobeari esker; horrek tasa aldi baterako % 2,5era hurbiltzea ahalbidetu zuen. Hala ere, udako hilabeteetatik aurrera, joera-aldaketa bat antzeman zen, inflazioak berriro gora egin baitzuen petrolioaren prezioaren igoerak eta, bereziki, elektrizitatearen garestitzeak bultzatuta. Ondorioz, inflazio-tasa % 3,0 inguruan mantendu zen urteko bigarren erdiaren zati handi batean.

2025ean zehar, prezioen igoera handienak multzo hauetan kontzentratu ziren: etxebizitzan (urteko % 6,5eko igoera izan zuen), aseguru eta finantza-zerbitzuetan (% 5,2ko igoera izan zuten), eta ostalaritzan (% 4,3ko hazkundea izan zuen). Aitzitik, igoerarik apalenak honako hauetan izan ziren: jantzi eta oinetakoetan (horien prezioak % 0,4 hazi ziren), eta garraioan (% 0,7 baino ez zen igo, erregaietan ikusitako egonkortasun erlatiboari esker). Oro har, bilakaera horrek agerian uzten du, inflazioa pixkanaka moteltzen joan bazen ere, eremu jakin batzuetan prezioen gaineko presioek nabarmenak izaten jarraitu zutela, bereziki energian eta zerbitzuen segmentu batzuetan.

entre los que destacaron determinadas tensiones vinculadas a la energía y a cambios de carácter fiscal, así como la persistencia de incrementos en los precios de los servicios, que actuaron como freno a una moderación más intensa de la inflación.

De forma más concreta, el ejercicio comenzó con niveles de inflación relativamente elevados, condicionados principalmente por la retirada progresiva de algunas medidas fiscales, entre ellas la normalización del IVA de la electricidad, así como por el encarecimiento registrado en los productos energéticos a comienzos de año. Durante el segundo trimestre, la inflación general tendió a moderarse gracias, en buena medida, al descenso de los precios de los carburantes y a una evolución más favorable del mercado petrolero, lo que permitió que la tasa se aproximara temporalmente al 2,5%. No obstante, a partir de los meses de verano se observó un cambio de tendencia, con un nuevo repunte de la inflación impulsado por el aumento del precio del petróleo y, especialmente, por el encarecimiento de la electricidad. Como consecuencia, la tasa de inflación se mantuvo en torno al 3,0% durante gran parte de la segunda mitad del año.

Los mayores incrementos de precios durante 2025 se concentraron en los grupos de vivienda, con una subida anual del 6,5%, seguros y servicios financieros, que aumentaron un 5,2%, y hostelería, con un crecimiento del 4,3%. En contraste, los avances más moderados se registraron en vestido y calzado, cuyos precios crecieron un 0,4%, y en transporte, que apenas aumentó un 0,7%, favorecido por la relativa estabilidad observada en los carburantes. En conjunto, esta evolución pone de manifiesto que, pese a la progresiva moderación de la inflación, continuaron existiendo ámbitos concretos donde las presiones sobre los precios siguieron siendo significativas, especialmente en la energía y en algunos segmentos de servicios.



Bestalde, azpiko inflazioak (ez ditu barne hartzen produktu energetikoen prezioak eta prestatuta ez dauden elikagaienak, hain zuzen ere indizearen barruan osagairik aldakorrenak) ibilbide egonkorragoa izan zuen, eta aurreko ekitaldietan hasitako moderazio-joerari eutsi zion. 2024an % 3,2an kokatu ondoren, urteko batez bestekoa % 2,6ra jaitsi zen 2025ean, ekoizpen-kostuen pixkanakako normalizazioak eta hornikuntza-kateen hobekuntzak bultzatuta. Bilakaera horretan, bereziki lagundu zuten industria-ondasunen moderazioak (% 0,9ko aldakuntza izan zuten) eta prestatutako elikagaienak (% 2,1eko igoera izan zuten). Hala ere, zerbitzuek hazkunde nahiko handiak izaten jarraitu zuten (% 3,4ko hazkundea izan zuten); horrek inflazioaren murrizketa moteldu zuen eta eskariari nahiz lan-kostuen bilakaerari lotutako barne-presio jakin batzuek bere horretan jarraitzen zutela agerian utzi zuen.

Por su parte, la inflación subyacente (que no incluye los precios de los productos energéticos ni de los alimentos no elaborados, los componentes más volátiles del índice), mostró una trayectoria más estable y mantuvo la tendencia de moderación iniciada en ejercicios anteriores. Tras situarse en el 3,2% en 2024, la media anual descendió hasta el 2,6% en 2025, impulsada por la normalización gradual de los costes de producción y por la mejora de las cadenas de suministro. A esta evolución contribuyeron especialmente la moderación de los bienes industriales, cuya variación fue del 0,9%, y de los alimentos elaborados, que aumentaron un 2,1%. No obstante, los servicios continuaron registrando incrementos relativamente elevados, con un crecimiento del 3,4%, lo que ralentizó la reducción de la inflación y evidenció la persistencia de ciertas presiones internas vinculadas tanto a la demanda como al comportamiento de los costes laborales.

Ondorioz, inflazio orokorra maila moderatuetan mantendu zen ikuspegi historikotik, nahiz eta % 2,0ko helbururantz erabat hurbiltzeko zailtasunak

En consecuencia, la inflación general se mantuvo en niveles moderados desde una perspectiva histórica, aunque siguió mostrando dificultades

izaten jarraitu zuen. Izan ere, urtean zehar ikusitako azelerazio nagusiak indizearen osagai aldakorrenetan (bereziki energiarekin lotutakoetan) izandako tentsio-gertakariekin bat etorri ziren; azken osagai horiek prezioen bilakaera baldintzatzen jarraitu zuten, baita egonkortze progresiboko egoera batean ere.

2025. urtean zehar, soldata-igoerak jasotzen zituzten 470 hitzarmen kolektibo sinatu ziren. Onartutako hitzarmenen kopuruak ez zuen aurreko urtekoa (482) gainditzea lortu; hala ere, negoziazio kolektiboaren estaldura handitu egin zen, eta 328.636 pertsonatik 329.791 pertsonara igaro zen (% 0,4 gehiago). Urtean zehar sinatu ziren hitzarmenetan adostutako batez besteko soldata-igoera % 4,1ekoa izan zen; urtebete lehenago erregistratutakoa (% 3,7) gainditu zuen.

EINek argitaratzen duen lan kostuen hiruhilekoko inkestaren arabera, langile bakoitzeko guztizko lan-kostuek gora egin zuten 2025ean. Ekitaldia lehen bi hiruhilekoetan % 3,4ko igoerarekin hasi ondoren, hirugarrenean igoera % 4,1ekoa izan zen eta azkenekoan % 4,2koa. Batez beste, lan-kostua urtean % 3,8 igo zen 2025ean; eta hori puntu eta erdiko igoera da, 2024an erregistratutako % 2,3arekin alderatuta, eta Estatuan erregistratutakoa baino sei hamarren gehiago (% 3,2). Eraikuntza izan zen igoera handiena izan zuen sektorea (% 6,3ko igoera izan zuen). Ondoren, zerbitzuak (% 4,7) izan ziren. Industriak, berriz, % 0,4ko igoera izan zuen. Datu horiek kostuen hazkundean gorakada izan dela erakusten dute eraikuntzaren eta zerbitzuen kasuan, 2024arekin alderatuta; urte hartan, igoerak % 4,9koa eta % 2,0koa izan ziren, hurrenez hurren. Hala ere, hazkundea moteldu egin da industriaren kasuan, 2024an % 3,0koa izan baitzen.

2025ean, hitzartutako orduek nahiz egindako orduek igoera txiki bat izan zuten. Hitzartutako

para converger plenamente hacia el objetivo del 2,0%. De hecho, las principales aceleraciones observadas a lo largo del año coincidieron con episodios de tensión en los componentes más volátiles del índice, especialmente aquellos relacionados con la energía, que continuaron condicionando la evolución de los precios incluso en un escenario de progresiva estabilización.

A lo largo del año 2025 se firmaron 470 convenios colectivos con aumentos de salarios. El número de convenios aprobados no logró superar el del año anterior (482), si bien sí que se amplió la cobertura de la negociación colectiva, pasando de 328.636 a 329.791 personas, un 0,4% más. El incremento salarial medio acordado en los convenios que se firmaron durante el año fue del 4,1%, superando el registrado un año antes (3,7%).

Según la Encuesta Trimestral de Costes Laborales que publica el INE, los costes laborales totales por trabajador repuntaron en 2025. Después de iniciar el ejercicio con un aumento del 3,4% en los dos primeros trimestres, en el tercero el incremento alcanzó el 4,1% y en el último el 4,2%. En promedio, el coste laboral se incrementó un 3,8% anual en 2025, lo que representa una subida de punto y medio con respecto al 2,3% registrado en 2024 y seis décimas más que en el Estado (3,2%). La Construcción fue el sector con el mayor incremento, registrando un 6,3%, seguido de los Servicios (4,7%), mientras que la Industria anotó un 0,4%. Estos datos muestran un repunte en el crecimiento de los costes en el caso de la Construcción y los Servicios en comparación con 2024, cuando los aumentos fueron del 4,9% y 2,0%, respectivamente. El crecimiento se ralentiza sin embargo en el caso de la Industria, ya que en 2024 registró un 3,0%.

En el año 2025, tanto las horas pactadas como las horas efectivas mostraron una ligera subida. Las

orduak % 0,2 igo ziren, eta hileko lanaldia 148,0 ordukoa izatera igaro zen; egindako orduak, berriz, % 0,4 igo ziren, eta 120,5 ordura iritsi ziren.

Bestalde, industria prezioek, Eustaten IPRIren bidez neurtuta, joera aldaketa izan zuten 2025ean, 2024an ikusitako -% 4,0ko jaitsieraren ondoren. Indize orokorrak % 0,2ko igoera txiki batekin amaitu zuen ekitaldia, nahiz eta bere bilakaeran nolabaiteko dezelerazioa ikusten den. Urte arteko tasek % 2,0an hasi zuten ekitaldia; eta intentsitatea galtzen joan ziren urtean zehar, abenduan eremu negatiboan kokatu arte. 2025eko bilakaera, neurri handi batean, prezio energetikoen bilakaerak baldintzatu zuen. Prezio horiek jaisten jarraitu bazuten ere, jaitsieren intentsitatea aurreko bi urteetan ikusitakoa baino nabarmen txikiagoa izan zen; beraz, inflazioaren moderazioari egindako ekarpena mugatuagoa izan zen.

horas pactadas aumentaron un 0,2%, pasando a ser la jornada mensual de 148,0 horas, mientras que las horas efectivas se incrementaron un 0,4% llegando a 120,5 horas.

Por otro lado, los precios industriales, medidos por el IPRI del Eustat, registraron en 2025 un cambio de tendencia tras la caída del -4,0% observada en 2024. El índice general cerró el ejercicio con un ligero aumento del 0,2%, aunque en su evolución se observa cierta desaceleración. Las tasas interanuales, que arrancaron el ejercicio en un 2,0%, fueron perdiendo intensidad a lo largo del año hasta situarse en terreno negativo en diciembre. La evolución de 2025 estuvo condicionada en gran medida por el comportamiento de los precios energéticos que, aunque continuaron reduciéndose, la intensidad de las caídas fue considerablemente menor que la observada en los dos años anteriores, por lo que su contribución a la moderación de la inflación resultó más limitada.

Euskadi - Enplegua jarduera arlo desberdinetan / P. Vasco - Empleo por ramas de actividad
Biztanle landunak (Lanpostuak, guztira) / Urte arteko aldakuntza (%)
Personal Ocupado (PuestosTotal) / Variación Interanual (%)

Biztanle landunak (Lanpostuak guztira) / Personal Ocupado (Total Puestos)

	2020	2021	2022	2023	2.024,0	2025 (p)
Nekazaritza eta arrantza / Agricultura y Pesca	12.087	11.891	12.372	12.208	11.666	11.859
Industria / Industria	188.818	194.496	197.986	200.422	203.305	206.641
Eraikuntza / Construcción	55.157	56.045	58.556	60.418	61.678	63.206
Zerbitzuak / Servicios	643.478	664.017	684.153	697.195	711.752	724.623
Guztira / Total	**899.540**	**926.449**	**953.067**	**970.243**	**988.401**	**1.006.329**

Urte arteko aldakuntza (%) / Variación Interanual (%)

	2020	2021	2022	2023	2.024,0	2025 (p)
Nekazaritza eta arrantza / Agricultura y Pesca	-2,5	-1,6	4,0	-1,3	-4,4	1,7
Industria / Industria	-8,5	3,0	1,8	1,2	1,4	1,6
Eraikuntza / Construcción	-8,7	1,6	4,5	3,2	2,1	2,5
Zerbitzuak / Servicios	-5,5	3,2	3,0	1,9	2,1	1,8
Guztira / Total	**-6,3**	**3,0**	**2,9**	**1,8**	**1,9**	**1,8**

Iturria: Eustat - Kontu Ekonomikoak. Oinarria 2022 - SEC 2010 (p): provisional
Fuente: Eustat - Cuentas Económicas. Base 2022 - SEC 2010

Lan-merkatuari dagokionez, eskuragarri dauden adierazleek berriro ere islatu zuten enpleguaren bilakaera positiboa izan zela Euskadin 2025ean, jarduera ekonomikoak izandako hazkundearekin bat etorriz. Okupazioak goranzko bideari eutsi zion eta maximo historiko berriak lortu zituen, batez ere zerbitzuen sektorearen dinamismoan oinarrituta, baina eraikuntzan eta industrian ere aurrerapenak ikusi ziren. Lan-merkatuaren bilakaera positibo horrek pertsona landunen kopurua handitzen eta langabezia-mailak berriro murrizten lagundu zuen.

En lo que respecta al mercado laboral, los distintos indicadores disponibles volvieron a reflejar una evolución favorable del empleo en Euskadi durante 2025, en consonancia con el crecimiento registrado por la actividad económica. La ocupación mantuvo su trayectoria ascendente y alcanzó nuevos máximos históricos, sustentada principalmente en el dinamismo del sector servicios, aunque también se observaron avances en la construcción y en la industria. Este comportamiento positivo del mercado de trabajo contribuyó tanto al incremento del número de personas ocupadas como a una nueva reducción de los niveles de desempleo.

Eustaten HKEen arabera, enpleguak % 1,8 egin zuen gora 2025ean, 2024arekin alderatuta. Aurrerapen hori guztira 1.006.329 lanpostutan islatzen da, hau da, urtebetean 17.928 enplegu gehiago izan ziren.

Según las CET del Eustat, el empleo en 2025 creció un 1,8% en comparación con 2024. Este avance se refleja en un total de 1.006.329 puestos de trabajo, lo que representa un aumento de 17.928 empleos en un año.

Enpleguaren urte arteko datuek bilakaera orokor positiboa erakutsi zuten, nahiz eta sektore nagusietako hazkundea ez zen homogeneoa izan. Eraikuntzaren sektorea izan zen igoeraren buru (% 2,5ko igoera sendoa izan zuen), eta ondoren zerbitzuen sektorea kokatu zen (% 1,8ko igoera izan zuen). Era berean, industrian enpleguak % 1,6 egin zuen gora; eta, azkenik, lehen sektorea, pisu erlatibo txikia duena, % 1,7 hazi zen.

Los datos interanuales de empleo mostraron una evolución positiva general, si bien el crecimiento en los principales sectores no fue homogéneo. El sector de la Construcción encabezó la subida con un sólido aumento del 2,5%, seguido por el sector Servicios con un 1,8%. Asimismo, el avance del empleo en la industria fue del 1,6% y, finalmente, el sector Primario, de escaso peso relativo, creció un 1,7%.

Eustaten BJAren arabera, Euskadiko langabezia-tasa % 6,4koa izan zen 2025ean, eta urtebetean puntu bat jaitsi zen (% 7,4 2024an). EINen BAIren arabera, berriz, bederatzi hamarren handiagoa izan zen, % 7,3koa (% 8,1 2024an). Nolanahi ere, bi datuek Estatuko batez bestekoa hobetzen dute, % 10,5ekoa baita.

Según la PRA del Eustat, la tasa de paro de Euskadi fue del 6,4% en 2025, logrando una bajada de un punto en un año (7,4% en 2024). La EPA del INE, por su parte, la cifró nueve décimas más alta, un 7,3% (8,1% en 2024). En cualquier caso, ambos datos mejoran la media estatal que se sitúa en el 10,5%.

Euskal ekonomiako afiliazioen batez bestekoa 2025ean 1.024.160koa izan zen. Datu horrek 2024ko emaitza hobetzen du, 10.737 afiliazio

La media de afiliaciones de la economía vasca en 2025 fue de 1.024.160. Este dato mejora el resultado de 2024, sumando 10.737 afiliaciones

gehiago gehituta (hau da, % 1,1eko hazkundea izan da).

Azkenik, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) datuen arabera, 2025ean 106.971 langabe zeuden erregistratuta. Zifra horrek adierazten du 1.928 pertsona gutxiago daudela aurreko urtearekin alderatuta (hau da, -% 1,8ko jaitsiera izan da, aurreko urtean erregistratutako % 0,4ko igoeraren ondoren). Halaber, EAEko langabezia-tasak berriro ere hobera egin zuen; % 9,5eko batez bestekoa izan zuen (aurreko urteko emaitza baino bi hamarren txikiagoa).

3.2. Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia 2026ko lehenengo seihilekoan

Eustaten hiruhileroko kontu ekonomikoen (HKE) arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko BPGa, termino zuzendutan, urte arteko % 2,3 hazi da 2026ko apiriletik ekainera bitartean; eta bi hamarren hobetu da Eustatek joan den uztaileko hiruhileroko kontuen aurrerapenean aurreratutako datua (% 2,1). Bigarren hiruhilekoko urtetik urterako hazkunde hori urteko lehenengo hiruhilekoan erregistratutakoa baino hamarren bat handiagoa da.

Europar Batasuneko datuekin alderatuta, bigarren hiruhilekoan urtetik urterako hazkundea 27en multzokoarena (% 1,4) eta euroguneko herrialdeetakoena (% 1,2) baino handiagoa da, eta Estatu osokoarena (% 2,6) baino txikiagoa.

Hiruhilekoen artean, EAEko BPGa % 0,7 hazi da bigarren hiruhilekoan, 2026ko lehenengo aldiko hazkundea (% 0,5) baino bi hamarren gehiago eta Espainiako hazkundearen berdina.

Lurraldeka, Gipuzkoa izan zen hazkundearen buru; % 2,4 hazi zen, eta EAEko batez bestekoa gainditu zuen. Bizkaian % 2,3koa izan zen hazkundea; Araban, berriz, % 2,2koa. Aurreko hiruhilekoan, más, lo que equivale a un aumento del 1,1%.

Por último, los datos del Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE) muestran que el número de personas desempleadas registradas en 2025 ascendió a 106.971 personas. Esta cifra representa un descenso de 1.928 personas con respecto al año anterior, una caída del -1,8% tras el incremento del 0,4% registrado el año anterior. Asimismo, la tasa de paro en la CAPV mejoró nuevamente, alcanzando una media del 9,5%, dos décimas por debajo del resultado del año anterior.

3.2 La economía del País Vasco en el primer semestre de 2026

Según las Cuentas Económicas Trimestrales (CTR) del Eustat, el PIB del País Vasco en términos corregidos ha crecido entre abril y junio de 2026 el 2,3% interanual, mejorando en dos décimas el dato adelantado por el Eustat en el Avance de las Cuentas Trimestrales del pasado julio (2,1%). Este crecimiento interanual del segundo trimestre es una décima superior al registrado en el primer trimestre del año.

En comparación con los datos de la Unión Europea, el crecimiento interanual en el segundo trimestre es mayor que el del conjunto de los 27 (1,4%) y que el de los países de la eurozona (1,2%), e inferior al del conjunto del Estado (2,6%).

En términos intertrimestrales, el PIB de la CAPV ha subido el 0,7% en el segundo trimestre, dos décimas más que el incremento del primer periodo de 2026 (0,5%) y al mismo nivel que el crecimiento de España.

Por territorios, Gipuzkoa lideró el crecimiento con un aumento del 2,4% superando la media de la CAPV. El avance de Bizkaia fue del 2,3%, mientras que en Araba/Álava se situó en el 2,2%. En el

% 2,4 hazi zen Bizkaian, eta % 2,0 Gipuzkoan eta Araban.

Halaber, Eustaten kalkuluen arabera, 2026ko bigarren hiruhilekoko BPGa, prezio arruntetan, 13.749,7 milioi eurora igo da Bizkaian, % 5,3ko urte arteko igoerarekin, Arabak eta Gipuzkoak hurrenez hurren lortutako % 5,0ren eta % 4,9ren gainetik.

Asimismo, el Eustat estima que el PIB a precios corrientes en el segundo trimestre de 2026 en Bizkaia se elevó a 13.749,7 millones de euros, con un incremento interanual del 5,3%, por encima del 5,0% de Araba/Álava y del 4,9% de Gipuzkoa.

Ekoizpen-jarduera

Actividad productiva

Eskaintzari begiratuta, 2025ean jada baziren tentsioei (Europako ekonomia nagusiak

Desde el punto de vista de la oferta, a las tensiones ya existentes en 2025 (estancamiento de las

gelditzea, Ukrainiako gerrak bere horretan jarraitzea eta Estatu Batuek muga-zergen arloan eraso egitea, batez ere) intentsitate handiko beste batzuk gaineratu zaizkie, hala nola Ekialde Hurbileko gatazka: otsailean piztu zen, eta Ormuzko pasabidea ixtea ekarri zuen; horren ondorioz, energia-produktuen nahiz premia handiko beste produktu batzuen (ongarriak, kasu) hornidura-arazoak larriagotu egin ziren, eta prezioak aurreikusteko moduko amaierarik ez daukan eskalada batera eraman zituen.

principales economías europeas, la persistente guerra de Ucrania y ofensiva arancelaria de Estados Unidos, principalmente) se han añadido otras nuevas de gran intensidad, como es el conflicto de Oriente Próximo que estalló en febrero y que supuso el cierre del estrecho de Ormuz agravando los problemas de suministro tanto de productos energéticos como de otros de gran necesidad (fertilizantes) y llevando a los precios a una escalada cuyo final es difícil de prever.

Eraikuntza egonkor mantendu da urtean zehar, eta hirugarren sektorea izan da jardueraren sustatzaile nagusia.

La construcción se ha mantenido estable a lo largo del año y el sector terciario ha sido el principal impulsor de la actividad.

Bestetik, nahiz eta aipatutako faktore negatibo guztiek Bizkaiko industriari modu berezian eragin, hark aurrera egiten jakin du, eta elkarren segidako lau hiruhileko kateatu ditu ekainean goranzko joeran, manufaktura-adarraren abiada onak bultzatuta. Alde txarrei begiratuta, baina, energia-sektoreak aurrerabidea eten du ekitaldi honetan. Erauzketa-industriak pisu erlatibo urria dauka lurraldean, baina hiru hiruhilekotan izandako jaitsiera etetea lortu du; are, emaitza positiboa izan du.

Por otro lado, si bien todos los factores negativos mencionados afectaron de manera especial a la industria de Bizkaia, esta ha logrado resistir y en junio ha encadenado ya el cuarto trimestre seguido al alza, impulsada por la buena marcha de su rama manufacturera. Por el lado negativo, el sector energético ha frenado su progreso este ejercicio. La industria extractiva, de escaso peso relativo en el territorio, ha conseguido frenar su caída de tres trimestres y anota un resultado positivo.

Eustaten Industria Ekoizpenaren Indizea hartuta, industria-sektorea % 1,4 hazi da urterik urte 2026ko urtarriletik martxora, eta, horrela, 2025eko hirugarren hiruhilekoan hasitako ibilbide positiboa luzatu da (2025eko hirugarren hiruhilekoan, amaiera eman zitzaien elkarren segidako bost hiruhilekoren emaitza negatiboei). Urte honetako bigarren hiruhilekoan, jardueraren susperraldia are gehiago finkatu da, % 1,8ko aurrerapenarekin.

Entre enero y marzo de 2026, el sector industrial tomando como referencia el Índice de Producción Industrial (IPI) del Eustat crece un 1,4% interanual, prolongando la trayectoria positiva iniciada en el tercer trimestre de 2025 y que cerró una senda de resultados negativos de cinco trimestres consecutivos. En el segundo trimestre de este año se consolida aún más la recuperación de la actividad con un avance del 1,8%.

Datu horien arabera, 2026ko lehen seihilekoko Industria Ekoizpenaren Indizeak % 1,6ko igoera

Estos datos hacen que el IPI del primer semestre de 2026 anote una subida del 1,6%. Este dato contrasta

izan du. Datu hori ez dator bat EAEko batez bestekoak islatzen duen jaitsierarekin (–% 0,4), zeina izan baita Arabak (–% 4,2) eta, askoz ere neurri txikiagoan, Gipuzkoak (–% 0,4) aldi horretan erregistratutako jarduera-jaitsieraren ondoriozkoa. Estatuko Industria Ekoizpenaren Indizeak, berriz, % 1,2ko igoera zenbatu du urtarriletik ekainera.


Uztaileko azken datu eskuragarriek agerian jarri dute, berriro ere, sektorea zailtasunetan dagoela, urte arteko atzerapena –% 1,6koa izan da-eta. Europako merkatuen dinamismo eskasak industria-jarduera kaltetzen jarraitzen du, jarduera horren zati handi bat inguruneko ekonomietara zuzentzen baita.

Hiruhilekoko datuetara itzuliz, azpisektoreen arabera, 2026ko apiriletik ekainera bitarte Bizkaian ekoizpen-sektoreak izandako aurrerapena, zuzenduta, manufaktura-jarduerak jasandako igoerari zor zaio soilik, % 2,8 hazi baita (joera positibodun ondoz ondoko lau hiruhileko kateatu ditu). Erauzketa-jarduerek izandako % 2,5ko igoerak indartu egiten du Industria Ekoizpenaren Indizeak emandako datu ona, nahiz eta Bizkaiko industrian pisu erlatibo txikia izan. Alderdi txarrei erreparatuta, baina, beste sektore handiak (energia-ekoizpenak) –% 13,6eko galera izan du urterik urte, 2025eko bigarren hiruhilekoari dagokionez. Energiak elkarren segidako bi hiruhileko daramatza gorri.

con la caída que refleja la media de la CAPV, del -0,4%, debido a los descensos de la actividad en el periodo registrados tanto por Álava/Araba, del -4,2%, como, en mucha menor medida, por Gipuzkoa, del -0,4%. Por su parte, el IPI del Estado contabiliza un incremento del 1,2% de enero a junio del año.

Los últimos datos disponibles del mes de julio vuelven a poner de manifiesto las dificultades por las que atraviesa el sector, señalando un retroceso interanual del -1,6%. El escaso dinamismo de los mercados europeos continúa perjudicando a la actividad industrial, ya que buena parte de ella se dirige precisamente a las economías del entorno.

Volviendo a los datos trimestrales y por subsectores, el avance logrado por el sector productivo en Bizkaia entre abril y junio de 2026 en términos corregidos se debe, principalmente, al incremento obtenido por la actividad manufacturera, que crece un 2,8% (encadena cuatro trimestres consecutivos en positivo). Refuerza el buen dato consignado por el IPI el aumento del 2,5% de las actividades extractivas, si bien tienen escaso peso relativo en el total de la industria de Bizkaia. Por el lado negativo, el otro gran sector, la producción de energía pierde el -13,6% interanual respecto al segundo trimestre de 2025. En el caso de la energía son ya dos trimestres seguidos en rojo.



Industriaren susperraldia Gizarte Segurantzako afiliazioetan islatzen da, zeinak, 2021eko lehenengo hiruhilekoan hasitako dinamikari jarraikiz, 2026ko lehenengo bi hiruhilekoetan hazi egin baitira; lehenengoan, % 1,3ko igoera izan da urterik urte, eta, bigarrenean, hiru hamarren gutxiago, % 1,0koa. Datu horiekin, urteko lehen seihilekoan, Bizkaiko industria-sektoreko enpleguak % 1,1eko hobekuntza izan du 2025eko aldi berari dagokionez, 73.806 afiliaziorekin, 2025eko ekainean baino 827 gehiago (hileko azken egunean izandako afiliazioen batez besteko metatua). Ekonomiako beste bi sektore nagusiei dagokienez, industria eraikuntza baino dinamikoago dago, eta zerbitzuak dira buru Bizkaiko afiliazioen gehikuntzan.

Adarren arabera eta urte arteko terminoetan, 2026ko apiriletik ekainera bitartean, igo egin dira manufaktura-jardueretako afiliazioak (% 0,8), jarduera horiexek izaki langile gehien enplegatzen dituztenak (industriako afiliazio guztien % 92,4), bai eta uraren, energiaren eta erauzketen ekoizpenekoak ere, % 2,7ko aurrerapen nabarmenarekin.

La recuperación de la industria se refleja en las afiliaciones a la Seguridad Social, que, siguiendo la dinámica iniciada en el tercer trimestre de 2021, han crecido en los dos primeros trimestres de 2026; en el primero un 1,3% interanual y en el segundo tres décimas menos, el 1,0%. Con estos datos, en el primer semestre del año, el empleo del sector industrial de Bizkaia anota respecto al mismo periodo de 2025 una mejora del 1,1%, con 73.806 afiliaciones, 827 más que en el mes de junio de 2025 (media acumulada de afiliaciones el último día del mes). Respecto a los otros dos principales sectores de la economía, la industria se muestra más dinámica que la construcción, mientras los servicios lideran el incremento de las afiliaciones en Bizkaia.

Por ramas y en términos interanuales, entre abril y junio de 2026 suben las afiliaciones en las actividades manufactureras (0,8%), que son las que más personal emplean (el 92,4% del total afiliaciones en la industria), así como las de producción de agua, energía y extractivas, con un notable avance del 2,7%.

Irailean, hileko azken eguneko afiliatuen guztizko kopurua datu gisa hartuta, ikusten da sektoreko afiliazioen hazkundeak erritmo onean jarraitzen duela, urte arteko % 1,4ko aurrerapenarekin 2025ko irailaren aldean.

En septiembre, tomando como dato el número total de afiliados el último día del mes, se observa cómo el aumento de las afiliaciones en el sector continúa a buen ritmo, con un avance interanual del 1,4% frente a septiembre de 2025.

Lan-merkatuko inkestei dagokienez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2026ko bigarren hiruhilekoan 101.600 bizkaitar ari dira industrian lanean, eta urte arteko hazkundea % 18,0koa izan da 2025eko aldi berarekin alderatuta (% 9,7 egin zuen gora). Kontuan hartuta urtarriletik martxora sektorean okupazioa % 10,9 hazi dela, urte honetako lehen sei hilabeteetako urte arteko aldakuntzak % 14,4ko hazkundea izan du.

Respecto a las encuestas del mercado de trabajo, la EPA del INE estima en el segundo trimestre de 2026 una población vizcaína ocupada en la industria de 101.600 personas, con un incremento interanual del 18,0% respecto al mismo periodo de 2025, en el que había crecido un 9,7%. Teniendo en cuenta que entre enero y marzo la ocupación en el sector creció un 10,9%, la variación interanual en los seis primeros meses de este año ha anotado un aumento del 14,4%.

Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestaren arabera, berriz, industriako enpleguak –% 2,6 egin du behera apiriletik ekainera bitartean. Horri lehen hiruhilekoan erregistratutako % 1,9ko aurrerapena gehitzen badiogu, urteko lehen sei hilabeteetan industria-sektoreko okupazioak –% 0,4 egin du behera, Eustaten arabera.

Por el contrario, la PRA muestra un descenso del empleo industrial entre abril y junio, del -2,6%. Si a esto le unimos el avance del 1,9% registrado en el primer trimestre, resulta que en los seis primeros meses del año la ocupación en el sector industrial habría caído un -0,4% según el Eustat.

Eraikuntza sektoreari dagokionez, Seopanen arabera, Bizkaian lizitazio ofiziala 277,7 milioi eurokoa izan da 2026ko urtarriletik ekainera bitartean, hau da, –% 51,5eko jaitsiera egon da urterik urte, 2025eko aldi bereko 572,7 milioien aldean, orduan % 7,9ko aurrerapena izan baitzuen. Eraikuntzari lotutako lizitazioak –% 63,7 egin du behera, eta obra zibilari dagokiona, berriz, –% 44,1 jaitsi da (obra zibila da ekainera arte lizitatutako guztiaren % 71,7).

Para el sector de la construcción, Seopan, señala que en Bizkaia la licitación oficial fue de 277,7 millones de euros entre enero y junio de 2026, lo que supone un significativo descenso interanual del -51,5% respecto a los 572,7 millones de igual periodo de 2025, cuando creció un 7,9%. Mientras que la licitación ligada a la edificación cede el -63,7%, la correspondiente a obra civil lo hace un -44,1% (esta supone el 71,7% del total licitado hasta junio).

2026ko lehenengo seihilekoan, hiru erakunde-mailek sustatutako lizitazioak behera egin du: autonomia-erkidegoak sustatutakoa (guztizkoaren % 24,4) –% 78,4 jaitsi da, toki-administrazioak sustatutakoa (lizitazioen % 69,6) –% 10,7 jaitsi da, eta administrazio zentralak sustatutakoa

En el primer semestre de 2026 ha caído la licitación impulsada por los tres niveles institucionales; la promovida por Administración autonómica (un 24,4% del total) el -78,4%, la procedente de la administración local (69,6% de las licitaciones) el -10,7% y la realizada por la Administración central

(guztizkoaren % 6,0) –% 60,9 jaitsi da. Lizitazioei buruzko datuok ondorengo hiruhilekoetan zuzendu ohi dira, bildutako laginen metodologiagatik beragatik, eta, normalean, inpaktu positiboak nahiz negatiboak arindu egiten dira.

(6,0% del total) el -60,9%. Estos datos referidos a las licitaciones suelen corregirse en los trimestres posteriores por la propia metodología de las muestras recogidas, mitigándose normalmente los impactos tanto positivos como negativos.

Bizkaiko Abagunearen Adierazkariak (2026ko iraila)
Indicadores de Coyuntura de Bizkaia (septiembre 2026)

		Hazkundea / Crecimiento					
		Urtekoa Anual		Igarotako Periodo			
Adierazkariak	Epealdia	2024	2025	2025	2026	Periodo	Indicadores
BPG-Bolumena (datu	(I+II) Hiruhil.	2,8	2,3	2,2	2,4	(I+II) Trim.	PIB-Volumen (Datos
BPG-Nominala (datu	(I+II) Hiruhil.	5,7	5,4	5,2	5,2	(I+II) Trim.	PIB-Nominal (Datos
EKOIZPENA							**PRODUCCIÓN**
I.E.I. orokorra (Eustat)	Urt.-Uztaila	0,3	-0,2	-1,5	2,0	En.-Julio	I.P.I. General (Eustat)
I.E.I. Zuzendua- Orokorra	Urt.-Uztaila	-0,5	0,1	-0,6	1,2	En.-Julio	I.P.I.-Corregido- General
Enpleg. Guztira (BAI-EIN)	Urt.-Ekaina	-0,3	1,7	1,2	-2,5	En.-Junio	Ocupados Total (EPA-INE)
Enpleg. Guztira (BJA-Eustat)	Urt.-Ekaina	1,1	1,5	1,7	0,6	En.-Junio	Ocupados Total (PRA-Eustat)
Gizarte Segurantzako afiliatuak	Urt.-Abuztua	1,6	1,3	1,3	1,5	En.-Agosto	Afiliados a la Seg. Social
Esportazio guztiak (SEC)	Urt.-Uztaila	-4,3	-9,3	-10,2	14,1	En.-Julio	Exportaciones Totales (SEC)
Inportazio guztiak (SEC)	Urt.-Uztaila	-0,8	-8,6	-9,8	19,7	En.-Julio	Importaciones Totales (SEC)
Energ. ez diren esport. (SEC)	Urt.-Uztaila	-5,0	-4,6	-3,6	10,1	En.-Julio	Exportaciones No Energ.(SEC)
Energ. ez diren inport.(SEC)	Urt.-Uztaila	-4,4	1,6	1,8	9,2	En.-Julio	Importaciones No Energ.(SEC)
INDUSTRIA							**INDUSTRIA**
I.E.I. Erauzketa Industriak	Urt.-Uztaila	-16,5	-3,3	3,0	-10,2	En.-Julio	I.P.I. Ind. Extractivas (Eustat).
I.E.I. Manufakturak Industrialak	Urt.-Uztaila	0,1	-0,5	-1,5	1,6	En.-Julio	I.P.I. Ind. Manufact. (Eustat)
I.E.I. Energia, Ura eta Gasa	Urt.-Uztaila	-4,5	3,8	3,8	-6,6	En.-Julio	I.P.I. En., Agua, Gas (Eustat)
Indus. Ener. Elek. Kontsumoa	Urt.-Abuztua	3,8	-3,4	-16,6	27,1	En.-Agosto	Consumo Energia Elèct.
Sid. g/ko e.e. kontsumoa	Urt.-Abuztua	1,5	-4,6	-14,7	22,9	En.-Agosto	Cons. E. Elèct. Ind. Sin
Ind. Enplegua (BAI-EIN)	Urt.-Ekaina	-5,6	18,2	10,8	14,4	En.-Junio	Ocupados Industria (EPA-INE)
Ind. Enplegua (BJA-Eustat)	Urt.-Ekaina	4,2	1,1	2,2	-0,4	En.-Junio	Ocupados Industria (PRA-
ERAIKUNTZA							**CONSTRUCCIÓN**
Eraikuntza. E. Elek. Kontsumoa	Urt.-Abuztua	-1,7	9,2	9,5	-14,5	En.-Agosto	Cons. E. Elèct. Construc. y
Lizitazio publikoa (SEOPAN)	Urt.-Ekaina	104,0	-2,4	7,9	-51,5	En.-Junio	Licitación Pública (SEOPAN)
Eraik. Enplegua (BAI-EIN)	Urt.-Ekaina	-8,1	10,6	5,3	2,5	En.-Junio	Ocupados Construc. (EPA-
Eraik. Enplegua(BJA-Eustat)	Urt.-Ekaina	-4,3	2,9	1,8	10,1	En.-Junio	Ocupados Construc. (PRA-
ZERBITZUAK							**SERVICIOS**
Bidaiarien mugimendua (EIN)	Urt.-Abuztua	2,6	3,0	2,7	4,0	En.-Agosto	Movimiento de Viajeros (INE)
Bidaiarien mugimendua	Urt.-Abuztua	-1,3	7,6	7,6	5,4	En.-Agosto	Movimiento de Viajeros
Gau-emateak (EIN)	Urt.-Abuztua	2,4	4,1	4,2	5,0	En.-Agosto	Pernoctaciones (INE)
Gau-emateak (Eustat)	Urt.-Abuztua	-0,4	6,4	7,2	5,9	En.-Agosto	Pernoctaciones (Eustat)
Zerb. Enplegua (BAI-EIN)	Urt.-Ekaina	1,7	-2,0	-0,4	-7,2	En.-Junio	Ocupados Servicios (EPA-
Zerb. Enplegua (BJA-Eustat)	Urt.-Ekaina	1,0	1,6	1,9	-0,1	En.-Junio	Ocupados Servicios (PRA-
E.e. konts. Zerbitzuak	Urt.-Abuztua	-24,0	-5,7	-8,3	-4,1	En.-Agosto	Consumo de E. Elec. Servicios
KONTS. eta							**CONSUMO E**
E.e. etxean konstumoa	Urt.-Abuztua	2,1	0,6	1,0	2,2	En.-Agosto	Cons. Doméstico de E.
Turismoen matrikulazioa	Urt.-Abuztua	6,5	14,5	18,1	3,0	En.-Agosto	Matriculación Turismos
Ind. ibil. Matrikulazioa	Urt.-Abuztua	-4,1	7,8	4,7	14,5	En.-Agosto	Matriculación Vehículos de
Ekip. Ond. Inport. (SEC)	Urt.-Uztaila	3,5	3,1	4,2	11,3	En.-Julio	Import. de B. de Equipo (SEC)

Datu guztiak aurreko urteko aipagunoko epealdi berdinaren gainekoa aldakotareak dira/Todas las datas son variación sobre el mismo periodo de referencia del año anterior.
Iturriak: Eustat, Zerga Agentzia, Iberdrola, Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta EIN / Fuentes: Eustat, Agencia Tributaria, Iberdrola, Dirección General de Tráfico e INE.
Egilea: Ekonomi Ahalkularitza. Ogasun eta Finantza Saila. B.F.A. / Elaboración: Asesoría Económica. Dpto. Hacienda y Finanzas - D.F. de Bizkaia.

Hiruhileko datuetan, eraikuntzak, Seopanek emandako datuen arabera, 2026ko bigarren hiruhilekoan aurrera egin du lizitazioetan, urtarriletik martxora bitarteko aldiarekin alderatuta (96,5 milioi gehiago), baina, hala ere, 2025eko bigarren hiruhilekoko zifretatik behera daude, –% 5,3 (urte horretako lehenengo hiruhilekoan, urte arteko jaitsiera handiagoa izan zen, –% 75,8koa). Hala, bigarren hiruhilekoan, obra zibila berriro aktibatu da, % 10,9ko urte arteko igoera izan baitu, baina eraikuntza-osagaiak urte arteko aldakuntza negatiboak erregistratzen jarraitzen du, –% 43,8koak. Erakunde lizitatzailearen arabera, toki-administrazioak (guztizkoaren % 74,7) eta administrazio zentralak (guztizkoaren % 7,0) sustatutako obrak emaitza positiboak izan ditu, lehenengoaren lizitazioak % 5,5 hazi direlako, eta bigarrenarenak % 10,0; administrazio autonomikoak sustatutakoa (guztizkoaren % 18,3), baina, –% 35,6 jaitsi da.

En datos trimestrales la construcción, conforme los datos ofrecidos por Seopan, muestra un avance de las licitaciones en el segundo trimestre de 2026 respecto al periodo de enero a marzo (96,5 millones más), aunque aún se encuentran por debajo de las cifras del segundo trimestre de 2025, concretamente un -5,3% (en el primer trimestre de este año la bajada interanual fue más pronunciada, del -75,8%). Con todo, en este segundo trimestre, la obra civil ha logrado reactivarse, con un aumento interanual del 10,9%, si bien el componente edificación sigue registrando variaciones interanuales negativas, del -43,8%. Por nivel institucional licitante, obtienen resultados positivos la obra impulsada tanto por la administración local (74,7% del total), que crece el 5,5% como por la central, que avanza el 10,0% (y es el 7,0% de las licitaciones), mientras la promovida por la administración autonómica (el 18,3%) cede el -35,6%.

Eraikuntzako enplegu-adierazleek emaitza onak izan dituzte urteko lehen erdian. Hala, hilabete bakoitzeko azken eguneko batezbestekoa erreferentziatzat hartuta, Bizkaian eraikuntzan lan egin zutenen Gizarte Segurantzako afiliazioak % 0,6 igo ziren urte artean 2026ko lehen hiruhilekoan, eta % 0,9raino bigarrenean.

Los indicadores de empleo en la construcción registran buenos resultados en la ocupación en esta primera mitad del año. Así, tomando como referencia la media del último día de cada mes, las afiliaciones a la Seguridad Social de las personas que trabajaron en la construcción en Bizkaia muestran un aumento interanual del 0,6% en el primer trimestre de 2026, repuntando hasta el 0,9% en el segundo.

Lan-merkatuko inkestei dagokienez, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2026ko bigarren hiruhilekoan 26.300 bizkaitar ari ziren eraikuntzan lanean, eta urte arteko jaitsiera –% 21,3koa izan da, 2025eko aldi beraren aldean, urte hartan % 29,5 hazi baitzen. Kontuan hartuta urtarrila eta martxoa bitartean sektoreko okupazioa % 32,8 igo zela, aurtengo lehenengo lehen sei hilabeteetako urte arteko aldakuntzak % 2,5eko igoera izan du. Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestak, aldiz, enpleguak apiriletik ekainera bitartean % 12,2ko igoera izan duela

Respecto a las encuestas del mercado de trabajo, la EPA del INE estima en el segundo trimestre de 2026 una población vizcaína ocupada en la construcción de 26.300 personas, con un descenso interanual del -21,3% respecto al mismo periodo de 2025, en el que había crecido un 29,5%. Teniendo en cuenta que entre enero y marzo la ocupación en el sector sí había aumentado un 32,8%, la variación interanual en los seis primeros meses de este año ha anotado un aumento del 2,5%. La PRA, en cambio, sí muestra una subida del empleo en la construcción entre abril y junio, del 12,2%. Al haber crecido también la

erakusten du. Lehen hiruhilekoan okupazioa ere hazi egin denez, % 8,1, sektoreko enplegua % 10,1 hazi da seihilekoan.

Eustaten Zerbitzuen Koiuntura Indizearen arabera, zerbitzuen sektoreak modu nabarmenean jarraitu du hazten 2026ko lehen seihilekoan. Indize horrek merkataritza (handizkakoa, txikizkakoa eta ibilgailuen salmenta eta konponketa) eta sektoreko gainerako jarduerak biltzen ditu, "Beste zerbitzu batzuk" epigrafearen barruan.

Hala, merkataritza (barruan biltzen ditu handizkako eta txikizkako sektoreak eta, era berean, ibilgailuen salmenta eta konponketa), zeinak 2025a itxi baitzuen portzentajezko puntu erdiko urte arteko igoera arin batekin, asko hobetu da 2026ko lehenengo zatian, % 2,1eko eta % 4,5eko aurrerapenekin urteko lehenengo eta bigarren hiruhilekoetan. Apiriletik ekainera bitartean, urtaroak kontuan hartu gabe, merkataritzak irmo egin du aurrera, aurtengo lehenengo hiruhilekoaren aurrean, % 1,6.

Zerbitzuek (hor barruan sartzen dira garraioa eta biltegiratzea, ostalaritza, informazioa eta komunikazioak, jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak eta administrazio-jarduerak nahiz zerbitzu osagarrien jarduerak, eta, multzoan hartuta, % 2,2ko urte arteko igoerarekin amaitu zuten 2025a) % 1,3ko hazkundearekin hasi dute 2026a, urtarriletik martxora, eta, udaberriko hilabeteetan, % 2,4raino igo dira. Apiriletik ekainera, hiruhileko arteko konparaketan, urtaroak kontuan hartu gabe, zerbitzuak pixka bat moteldu ziren, –% 0,7ko jaitsierarekin.

Bizkaiko zerbitzuetan, Gizarte Segurantzako afiliazioen batez besteko maila (lurraldean pertsona gehien enplegatzen duen sektorea da zerbitzuena) urte arteko % 1,5eko igoerarekin hasi du 2026, eta 5.896 afiliazio gehiagorekin, 2025eko lehen

ocupación en el primer trimestre un 8,1%, el empleo en el sector ofrece un incremento semestral de 10,1%.

El sector servicios, según el Índice Coyuntural de Servicios (ICS) del Eustat que engloba al Comercio (mayorista, minorista y Venta y reparación de vehículos) y a las demás actividades del sector agrupadas dentro del epígrafe Otros servicios, muestra una evidente reactivación en el primer semestre de 2026, sostenida principalmente por el Comercio.

Así, el Comercio, que engloba al sector mayorista y al minorista, así como la venta y reparación de vehículos, tras cerrar 2025 con un ligero ascenso interanual de medio punto porcentual mejora notablemente en la primera parte de 2026, con avances del 2,1% y del 4,5% en el primer y segundo trimestre del año. Entre abril y junio y en términos desestacionalizados el Comercio avanza firme frente al primer trimestre de este año, un 1,6%.

En el caso de los Servicios, que engloban las actividades de transporte y almacenamiento, hostelería, información y comunicaciones, actividades profesionales, científicas y técnicas y actividades administrativas y de servicios auxiliares y que en su conjunto finalizaron 2025 con un incremento interanual del 2,2%, inician 2026 con un crecimiento del 1,3% entre enero y marzo para rebotar hasta el 2,4% en los meses de primavera. En términos intertrimestrales y desestacionalizados entre abril y junio se produce una leve ralentización en los servicios, que ceden un -0,7%.

El nivel medio de afiliaciones a la Seguridad Social en los servicios de Bizkaia (es el sector que más personas emplea en el Territorio) comienza 2026 con una subida interanual del 1,5% y 5.896 afiliaciones más respecto al primer trimestre de 2025, para un

hiruhilekoarekin alderatuta: hirugarren sektorean, 390.186 pertsona zeuden alta emanda. Apiriletik ekainera bitartean, afiliazioen urte arteko gorakada hamarren bat handiagoa izan da, % 1,6koa, 392.163 afiliazio guztira. Aurreko hiruhilekoan baino 1.977 afiliazio gehiago izan dira (% 0,5eko gehikuntza).

total de 390.186 personas de alta en el sector terciario. Entre abril y junio el avance interanual de afiliaciones es una décima superior, del 1,6%, hasta un total de 392.163. También mejora el dato respecto al trimestre anterior en 1.977 afiliaciones (0,5% de incremento).

Barne-eskaria

2026ko lehenengo seihilekoan, barne-eskariak jarraitu du izaten hazteko motorra lurraldean. Hala, kontsumoa eta inbertsioa dira Bizkaian ekonomia-jarduera sustatzen ari diren elementuak, eta inbertsioak, aldi berean, kanpo-eskariaren pixkanakako susperraldia du oinarri.

2026ko bigarren hiruhilekoan, Eustaten Txikizkako Merkataritzaren Indize Orokorrak, prezio konstanteetan eta egutegi-ondorioak zuzenduta, % 2,9ko hazkundea erakutsi du urterik urte, eta urtarriletik martxora bitartean erregistratutako datua hamarren bat hobetu da. Igoera egon bada ere, ez da iritsi aurreko urteko hiruhileko berean izandako % 3,3ra. Adierazlearen hiru osagaiek izan dituzte hazkundeak: elikaduraren kontsumoa % 3,8 hazi da, gainerako ondasunena % 1,6, eta erregaien salmenta % 7,1era iritsi da. Elkarren segidan aurrerapenak izan dituzten bost hiruhilekoetako hazkunderik txikiena izan da hori, 2023ko lehen hiruhilekotik 2025eko lehen hiruhilekora bitartean behera egin ondoren.

Prezio konstanteetan ez bezala, zifra korronteak hartuta, prezioek gora egin duten honetan, Txikizkako Merkataritzaren Indize Orokorrak erakusten du kontsumoa moteldu egin dela ekitaldiko lehenengo erdian. Hala, urtarril eta martxo artean, indizearen urte arteko hazkundea % 4,1ekoa izan zen, eta, bigarren hiruhilekoan, bi hamarren galdu zituen, % 3,9raino. Kontsumoaren hazkundea txikiagoa izan da, Arabakoa (% 7,1) eta Gipuzkoakoa (% 5,6) baino.

Demanda interna

La demanda interna continúa siendo el motor del crecimiento en el Territorio en el primer semestre de 2026. Son el consumo y la inversión, impulsada esta, a su vez, por la progresiva recuperación de la demanda externa, los elementos que están impulsando la actividad económica en Bizkaia.

En el segundo trimestre de 2026 el Índice General de Comercio Minorista (ICIm) del Eustat a precios constantes y corregidos de efectos de calendario alcanzó el 2,9% interanual, mejorando una décima el dato anotado entre enero y marzo. A pesar del repunte, el resultado es inferior al 3,3% registrado en el mismo trimestre del año anterior. Anotan crecimientos los tres componentes del indicador; el consumo en la alimentación se incrementa un 3,8%, el resto de bienes el 1,6% y la venta de combustibles alcanza el 7,1%, el crecimiento más bajo de los cinco trimestres en los que ha logrado encadenar avances tras de un periodo de caídas interanuales que se prolongó desde el primer trimestre de 2023 al primer trimestre de 2025.

Al contrario que a precios constantes, el ICIm en cifras corrientes, en un contexto de aumento de los precios, muestra una desaceleración del consumo en la primera mitad del ejercicio. Así, mientras entre enero y marzo el aumento interanual recogido por el índice es del 4,1%, en el segundo trimestre cede dos décimas, hasta el 3,9%. Se trata de un incremento del consumo inferior al de Araba/Álava (7,1%) y al de Gipuzkoa (5,6%).

2026ko apiriletik ekainera bitartean, 2025eko aldi berarekin alderatuta, kontsumoaren osagai guztiak igo dira prezio arruntetan eta termino zuzenduetan; automobilgintzarako erregaiaren salmentak % 18,3 egin du gora —eta hori da, energia-prezioen igoeraren ondorioz, azken bost hiruhilekoetako hazkunderik handiena—; txikizkako merkataritza % 2,0 igo da, eta elikadura % 4,2, azken bi osagai horiek aurreko hiruhilekoan baino neurri txikiagoan hazi direla.


Entre abril y junio de 2026 y respecto al mismo periodo de 2025, a precios corrientes y en términos corregidos, también han crecido todos los componentes del consumo; la venta de combustible para la automoción lo hace el 18,3%, que debido al aumento de precios energéticos es el mayor incremento de los últimos cinco trimestres, el comercio minorista el 2,0% y la alimentación el 4,2%, creciendo estos dos últimos componentes en menor medida que en el trimestre anterior.

2022ko lehen hiruhilekotik aurrera, Bizkaiko etxebizitzen salerosketa-eragiketak, barne-eskariaren adierazle garrantzitsua, moteltzen hasi ziren, eta urteko guztizkoan % 1,0ko gorakada txikiarekin eutsi zioten arren, 2023an -%16,6 galdu zuten, urteko lau hiruhilekoetan jaitsierak izan zirelarik. 2024an, eragiketak suspertzen hasi ziren, urte arteko % 17,8ko hazkundearekin ekitaldiaren amaieran, eta 2025ean joera positiboa luzatu egin zen, salerosketak % 13,4 igo baitziren, nahiz eta urteko azken hiruhilekoan dezelerazioa nabaria izan. 2026an egoera positiboa da, urteko lehen bi hiruhilekoetan -%10,5eko eta -%16,6ko jaitsierekin. Prezio garestiak, eskaintzaren eskasia eta finantzaketa-baldintzen gogortzea izan dira eragiketen beherakada azaltzeko funtsezko faktoreak.

A partir del primer trimestre de 2022 las operaciones de compraventa de viviendas en Bizkaia, importante indicador de la demanda interna, comenzaron a ralentizarse y aunque en el global del año lograron resistir, con un ligero avance del 1,0%, ya en 2023 perdieron un -16,6% anotando caídas en los cuatro trimestres del año. En 2024 las operaciones comienzan a recuperarse con un 17,8% de incremento interanual al final del ejercicio, prolongándose la tendencia positiva en 2025 al cerrar con una subida de las compraventas del 13,4%, si bien en el último trimestre del año ya es evidente la desaceleración. En 2026 se revierte la situación positiva con sendos descensos del -10,5% y del -16,6% en los dos primeros trimestres del año. Los elevados precios, la escasez de oferta y el endurecimiento en las condiciones de financiación han sido los factores clave para explicar la caída de las operaciones.

Bizkaiko turismoak emaitza onak izaten jarraitu du 2026ko lehen seihilekoan. Horrela, EINen Hotelen Okupazioari buruzko Inkestak (OHO) % 2,3ko urte arteko igoera izan du Bizkaiko bidaiarien sarreretan urtarriletik ekainera bitartean, eta ostatu-gauak % 3,9 gehitu dira. Eustaten kasuan, igoera handiagoa da bi aldagaietan, eta bisitarien sarrerari buruz esaten du % 4,2ko urte arteko igoera izan dela seihilekoan, eta ostatu-gauak % 4,3 igo direla.

El turismo de Bizkaia sigue registrando buenos resultados en el primer semestre de 2026. Así, la Encuesta de Ocupación Hotelera (EOH) del INE registra un aumento en la entrada de viajeros en Bizkaia de enero a junio del 2,3% interanual, mientras que las pernoctaciones crecen el 3,9%. En el caso del Eustat el incremento es mayor en ambas variables, y para la entrada de visitantes señala un aumento del 4,2% interanual en el semestre y en el caso de las pernoctaciones del 4,3%.



EINen Hotelen Okupazioari buruzko Inkestaren arabera, Bizkaiko hotel-establezimenduetan ostatu hartu zuten bidaiariak % 1,4 igo dira urte batetik bestera 2026ko bigarren hiruhilekoan, urtarriletik martxora bitartean lortutako % 3,7tik behera; beraz, elkarren segidako bost hiruhilekok erregistratu dituzte urte arteko aurrerapenak. Balio absolutuetan, 2025eko aldi berean baino 6.913 pertsona gehiago sartu dira, eta apiriletik ekainera 492.879 bisitari izan dira, azken hiru hiruhilekoetako kopururik handiena. Bigarren hiruhilekoan izandako aurrerapena ez dator bat EAEko –% 2,2ko jaitsierarekin (Araban eta Gipuzkoan izandako datu txarren ondorioz, –% 9,6ko eta –% 3,7ko beherakada izan baita haietan), eta Espainiako ekonomiak erregistratutako % 1,0 gainditzen du.

Apiriletik ekainera bitarteko sarrerak gehitzearekin batera, ostatu-gauak % 2,3 igo dira, aurreko hiruhilekoko % 6,4tik behera baita ere. Gora egin dute hala atzerritarrek egindako sarrerek (% 1,7), nola, neurri handiagoan, Estatuko turistek egindakoek (% 2,9).

La EOH del INE ha estimado que las personas viajeras que visitaron y se alojaron en establecimientos hoteleros de Bizkaia aumentaron un 1,4% interanual en el segundo trimestre de 2026, por debajo del 3,7% obtenido entre enero y marzo, registrando ya cinco trimestres seguidos de avances interanuales. En valores absolutos esto se traduce en la entrada de 6.913 personas más respecto al mismo periodo de 2025, para sumar un total de 492.879 visitantes entre abril y junio, la mayor cifra de los últimos tres trimestres. El avance de este segundo trimestre contrasta con el descenso del -2,2% del conjunto del País Vasco (debido a los malos datos de Araba/Álava, -9,6% y de Gipuzkoa, -3,7%) y supera el 1,0% anotado por la economía española.

El incremento de entradas entre abril y junio viene acompañado de un aumento del 2,3% de las pernoctaciones, también inferior al 6,4% del trimestre previo. Suben tanto las entradas realizadas por las personas extranjeras (1,7%), como, en mayor medida, las efectuadas por turistas del Estado (2,9%).

Bidaiarien eta gau-emateen mugimendua / Movimiento de Viajeros y Pernoctaciones

Ald. % aurreko urteko epealdi berdinaren gainean / % Var. sobre el mismo periodo año anterior

	Bidaiariak Guztira/Total Viajeros			Gau-emateak Guztira/Total Pernoctaciones		
	Espainia España	Euskadi País Vasco	Bizkaia	Espainia España	Euskadi País Vasco	Bizkaia
2022	69,4	51,0	60,3	85,4	54,3	58,7
2023	8,9	10,4	9,3	8,2	11,3	11,9
2024	3,7	4,9	2,6	4,8	4,7	2,4
2025	2,0	4,5	3,2	0,9	6,7	4,2
2025-1H/T	-2,8	0,2	-3,8	-3,3	1,9	-2,6
2H/T	3,3	9,6	7,6	2,3	13,2	9,3
3H/T	2,2	4,1	3,2	1,3	6,6	4,3
4H/T	3,8	2,6	3,8	1,8	3,1	3,8
2026-1H/T	3,9	-0,3	3,7	3,4	1,0	6,4
2H/T	1,0	-2,2	1,4	0,9	-0,9	2,3

Iturria: EIN / Fuente: INE
Egilea: Eko. Aholkularitza. Ogasun eta Finantza Saila. BFA/Elaboración: Asesoría Económica. Dpto. Hacienda y Finanzas-DFB

Eustaten Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestak datu hobeak ematen ditu EINek baino 2026ko bigarren hiruhilekorako, eta, lehenengorako, nahiz eta positiboak izan, zertxobait txikiagoak dira: sarrerek % 2,0ko igoera izan dute urte artean, eta ostatu-gauek % 3,7koa. Bestetik, apiriletik ekainera bitartean kalkulatzen duenez, 530.285 bidaiari sartu dira Bizkaira, % 5,6ko urte arteko hazkundearekin.

Eustaten arabera, EINen kontrara, ostatu-gauek bizitasun handiagoz egin dute aurrera bigarren hiruhilekoan, % 4,6ko urte arteko hazkundearekin. Estatuko turismoak egindakoak handitu dira, % 1,6, eta atzerriko turismoak egindakoek neurri handiagoan egin dute gora, % 7,1.

Eustaten arabera, Bizkaian 1,87 egunean kokatu da batez besteko egonaldia 2026ko lehen seihilekoan, 2025eko lehenengo seihilekoko 1,86 egunetik zertxobait gora.

Landa-turismoak, bestalde, 2026ko bigarren

La EETR del Eustat ofrece mejores datos que el INE para el segundo trimestre de 2026, mientras para el primero aun siendo también positivos se muestran algo más contenidos, con incrementos del 2,0% interanual de las entradas y del 3,7% de las pernoctaciones. Por otro lado, entre abril y junio calcula que entraron en Bizkaia 530.285 personas viajeras, con un crecimiento interanual del periodo del 5,6%.

Para el Eustat, a diferencia del INE, las pernoctaciones avanzan en términos interanuales de manera más intensa en el segundo trimestre, un 4,6% interanual. Se incrementaron las realizadas por el turismo nacional, un 1,6%, y en mayor medida las efectuadas por el turismo extranjero, un 7,1%.

Según el Eustat, en Bizkaia la estancia media en el primer semestre de 2026 se situó en 1,87 días, ligeramente superior a los 1,86 del primer semestre de 2025.

Por su parte, el turismo rural en el segundo trimestre de

hiruhilekoan, hazkundeak ezaugarritutako lau hiruhilekoren ibilbidea hautsiz, –% 12,5eko urte arteko jaitsiera izan du; urtarriletik martxora bitartean, ordea, % 5,5 hazi zen. Aldi berean, ostatu-gauek –% 4,3 egin dute behera lurraldean. Seihilekoan guztira, bigarren hiruhilekoan izandako emaitza txarraren eraginez, ostatu mota horietan sarrerak (–% 8,7) nahiz ostatu-gauak (–% 1,3) jaitsi dira. Beste alde batetik, urtarriletik ekainera, batez besteko egonaldia 2,2 egunekoa izan da.

Autoen matrikulazioek, 2026ko apiriletik ekainera bitartean, –% 0,9ko urte arteko jaitsiera arina izan dute, eta elkarren segidako zazpi hiruhileko positiboren ibilbidea eten du horrek; 2025eko aldi berean baino 41 matrikulazio gutxiago egon dira. 2025eko aldi berean, matrikulazioek % 28,2 esanguratsu bat egin zuten gora, mailarik altuena hori gorabidean egon diren zazpi hiruhilekoen artean. Dena dela, bigarren hiruhilekoan 682 ibilgailu gehiago matrikulatu dira, urtarriletik martxora baino (azken aldi horretan, matrikulazioek % 7,4 egin zuten gora).

Ekainera arte metatutako urteko zifretan, Bizkaiko matrikulazioen urte arteko aurrerapena % 2,8koa izan da; datu ona da hori, baina 2025eko aldi bereko % 16,9ko hazkundetik urruti dago (240 matrikulazio gehiago izan dira). 2019ko lehen seihilekoarekin alderatuta (pandemia aurreko urtea), oraindik ere ia % 27,9 azpitik jarraitzen du; gutxi gorabehera, matrikulatutako 3.431 unitate gutxiago izan dira. Bizkaiak urtarriletik ekainera izandako aurrerapena Estatukoa (% 7,1) zein EAE osokoa (% 12,3) baino txikiagoa izan da.

2026, cortando una senda de cuatro trimestres de incrementos, muestra un descenso interanual del -12,5%, mientras entre enero y marzo había crecido un 5,5%. A su vez, las pernoctaciones en el territorio ceden el -4,3%. En el total semestral y condicionadas por el mal resultado del segundo trimestre, caen tanto las entradas en estos alojamientos, un -8,7%, como las pernoctaciones en los mismos, un -1,3%. Por otro lado, la estancia media entre enero y junio ha sido de 2,2 días.

Las matriculaciones de turismos anotan entre abril y junio de 2026 un ligero descenso interanual del -0,9%, que corta la trayectoria de siete trimestres consecutivos en positivo y que supone 41 matriculaciones menos que en el mismo periodo de 2025. En el mismo periodo de 2025 las matriculaciones habían crecido un significativo 28,2%, el nivel más alto de los siete trimestres de subida. Con todo, en este segundo trimestre se han matriculado 682 vehículos más que entre enero y marzo, periodo en el que crecieron un 7,4% las matriculaciones.

En el acumulado del año hasta junio el avance interanual de las matriculaciones en Bizkaia es del 2,8%, buen dato, pero lejos del 16,9% del mismo periodo de 2025 y con 240 matriculaciones más. Con relación al primer semestre del 2019 (año prepandemia) aún continúan casi un 27,9% por debajo, lo que se traduce en unas 3.431 unidades menos matriculadas. El avance en Bizkaia de enero a junio es inferior tanto al del Estado (7,1%) como al del conjunto del País Vasco (12,3%).


Turismo eta Zamaibilgailuen Ibilgailuen Matrikulazioa
Matriculación de Turismos y Vehículos Industriales
Ald. %-a, aurreko urteko epealdi berdinaren gainean / % Variación sobre el mismo periodo año anterior

	Espainia / España		Euskadi / País Vasco		Bizkaia	
	Turismoak Turismos	Ind.Ibil. Veh.Ind.	Turismoak Turismos	Ind.Ibil. Veh.Ind.	Turismoak Turismos	Ind.Ibil. Veh.Ind.
2022	-4,1	-9,3	-8,8	-15,2	-4,9	-10,7
2023	13,7	20,8	6,0	11,2	7,3	16,5
2024	10,7	9,8	6,9	2,8	6,5	-4,1
2025	16,2	12,4	16,0	9,0	14,5	7,8
2025-1H/T	19,2	5,9	8,4	-5,1	5,2	-2,8
2H/T	17,7	10,6	28,4	7,7	28,2	8,6
3H/T	18,4	18,8	20,7	15,3	21,5	13,2
4H/T	10,2	14,8	7,9	20,8	5,2	13,6
2026-1H/T	9,1	15,0	11,5	18,0	7,4	22,2
2H/T	5,4	7,5	13,0	6,9	-0,9	14,9

Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia. Herrizaingo Ministerioa/Fuente: Dirección General de Tráfico. Ministerio del Interior
Egilea: Ekonomi Aholkularitza. Ogasun eta Finantza Saila-B.F.A./Elaboración: Asesoría Económica- Dpto. Hacienda y Finanzas - D.F.B.

Karga-ibilgailuen matrikulazioek aurrerapenak egin dituzte urterik urte, eta elkarren segidako bost hiruhilekok lortu dituzte aurrerapenak; bestetik, 2026ko apiriletik ekainera bitartean, % 14,9 hazi dira urte batetik bestera. Ekainera arte metatutako zifrek % 18,3ko igoera adierazten dute.

En el caso de las matriculaciones de vehículos de carga sí anotan avances interanuales, siendo ya cinco trimestres consecutivos en positivo, y entre abril y junio de 2026 crecen el 14,9% interanual. En cifras acumuladas hasta junio apuntan una subida del 18,3%.



Merkataritzako Estatu Idazkaritzaren (SEC) datuen arabera, enpresa-inbertsioak urte hasieratik izan duen bilakaera positiboaren erakusgarri, ekitaldiko lehenengo seihilekoan, urterik urte begiratuta, % 10,5 handitu da kanpoan erositako ekipamendu-ondasunen kopurua Bizkaian, 2025eko aldi berean erregistratutako % 3,9 hobetuz.

Kanpo-eskaria

Bizkaiko esportazioak suspertu egin dira 2026ko lehenengo seihilekoan, aurreko ekitaldian behea jo baitzuten, 2024ko azkenengo hiruhilekoan pairatzen hasitako jaitsieraren ondorioz. Hala, lurraldeko kanpo-salmentek aurrerapena izan dute urteko lehenengo bi hiruhilekoetan, eta, horren ondorioz, ekainera arteko metaketan, gora egin dute energia-produktuen (% 26,4) nahiz, neurri txikiagoan, produktu ez-energetikoen (% 9,4) esportazioek, bat etorrita Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Merkataritzaren Estatu Idazkaritzaren datuekin. Urte arteko gehikuntzak handiagoak izan dira energia-produktuen salmentetan.

Según los datos de la Secretaría de Estado de Comercio (SEC) y como muestra de la evolución de la inversión empresarial desde principios de año, las compras de bienes de equipo realizadas al exterior desde Bizkaia acumulan en los seis primeros meses del ejercicio un incremento interanual del 10,5%, mejorando el 3,9% registrado en el mismo periodo de 2025.

Demanda exterior

Las exportaciones vizcaínas se han recuperado en el primer semestre de 2026 del desplome sufrido en el ejercicio anterior y que comenzó a materializarse con el descenso sufrido en el último trimestre de 2024. Así, las ventas al exterior del territorio han anotado sendos avances en los dos primeros trimestres del año y como consecuencia, en el acumulado hasta junio han aumentado tanto las exportaciones de productos energéticos (26,4%) como, en menor medida, las de no energéticos (9,4%), conforme los datos de la Secretaría de Estado de Comercio (SEC) del Ministerio de Industria, Comercio y Turismo. Los incrementos interanuales han sido más intensos entre las ventas de productos energéticos,

Hala, ekonomia-jarduera orokorra hazten hasteko gauza ez bada ere, Bizkaiko esportazioek berriro ere aktibatzea lortu dute, eta % 14,0 hazi dira 2026ko bigarren hiruhilekoan (2025eko aldi berean, –% 14,9 jaitsi ziren); beraz, hobetu egin da urteko lehenengo hiruhilekoan erregistratutako % 8,7ko aurrerapena (duela urtebeteko urtarriletik martxora, –% 6,6 galdu zuten). Balio absolutuetan, Bizkaiko ondasunen esportazioek 3.243,9 milioi euro batu dituzte apirila eta ekaina bitartean, 2025eko aldi berean kontabilizatutako ia 2.845,1 milioien aurrean (400 milioi euro gehiago ia).

Bizkaiak erregistratutako emaitza positiboak ez datoz bat Arabak (–% 3,2) eta Gipuzkoak (–% 5,6) bigarren hiruhilekoan egindako esportazioetan jasandako jaitsierekin, zeinek jarraitutasuna ematen baitiote urtarriletik martxora bitartean izandako datu txarrari (–% 11,7 eta –% 0,6, hurrenez hurren). EAEko batezbestekoa, Bizkaiaren bultzadari esker, positibo mantendu da urteko bigarren hiruhilekoan, % 2,0ko urte arteko hazkundea izan baitu.

Aurrekoaren ondorioz, Bizkaiko esportazioek % 11,4 egin dute gora 2026ko ekainera bitartean, 2025eko aldi berarekin alderatuta, orduko hartan –% 11,1 jaitsi baitziren. Balio absolutuetan, 2026ko lehen seihilekoan erregistratutako esportazioak handiagoak dira 2025eko aldi berekoak baino; zehazki, 631,8 milioi euro gehiago.

Aurtengo bigarren hiruhilekoko energia-salmentak % 24,8 hazi dira urterik urte, urtarriletik martxora bitartean lortutako % 28,9ren ondoren, zeinak atzean utzi baitzituen aldakuntza negatiboak ezaugarritutako bost hiruhileko.

Ekainera arte metatutako datuetan, lurraldeko energia-esportazioak % 26,4 hazi dira urterik urte, 2025eko lehenengo sei hilabeteetan izandako –% 40,2ko jaitsieraren aurrean. Aurreko urteko lehenengo seihilekoan, energia-produktuen kanpo-

Así, a pesar de que la actividad económica general no logra despegar, las exportaciones de Bizkaia han logrado reactivarse y crecen un 14,0% en el segundo trimestre de 2026 (en el mismo periodo de 2025 habían caído el -14,9%), mejorando el avance del 8,7% registrado en el primer trimestre del año (entre enero y marzo de hace un año habían perdido un -6,6%). En valores absolutos, las exportaciones de bienes de Bizkaia han sumado 3.243,9 millones de euros entre abril y junio, frente a los 2.845,1 millones contabilizados en el mismo periodo de 2025, casi 400 millones de euros más.

Los registros positivos anotados por Bizkaia contrastan con los descensos sufridos en las exportaciones realizadas por Araba/Álava (-3,2%) y Gipuzkoa (-5,6%) en el segundo trimestre, que se suman al mal dato soportado entre enero y marzo, -11,7% y -0,6%, respectivamente. La media de la CAPV, gracias al impulso de Bizkaia, se mantiene en positivo en el segundo trimestre del año, anotando un incremento interanual del 2,0%.

Como resultado de lo anterior, hasta junio de 2026 las exportaciones vizcaínas han subido un 11,4%, respecto al mismo periodo de 2025, cuando habían caído un -11,1%. En valores absolutos, las exportaciones registradas en el primer semestre de 2026 son superiores a las registradas en el mismo periodo de 2025 en 631,8 millones de euros.

Las ventas energéticas en el segundo trimestre de este año han crecido un 24,8% interanual, tras el 28,9% alcanzado entre enero y marzo y que dejaba atrás cinco trimestres de variaciones negativas.

En datos acumulados hasta junio, las exportaciones energéticas del territorio han aumentado un 26,4% interanual, frente al descenso del -40,2% que sufrieran en los seis primeros meses de 2025. Mientras en el primer semestre del año pasado las

salmentak guztizko esportazioen % 12,1 izan ziren; urte honetako lehenengo sei hilabeteetan, bada, produktu horien kuota % 13,7raino igo da.

Helmugei dagokienez, bigarren hiruhilekoan munduko gainerako lekuetarako guztizko esportazioak % 18,4 hazi dira, Batasunaren barruko entregak baino gehiago (% 11,4).

Produktu-partida handien artean, guztiek izan dituzte urte arteko gehikuntzarik 2026ko bigarren hiruhilekoan. Horrela, pisu handieneko bi partidek (guztizkoaren ia % 60,0 egiten dute bien artean), hots, erdimanufakturek (kuotaren % 29,0) eta ekipamendu-ondasunek (guztizkoaren % 29,1), urte arteko gehikuntza izan dute, % 7,3koa eta % 17,3koa, hurrenez hurren. Produktu energetikoen esportazioek erregistratutako aurrerapenarekin batera, nabarmentzekoa da, halaber, automobilgintzarekin lotutakoen kanpo-salmenten igoera, % 7,7koa izan baita (salmenta guztien % 11,4). Azkenik, elikadurak (% 8,0ko kuota) % 1,3 egin du gora.

2026ko lehenengo sei hilabeteetan metatutakoa aztertuz, esportaziora bideratutako produktu talde handien portaerak ez du aldakuntza handirik izan bere bilakaeran. Talde nagusiek (ekipamendu-ondasunek eta erdimanufakturek) % 11,9 eta % 5,9 egin dute gora hurrenez hurren; automobilgintzak % 13,6 egin du gora eta elikagai-produktuek % 0,7.

Ohikoa denez, Frantzia (% 15,3) eta Alemania (% 13,6) izan dira Bizkaiko esportazioen helmuga nagusiak 2026ko ekainera arte; Frantziak pisu erlatiboan puntu erdia galdu du 2025eko aldi berarekin alderatuta, eta Alemaniak 1,4 puntu berreskuratu du. Hirugarrenik, Erresuma Batua dugu, zeinak % 10,3ko kuotarekin, 2025eko aldi bereko kuota baino 2,4 puntu gehiagorekin gutxi gorabehera; hala, hirugarren tokia hartu du Bizkaiko esportazioen rankinean. Estatu Batuen kuota, 2024an galdutako bosgarren lekua

ventas al exterior de productos energéticos suponían el 12,1% del total exportaciones, en los seis primeros meses de este año su cuota ha aumentado hasta el 13,7%.

Por destinos, en el segundo trimestre las exportaciones totales al resto del mundo crecen el 18,4%, más que las entregas intracomunitarias que lo hacen el 11,4%.

De entre las grandes partidas de productos, todas obtienen incrementos interanuales en el segundo trimestre de 2026. Así, las dos partidas de mayor peso, con casi el 60,0% del total entre ambas, las semimanufacturas (29,0% de cuota) y los bienes de equipo (29,1% del total), anotan sendos incrementos interanuales del 7,3% y del 17,3%, respectivamente. Junto con el ya mencionado avance registrado por las exportaciones de productos energéticos, destaca, asimismo, la subida de las relacionadas con la automoción, un 7,7% (el 11,4% del total ventas). Finalmente, la alimentación (8,0% de cuota) avanza el 1,3%.

Analizando el acumulado de los seis primeros meses de 2026, el comportamiento de los grandes grupos de productos orientados a la exportación no presenta demasiadas variaciones en el signo de su evolución. Los principales grupos, bienes de equipo y semimanufacturas, crecen el 11,9% y el 5,9%, respectivamente. La automoción, por su parte, avanza un 13,6% y la alimentación un 0,7%.

Como es habitual, Francia (15,3%) y Alemania (13,6%) son los principales destinos de las exportaciones vizcaínas hasta junio de 2026, perdiendo Francia medio punto de peso relativo respecto al mismo periodo de 2025 y recuperando Alemania 1,4 puntos. En tercer lugar, se sitúa Reino Unido, con una cuota del 10,3%, aproximadamente 2,4 puntos más de cuota que en el mismo periodo de 2025, y que se consolida en la tercera posición del ranking exportador de Bizkaia. La cuota de Estados Unidos, a pesar de recuperar el quinto

berreskuratu arren, % 7,1etik (2024ko lehen seihilekoan) % 5,9ra jaitsi da gaur egun, gobernu estatubatuarrak abian jarritako muga-zergen politika oldarkorraren ondorioz. Hala ere, Estatu Batuek bi hamarren berreskuratu dituzte 2025eko % 5,7tik hona, eta, agian, horrek esan nahi du Bizkaia joera aldatzen ari dela lurralde estatubatuarrera egiten dituen salmentetan. Erresuma Batuaren eta Estatu Batuen artean, Belgika dago, esportazio guztien % 8,7rekin. Seigarren eta zazpigarren tokietan, Italia (% 5,7) eta Herbehereak (% 5,4) daude.

Zazpi herrialde horiek Bizkaiko esportazioen ia % 65,0 osatzen dute. Lurraldeko kanpo-merkataritza berriro aktibatzeko prozesuaren barruan, urte honetako lehenengo seihilekoan, Erresuma Batuak (% 44,9) eta Belgikak (% 28,3) erregistratutako urte arteko aurrerapenak nabarmentzen dira. Halaber, lurraldeko bi helmuga nagusietara egiten diren salmentak hazten ari dira (Alemania % 24,4, eta Frantzia % 7,8), baita Estatu Batuetara egiten direnak ere (% 14,8).

Bat etorrita esportazioen ibilbidearekin, Bizkaiko inportazioak ere aktibatu egin dira 2026ko hasieran, 2025eko hiruhileko guztietan urte arteko jaitsierak izan ondoren. Hala, lurraldeak kanpoan egindako erosketak % 1,1 hazi dira 2026ko lehenengo hiruhilekoan, eta abiada hartu dute apiriletik ekainera bitartean, urte arteko % 44,7ko hazkundera iritsita. Urte honetako bigarren hiruhilekoan ere, inportazioak hazi egin dira bai Gipuzkoan (% 11,6), bai Araban (% 2,5), eta, hortaz, EAEko batezbestekoak % 26,5eko gehikuntza izan du.

Bizkaian, Batasunaren barruko erosketak % 16,2 hazi dira apiriletik ekainera, aurreko ekitaldiko aldi berean izandako –% 5,0ko jaitsierarekin alderatuta; munduko gainerako herrialdeetara egindako erosketak, baina, are gehiago hazi dira, % 59,8 (2025eko bigarren hiruhilekoan gehiago jaitsi ziren, –% 23,2).

lugar que había perdido en 2024, cae del 7,1% que suponía en el primer semestre de 2024 hasta el 5,9% actual, como consecuencia de la agresiva política arancelaria puesta en marcha por el gobierno estadounidense. Con todo, Estados Unidos ha recuperado dos décimas en relación al 5,7% que representaba en 2025, lo cual puede estar anunciando un cambio de tendencia en las ventas de Bizkaia al territorio estadounidense. Entre Reino Unido y Estados Unidos se encuentra Bélgica con el 8,7% del total de exportaciones. En sexto y séptimo lugar se sitúan Italia (5,7%) y Países Bajos (5,4%).

Estos siete países totalizan prácticamente el 65,0% de las exportaciones de Bizkaia. Dentro del proceso de reactivación del comercio exterior del territorio, en el primer semestre de este año destacan los avances interanuales anotados por Reino Unido (44,9%) y Bélgica (28,3%). También crecen las ventas a los dos principales destinos del territorio, Alemania (24,4%) y Francia (7,8%), así como a los Estados Unidos (14,8%).

En línea con la trayectoria seguida por las exportaciones, las importaciones de Bizkaia también se han reactivado al inicio de 2026 después de marcar en todos los trimestres de 2025 descensos interanuales. Así, las compras al exterior desde el territorio crecen en el primer trimestre de 2026 un 1,1% y se disparan entre abril y junio hasta aumentar el 44,7% interanual. En el segundo trimestre de este año también han crecido las importaciones tanto en Gipuzkoa (11,6%), como en Araba/Álava (2,5%), situando la media de la CAPV en un incremento del 26,5%.


En Bizkaia las adquisiciones intracomunitarias entre abril y junio se han incrementado un 16,2%, frente al descenso del -5,0% sufrido en el mismo periodo del ejercicio anterior, mientras que las compras al resto del mundo han aumentado más, un 59,8% (también habían caído más en el segundo trimestre de 2025, un -23,2%).

Urteko lehen seihilekoan, Bizkaiko inportazioak % 22,3 igo dira guztira.

Partida handien artean, guztiak hazi dira 2026ko bigarren hiruhilekoan: energia-produktuek, zeinek baitute pisurik handiena inportazioen guztizkoan, % 47,2rekin, % 88,3 egin dute aurrera; ekipamendu-ondasunek (guztizko inportazioen % 14,5), berriz, % 23,4ko urte arteko aurrerapena lortu dute; elikagai-produktuak (inportazioen % 6,7) % 19,1 igo dira urterik urte, eta erdimanufakturek (kuotaren % 23,3) % 26,7 egin dute gora.

En el total del primer semestre del año las importaciones de Bizkaia han subido un 22,3%.

De entre las grandes partidas, en el segundo trimestre de 2026, crecen todas; los productos energéticos, los de mayor peso sobre el total importaciones con el 47,2% del total avanzan el 88,3%, los bienes de equipo (el 14,5% del total importaciones) logran obtener un avance interanual del 23,4%, los productos alimenticios, con un total sobre las importaciones del 6,7% suben un 19,1% interanual, y las semimanufacturas (23,3% de cuota) un 26,7%.



Seihilekoko zifretan eta muga-zergen taldeen arabera, produktu ez-energetikoen artean (inportazioen guztizkoaren % 55,0 kasik)

En cifras semestrales y por grupos arancelarios, entre los productos no energéticos, que suponen prácticamente el 55,0% del total de importaciones,

nabarmentzekoak dira erdimanufakturen % 17,6ko igoera, % 24,5eko pisuarekin, eta ekipamendu-ondasunen % 10,5eko igoera, zeinak baitira guztizkoaren % 14,6. Elikagaiek ere emaitza positiboa izan dute; % 7,1eko kuotarekin, % 7,5 hazi dira 2026ko lehenengo sei hilabeteetan. Energia-produktuen kanpo-erosketek, % 45,0ko pisu erlatiboarekin, gora egin dute urtarriletik ekainera bitartean, % 39,2.

destacan las subidas del 17,6% de las semimanufacturas, con un peso del 24,5%, así como de los bienes de equipo, que suben el 10,5% y suponen el 14,6% del total. También logran un resultado positivo los alimentos, que con una cuota del 7,1% crecen el 7,5% en los seis primeros meses de 2026. Las compras en el exterior de los productos energéticos, con un peso relativo del 45,0% en el semestre, también se incrementan de enero a junio, un 39,2%.

Apiriletik ekainera, Bizkaiko merkataritza-balantza negatibo mantendu da, lurraldeko ekonomian ohikoa den moduan, 2020ko azken hiruhilekoan eta 2021eko lehenengoan salbu. Merkataritza-defizita 1.830,3 milioi eurora igo da, aurreko hiruhilekoan baino 983,5 milioi euro gehiagoko defizitarekin; izan ere, inportazioak (esportazioak baino handiagoak nolanahi ere) azken horiek baino gehiago hazi dira aldi horretan.

Entre abril y junio la balanza comercial de Bizkaia, como es habitual en la economía del territorio, salvo en el último trimestre de 2020 y en el primero de 2021, permanece en terreno negativo. Aumenta el déficit comercial hasta los 1.830,3 millones de euros, 983,5 millones más de déficit que en el trimestre anterior, debido a que las importaciones, superiores en todo caso a las exportaciones, han crecido más que estas últimas en el periodo.

Kanpoko Merkataritza / Comercio Exterior

Ald. %-a, aurreko urteko epealdi berdinaren gainean / % Variación sobre el mismo periodo año anterior

	Espainia / España		Euskadi / País Vasco		Bizkaia	
	Inport. Import.	Esport. Export.	Inport. Import.	Esport. Export.	Inport. Import.	Esport. Export.
2022	32,1	23,6	38,4	25,1	49,2	28,8
2023	-7,2	-1,4	-9,0	0,3	-13,1	-6,9
2024	0,1	0,2	0,9	-5,1	-0,8	-4,3
2025	4,6	0,7	-1,6	-3,6	-8,6	-9,3
2025-1H/T	9,3	2,6	5,9	1,6	-3,8	-6,6
2H/T	1,7	-0,4	-8,2	-2,7	-17,8	-14,9
3H/T	4,1	-0,6	-2,1	-9,9	-5,3	-12,3
4H/T	3,5	1,1	-1,1	-3,7	-6,5	-2,5
2026-1H/T	-2,5	0,7	3,0	-0,9	1,1	8,7
2H/T	13,0	3,3	26,5	2,0	44,7	14,0

Iturria/Fuente: Secretaria de Estado de Comercio
Egilea: Ekonomi Aholkularitza. Ogasun eta Finantza Saila. B.F.A.
Elaboración: Asesoría Económica. Dpto. Hacienda y Finanzas - D.F. de Bizkaia

Lan merkatua

Bizkaiko lan-merkatuak bere dinamismo handiagatik nabarmentzen jarraitzen du, eta, ekonomia-jardueraren inguruko ziurgabetasuna gorabehera, enpleguak nabarmen hazten jarraitzen du lurraldean.

Eustaten Hiruhileroko Kontu Ekonomikoen Eragiketaren arabera, Bizkaiko ekonomian lanaldi osoko lanpostu baliokideak 510.376 izan dira 2026ko bigarren hiruhilekoan, hau da, urteko lehen hiruhilekoan baino 2.330 enplegu gehiago eta hiruhileko arteko % 0,5eko aurrerapena.

2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, Bizkaiko ekonomiak 6.553 enplegu berreskuratu ditu urtebetean, urte arteko % 1,3ko igoerarekin.

Mercado de trabajo

El mercado laboral de Bizkaia sigue destacando por su elevado dinamismo, y, a pesar de la incertidumbre que rodea a la actividad económica, el empleo continúa creciendo de manera importante en el territorio.

Según las CET del Eustat, los puestos de trabajo equivalentes a tiempo completo en la economía vizcaína en el segundo trimestre de 2026 han ascendido a 510.376, que son 2.330 empleos más que en el primer trimestre del año y un avance intertrimestral del 0,5%.

Respecto al segundo trimestre de 2025, la economía de Bizkaia ha logrado recuperar en un año 6.553 empleos, con una subida interanual del 1,3%.

Lan Merkatuaren Laburpena Bizkaian / Síntesis del Mercado de Trabajo en Bizkaia
(Ald. %-a, aurreko urteko epealdi berdinaren gainean) / (% Variación interanual del periodo)

				2025				2026	
	2023	2024	2025	1H/T	2H/T	3H/T	4H/T	1H/T	2H/T
Bizkaia (BJA/PRA)									
Biztanl. Aktiboa / Pob. Activa	0,6	0,9	0,2	0,2	-0,2	0,6	0,3	1,7	0,6
Biztanl. Landuna / Pob. Ocup.	1,3	1,1	1,5	1,4	2,1	0,9	1,5	1,8	-0,6
Bizt. Langabetua / Pob. Parada	-6,3	-1,1	-13,1	-11,6	-23,5	-2,8	-14,1	0,9	18,2
Bizkaia (BAI/EPA)									
Biztanl. Aktiboa / Pob. Activa	2,2	0,8	0,4	1,5	-1,0	-0,4	1,4	-1,1	-2,7
Biztanl. Landuna / Pob. Ocup.	3,7	-0,3	1,7	1,5	1,0	0,6	3,9	-0,9	-4,1
Bizt. Langabetua / Pob. Parada	-12,8	12,7	-13,2	1,4	-20,9	-11,7	-19,9	-2,7	15,0
Langabezi Tasa / Tasa de Paro									
BJA/PRA	-6,8	-2,0	-13,4	-11,7	-23,4	-3,4	-14,4	-0,8	17,4
BAI/ EPA	-14,5	11,6	-13,6	-0,1	-20,1	-11,3	-21,1	-1,7	18,2

Iturria: BJA-Eustat/BAI-EIN / Fuente: PRA–Eustat/EPA-INE
Egilea: Ekonomi Aholkularitza. Ogasun eta Finantza Saila. B.F.A.
Elaboración: Asesoría Económica. Dpto. Hacienda y Finanzas - D.F.B.

EINek eta Eustatek 2026ko apiriletik ekainera arteko aldirako argitaratutako inkestak bat datoz adieraztean Bizkaian langabeziak gora egin duela 2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuz gero,

Las encuestas publicadas por INE y Eustat para el periodo de abril a junio de 2026 coinciden al señalar un incremento del desempleo en Bizkaia frente al segundo trimestre de 2025, junto a una disminución

baina era berean esan dute aurreko berehalako hiruhilekoari dagokionez langabetu gutxiago daudela.


Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestaren arabera (Eustat), Bizkaian, apiriletik ekainera bitartean, biztanleria aktiboa % 0,6 igo da 2025eko aldi beraren aldean, eta –% 0,7 jaitsi da aurreko berehalako hiruhilekoari dagokionez. Era berean, biztanleria landuna –% 0,6 jaitsi da urterik urte. Aurrekoaren ondorioz, langabeak nabarmen gehitu dira (% 18,2), 2025eko bigarren hiruhilekoaren aldean (6.800 langabe gehiago, eta, guztira, 44.200). Hiruhilekoei dagokienez, langabeak –% 1,3 gutxitu dira, urtarriletik martxora arteko aldiarekin konparatuta (600 gutxiago).

Horrela, bigarren hiruhilekoan, Bizkaiko langabezia-tasa % 7,9koa da, aurreko hiruhilekoaren berdin-berdina eta 2025eko bigarren hiruhilekoan zenbatutakotik 1,2 puntu gora. Era berean, tasa hori EAEko batezbestekoaren gainetik dago, puntu bat gorago (% 6,9).

del número de personas paradas respecto al trimestre inmediato anterior.

Según la PRA (Eustat), en Bizkaia la población activa entre abril y junio ha crecido un 0,6% frente al mismo periodo de 2025 y ha bajado el -0,7% respecto al trimestre inmediato anterior. A su vez, la población ocupada ha descendido el -0,6% interanual. Resultado de lo anterior, la población parada ha aumentado un significativo 18,2% respecto al segundo trimestre de 2025 (6.800 personas desempleadas más, para un total de 44.200). En términos intertrimestrales, sí ha bajado el número de personas en desempleo, un -1,3% frente a enero-marzo (600 menos).

Así, en el segundo trimestre la tasa de paro en Bizkaia es del 7,9%, idéntica a la del trimestre anterior y 1,2 puntos por encima de la contabilizada en el segundo trimestre de 2025. A su vez, dicha tasa se sitúa un punto por encima de la media vasca (6,9%).



Generoaren arabera, aurreko hiruhilekoaren aldean, enplegua gizonen artean baino ez da hobetu (langabeen kopurua –% 3,8 jaitsi da hiruhilekoen artean); emakumeen artean, berriz, langabeen kopurua % 1,9 igo da. Gizonen langabezia-tasa 0,3 puntu jaitsi da aurreko hiruhilekotik, % 8,2tik % 7,9ra; emakumeena, ordea, bi hamarren gorago dago, eta % 7,9koa da.

EINen Biztanleria Aktiboaren Inkesta, biztanleria aktiboaren bilakaerari dagokionez, urte arteko datuak hartuta, ez dator bat Eustatekin, –% 2,7ko jaitsiera adierazten baitu; hiruhilekoei dagokienez, aldiz, bat dator, adierazten baitu –% 2,8ko jaitsiera egon dela, bestea baino handiagoa. Okupazioaren kasuan, badator bat Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestarekin, jaitsierak erregistratu baititu bai 2025eko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta (–% 4,1), bai aurtengo lehen hiruhilekoarekin alderatuta (–% 2,6). Datuokin, langabetuak % 15,0 gehitu direla zenbatesten du, 2025eko apiriletik ekainera bitarteko aldiarekin

Por género, y respecto al trimestre anterior, la mejora en el empleo se produce únicamente entre los hombres, con un descenso intertrimestral del número de parados del -3,8%, mientras que entre las mujeres el número de desempleadas crece el 1,9%. La tasa de paro masculina baja 0,3 puntos desde el trimestre anterior, del 8,2% hasta el 7,9%, mientras que entre las mujeres es de dos décimas al alza, para situarse también en el 7,9%.

La EPA del INE en cuanto a la evolución de la población activa y en términos interanuales difiere con el Eustat al señalar un descenso del -2,7%, mientras que coincide en términos intertrimestrales indicando también un descenso, aun mayor, del -2,8%. En el caso de la ocupación sí coincide con la PRA, al registrar descensos tanto respecto al segundo trimestre de 2025 (-4,1%), como frente al primer trimestre del año en curso (-2,6%). Con estos datos, estima un incremento de la población parada del 15,0% frente al periodo de abril-junio de 2025 y un descenso del -4,4% respecto al trimestre anterior, coincidiendo en ambos casos con el sentido de la

alderatuta, eta –% 4,4ko jaitsiera kalkulatu du aurreko hiruhilekoari dagokionez. Bada, EINek esandakoak bat egiten du, bi kasuetan egin ere, Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestak langabetuen bilakaerari buruz adierazitakoarekin.

evolución de la población desempleada señalada por la PRA.

Langabezia-tasa % 8,4koa da, Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestan kalkulatutakoa baino puntu erdi gehiago eta EAEko batezbestekotik 1,3 puntu gora.

La tasa de paro es del 8,4%, medio punto más que la calculada en la PRA y 1,3 puntos por encima de la media vasca.

2026ko lehenengo seihilekoko Gizarte Segurantzaren datuek adierazten dute afiliazioak berreskuratzen jarraitzen duela.

Los datos de la Seguridad Social del primer semestre de 2026 señalan que continúan recuperándose las afiliaciones.

Gizarte Segurantzako afiliazioak, 2026ko ekainean jasotako urteko batez besteko balio metatuetan, 521.335 pertsonakoak izan ziren, hau da, 2025eko aldi berean baino % 1,3 gehiago. Duela urtebete baino 6.469 afiliazio gehiago daude.

Las afiliaciones a la seguridad social en valores medios acumulados del año tomados en el mes de junio de 2026 contabilizan 521.335 personas, lo que supone un aumento del 1,3% respecto al mismo periodo de 2025. Son 6.469 afiliaciones más que hace un año.

Hiruhilekoen arabera, 2026ko urtarriletik martxora afiliazioak % 1,1 hazi ziren urterik urte, 518.325 afiliaturekin; hots, orain dela urtebete baino 5.762 gehiago eta aurreko hiruhilekoan baino 2.750 gutxiago: –% 0,5eko jaitsiera egon da, baina beherakada hori ohikoa izaten da urtero hasierako hiruhilekoan, Gabonetako kanpainan sinatutako kontratuak bukatu egiten direlako. Bigarren hiruhilekoan, hobekuntza gertatu da erregistro bietan: afiliazioaren urte arteko hazkundea % 1,4koa izan da, eta hiruhilekokoa % 1,2koa.

Por trimestres, entre enero y marzo de 2026 el número de afiliaciones crece el 1,1% interanual, con 518.325 personas afiliadas en el territorio, 5.762 más que un año antes y 2.750 menos que en el trimestre previo, un descenso del -0,5%, habitual en los primeros trimestres de cada año por la finalización de los contratos relacionados con la campaña de Navidad. En el segundo trimestre el avance se produce en ambos registros, con un incremento interanual de la afiliación del 1,4% y del 1,2% intertrimestral.

Iraileko azken datuek abuztuko datuak hobetu dituzte, hilabete txarra izaten baita lurraldeko enplegurako; hala, aurreko hilabetearekin alderatuta, datuek diote % 1,1eko igoera izan dela (5.460 afiliazio gehiago), eta aurrerapena % 2,6koa izan dela 2025ko irailarekin alderatuta (13.124 afiliazio gehiago).

Los últimos datos del mes de septiembre mejoran los de agosto, mes tradicionalmente malo para el empleo en el territorio, y apuntan un avance del 1,1% respecto al mes anterior (5.460 afiliaciones más), y del 2,6% frente a septiembre de 2025 (13.124 afiliaciones más)

Biztanleria Landunaren Bilakaera Arloka / Evolución de la Ocupación por Sectores

(Ald. %-a, aurreko urteko epealdi berdinaren gainean) / (% Variación interanual del periodo)

				2025				2026	
	2023	2024	2025	1H/T	2H/T	3H/T	4H/T	1H/T	2H/T
Bizkaia (BJA/PRA)									
Nekazaritza/Sector Agrícola	3,2	-4,4	-19,0	-11,4	-36,4	0,0	-23,1	12,9	14,3
Industria/Sector Industrial	-0,3	4,2	1,1	0,5	3,9	-1,4	1,6	1,9	-2,6
Eraikuntza/Sector Construcción	4,0	-4,3	2,9	3,9	-0,3	5,5	2,6	8,1	12,2
Zerbitzuak/Sector Servicios	1,4	1,0	1,6	1,4	2,3	1,0	1,6	1,1	-1,3
GUZTIRA/TOTAL	1,3	1,1	1,4	1,3	2,1	0,9	1,5	1,8	-0,6
Bizkaia (BAI/EPA)									
Nekazaritza/Sector Agrícola	-41,7	-50,9	1,8	-86,7	-12,5	316,7	333,3	900,0	235,7
Industria/Sector Industrial	-3,8	-5,6	18,2	11,9	9,7	32,4	19,3	10,9	18,0
Eraikuntza/Sector Construcción	-7,6	-8,1	10,6	-14,9	29,5	1,3	33,5	32,8	-21,3
Zerbitzuak/Sector Servicios	7,0	1,7	-2,0	1,4	-2,3	-5,6	-1,4	-6,4	-8,0
GUZTIRA/TOTAL	3,7	-0,3	1,7	1,5	1,0	0,6	3,9	-0,9	-4,1

Iturria: BJA-Eustat/ BAI-EIN / Fuente: PRA – Eustat/ EPA - INE
Egilea: Ekonomi Aholkularitza. Ogasun eta Finantza Saila. B.F.A.
Elaboración: Asesoría Económica. Dpto. Hacienda y Finanzas - D.F.B.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) datu onak eman ditu 2026ko bigarren hiruhilekorako. Aurtengo apiriletik ekainera, 58.800 pertsona daude enplegu-bulegoetan izena emanda, duela urtebete baino 200 gutxiago (urtetik urtera –% 0,4) eta aurreko hiruhilekoan baino 1.800 gutxiago (-% 3,0). 2008ko azken hiruhilekotik erregistratutako langabeen kopururik txikiena da, urte hartan 52.100 pertsona inskribatu baitziren. Langabeen urte arteko jaitsiera Euskal Autonomia Erkidego osoan ikusitakoa baino txikiagoa izan da (–% 1,0), eta, Estatuan, berriz, –% 5,5 handia jaitsi da.

El Servicio Público de Empleo Estatal (SEPE) ofrece buenos datos para el segundo trimestre de 2026. Entre abril y junio de este año hay 58.800 personas inscritas en las oficinas de empleo, 200 menos que hace un año (-0,4% interanual) y 1.800 menos que en el trimestre anterior (-3,0%). Es la menor cifra de personas desempleadas registrada desde el último trimestre de 2008, cuando las personas inscritas fueron 52.100. La caída interanual entre la población parada es inferior a la observada en el conjunto del País Vasco (-1,0%), mientras que en el Estado ha descendido un importante -5,5%.

Sektoreka, 2026ko bigarren hiruhilekoan, erregistratutako langabezia sektore guztietan jaitsi da, industrian izan ezik, % 2,8ko igoera izan baitu. Gainerakoetan, erregistratutako langabezia jaitsi egin da: eraikuntzan –% 4,3, zerbitzuetan –% 0,7, eta nekazaritzan –% 6,3. Bestetik, aurretik enplegurik izan gabe inskribatutako pertsonen artean erregistratutako langabezia % 1,8 hazi da, eta, beraz, beherantz zihoazen elkarren segidako lau hiruhilekoren ibilbide positiboa hautsi da.

Por sectores, en el segundo trimestre de 2026 el paro registrado ha descendido en todos ellos, salvo en la industria, donde anota un aumento del 2,8%. En el resto, baja el paro registrado; en la construcción (-4,3%), en los servicios (-0,7%) y en la agricultura (-6,3%). Por otro lado, crece el paro registrado entre las personas inscritas sin empleo anterior un 1,8%, quebrando así una trayectoria positiva de cuatro trimestres seguidos a la baja.

Erregistraturiko Lan Merkatua / Mercado de Trabajo Registrado
(Ald. %-a, aurreko urteko epealdi berdinaren gainean) / (% Variación s/mismo periodo año anterior)

	2023	2024	2025	2025 1H/T	2025 2H/T	2025 3H/T	2025 4H/T	2026 1H/T	2026 2H/T
Espainia/España									
G.S. afiliatuak guzt. / Total Afiliados a la S. S.	2,7	2,4	2,3	2,3	2,2	2,3	2,4	2,3	2,6
G.S. afiliatuak- R.O. / Afiliados S.S -Régimen General	3,6	3,1	2,9	2,9	2,8	2,8	3,0	2,8	2,9
Lanpostuak / Colocaciones	-8,8	3,5	4,0	4,4	3,2	6,0	2,6	4,6	6,2
Erreg. Langabezia / Paro Registrado	-6,6	-5,0	-5,9	-5,8	-5,9	-5,8	-6,1	-6,1	-5,5
Erreg. Langabezia Tasa / Tasa de Paro Registrado	-8,0	-6,6	-7,2	-6,9	-7,1	-7,1	-7,5	-7,7	-7,1
Euskadi / País Vasco									
G.S. afiliatuak guzt. / Total Afiliados a la S. S.	1,6	1,5	1,1	1,1	1,0	1,0	1,2	1,0	1,3
G.S. afiliatuak- R.O. / Afiliados S.S -Régimen General	2,2	2,0	1,5	1,5	1,5	1,5	1,6	1,3	1,5
Lanpostuak / Colocaciones	-6,6	4,4	1,8	2,3	-2,3	6,8	0,2	1,6	13,5
Erreg. Langabezia / Paro Registrado	-4,2	0,4	-1,8	-2,1	-2,3	-1,9	-0,7	-1,2	-1,0
Erreg. Langabezia Tasa / Tasa de Paro Registrado	-5,2	-1,1	-2,5	-2,7	-2,9	-2,6	-1,7	-2,2	-2,2
Bizkaia									
G.S. afiliatuak guzt. / Total Afiliados a la S. S.	1,7	1,6	1,3	1,3	1,3	1,2	1,4	1,1	1,4
G.S. afiliatuak- R.O. / Afiliados S.S -Régimen General	2,4	2,2	1,8	1,8	1,9	1,8	1,9	1,5	1,6
Lanpostuak / Colocaciones	-9,5	4,9	3,6	3,9	1,5	2,9	6,2	0,3	11,6
Erreg. Langabezia / Paro Registrado	-4,7	1,0	-2,0	-2,2	-2,8	-2,4	-0,7	-1,3	-0,4
Erreg. Langabezia Tasa / Tasa de Paro Registrado	-5,6	-0,6	-2,9	-2,8	-3,5	-3,2	-1,9	-2,4	-1,7

Iturria/Fuente: SEPE y Seguridad Social
Egilea: Ekonomi Aholkularitza. Ogasun eta Finantza Saila BFA / Elaboración: Asesoría Económica. Dpto. Hacienda y Finanzas DFB

Ekonomiaren finantzaketa

Espainiako Bankuak (BdE) urriaren 9an argitaratutako azken proiekzio makroekonomikoek adierazten dutenez, Ekialde Hurbileko gatazkaren geldialdiak, uztailean Estatu Batuen eta Iranen arteko ulermen-memorandumaren kolapsoaren ondoren, eta azken asteetan izandako liskarren areagotzeak munduko ingurune ekonomikoa ziurgabetasun eta aldakortasun handi baten mende mantentzen dute. Aurreko hiruhilekoko (maiatzaren 21a) eta oraingo (irailaren 24a) txostenak egiteko kasuen itxiera-dataren arteko aldian, petrolioaren eta gas naturalaren prezioak % 4,0 eta % 52,0 igo dira, hurrenez hurren. Lehengai horien kotizazioek, gainera, gorabehera handiak izan dituzte, gatazkaren bilakaerak baldintzatuta.

Finantza-merkatuei dagokienez, epe luzerako interes-tasak indarrez igo dira. Aurreko hiruhileko

Financiación de la economía

Las últimas proyecciones macroeconómicas publicadas por el Banco de España (BdE) el 9 de octubre señalan cómo el estancamiento del conflicto de Oriente Próximo, tras el colapso del memorando de entendimiento entre Estados Unidos e Irán en julio, y la intensificación de las hostilidades en las últimas semanas mantienen el entorno económico mundial sujeto a una incertidumbre y una volatilidad elevadas. En el período comprendido entre la fecha de cierre de los supuestos de elaboración del anterior informe trimestral (21 de mayo) y la del actual (24 de septiembre), los precios del petróleo y del gas natural han aumentado un 4,0% y un 52,0%, respectivamente. Las cotizaciones de estas materias primas han mostrado, además, fuertes oscilaciones, condicionadas por la evolución del conflicto.

En cuanto a los mercados financieros, han repuntado con fuerza los tipos de interés a largo plazo. Desde la

txosteneko kasuak itxi zirenetik, hamar urterako errentagarritasun subiranoen igoera oinarrizko 63 puntura (op) iritsi da Estatu Batuetan, 42 op Erresuma Batuan, 50 op Alemanian, 70 op Italian, 96 op Frantzian eta 55 op Espainian. Mugimendu hori hainbat faktorek eragin dute, hala nola bonuen eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka handiagoak, jaulkipen publiko eta pribatu handiei lotuta, moneta-politikaren interes-tasen itxaropenak handitzeak eta, neurri txikiagoan, inflazioagatiko konpentsazio handiagoak, eta, kasu batzuetan, jasotako kreditu-arriskuagatik.

BdE-ren hiruhilekoko azken txostenaren arabera, errenta aldakorrak aurrerapenak izan ditu aurreko txosteneko kasuak itxi zirenetik. Horrela, S&P 500 % 3,5 hazi zen; Euro Stoxx, % 3,3, eta IBEX 35, % 8,9, batez ere enpresa-emaitza sendoek bultzatuta. Nasdaq 100 indize teknologikoa % 3,8 igo zen, adimen artifizialari lotutako hazkunde-aurreikuspenen berrikuspenak lagunduta, baina erdieroaleen sektoreak zuzenketa-gertakariak izan zituen aztertutako aldian zehar. Kanbio-merkatuetan, dolarrak euroarekiko %2,1eko balio-handitzea izan zuen. Kanbio-tasaren bilakaera hori bat dator bi eremuetako interes-tasen arteko bi urteko errentagarritasun-diferentziala handitzearekin, moneta-politikako interes-tasen inguruko aurreikuspenak gorantz berrikusi diren testuinguru batean; berrikuspen hori nabarmenagoa izan da Estatu Batuetako ekonomian.

Azkenik, erakunde arautzaileak nabarmendu duenez, prezioen gorakadaren ondorioz, ekonomia aurreratuetako banku zentral gehienek moneta-politiken tonua gogortu dute. Estatu Batuetako Erreserba Federalak eta Europako Banku Zentralak (EBZ) oinarrizko 25 puntu igo zituzten interes-tasa ofizialak iraileko bileran, % 3,75-%4raino estatubatuarren kasuan eta % 2,5eraino europarren kasuan. Testuinguru horretan, merkatu-

fecha de cierre de supuestos del anterior informe trimestral, el incremento de las rentabilidades soberanas a diez años ha alcanzado 63 puntos básicos (pb) en Estados Unidos, 42 pb en Reino Unido, 50 pb en Alemania, 70 pb en Italia, 96 pb en Francia y 55 pb en España. Este movimiento se debe a distintos factores, como un mayor desequilibrio entre la oferta y la demanda de bonos asociado a elevadas emisiones públicas y privadas, a un aumento de las expectativas de tipos de interés de política monetaria y, en menor medida, a una mayor compensación por la inflación y, en algunos casos, por el riesgo de crédito percibido.

Según señala el último informe trimestral del BdE, la renta variable ha registrado avances desde el cierre de supuestos del anterior informe. Así, el S&P 500 aumentó un 3,5 %; el Euro Stoxx, un 3,3 %, y el IBEX 35, un 8,9 %, impulsados principalmente por unos resultados empresariales sólidos. El índice tecnológico Nasdaq 100 subió un 3,8 %, apoyado por la revisión de las perspectivas de crecimiento asociadas a la inteligencia artificial, si bien el sector de los semiconductores experimentó episodios de corrección a lo largo del período considerado. En los mercados cambiarios, el dólar registró una apreciación frente al euro (2,1 %). Esta evolución del tipo de cambio se alinea con la ampliación del diferencial de rentabilidad a dos años entre los tipos de interés de las dos áreas, en un contexto de revisión al alza de las expectativas de tipos de interés de política monetaria, más acusada en el caso de la economía de Estados Unidos.

Por último, el organismo regulador destaca que el incremento de los precios ha llevado a buena parte de los bancos centrales de las economías avanzadas a endurecer el tono de sus políticas monetarias. Tanto la Reserva Federal de Estados Unidos como el Banco Central Europeo (BCE) incrementaron en 25 puntos básicos sus tipos de interés oficiales en su reunión de septiembre, hasta el 3,75%-4 % en el caso estadounidense y el 2,5% en el caso europeo.

espektatibak interes-tasa handiagoetara aldatu dira.

En este contexto, las expectativas de mercado se han desplazado hacia sendas de tipos de interés más elevadas.

Bizkaiaren kasuan eta finantza- jarduerari dagokionez, finantza-erakundeek 2026ko ekainaren azken egunera arte emandako kreditu biziak (eskuragarri dagoen azken datu metatua) urte arteko % 6,8 hazi ziren Bizkaian, eta 2025eko aldi berean % 1,9. Estatuan eta EAE osoan ere igo dira, neurri txikiagoan badaere, % 2,2 eta % 3,8, hurrenez-hurren.


En el caso de Bizkaia y respecto a la actividad financiera, los créditos vivos concedidos por entidades financieras hasta el último día de junio de 2026 (último dato disponible y acumulado) crecieron en Bizkaia el 6,8% interanual, frente al 1,9% alcanzado en el mismo periodo de 2025. También han aumentado, aunque en menor medida, en el Estado y en el conjunto de la CAPV, el 2,2% y del 3,8%, respectivamente.

Bizkaian 2026ko ekainera arte emandako kredituak % 3,2 hazi ziren, baina 2025eko aldi berean % 1,0 igo ziren. Emaitza horren arrazoia da 2023ko lehen hiruhilekotik 2024ko azken hiruhilekora urte arteko aldaketa negatiboak izan zirela etengabe. 2025eko lehen hiruhilekotik aurrera, kredituaren urte arteko aurrerapenak gertatu ziren; izan ere, 2026ko lehen bi hiruhilekoetan % 6,1 eta % 7,6 izan dira.

En términos anualizados, los créditos concedidos en Bizkaia a junio de 2026 crecen un 3,2%, cuando en el mismo periodo de 2025 habían aumentado un 1,0%. Este resultado se debe a que desde el primer trimestre de 2023 hasta el último de 2024 se habían registrado variaciones interanuales negativas de manera ininterrumpida. A partir del primer trimestre de 2025 se revirtió la tendencia sucediéndose los avances interanuales en el crédito, que en los dos primeros trimestres de 2026 han sido del 6,1% y del 7,6%.

Gordailuak, 2025eko apirila eta ekaina bitartean erregistratutako urte arteko -%0,8aren ondoren, berriz aktibatu ziren eta dagoeneko lau hiruhilekoko hazkundea izan dute. Horrela, aurtengo bigarren hiruhilekoan % 12,8ko hazkundea izan dute, azken lau hiruhilekoetako handiena.

Los depósitos, después del -0,8% interanual anotado entre abril y junio de 2025, se reactivaron y han encadenado ya cuatro trimestres de crecimiento. Así, en el segundo trimestre de este año han registrado un incremento del 12,8%, el mayor de los últimos cuatro trimestres.



Bizkaiko etxebizitzen merkatuak, bi urteko hazkundearen ondoren, joera negatiboa izan du 2026ko lehen bi hiruhilekoetan, eta jaitsierak izan ditu salerosketa-eragiketetan. Interes-tasak handitzeak eta kreditua eskuratzeko baldintzak gogortzeak hipoteka-merkatua baldintzatzen dute, kreditua lortzea zailtzen dute eta eskaria oztopatzen dute.

El mercado de la vivienda en Bizkaia, después de dos años de crecimiento, muestra en los primeros dos trimestres de 2026 una tendencia negativa, con descensos en las operaciones de compraventa. El aumento de los tipos de interés y el endurecimiento de las condiciones para acceder al crédito están condicionando el mercado hipotecario, dificultando el acceso al crédito y lastrando la demanda.

Horren ondorioz, hipoteken kopurua jaitsi egin da, baina hipoteketan esleitutako zenbatekoak gora egin du. Hala, 2026ko apiriletik ekainera bitartean, Bizkaiko hipotekek –% 5,7 egin dute behera urterik urte, duela urtebete baino 230 hipoteka gutxiago sinatu baitira. Alabaina, eragiketetan esleitutako zenbatekoa hazi egin da, % 10,2 urterik urte (70 milioi euro gehiago).

Como resultado, las hipotecas han caído en el número que se firma mientras crecen en el importe consignado. Así, entre abril y junio de 2026 las hipotecas en Bizkaia apuntan un descenso interanual del -5,7%, firmándose 230 menos que hace un año. Sí crece el importe consignado en las operaciones, un 10,2% interanual (70 millones de euros más).

Urteko lehen sei hilabeteetan eta urte arteko terminoetan, Bizkaian hipoteken kopurua –% 10,8 jaitsi zen, baina emandako zenbatekoa % 9,0 handitu zen.

Merkataritza-sozietateen sorrerak, berriz, erritmo onean jarraitu du aurrera egiten 2026ko lehenengo seihilekoan, % 10,6: 2025eko aldi berean baino 119 sozietate gehiago sortu dira. Hiruhilekoen arabera, 2026eko apiriletik ekainera bitartean % 9,6 gehitu dira enpresa berriak urterik urte, eta, beraz, elkarren segidako bost hiruhilekok izan dituzte urte arteko aurrerapenak. Alabaina, urtarriletik ekainera bitartean sinatutako kapitala –% 5,7 jaitsi da, lehenengo hiruhilekoak emandako datu txarrarengatik soilik (–% 58,8), bigarrengoan gora egin baitu, urte artean % 112,0ra iritsi arte.

En los seis primeros meses del año y en términos interanuales, en Bizkaia el número de hipotecas perdió el -10,8%, mientras que el importe concedido aumentó un 9,0%.

Respecto a la creación de sociedades mercantiles, durante el primer semestre de 2026 sigue avanzando a buen ritmo, un 10,6% y 119 sociedades más que en el mismo periodo de 2025. Por trimestres, con el incremento interanual de nuevas mercantiles del 9,6% anotado entre abril y junio de 2026 son ya cinco trimestres consecutivos de avances interanuales. Por el contrario, el capital suscrito de enero a junio cae un -5,7%, debido, exclusivamente, al mal dato del primer trimestre, un -58,8%, ya que en el segundo rebota hasta aumentar un 112,0% interanual.

Prezioen bilakaera


Bizkaiko KPIaren urte arteko aldakuntza-tasa % 4,9n kokatu zen abuztuan, uztaileko datutik bederatzi hamarren gora, eta horixe da 2023ko otsailetik (% 5,9) izandako ehunekorik altuena, garai hartan Ukrainiako gerrak prezioak goratu baitzituen. Orain, Ekialde Ertaineko krisialdia bera eta krisialdi hori energiaren prezioetan eragiten ari den igoera dira prezioak asko goratzen ari direnak.

Abuztuan, honako osagai hauek hazi dira gehien, eta guztiek izan dituzte urteko maximoak hilabete horretan: garraioa (% 9,9), etxebizitza (% 6,3), ostalaritza (% 5,9) eta elikagaiak eta alkoholdun edariak (% 4,5). Beste aldean, jantziek eta oinetakoek (–% 0,4) eta aisialdiak eta kulturak (% 1,6, uztailean baino puntu bat gutxiago) bakarrik erakutsi dute portaera positiboa.

Evolución de los precios

La tasa de variación interanual del IPC de Bizkaia se situó en agosto en el 4,9%, nueve décimas por encima del dato de julio, siendo el porcentaje más alto desde febrero de 2023 (5,9%) cuando todavía los efectos de la guerra de Ucrania golpeaban al alza a los precios. Ahora es la crisis de Oriente Medio y su efecto sobre la subida de los precios energéticos la que está impulsando a los precios a unos niveles muy elevados.

En agosto han sido el transporte con un incremento del 9,9%, la vivienda del 6,3%, la hostelería del 5,9% y los alimentos y las bebidas alcohólicas del 4,5% los componentes que más han crecido, marcando en todos los casos máximos anuales. Únicamente los componentes de vestido y calzado, que baja el -0,4% y ocio y cultura, que crece el 1,6%, un punto menos que en julio, muestran un comportamiento positivo.



5. Munduko ekonomiarako aurreikuspenak 2026an eta 2027an

Munduko ekonomiarako aurreikuspenak munduko ekonomiari dagokion atalean aurkeztu dira.

5.1 Espainiako ekonomiarako aurreikuspenak 2026-2027 aldian

NDFk, uztaileko *Proyecciones de crecimiento de la economía mundial* txostenean, apirileko txostenean aurreikusten zituen hazkunde aurreikuspen berak ditu Espainiarentzat, % 2,1ekoa 2026an eta % 1,8koa 2027an. Bi kasuetan, Espainiako ekonomiaren hazkundea Euroguneko batez bestekoak erregistratutakoa baino handiagoa izango da, aurten % 0,9 izango baita eta 2027an % 1,2ra igoko baita.

Europako Batzordeak, udaberriko Aurreikuspen Ekonomikoetan, adierazten du Espainiarentzat BPG erreala sendo mantenduko dela 2026an, baina pixkanaka motelduko dela, Ekialde Hurbileko gatazkak duen eragin kaltegarriaren ondorioz. Hazkunde ekonomikoa, batez ere, barne-eskariak bultzatuko du,

5. Previsiones para la economía mundial en 2026 y 2027

Las previsiones para la economía mundial ya se han presentado en el apartado correspondiente a la economía mundial.

5.1 Previsiones para la economía española en 2026-2027

El FMI, en sus *Proyecciones de crecimiento de la economía mundial* de julio mantiene para España las mismas previsiones de crecimiento que estimara en el informe de abril, del 2,1% en 2026 y del 1,8% en 2027. En ambos casos el crecimiento de la economía española será superior al registrado por la media de la zona euro, que este año se situará en el 0,9% y en 2027 repuntará hasta el 1,2%.

La Comisión Europea, en sus Previsiones Económicas de primavera, señala que para España el PIB real se mantendrá sólido en 2026, pero que se desacelerará gradualmente debido al impacto adverso del conflicto en Oriente Medio. El crecimiento económico se verá impulsado principalmente por la demanda interna,

lan merkatuaren jarduera sendoak eta inbertsioaren hazkundeak lagunduta. Aurreikuspenen arabera, Estatuko BPGa % 2,4 hedatuko da aurten (2025ean baino lau hamarren gutxiago), eta 2027an % 1,9ra jaitsiko da.

Aurreikusten da barne-eskariak gidatuko duela hazkunde ekonomikoa 2026an eta 2027an, batez ere kontsumo pribatuaren hazkundeak eta inbertsioak bultzatuta. Espero da kontsumitzaileen gastua enpleguaren hazkundearen onuradun izatea, barne-migrazio iraunkorreko testuinguru batean eta historikoki txikia izan den etxekoen unitateen palanka-efektuan. Era berean, proiektatzen da enpresa ez-finantzarioen posizio finantzario sendoak, Berreskurapen eta Erresilientzia Planaren inplementazioarekin batera, kapital finkoaren eraketaren garapen positiboa sostengatuko duela, bereziki eraikuntzako aktiboetan eta ukiezinetan. Aitzitik, aurreikusten da esportazio garbiek negatiboki lagunduko diotela BPGaren hazkundeari 2026an, ondasunen esportazioen bilakaera zalantzazkoa islatuz, 2027an ia modu neutroan lagundu aurretik.

Ekonomiak aurre egin beharreko arrisku nagusiak jarduera turistikoaren balizko ahultzeari buruzkoak dira, eta horrek, bereziki, urrutiko helmugetatik datozen turisten etorrerari eragiten dio, bidaia-kostuak handitzearen eta joan-etorriekin lotutako beste etenaldi batzuen ondorioz. Tentsioak areagotzeak konfiantza are gehiago murriztu lezake, eta horrek sektore pribatuaren portaera zuhurraren aldi luzea eragingo luke, eta horrek eragin negatiboa izango luke enpresen inbertsioan eta kontsumo pribatuaren hazkundean.

Lan-merkatuari dagokionez, aurreikusten da migrazio-kopuru handiak lan-indarraren hedapen handiagoa eta enpleguaren sorrera bultzatuko dituela aurten. Hala ere, azken urteetako jardun sendoaren ondoren, lan merkatuak dinamismoa galtzea proiektatzen da, iragarpen horizontean hazkunde ekonomikoak pixkanaka izan duen dezelerazioarekin bat etorriz.

respaldada por un sólido desempeño del mercado laboral y por el crecimiento de la inversión. Se prevé que el PIB del Estado se expanda un 2,4% este año (cuatro décimas menos que en 2025), moderándose hasta el 1,9% en 2027.

Se prevé que la demanda interna lidere el crecimiento económico en 2026 y 2027, impulsada principalmente por el crecimiento del consumo privado y la inversión. Se espera que el gasto de los consumidores se beneficie del crecimiento del empleo en un contexto de migración interna sostenida y un apalancamiento de los hogares históricamente bajo. Asimismo, se proyecta que la sólida posición financiera de las empresas no financieras, junto con la implementación del RRP (Plan de Recuperación y Resiliencia), sostendrá el desarrollo positivo de la formación de capital fijo, particularmente en activos de construcción e intangibles. Por el contrario, se prevé que las exportaciones netas contribuyan negativamente al crecimiento del PIB en 2026, reflejando la evolución incierta de las exportaciones de bienes, antes de contribuir de manera prácticamente neutra en 2027.

Los principales riesgos que enfrenta la economía se refieren al posible debilitamiento de la actividad turística, que afecta especialmente a la afluencia de turistas procedentes de destinos lejanos debido al aumento de los costes de viaje y otras interrupciones relacionadas con los desplazamientos. El incremento de las tensiones también podría mermar aún más la confianza, lo que provocaría un período prolongado de comportamiento cauteloso por parte del sector privado, con el consiguiente impacto negativo en la inversión empresarial y el crecimiento del consumo privado.

Respecto al mercado laboral, se prevé que la fuerte afluencia migratoria impulse una mayor expansión de la fuerza laboral y la creación de empleo este año. Sin embargo, tras el sólido desempeño de los últimos años, se proyecta que el mercado laboral pierda dinamismo, en consonancia con la desaceleración gradual del crecimiento económico durante el horizonte de

Aurreikuspenen arabera, langabezia-tasak beheranzko joerari eutsiko dio, baina iraganean baino erritmo motelagoan, enpleguaren hazkundea lan-indarraren hedapena baino azkarrago motelduko baita. 2026an % 10,0tik behera jaistea espero da, lehen aldiz 2008tik, % 9,9ra arte eta 2027an % 9,6ra arte.

IAPCk (Kontsumo Prezioen Indize Harmonizatua) neurtutako urteko inflazioa pixka bat handituko da 2026an, % 3,0ra iritsiz, energiaren prezioen igoera handiak eta elikagaien eta industria ondasunen prezioetan duen eragin mailakatuak bultzatuta. Hori larriagotu egingo da zerbitzuen gaineko presio inflazionista etengabearen ondorioz, eta azpiko inflazioak bilakaera etengabea izango du datozen hiruhilekoetan eta 2027an zehar. Hala ere, aurreikusten da inflazio orokorra % 2,5era jaitsiko dela datorren urtean, energia inflazioa pixkanaka apaldu ahala. Eskulan eskasiaren testuinguruan, prezioen igoera orokorrak goranzko presioa egingo du soldata nominalen hazkundean, eta 2026an zein 2027an inflazio tasa gainditzea espero da.

